

## BERBA-MINTZOAK bilduma

### 1. *Denboraren gurpilean*. 2024

*Denboraren gurpilean* es el primer número de la recién estrenada colección de Euskaltzaindia, Berba-mintzoak. La colección reivindica y socializa el valor del habla popular, a través de la elaboración y publicación de monografías sugerentes y de sencilla comprensión.

El prolífico corpus de la obra *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (EHHA) es la piedra angular del proyecto, que en esta ocasión trata el concepto del tiempo en la sociedad tradicional vasca.

\*\*\*

*Denboraren gurpilean* est le premier numéro de la nouvelle collection Berba-mintzoak lancée récemment par Euskaltzaindia. La collection revendique et fait connaître la valeur du parler populaire, grâce à la création et à la publication de monographies intéressantes et faciles à comprendre.

Le vaste corpus de l'atlas *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (EHHA), c'est la pierre angulaire du projet, qui a cette occasion traite de la notion de temps dans la société basque traditionnelle.

\*\*\*

*Denboraren gurpilean* is the first part of the recently-launched collection by Euskaltzaindia, Berba-mintzoak. The collection highlights and disseminates the value of everyday speech, through the preparation and publication of stimulating, easy-to-understand monographs.

The extensive corpus of the atlas *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (EHHA) forms the cornerstone of the project, which on this occasion studies the concept of time in the traditional Basque society.



**EUSKALTZAINDIA**  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



EUSKALTZAINDIA

Berba-mintzoak  
Denboraren gurpilean

1

BERBA-MINTZOAK



**Euskaltzaindia**

**Ahozko Euskararen Thesaurus (AET)**

1

# Denboraren gurpilean



*Denboraren gurpilean* liburua, Euskaltzaindiaren Berba-mintzoak bilduma berriaren hasikina da, goizetiko alea. Herri-hizkera mintzatuaren altxorra era ikasgarri eta ondo sailkatuan plazaratzea da beronen xedea.

Horren zimendu nagusia Euskaltzaindiak joan den mendeko 80ko hamarkadan abian ipini zuen *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (EHHA) lanaren ekarria da, batez ere 2008-2020. urte bitartean argitara eman diren hamar liburuetan datzana, eta aldi berean gure atlasaren corpus ugarian oraindik gordeirik diren hainbat edukiz ongarritu eta aberastua. Ondare hori aztertu eta ezagutarazteko zeregina Ahozko Euskararen Thesaurus (AET) egitasmoak bere gain hartu du.

Denboraren esparruaz hasiera eman zaion bilduma honek, hurrenez hurren, euskaldunon bizimodu tradizionalan esanguratsu izan diren beste eremu batzuk modu hautatuan hartzeraz eta lantzeraz joko du.

Hitz batez esanda, herri-mintzairaren gordailua balioetsi eta era landu, ulergarri eta erakargarrian gizarteratzea da bildumaren jomuga.



**EUSKALTZAINDIA**

AHOZKO EUSKARAREN THESAURUSA (AET)

# **DENBORAREN GURPILEAN**

**Berba-mintzoak**

**1**

Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekako katalogoan:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la Biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la Langue Basque:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language:

[www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)



**EUSKALTZAINDIA**

REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADÉMIE DE LA LANGUE BASQUE



Hizkuntza-orraketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia (HIZBEA)

Lan hau erreproduzitu, banatu, jendaurreratu edo eraldatzeko, titularren baimena behar da nahitaez, Legeak ezarritako salbuespen kasuetan izan ezik. Lan honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu behar baduzu, jarri harremanetan CEDROekin (Centro Español de Derechos Reprográficos, [www.cedro.org](http://www.cedro.org)).

© EUSKALTZAINDIA / R.A.L.V. / A.L.B.

Gainazal- eta testu-diseinua: Idoia Tolosa

Ilustrazioak: Markel Urrutia

Inprimatzea: Tecnigraf

ISBN (bildumarena): 978-84-129458-5-0

ISBN (zenbaki honena): 978-84-129458-6-7

Lege-gordailua: LG BI 1767-2024

**Adolfo Arejita**

Zuzendaritza eta idazketa

**Aritz Abaroa**

EHHako mintzatestuen hautaketa,  
sailkapena eta lehen idazketa

**Xabier Boveda**

Idatzien begiralea

**Zuriñe Goitia**

Koordinazioa



*Eskerrak eskerren gain zuoi, euskara «handiago» egiten  
duzuen berba-mintzo «txikiko» berriemaileoi.*



# Aurkibidea

**Aurkezpena.** *Andres Urrutia* (Euskaltzainburua) ..... 13

**Atarikoak.** *Adolfo Arejita* (AET egitasmoaren zuzendaria) ..... 15

## GAI-SAILAK

### 1. Denboraren antolaketa

#### 1.1 Astearen egunak

Astelehena / Ilena ..... 21

Asteartea / Martitzena ..... 23

Asteazkena / Eguaztena ..... 26

Osteguna / Ortzeguna / Eguena ..... 27

Ostirala / Ortziralea / Barikua ..... 29

Larunbata / Zapatua / Ebiakoitza ..... 35

Igandea / Domeka / Jaia ..... 39

Asteburua / Astegoiena / Aste-bukaera / Aste-akabua ..... 42

#### 1.2 Urtaoak

Udaberria / Primadera / Bedatsea ..... 45

Uda / Udara ..... 48

Udazkena / Larrazkena / Udagoiena ..... 52

Negua ..... 55

### 1.3 Urteko hilabeteak

Hila / Hilabetea .....	61
Urtarrila / Ilbelta / Izotzila / Loila .....	64
Otsaila / Zezeila / Barantaila / Katuila .....	69
Martxoa / Martia / Epaila .....	73
Apirila / Jorraila .....	80
Maiatza .....	85
Ekaina / Bagila .....	89
Uztaila / Garagarrila / Garila .....	93
Abuztua / Agorrrila .....	95
Iraila / Buruila / Agorra .....	99
Urria / Urrieta / Lastaila .....	104
Azaroa / Zemendia / Hazila .....	107
Abendua / Gabonila .....	109

## 2. Egunaren atalak eta agurrak

### 2.1 Egunaren atalak

Egungentia / Argi-hastea / Goiznabarra .....	117
Goizalde / Goizean goiz .....	125
Goiza .....	129
Eguerdia .....	135
Arratsalde / Arrastia / Arrastiria .....	139
Iluntzea / Ilunabarra / Arratsa .....	143
Gaua .....	150
Gauerdia .....	155

### 2.2 Agurrak

Egun on! .....	157
Arratsalde on! / Arrasti on! .....	162
Gabon! .....	165

### 3. Urteko egun seinalatuak

Urteberri .....	171
Errege eguna / Erregen eguna .....	176
Zotalegunak / Hilegunak .....	183
Kandelario / Gandelairu .....	187
Santa Ageda / Santa Agata .....	193
Inauteria / Karnabala / Aratustea .....	199
Ostegun Gizen / Eguen Zuri .....	209
Hausterre / Hauste / Hautsegun .....	215
Garizuma .....	217
Erramu eguna .....	221
Pazko .....	227
Bestaberri / Gorpuzti / Corpus .....	235
Tenporak / Kartatenporak .....	242
Jondone Joane / Doniane / San Juan .....	247
Domu Santu / Omiasaindu / Santu Guztien Eguna .....	259
Eguberri / Natibitate .....	262

#### ERANSKINAK

A. Glosarioa .....	269
B. Mapa-zenbakien zerrenda .....	283

#### BIBLIOGRAFIA

A. Oinarria .....	287
B. Iturri osagarriak .....	287
C. Laburdurak .....	298



# Aurkezpena

Euskaltzaindiak, *Denboraren gurpilean* izenburu duen liburu honekin bilduma berri bati hasiera eman dio, BERBA-MINTZOAK bildumaren liburu-sortari.

Bilduma sortu berri honen xedea da, euskararen Akademiak aurreko mendearen 80ko hamarkadan abiarazi zuen *Euskararen herri-bizkeren atlasa* (EHHA) egitasmo nagusia, eta oraingo mendearen 20ko hamarkada hasieran, hamaika liburuki argitaratu ondoren burutu zen obra nagusiaren edukia plazaratzea, gizarteratzea, modu lau eta erakargarri batez.

Hala, Euskaltzaindiak bere-bere dituen bi hitzez, *Iker* eta *Jagon* berben bidez argitzen da helburua: ikertu eta bildu den eduki aberatsa herritarren eskura era errazean ezartzea. Azken finean, euskaraz mintzo diren herritarren ahoz jalki diren eduki anitzak, bildu den herri-jakintza multzo ugaria xeheturik eta era antolatuan berriro ere euskal gizartearen eskuetan jartzea.

Gai nagusi batzuk begiz jo ditu Euskaltzaindiak, EHHAn emari aberats hori BERBA-MINTZOAK bilduma honen bitartez ezagutzera emateko. Hamahiru gai-sail nagusi hautatu ditugu oraingoz, aleka garantzen joateko. Horra bilduma berri honen arrazoia.

Lehen aleari *Denboraren gurpilean* ipini zaio izenburutzat. Denboraren mundua ikuspeirik zabalenaz harturik landu da liburu honetan. Astearen egunak, urtaroak, hilabeteak, egunaren atalak, urteko jaiegun eta ospakizun nagusiak aztertu dira.

EHHAn bildu den edukia ez da izenetara mugatu. Batu den mamia, izeneta-tik haratago doa. Inkesta bete eta osatu den Euskal Herriko 145 herriguneetan, izenez gainera herri-jakintzari doazkion hainbat datu gehiago jaso dira: sineste, ohitura, esaera, gertaera eta beste.

Orain argia ikusi duen bilduma berrian, gure atlasaren hamaika liburuki argitaratuetan ez datozen datu asko ageri dira, atlasaren barruko corpusean bildurik, baina orain arte estalian zeudenak. Hori da Berba-mintzoak bilduma honek ekarriko duen emendakin aberasgarrietariko bat.

Euskaltzaindiaren lexikografia altxorra aberastera dator, dudarik gabe, *Denboraren gurpilean* liburu hau, eta ostean etortzekoak diren hamabiren bat,

gure gogo-asmoetan behintzat... Baina bidea ibilian egiten dela eta, lehen ale honen amaieran, eranskin gisa hornitu den glosarioa duzue, irakurleok, hastapeneko adierazgarri bat.

Aurkezpen honi amaiera emateko, ez genituzke ahantzi nahi euskararen Akademiak ikerrildo honetan lehendik dituen aurretiko enbor-lanak: *Erizkizundi irukoitza*, gudu aurreko urteetan, orduko euskaltzain oso eta urgazleen ahaleginez egin edo erdi-burutu zen bilketa; baliabide urriz baina gogo handiz. Eta bigarrena, garaiko euskaltzainburuak, R.M. Azkuek, Akademiaren inguruko laguntzaile asko tartean zirela, ondu zuen *Euskalerraren yakintza* obra nagusia.

*Izan zirelako gara.* Eta baita, ahantzi gabe gogora dezagun: *garelako izango dira.*

Andres Urrutia  
*Euskaltzainburua*

# Atarikoa

Euskaltzaindiak bilduma berri bati hasiera eman dio *Denboraren gurpilean* izenburutzat dakarren liburu honekin. BERBA-MINTZOAK deritza bilduma berri honi.

Sorreratik gehiago euskararen Akademiak, ardatz-ardatzeko dituen ikersailetariko bat izan du dialektologia, herri-hizkeren bilketa, sailkapena eta ikerketa. Ez zen alferrik sortu euskararen erakunde nagusi hau, R.M. Azkueren eraginez eta gidaritzaz. xx. mendearen hasieran argitaratu zuen bere hiztegi nagusia, *Diccionario vasco-español-francés*, eta hainbat geroago plazaratu zuen *Euskalerrriaren yakintza*, Euskaltzaindiak sortu zenik gora garatu dituen ildo honetako azterlanen iparrorratza.

Mende bat da, hortxe-hortxe, Euskaltzaindiak lehen hizkera-atlas ahalegina egin zuela: *Erizkizundi irukoitza. Triple cuestionario / Triple questionnaire* (EI); 1922-1925. urte bitartean jaso izan zen. Igaro den mendearen 20ko hamarkadan burutu eta zati on bat argitaratu ere egin zen *Euskera* aldizkarian. Helburu nagusia, aldi hartan, hizkuntzaren batasuna finkatzeko, aintzat hartu beharreko gider bat izatea zen. Tamalez gero ez zen hala gertatu, gerratearen etena bitarte.

Mendearen 80ko hamarkadan abian jarri zuen Euskaltzaindiak *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (EHHA), hamaika liburukitan argitaratu izan dena eta 2020an guztiz buru eman. Koldo Mitxelenaren nahimen eta bultzada ahantzezinak dira berebiziko egitasmo honen hastapenetan.

Askoren beldurra izan zen beranduegi ote zenetz, mende beteko ibilian euskara biziak artean galduak zituen herri-mintzaireren bilketa hau egiteko. Baina atlas berri bat egitearen aldeko oldarra askoz sendoagoa gertatu zen.

Unibertsitateetan jaio berri ziren euskal filologia ikasketak, eta tokian tokiko hizkeren monografiak egitera zuzendu ziren ikerketa asko euskal lurralde ia guztietan. Erbesteko eta etxeko ikertzaile gazteek jardun zuten grinatsuki. Aurretiko garbi bat zegoen agerian. *Erizkizundi irukoitza* egin zenetik EHHA bilketa egin zen aldi-tarte horretan, euskara aldendua zen bazter-lurraldeko zenbait herri eta herrixkatatik: Nafarroan Iruñerriko gehienak, Erronkarik eta Zaraitzuk, eta Araban Zigoitiak, Aiaraldeko Baranbiok eta Lautadako herriek galduak zituzten herri-mintzairok.

Baina EHHA euskararen bigarren atlas egitasmo horrek, 1983tik aurrerakoak, aldeko baldintzak ere bereak zituen. Europako alderdi askotan eginda zeuzkaten ordurako euren hizkuntza-atlasak, metodologia askoz landuago eta zehatzagoa erabiliz, gainera. Baliabide teknikoak, informatizazioa eta soinu bidezko datu-biltzea barne, hainbat ere garatuago zeuden. Eta inkestari berari dagokionez ere, galdera-edukiz hornituago bat atondu zen; emaitzak ere askoz ugariago eta oparagoak gertatu ziren, jakina.

BERBA-MINTZOAK bilduma berri hau abiaraztean, zein dira gure helburuak? Orain arte EHHAREN hamaika liburukietan argitaratu dena baino urrunago joatea. Liburukiotan argitara eman den edukia, eta ondoren sarean eskegi dena, bildu izan denaren puska bat baino besterik ez da: galde-inkesta luzeari eman zaizkion erantzun zuzenak biltzen ditu batik bat agerira atera den horrek.

Baina berriemaileek ezpainenatik jalgi duten edukia emari askoz aberatsagoaren jabe da. Emari hori ezagutaraztea eta gizarteratzea da, BERBA-MINTZOAK bilduma honen bidez jadetsi gura duguna. Bestela esanda, ikerkuntza eta jakintza herriratzea.

Hizkuntza biziak, eta euskara ere, ibilian-ibilian aldatzen doaz. Aspaldi zenaren irudia eta gaur dena ez dira bat... Hitzak, esamoldeak, irudiak etengabeko aldaeran daude. Eta gure EHHAREN kasuan ere, ohar gaitezen, aurreko mendeko 80ko hamarkadatik 90ekora bitarteko herritar hiztunen ispilu direla, liburu honetan eta hurrengoetan berriemaileek kontatu dizkiguten gai-edukiak eta eurok kontatzeko duten modua. Berriemaile haien lanbideak ere, anitz galduak dira, eta betiere aldaturik daude gaurko euskaldunon gogo-begietan.

Baina, Joxe Migel Barandiaranek sarri gogorarazten zigun bezala: lehena ez dugu aztertzen lehenari eutsirik irauteko, baizik eta geroko bideak ondo asmatzeko, etorkizuneko urratsetan hutsik ez egiteko.

Beraz, hizkuntza-atlasa du sustrai BERBA-MINTZOAK bilduma berri honek, eta horren erakusgarri da esku artean duzuen *Denboraren gurpilean* bere lehen liburu hau ere. Hizkuntzatik, hizkuntza-kontzeptuak oinarri direla sorturiko atlasen datza bere eduki nagusia. Egin ziren galde-inkestek emandako erantzunak, batzuk soilak gertatu ziren, beste batzuk, ordea, hezurmamituagoak, soinekoz jantziagoak, esan nahi da. Ondorioz, denboraren eremu semantiko horretako gai behinenei oratu diegu; baina, funtsezkotzat ditugun beste batzuk, ordea, ageri ere ez dira erantzunetan egin eta ez ditugu landu. Beste batzuetan, jaso dugun

informazioa urri gertatu da, eta beste iturri batzuetatik hornitu edo osatu behar izan da. Azkue eta Euskaltzaindiari atxikirik izan diren ikertzaileen lana berariaz kontuan hartu dira, baina hortik atekoak ere bai, behar izan denean.

Alabaina, EHHArako bildu ziren eduki mintzatuei eman zaie lehentasuna. Lekukoek isuri dizkiguten berba-ekarriak izan dira berariaz lantzen lehiatu garenak. Ahoz esan dutena zehatz, baina irakurleentzako era ulergarrian, transkribatzen saiatu gara, eta ondoren euskara eredu batuan ahalik eta fidelkien eskaintzen, denen gustuko egitea erraza ez bada ere.

Liburura batu diren edukiak, lexikografiatik haruntzago doaz: etnografia eta beste kultura-eduki batzuk ere barnean daude, batez ere berriemaileen eskutik, ahotik, heldu zaizkigunean. Azkuek urratu eta landu zuen bideari jarraiki, herri-jakintza eta herri-gogoia ere azterkizun izan dira.

Idatzizko tradizioan ere behin eta berriro murgildu izan gara, bereziki Euskaltzaindiaren OEH corpus historikoan. Batzuetan, gure atlasaren emaitzekin diren kidetasunak bilatzeko, eta beste batzuetan diferentziak. Orobat, euskara mintzatua joana den eremuetan nola esan izan diren kontzeptuok gogora ekartzeko.

Herri-hizkera jaso izan duten beste iturri batzuk ere aztertu ditugu, baina ez era sistematikoz; eskuraerraz ziren iturriak hartu dira aintzat batez ere. Errefrauei eta esapideei kutun erreparaturik, nolabait.

Testuan barrena laburdurak erabiltzera jo dugu maiz erosotasunarren; errazbideak bilatzera. Lurraldeak eta testu-atalen iturri bibliografikoak aditzera emateko, oro har.

Bestetik, liburuko atal bakoitza QR irudiaz horniturik dago. Horren bidez, nahi duenak, EHHAn baturik dauden hizkuntza-mapetara jo dezake, atalean-atalean landutako lexiko-adierazpen guztien irudikapen geografikoa izateko.

AET Lantaldearen borondatea, gogoia eta ahalegina aipatu eta goretsi nahi ditut azkenik. Sinetsi egin behar da gauzetan, onik eta sendorik aterako badira. Lantaldearen sinesmen hori ezinbestekoa gertatu da, *Denboraren gurpilean* liburu hau burura zedin.

Hizbea zerbitzuaren gogo-kidetasuna ere, aringarri ez ezik, lagungarri izan dugu liburuaren azken ibilbidean. Nagore Etxebarria teknikariak honetan egin duen lana, estilo-zuzentzeaz haruntzago joan da. Bilduma berriaren lehen liburu

honen eta ondoren datozkeenen metodologia-zehaztasun anitz finkatu dira haren begi zoliari esker, aurrerantzeko argitaratze-jarduna AET egitasmoari lagunduko diotenak.

Euskaltzaindiak, bere Zuzendaritzak berariaz, ekimen honi eman dion babes eta bultzada ere eskertu nahi ditut oroztat, arestian aldarrikatutako sinesmenaren euskarri izan delako.

Beraz, EHHaren eduki nagusien barruan etorkizun diren esparru semantikoetan murgilduta jarraituko dugu aurrerantzean ere, orain hasikina dugun emaitza biribiltzen eta hobetzen, betiere, talde-lana den honetan irakurle izango zaretenok ere ohargile eta laguntzaile ahalaz bihurtzeko asmoan.

Adolfo Arejita  
Ahozko Euskararen Thesaurusa (AET)  
*Zuzendaria*

1

# **DENBORAREN ANTOLAKETA**



# 1.1 Astearen egunak

## ASTELEHENA / ILENA

Euskararen eremuan, astearen lehen egunaren izenaz galdegitean **astelehen** eta honen aldaerak (*astelen, asteleen, astelein, asteilen*) dira nagusiki jaso izan diren erantzunak.

Bizkaieraren sartalderengo hizkeretan **ilena** bizirik da oraindik hiztunen artean. Lemoiz eta Sondikan (B), *illen* eta *ilen* formak bildu dira. Sondikakoaren iritzian: *Euskera onesko berbas, ilena; erderaz basaus, astelena*. <Euskara onezko berbaz, “ilena”, baina erdaraz bazaude, “astelehena”>. Leioa, Orozko eta Etxebarrin (B) bigarren formatzat bildu da «ilena». Leioakoaren esana: *“Ilena” be bai, bai guk “en general” “astelena”*. <Ilena ere bai, baina guk jeneralean “astelehena”>. «Ilen» izena, gutxi-asko bizirik da oraindik Uribe Kosta eta Txorierriko hurbileko herrietan. Berangon (B): *Eta yote giñen trapu sar bateas belaunbiko parateko eta gero a ekarri, siketu, eta prepara in ber illenan eroteko* (I. Gaminde). <Eta joaten ginen trapu zahar batekin belauniko paratzeko eta gero hura ekarri, sikatu, eta prestatu egin behar astelehenean eroateko>.

Lehenagoko aldietan eremu zabalagoetan erabili izan da «ilen» izena sartalde zabalean, Bizkaian zein Araban. Mende bat aitzinago, gudu aurrean egin zen *Erizkizunde irukoitza* (EI) galdetegian, Mungialdean (Meñaka, Jatabe), Txorierri (Zamudio) erabiliagoa zen, Nerbioiko ibarreko herrietan orobat (Ugao, Arrankudiaga, Laudio) eta Arabako Lautadako herrietan ere bai (Etxaguen, Murua, Gopegi). *Orotariko euskal hiztegiaren* (OEH) corpusean, sartaldeko beste hainbat lekutan ere erabiltzat ematen da.

Astelehenaz eraikia da **astelehen gorri** izena, berariaz Iparraldean erabilia, ‘lanegun’, ‘astegun’ adiera emateko: «Astelehen gorrian alfer dago» (J.M. Hiribarren).

Aste Santu barruan, astelehenari eman izan zaizkion izenak dira: **Astelehen Santu**, euskararen eremurik handienean —**Astelehen Saindu**, Iparraldeko hizkeretan—, eta **Astelehen Guren**, sartaldeko bazterrean. Azkuek astearen

lehen bi egunei dagozkien izenak jaso zituen: «Eztakit iñoiz entzun izan dozun egun onei Bizkaiko toki askotan, batez bere Arratian ta Txorierrin, ezarten dautsen goitizena: “Astelen Guren”, “Martitzen Guren”» (*Txirristadak*).

Inauteri-zikloaren barruan ere, **astelehen inaute**, edo horren aldaerak diren *astelenita* eta *astelehen ihaute* formak, eta beste izen gehiago ere erabiltzen dira.

«Astelehen» izena bigarren adiera batez, irudi-izen gisa erabili izan da euskal herri askotan.

Iparraldean zenbait testigantza jaso dira, astelehenaren esanahia ‘mozkorrondo’, ‘biharamun’, ‘aje’, ‘oste’ adiera gordetzen dutenak.

Zenbait herritan, mozkorra harrapatu ondoko nekeari, mozkorrondoari erreferentzia egiteko ere erabiltzen dute astearen egun honen izena.

- Donibane Lohizunen (L) honela azaldu dute: *Ze astelena duen orrek! Burua pisu eta...* <Ze astelehena duen horrek! Burua pisu eta...>.
- Azkainen (L) beste esamolde hau eman digu lekukoak: *A ze astelena duen hunek! Ze pesta!* <A zer astelehena duen honek! Zer festa!>.
- Saran (L) ere berdintsu: *Igandean ogean egoten ezte laik, “ze asteleena... igual!”*. <Igandean ohean egoten ez delarik, “ze astelehena... igual!”>.
- Ürrüstoin (Z) «buruko mina» eta «astelehena» sinonimo modura erabiltzen dira: *Büümin edo astelehen dik*. <Buru-min edo astelehen dik>.
- Eskiulan (Z) ere horrela jaso da: *Astelehena haundia badük*. <Astelehena handia baduk>.
- Bergaran (G): *Egundoko astelenakin joan nintzuan lanera* (J.M. Elexpuru). <Egundoko astelehenarekin joan ninduan lanera>.
- Eta Zestoan (G): *Gaur jesukriston astelena dakat* (A. Azpeitia). <Gaur jesukristoren astelehena daukat>.

\*\*\*

Errefrau gisa ere badirau «astelehen» izenak, ‘biharamun’ egun bezala: «Astelen buru-aundi. Igandean geiegi edan, ta astelenean burua pisu» (NEZ 324).

Gure herrietako gizarteetan astelehena festa ondoko eguna izan da, igandea jai-eguna izan delako. Herri-iritzi, -kantu eta -lokuzioetan ere sarri aipatu da hartakotzat. Dantza-kopla baten hitzak dira: «Ispasterko aretxak / baleki berbetan, / zer esan euko leuke / astelen goizetan» (*Ekin* aldizkaria).



## ASTEARTEA / MARTITZENA

Euskararen eremuan, astearen bigarren eguna izendatzeko erabiltzen diren izenak, nagusiki, bi dira. Sartaldean: **martitzen** eta honen aldaera desberdinak (*martitzen, martixen, martitsen, martisen*). Eta erdialdean eta ekialdean: **astearte** eta honen aldaerak (*astiarte, astierte, astirte, asteart, asteharte*).

Gainerako aste-izen guztiak bezala, izen arrunten gramatika zaintzen dute izenok: «astearte» (-a) eta «martitzena» (-a).

Hizkera-eremu batean eta bestean izen jakinak erabiltzen diren arren, lekukoetariko batzuek argi utzi dute, forma bat erabili arren, bestea ere ezaguna dutela. Bigarren izendapen hori, baina, batzuek berriagotzat jotzen dute, edo beste lekuren batean erabilitakotzat.

Hala, Etxebarrian (B) «martitzen» darabilte, baina «astearte» ere ezaguna dute, eta Gipuzkoako formatzat dute: *Gipuskun “asteartea”*. <Gipuzkoan “asteartea”>. Ondarroan (B), **astearte** orainsu etorritako izentzat jotzen du lekukoak: *Guk geure denpora gustin beti “martisena”, oin esate’u “asteartea”*. <Guk geure denbora guztian “martitzena”, orain esaten dugu “asteartea”>. Zestoako (G) lekukoaren iritzian, eurek darabilten *astiarte*, Mutriku aldean *martitzen* bilakatzen da: *Ta*

*Mutriku aldea jun ezkeo, oitan “martitzena”*. <Mutriku aldera joanez gero, horietan “martitzena”>.

Izenen jatorriaz ere izan dira iritziak herri-jakintzan. Hala jaso zuen T. Etxebarriak Eibarren: *Martitzena zan “asteartea” edo “asteartia”, astiak iru egun zittuanian* (T. Etxebarria). <Martitzena zen “asteartea” edo “asteartia”, asteak hiru egun zituenean>.

Martitzenak, adu txarreko edo zorigaiztoko eguna izatearen entzutea du herri-jakintzan. Euskara mintzatuaren eremu osoan zabal dabilen sinestea da. Azkuek Arratian jaso zuen honako hau: «Martitzena ta barikua egun txarrak dira bear barri bat asteko» (EY I 51). Gaztelaniaz ere ezaguna den atsotitz baten esanean, zorigaiztoko eguna da asteartea, bai ezkontzeko, bai itsasora irteteko.

Zorigaitzaren iragarle delako sineste hori beste hainbat lekutan ere gorde da. Galdakaoko (B) Erletxeta auzoan, **atzeko martitzen** bildu dugu irudi-lokuzio modura, zerk edo hark ondorio txarrak ekar ditzakeela aditzera emateko: *Orrek ekarriko deu atzeko martitzena!* (Maria Rosa Basterretxea, informatzailea). <Horrek ekarriko du atzeko martitzena!>.

Sorginen eguntzat ere euskararen eremu zabaletan ezagutzen da asteartea. Hara Berangon (B) bilduriko pasarte hau: *Leku batzuten esate’èn ba, ademas martitzenak eta dire orren sorgiñen egune ta orio usiñe dau* (I. Gaminde). <Leku batzuetan esaten zuten bada, gainera martitzenak-eta dira horien sorginorien eguna eta olio usaina dago>.

xvii. mendeko Bizkaiko poema baten pasarte batek gogorarazten digu egun honek duen zorigaiztoaren itzala: «Martitzen susperroa eldu ekizun, / Feliperi egiteko gustiok oiñean mun» (*DEgiko*).

Urtean zehar asteartez egin izan diren edo egiten diren ospakizun batzuetan ere azaltzen dira izenok.

Inauteri-zikloan ezagunak dira erdialde-ekialdeetan **astearte inaute** izena eta aldaeratzat hartuko dugun *astearte ihaute* forma ere; edo *astehart ihaute* Iparraldean (L, NB). **Astearte inauteri** erdialdean —Gipuzkoan— eta Nafarroan erabilia da. Eta sartaldean, **aratuste-martitzen** eta honen aldaerak. Kasurako, Ondarroan (B): «Igandeetatik kanpora, musikea jotzen zan jaiak oneik ziran: Urte Barri, Errege, Aratuzte martizena [...], San Estebantxe» (*OndKont*).

Aste Santuko bigarren egunari, **Martitzen Guren** esan izan zaio Arratia eta Txorierriko herri batzuetan. Azkuek dakar horren testigantza. Eta **Astearte Saindu**, *Astehart Saindu*, Iparraldeko herri anitzetan.

Errefrau birekin azkenduko dugu atal hau, goian aipatu den bidetik, ezkontzeko zorigaiztoko eguntzat epaitzen dutenak biak. Azkuek bildurik: «Martitzeneko ezkontzea, martirioa» (EY III 1766). Eta G. Garatek dakarren modura: «Ezkontzeko martitzena txarra» (*Garate* 4974).



W



## ASTEAZKENA / EGUAZTENA

Astearen hirugarren eguna izendatzeko, euskal hiztunok darabiltzagun izenei ohartzen bagatzaizkie, bi eremu nagusi bereizten dira zehazki euskararen lurraldean. Euskararen eremuaren erdialde eta ekialdean, **asteazkena** da astearen hirugarren egun honi zaion izena, edo lekuan-lekuan ematen zaizkion aldaerak: *asteizken, asteaizken, astiazken, astizken, axtezken, astiezken, astezkin, astezken, asteasken*. Sartaldeko hizkeretan, aldiz, Bizkaia eta Gipuzkoaren bizkaiera-eremuan, **eguzten** deritzo egun honi, edo beronen aldaerak: *eguasten, eguesten, egusten eta eguazken* formak batik bat. Mende bat aitzinago egin zen *Erizkizunde irukoitza* galdetegian, *egubasten* forma ere bildu zen. Arabako Lautadan ere «eguzten» izena edo beronen aldaerak (*eguasten, egusten, egosten*) erabili izan dira (Murua, Manurga, Gopegi). Lazarraga poetaren lekukotasun aspaldikoa ere ekarri nahi dugu: «Eguaztena ifini nauzu / obligazioz beterik» (*Lazarraga*).

Astearen hirugarren eguna izendatzeko izen bata edo bestea darabilten hiztun askok izen-forma biak ezagutzen dituzte, baina gehientsuenek bigarren forma hori kanpokotzat dute, ez lekukoaren herrikotzat. Hala, Bolibarko (B) hiztunak, berak *eguasten* erabiltzen duela dio, baina *Gipuskun* “*asteaskena*” esaten dela badaki. Oñatiko Araotz (B) auzoan ere, *eguasten* erabiltzen dute, baina zentzu berean *beste toki batzuetan*, “*asteazkena*” esaten dela adierazi du. Antzeko adibideekin jarraituz, Zestoan, «asteazken» hitza bildu ondoren, zera gehitu du lekukoak: *Ta Mutriku aldea jun ezkeo, oitan “eguazkena”*. <Eta Mutriku aldera joanez gero, horietan “eguztena”>.

Horrez gain, sartaldeko herri askotan (Elantxobe, Mendata, Lekeitio, Ondarroa, Kortezubi, Ibarruri, Berriz, Mañaria, Orozko, Deba, Mendaro, Elgoibar...) «asteazken» izena ezagutzen dute, eta erabili ere bai, baina bestelako adiera batekin: ‘astearen azkena’, ‘asteburua’ aditzera emateko; FIN DE SEMANA / FIN DE SEMAINE / WEEKEND, hain zuzen. Nabarnizen (B), barbarako: *Astaskanien arrantzara jutun da* (A. Martínez de la Cuadra). <Asteazkenean arrantzara joaten da>.

Asteazken seinalatu bat Aste Santuko hirugarren eguna da. Sartaldeko hizkeretan **Eguazten Santu** dugu nagusi, aurreko mendeetan ere erabili izan dena; XVIII. mendean, Laukarizko parrokoa zen Olaetxearen adibidea: «Eguazten Santu egunetan, zer igaro zan?» (*Olaetxea*). Baina **Eguazten Guren** (OEH) eta *Egusten Guren* aldaera (OEH) ere erabiliak dira. Azkuek **Eguazten Zuri** izena

ere jaso zuen egun horrentzat, Arratian: «Eguasten Zuri» dau izena aste gureko eguastenak» (EY I 61). **Asteazken Santu** darabilte Erdialde eta Nafarroa aldean, eta **Asteazken Saindu** Iparraldean.



## OSTEGUNA / ORTZEGUNA / EGUENA

Astearen laugarren eguna izendatzeko erabiltzen diren formen artean lau eremu nagusi bereiz daitezke euskararen lurraldean:

Sartaldean, bizkaieraren eremuan, **eguen** da gehienbat erabiltzen den izena, halaxe aditzera eman dute hizkera guztietan. xx. mendearen bigarren hogeikora atzera jotzen bada, beste aldaera batzuk ere jaso zirela ikusiko dugu: *eguaune*, Zigoitia (A) eta Nafarraten (A); *eguune*, Mungian (B); eta *Erizkizunde irukotza* lanean, zein herritakoak diren zehazten ez den herrietan, *eguben*, *euen* eta *eugena* erantzunak ere bildu ziren. *Eguaun* izen zaharra Arabako izkriburik zaharrenetan ageri zaigu, bestalde: «Eguaunari / Eguaun Guren esanik, / zeruko Jauna / jarri ei zan tristerik» (*Lazarraga*).

Erdialdean, gipuzkeraren eremu osoan eta goi-nafarreraren sartalde osoan, **ostegun** eta honen aldaerak (*osteun* eta *ostiun*, batez ere) erabiltzen dira. Nafarroa Erdialdetik ekialderantz, Lapurdin eta Nafarroa Behereko herri gehienetan **ortzegun** eta honen aldaerak (*ortzeun*, *ortzegün*, *ordzegun*, *orzegun*...) dira erabiliak. Eta Zuberoan eta Nafarroa Behereko zenbait herritan, iparraldekoetan berariaz, *ostegün*.

Astearen laugarren egunaren izenen banaketa nagusia hala izanik ere, horien banaketa egiten den herrietan berariaz, bertako lekukoek bi izen aipatu dituzte batzuetan: eurek darabiltena eta hurreneko beste izena. Horien artean hainbat dira forma bi edo gehiago ezagutzen dituztenak, eta gehientsuenek, tradizioz

darabilten izenaz gain, bigarren izen hori dela eta, edo kanpotik etorria dela edo berriagoa dela arrazoitzen dute.

Hala, Markina ondoko Etxebarrian (B), «eguen» da darabilten forma nagusia, baina ondo dakite Gipuzkoan «ostegun» dela izen hedatua: *Gipuskun*, “*osteguna*”. <Gipuzkoan, “osteguna”>. Ondarroan (B) oraintsu arte «eguen» soilik ezagutzen ei zuten, baina orain «ostegun» ere zabaldu egin omen da: *Leen eskenuen esaten* [“ostegun”], *baiña oin bai*. <Lehen ez genuen esaten [“ostegun”], baina orain bai>. Zestoan (G) *osteun* esaten zaio astearen laugarren egun honi, baina hango lekukoak badaki Mutriku aldean «eguen» deitzen diotela egun horri: *Mutriku aldean jun ezkeo, oitan eztakit nola...*, “*eguenare*” *bazan*. <Mutriku aldera joanez gero, horietan ez dakit nola..., “eguenare” ere bazen>. Debarroan, Mutrikun eta Deban «ostegun» eta «eguen», izen biak jaso dira. Baina Mendarotik hegoalderantz, «eguen» bakarrik.

Inauterien zikloan ere izen aipatua da «eguenare». **Eguen Zuri** bezala izendatzen dute Bizkai sortaldean, Aramaion eta Gipuzkoako bizkaiera-eremuan, eskola-umeek etxez etxe kantuz eta sari-batzen ibiltzen ziren egun horretan. «Zuri» izateak ere arrazoi garbia zuen: eguenare zuria zen, eskolarik gabea. Hots eta usadio handiko eguenare eta izena gaur egun ere, batez ere Durangaldean, baina behinola, Oiz mendikatearen beste aldean ere bai. Bada errezitatu bat, Azkuek Markinaldean bildu zuena: «Eguen Zuri, eguen baltz, txakurra arrautza ganean datz» (EY IV 308). **Eguen Gizen** bildu da Bergara eta Elgoibarren (G).

Eibarko (G) testigantza da eguen arratsaldezk eskolarik ere ez zela lehenago izaten: *Eguen arrasaldian ez zan izaten eskolarik. Eguen arrasaldetan ez genduan eskolarik* (T. Etxebarria). <Eguen arratsaldean ez zen izaten eskolarik. Eguen arratsaldeetan ez genuen eskolarik>.

«Ostegun» izenaren ardatzean eraikia da **Ostegun Gizen** forma, gipuzkeraren eremutik ekialderantz euskararen hedadura osoan nagusi den izena. **Ostegun inaute** ere (*ostegun ihaute* edo *ostegun inote* itxurapean) ere deritza Iparraldean (ikus *Harriet*).

Aste Santu barruko izenetan, laugarren honek ospe eta oihartzun handia izan du kristau-tradizioan, zahar eta modernoan, eta ondorioz horren izenak ere erabiliagoak izan dira astearen aurreko egunetakoak baino. Sartaldean, **Eguen Santu** da era nagusia. **Eguen Guren** forma Bizkai sartaldeko herrietan da erabiliena (ikus DVEF). Bilboko lekukotasuna, hauxe: *Gero Bariku Santu egunien*

*joaten gintzesan, eguen guren egunien iru orduko sermoye, da Eguen Guren egunien sera egote san, prosesiñoa* (I. Gaminde). <Gero Bariku Santu egunean joaten ginen, Eguen Guren egunean hiru orduko sermoia, eta Eguen Guren egunean zera egoten zen, prozesioa>.

Tradizio zaharrean oihartzun handiagoa zukeen, hona hemen adibide batzuk: «Gero esaten dira oraziñoak, erakusteko zelan Kristo gure Jaunak oraziño egin eban, afaldu ezkeru Eguen Guren egunean» (*Kapanaga*); «Eguaunari / Eguaun Guren esanik, / zeruko Jauna / jarri ei zan tristerik» (*Lazarraga*); «Eguen Guren gauban, / bere illte aurretik» (EL).

Euskararen eremuaren erdialdetik ekialderantz, berriz, **Ostegun Santu** da egun honen izena. Eta **Ortzegun Saindu**, lapurteraz eta Nafarroa Behereko hizkeretan.

**Aizaro** ere bildu zuen Larramendik (ikus DT) eta, **Aizaro Gau** Bonapartek (ikus OEH), Aste Santuko egun hau izendatzeko.

Osteguna, tradizio gizartean astearen egun oparoa, ugaria eta handia zen; eta ostirala, aldiz, **mehe-egun**. Hala dio atsotitzak: «Ortzegunaren ondotik ortzirala» (*Garate* 10965).



## OSTIRALA / ORTZIRALEA / BARIKUA / EGUBAKOITZA

Astearen bosgarren egunari esateko, euskaraz diren izenen banaketari oihartzun bazeaie, euskararen lurraldean bost eremu nagusi bereiz daitezke.

Sartaldean, bizkaieraren eremuan **bariku** forma da nagusi, baina aldaera sendo bat bada Lea-Artibai eta Debarreneneko hizkeretan: *bariaku*, oro har *barixaku* ahoskatzen dena.

Debagoieneko herrietan, aldiz, Oñatin (G) eta Oñatiko Araotz (G) auzoan, Leintz Gatzagan (G), Arrasaten (G) eta Bergara (G) inguruan, **egubakoitz** formaren aldaerak erabiltzen dira egun hau izendatzeko (*eguakoitz, egubakotz, ibuakotz, ebaikotz*).

Gipuzkoa erdialdetik ekialderantz, eta Nafarroa sartaldean **ostiral** eta honen aldaerak jaso dira (*ostirel, ostiel, ostel*). Euskararen eremuaren ekialdean, Zuberoan eta Nafarroa Behereko alderdi batean ere, *ostirale* aldaera baliatzen dute, *ostiale* ahoskatua gehien bat.

Nafarroa erdialde eta ekialdean, Lapurdin eta Nafarroa Behereko zati handi batean, **ortzirale** eta honen aldaerak bildu dira (*ordziale, orzi(r)ale, ortziela, ortzila, ortzilere, ortzillere...*).

Han-hemengo lekukoek eman dituzten erantzun eta argibideen arabera, hainbat lekutako hiztunek, beren hizkeran darabilten forma ohikoaz gain, beste era bat edo gehiago ere ezagutzen dituzte. Ezagunak dituzten beste erak direla eta, gehienek kanpoko hitz edo formatzat jotzen dituzte beste horiek.

- Etxebarrian (B), Gipuzkoan darabilten forma zein den azaldu du lekukoak: “*Ostiral*” *Gipuskun*. <“Ostiral” Gipuzkoan>.
- Oñatiko Araotz (G) auzoan ere berdintsu egin dute: *Bealdin*, “*ostirala*”. <Behealdean, “ostirala”>.
- Mendaron (G) orain «bariku» forma ere entzuten den arren, forma hori Bergara aldekoa dela argitu du lekukoak: *Baño askok “barikua”*. Guk “*barixakua*”. “*Barikua*” *amen es, Bergaraldean “barikua” geixo*. <Baina askok “barikua”. Guk “barixakua”. “Barikua” hemen ez, Bergara aldean “barikua” gehiago>.
- Eibarko hizkeran ere erabiltzen den *barixaku* izenaren atzean dagoen esanahia honela argitzen du Toribio Etxebarriak: «En Eibar decimos *barixakua*, que parece significar ‘día de ayuno’» (*LexicEibar*).

Astearen bosgarren egun hau sineskizun ugariren iturri izan da herri-tradizioan. Horietariko batzuk azaldu dira EHHako inkestetan... Dakartzagun bitxienak.

— Bada herri-sineste bat, ilea eta azazkalak moztea dela eta, Lapurdin eta Nafarroa Beherean bildu izan dena. Hala:

- Bardozen (L), ostiralez azazkalik ez dela moztu behar dioen esaera: *Errana zen ortzialiak in etzela in behar azazkuliak moztia. Eztuu eundano khasuik in*. Esaera zen, ortziralearekin ez zela egin behar azazkalak mozte. Ez dugu egundaino kasurik egin>.
- Arrueta-Sarrikotan (NB) ere berdintsu, egun bakoitietan ez omen zen azazkalik moztu behar: *Behatza etzen moztü behar “dans les jours impairs, ou pairs”*. <Behatza ez zen moztu behar “dans les jours impairs, ou pairs”>.
- Landibarren (NB) ere sineskera bera jaso da ostiraletako azazkal-ebatea dela eta: *Ortziraleaikin..., etzela ostialeaikin pikatu behar azkazalik*. <Ortziralearekin..., ez zela ostiralearekin pikatu behar azazkalik>.
- Ezterenzubin (NB), aldiz, jaso dena da ilea zela ortziralez moztu behar ez zena: *Lehen etzuten nahi biloain moztia ortzialiaekin, ez bizarririk, ezin... Ezta kasuik iten oai*. <Lehen ez zuten nahi biloaren mozte ortziralearekin, ez bizarririk, ezin... Ez da kasurik egiten orain>.

Joan den mendearen 20ko hamarkadan *Anuario de Eusko Folklore*k honela bildu zuen sineskeria bera: «Azkazalak ez dira ostiralean moztu bear, ezta igandean ere» (AEF).

— Ganadu-kontuaz zerikusia duten sineskizunak ere badira, ostiralez egin behar ez diren zereginak aipatzen dituztenak. Sineskizunon arabera, ostirala ez omen da egun egokia ukuiluko eta ganaduekiko zereginak egiteko.

- Donibane Lohizunen (L) azalpen hau eman du berriemaileak: *Leeno kasu iten tzena, kanpañetan, ortzialetan ongarririk etzen atera bear... Sineste bat ola*. <Lehenago kasu egiten zena, kanpainetan [‘baserri-munduan’], ortziraleetan ongarririk ez zen atera behar>.
- Behorlegiko (NB) lekukoak dioenez, ostiralez ez omen da ganadua bordaz aldatu behar; ezta asteazkenez ere, baina bereziki ostiralez ez: *Bordalde bat kanbiatzen, etxetik eta..., ahalaz ostieliaikilan etzuten nahi; astezkena ta ostielia, beden “surtout” ostielia, aldatzia, lekuz aldatzia, eztakit zendako: “Egun ostiala, baguzke biar artio!”*. <Bordalde bat kanbiatzea, etxetik eta..., ahalaz ostiralearekin ez zuten nahi; asteazkena eta ostirala, baden batez ere ostirala, aldatzea, lekuz aldatzea, ez dakit zerendako: “Gaur ostirala, bargaudeke bihar arte!”>.

Errefrau bat ere bada, mezu bera on egiten duena: «Ostiralian artaldia aldatzia txarra» (*Garate* 10977).

- Oñatin (G), San Juan eguna ostiralarekin izatea, ganaduarentzat kaltegarri delako sinestea ere jaso da errefrau antzeko honetan: «San Juan ostiralez jausten dan urtean..., saldu idiak eta jarri artoa etxean» (*BertsoB*).

— Ezkontzarekin lotutako sineskeriak ere badira ostirala dela eta. Ezterenzubin (NB) eta Domintxainen (Z) bildu dira EHHAn, ostiralez ezkontzearen gaineko sineskizunak. Hain zuzen ere, ostiralez ezkontzea zorte txarraren iragarle edo direlakoak.

- Sineskizun horren harira, Ezterenzubin (NB), Donaixtiko Kurutzetako Guillaume Parramina apaizaren pasadizo bat kontatu du lekukoak: *Ezkontzeko're ez ortziraliarekin, ez, astearta, ta iiakoitza're eztut uste iten zen, ez. Hanitz denbora apez bat egon eta donaixtiarra zen Parramina, ta Guillaume Parramina, Donaixtiko Kurutzetakoa, eta etzien nahi ibiakoitzetan izan zain ezteirik, ezteietako yendek igandian meza huts iten zutelakotz e! Hark nahi zien, ortzegunian etzien nahi, etzien nahi ortzialian bixilia hausten zutelakotz e! Ordian hak behar zien eztei-eguna astearte ta astezkena! Astelehenarekin ezta sekulan usatu hemen iten, astelehenetan bethi merkhatia da. <Ezkontzeko ere ez ortziralearekin, ez, asteartez, eta ebiakoitzez ['larunbatez'] ere ez dut uste egiten zenik, ez. Anitz denboraz, apaiz bat egon zen eta donaixtiarra zen Parramina, Guillaume Parramina, Donaixtiko Kurutzetakoa, eta ez zuen nahi ebiakoitzetan ezteirik izan zedin, ezteietako jendeek igandean meza huts egiten zutelakotz! Hark ortzegunean ez zuen nahi, ez zuen nahi ortziralean, bixilia ['baraua'] hausten zutelakotz! Orduan hark behar zuen, eztei-eguna astearte eta asteazkena! Astelehenarekin ez da sekula usatu hemen [ezteirik] egiten; astelehenetan beti merkatua da>.*

Errefrau gisa ere ezaguna da, ostirala ezkontzeko egun txarra delako sineskeria: «Ostiralian ezkondu, suerte txarra» (*Garate* 10979).

— Barauarekin eta mehe jatearekin ostirala lotzen duten sineskizunak are hedatuagoak eta herri-pentsaeran sartuagoak daude. Estualdi gogorak, zorte txarra edo zorigaiztokoak adierazten dituzten lokuzio eta esaerak bildu dira EHHAn, astearen bosgarren egun honi buruzkoak.

- Azkoitian (G), beste herri batzuetan bezala, astean **bi ostiral igaro beharra** lokuzio gisa bildu da. Ostirala, astearen azken eguntzat jotzen delako-edo, zorigaiztoko eguna dela diote. Hala omen da esaera: «Astean bi ostiral igaro behar izatea», une larri eta latzak igaro beharra aditzera emateko. Lekukoaren hitzak: *Orrekin ezkontute aguantau eo pasau berko itxik earrak... Esaeria da: "Astien bi ostiel pasa berko itxik". Ostirela, astien azkenengo eun txarra ta...* <Horrekin ezkontuta aguantatu edo pasatu beharko dizkik ederrak. Esaera da: "Astean bi ostiral pasatu beharko dizkik". Ostirala astearen azkenengo egun txarra eta...>.

- Montorin (Z) ere lokuzio bertsua aipatu dute: *Zonbeit aldiz beitia "bi ostiale astin"*. <Zenbait aldiz baitira "bi ostiral astean">.

J. Mokoroak ere «astean bi ostiral izatea» eta «ezkontza» josten dituen honako hizketaldia jaso zuen Gipuzkoan: «—Beaz, ni artzen nauen neskak baño, uzten nauenak suerte ohea eingo do? —Bai, arrastok ezpaitu! Zu artzen zaitun andrek asteen iru ostiela gutxienez izango ditu» (OE; J.B. Aierbe).



Ostiral eguna barau-eguna izan da Eliza Katolikoaren tradizioan, eta haragia izan da espreski egun horretarako galarazirik egon den jaki-mota. «Bariku» —edo «bariaku»— izenak, bere jatorrian du barau-eguna izatearen zigilua: [abari + ba(ga)ko + egun] > *DIES SINE CENA*, K. Mitxelena artez eta zuzen erakutsi zigunez (ikus *LengHist*).

Mogelek bere dotrinatariko batean azaltzen du argiro debeku hori: «Alan norbait bariekuban okelia jaten ikustia izango litzate eskandaluba, eztakientzat zer motibo daukan atarako» (*Erakuspena*).

— Ohikune horri lotua da, EHHAn Garrüzten (NB) bildu den esaera bat, nolabait ‘zorigaitza’, ‘zorte txarra izatea’ adierazten duena, eta horren arrazoia zein den ere bildu da: “*Guk olloa duneko, ostiale duk*”, *olloa ezpita ostialean yaten. Ordian horrek erran nai zi, eztiela xantzaik* [‘zortetik’]. <“*Guk oiloa duguneko, ostirala duk*”, oiloa ez baita ostiraletan jaten. Orduan horrek erran nahi du, ez duela xantzarik [‘zortetik’]>.

Azkuek Gipuzkoan honela bildu zuen esapide bera: «Ostiralez hegaztirik jatea galarazia» zegoen. Horrek argitzen du irudi-lokuzio horren guna. Azkuek esapide horren esanahia honela argitzen du: «*SE DICE PARA EXPRESAR CUÁN PERSEGUIDO ES DE LA CONTRARIEDAD Y ADVERSIDAD AQUÉL A QUIEN SIEMPRE LE FALTA, A LOS OJOS DE LOS DEMÁS, ALGUN REQUISITO PARA OBTENER LO QUE PRETENDE*» (DVEF).

Herri-errezitatu ezagun bat bada, elkarrizketa eran taxutua, eta ‘koipetsua’ mintzagai darabilena: «—Din-dan, zein hil da? —Peru zapataria. —Zer egin du pekatu? —Erregen txakurra urkatu. —Hori ez dek pekatu. —Ostiraletan koipetsu. —Orixe dek bai pekatu!» (*Garate* 3021).

Salbatore Mitxelena idazleak, ostiral eguneko barauaren ohikunea honela zehazturik dakar: «Ostiral gauean asitako bijilia larunbat goizean bukatu oi zan» (*Arantzazu*).

— Ostirala, oro har, adu txarreko edo zorigaiztoko eguna izatearen sinestea zabal hedaturik egon da tradizio-gizartean, euskaldunon artean ere. Idazle klasiko baten pasarte honetan, «asteartea» eta «ostirala» aipatzen dira zehazki halako eguntzat: «Martitzen eta barikuba zori deungako egunak diriala, egun oneetan egiten dan gauza andi edo nagusik ezin ondo urten leikiala» (UDB II).

— Astearren bosgarren eguna egun seinalatua da tradizioko egutegian urteko zenbait ospakizunen eguna ere badelako.

Berariaz Aste Santuari dagokion ostiral edo barikua izan da egun seinalatua. Honako hauek dira herri-hizkeran eman zaizkion izenak: **Bariku Santu** eta **Bariku Guren** izenek diraute gutxi-asko sartaldeko euskararen eremuan; eta **Bariku Kurutzeko** —eta horren aldaera, *Bariku Kurtzeko*— ere bai (DVEF).

**Ostiral Santu**, gipuzkera-eremuan. Nafarroan, *Ostiele Santu* aldaera ere bada. Eta **Ortzirale Saindu**, Iparraldeko tradizioan.



## LARUNBATA / ZAPATUA / EBIAKOITZA / NESKENEGUNA

Astearren seigarren eguna izendatzeko lau forma nagusi bildu dira euskararen eremuan.

Bizkai osoan eta Gipuzkoa sartaldetik hasi eta erdialderaino hedatzen da **zapatu**. Etorkia, hebreerazko sabbath hitzean izanik ere, latinen bidez euskarara espaldi sartu zen mailegua, kristautzearen eraginez.

Gipuzkoa ekialdean, Nafarroan eta Lapurdin **larunbat** izena edo honen aldaerak (*laranbat*, *larunbet*, *lanbata*, *lagunbat*) erabiltzen dira.

Nafarroa Beherean **ebiakeitz** izena eta honen aldaerak (*ibiakoitz*, *iakoitz*, *eiakoitz*, *erakoitz*) erabiliak dira, eta Domintxainen (Z) *iiakoitza* aldaera ere bildu da. Lehenago, Zuberoan hedatuago zegoela dirudi forma hori: «Ostiralian haragi eztezala ian, ez irakoitzian» (*Onsa*). «Ebiakoitz» hitzaren oinean, mendebaldeko euskararen ere ezaguna den «egubakoitz» forma dugu, 'egun bakarra', 'egun soila' adiera zaharra duena. Han ostiralari esateko erabilia, eta Zuberoan, aldiz, larunbatari.

Zuberoa ia osoan, EHHAko emaitzen arabera, **neskenegun** deritzo egun honi, *neskenegün*, alegia. Izen zahar hori ere hurrengo adibide honetan: «Ostiralian ez neskenegünian, eztezala ian aragirik» (*FPrZub*). Erronkarin ere «neskenegun»

erabili izan da: «Erortan bada kaur zilo batian neskanegunian» (*Hual*). Izen hori neska-mutilen arteko harreman-eguna izatearekin lotuta dagoela dirudi. Bidasoa aldean, kasurako, **neskeguna** (< ‘neska-egun’) izan ohi zen andregai-senargaiek elkarrekin biltzeko egun izendatua, eta egun hori larunbata izan ohi zen.

Leizarragak argibide hau erantsi zuen egun honen izenez aspaldi: «Orain batek “larunbate”, berzek “egiakoitz”, eta berzek “neskenegun” deitzen duguna» (TB). Eta Arxuk bere gramatikan sinonimoetara jotzen du, berriz, egun hau izendatzean: «Ebiakoitza, larunbata, neskeneguna» (*ArxGram*).

Euskararen eremurik zabalenean «larunbat» izena erabiltzen da. Honen oinean, ‘lauren bat’ dugu, euskara zaharretik gehien ageri den aldaera (RS, Otxoa Arin, Ubillos, Iztueta...). Izen hau «egun» izenaz lagundurik ere erabili izan da, batez ere tradizioan: «Laurenbat egunetan» (OA); «Etzien utzten gorphutzak larunbat egunean gurutzetan» (*Larregi*); «Larunbat eguna santutu ezazu» (*Lardizabal*).

\*\*\*

Astearen gainontzeko egun-izenekin gertatzen den bezala, herri desberdinetako lekukoek aditzera eman dute, forma bat baino gehiago ezagutzen dituztela. Baina arrazoitu dute, eurek darabilten izenaz bestelakoa, ezagutzen duten beste forma hori, edo gutxiago erabiltzen dela, edo beste leku batetik ekarria dela, edo beste lekuren batean erabilia dela...

Herri askotan jaso dira ildo horretako oharrak, eta oharrok ere hainbat dira:

- Etxebarrian (B): *Gipuskun*, “larunbat”. <Gipuzkoan, “larunbat”>.
- Deban (G): “*Larunbata’re*” *bai, baño gutxio, gutxi; beti “sapatua”*. <“Larunbata” ere bai, baina gutxiago, gutxi; beti “zapatua”>.
- Urretxun (G): “*Larunbata*”, *beian-da*. <“Larunbata” behean-eta>.
- Zestoan (G): *Oañ “larunbata” geyo sartu’a, baño leno, “zapatua”*. <Orain “larunbata” gehiago sartu da, baina lehenago, “zapatua”>.
- Azpeitian (G): “*Larunbata*” *esate’you, ori bastante emen esate’u; neuk eztaukat kostunbreik, baño geyenien “zapatue”; jeneralien Azpeitire leku askotako jendie etortze’a, oyek ekartze’ue [larunbata]*. <“Larunbata” esaten diogu,

hori bastante [‘nahiko’] hemen esaten dugu; neuk ez daukat kostunbrerik [‘ohiturarik’], baina gehienez “zapatua”; jeneralean Azpeitira leku askotako jendea etortzen da, horiek ekartzen dute [larunbata]>.

- Ataunen (G): *Oñ moderauta gare ta “lanbata” esaten asi gea, baño “zapatue” da. Bizkaiñe ala esaten da, “zapatue”. Guk’e bai.* <Orain moderatuta gaude eta “larunbata” esaten hasi gara, baina “zapatua” da. Bizkaian ere hala esaten da, “zapatua”. Guk ere bai>.
- Errezilen (G): *“Launbat” toki batzutan; emen, “zapatu”.* <“Larunbat” leku batzuetan; hemen, “zapatu”>.
- Baigorri (NB): *Iduritzen zaut, “ibiakoitzia” gehiago erraiten zela ene gazte-denboran, biak erraiten [“larunbat” eta “ibiakoitz”].* <Iruditzen zait, “ibiakoitzia” gehiago erraten zela ene gazte-denboran; biak erraten [“larunbat” eta “ibiakoitz”]>.
- Larzabalen (NB): *Xuberan “nexkeneguna”.* <Zuberoan “neskeneguna”>.
- Ürrüstoin (Z): *Bestek “ebiakoitz”, “laünbat”.* <Bestek “ebiakoitz”, “larunbat”>.

Hurrengo sineskizun hauek bildu dira larunbat egunari atxikirik:

— Astearen egun honetan, Ama Birjinaren eguna izanik, beti eguzkia, ekia, agertzen dela azaldu dute Nafarroa Beherean eta Zuberoan.

- Arboti-Zohotako (Z) berriemaileak esana da: *Ekhia [‘eguzkia’] bethi jelgitzen, Ama Birjinain egüna bita. Ekhia jelgitzen dela hartako doia, denbora txarra izanikè, mementoño bat... Ama Birjinain egüna.* <Ekia [‘eguzkia’] beti jalgitzen, **Ama Birjinaren eguna** baita. Ekia jalgitzen dela hartako doia, denbora txarra izanik ere, momentutxo bat... Ama Birjinaren eguna>. Errefrau bat ere eman du zentzu berean: *“Iakoitz güziez, Andredena Mariain arropain idorrazteko, ekhia agertzen”.* <“Ebiakoitz guztiez, Andredena Mariaren arropen idorrazteko, ekia agertzen”>.
- Montoriko (Z) lekukoak ere, zentzu bertsuaz honako hau azaldu du: *Eztüzü nexkegünik ekhiik gabeik habo, eziz nexkatilaik eskuntzeko bate nahi gabeik. Uai ba franko!* <Ez duzu neskegunik ekirik gaberik topatu[ko], ezi ez neskatilarik ezkontzeko bat ere nahi gaberik. Orain bai franko!>.

Hegoaldean ere ezaguna da errefrau bat, eguzki gabeko larunbatik ez dagoelakoa iragartzen duena: «Eguzki gabeko larunbatik ez» (OE).

— Barau egiteaz, eta berariaz haragirik ez jateaz, aspaldiko sineste edo eliz aginduak badira: «Orziralian ianen eztuzu, / ez ebiakoitzian haragi» (FPrBN).

\*\*\*

Urteko larunbat seinalatuen artean, Aste Santukoa da aipagarriena; hamaikaxo hitz erabiltzen dira egun hori izendatzeko:

- **Larunbat Handi:** «Zerren Larunbat Andi edo Pazko eguna zan» (*BArgia*).
- **Larunbat Santu** eta **Larunbat Saindu** izenak: «Ala deriste Larunbat Santuan botatzen diraden paperezko bitxeletak, lendabiziko aleluia esatean» (DT). Eta: «Ortzilare eta lagunbat sainduz» (*JesBih*).
- **Larunbat Guren** izena ere apurren bat erabili izan da: «Larunbat guren eguna izan arren» (*AGald*).
- **Ebiakoitz Saindu:** «Ortzilare seindütik parte bat, irakoitz seindü güzia eta Bazko egünaren hatsarria» (*CatLan*).

**Pazko larunbat** izena, *Bazko larunbat* aldaeraz: «Angelus xutik erraten da larunbat arratsetik igande arratseraino, baieta bazko-denborako egun guzietan ere, eta bazko-denbora doha bazko-larunbatetik Trinitateko iganderaino» (*Meditacioneac*).



Astearen azkenengo eguna izendatzeko, euskararen eremuan honako banaketa hau egiten da EHHAREN argitan.

**Domeka** izena, Bizkai osoan eta Gipuzkoa sartaldean, baita Urola Kostako eta Goierriko herri batzuetan ere (Azkoitia, Zestoako Arroa, Beasain).

Adierazgarria da, Sakanako Urdiainen (N) *donbeka* izena jaso izana. Euskal Herriko hego-lautada horretan izen hori erabili izan denen azterren garbia. Orain dela ehunen bat urte, *Erizkizunde irukoitzak* Ataunen *domeika* aldaera jaso zuen, izen horren latinezko jatorria ageriago erakusten duen adierazpena. Hau da: DOMINICA > /domenica/ > *domeika*. Gizaburuagan (B), *Erizkizunde irukoitza* galdetegiak, lehengo mendean, bildu zuen *domēka* izenaren *e* luzeak ere maileguaren etorkia argitzen du. Bokal luzeaz, *domeeka* jaso izan da Arantzazu-Oñate (G) inguruan ere (ikus *ArOñ*). Eta halaxe, *domeeka*, Mogelek ere bere aldian (ikus *PAb*).

Astearen zazpigarren egunaren izena, Gipuzkoa erdialdean, kostatik hasi eta barrualderaino (Deba, Getaria, Zestoa, Azpeitia, Beizama, Beasain, Ezkio-Itsaso, Urretxu, Legazpi, Ataun...), **jai** izen generikoaz izendatzen da, EHHAREN arabera. «Jai» izenak ezabatu du «domeka» eta «igande» izenen arteko erdigunea. Lehenago, hedatuago zegoen «jai» izenaren erabilera egun horrentzat. Hara hemen bi testigantza. Bata, Ramon Artolarena: «Jaiean ikusi nuen azkenengo» (*Euskal-Erria* aldizkaria, R. Artola, 1881), 'igandean' aditzera emateko. Bestea, J.M. Zubizarreta bertsolariarena: «Urrengo jai bazkalondoan langille ori etxera etorrazazi zuten» (*ZubizBerts*).

Gipuzkoa ekialdean, Nafarroa osoan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean **igande** izenaz edo beronen aldaeraren batez (*iande, iende...*) ezagutzen da egun hau. Zuberoan *igante* era hartzen du izen horrek.

\*\*\*

Astearen beste egun-izenekin gertatzen den bezala, egun horri esateko, forma bat baino gehiago ezagutzen dituzte berriemaileek, bereziki Bizkaian eta Gipuzkoan. Hala ere, ohiz darabilten izenaz gain, ezagutzen duten edo ezagutzen

dituzten bestemodu horiek, edo berriagoak direla, edo beste herri edo lurralde batekoak direla, edota kanpotik ekarriak direla diote.

Esaterako:

- Etxebarrian (B): *“Igande” giputzakin bai, baña emen “domekak”*. <“Igande” giputzekin bai, baina hemen “domekak”>.
- Orozkon (B), lekukoak hitz zaharra *domeka* dela dio, eta hauxe gaineratu du: *“Igande” gausa barrie da*. <“Igande” gauza berria da>.
- Urretxun (G): *“Igandia”, emen ez. Oin bai, umekiñ*. <“Igandea”, hemen ez. Orain bai, umeekin>.
- Zegaman (G): *Garai baten geio* [erabiltzen zen “jai”], *oañ “igandea” asko. Oañ’e, “jaie” esaten deu; baño ia kanbiatzen ai da asko, “igandea” asko* [entzuten da]. <Garai baten gehiago [erabiltzen zen “jai”], orain “igandea” asko. Orain ere, “jaia” esaten dugu; baina ja kanbiatzen ari da asko, “igandea” asko [entzuten da]>.
- Zestoan (G): *Oañ geyo “igandia”. Leno geyo “jaya” o “domeka”. Oañ batzuek domeka esan izan de; gure amama zanak’e “domeka” esan oi zuan*. <Orain gehiago “igandea”. Lehenago gehiago “jaia” edo “domeka”. Orain batzuek “domeka” esan izan dute; gure amama zenak ere “domeka” esan ohi zuen>. (Berriemailearen amama Arroa auzokoa zen).
- Getarian (G): *Oain ai da emen “igandia” esaten, sergatikan “jaja” dira danak*. <Orain ari da hemen “igandea” esaten, ezen “jaia” baitira denak>.
- Ataunen (G): *“Igandea” ezta esaten emen. Oñ “igandea” gaztek-eta* [esaten dute], *baño “jaie” esaten deu natural: “Biar jai da”*. <“Igandea” ez da esaten hemen. Orain “igandea” gazteek-eta [esaten dute], baina “jaia” esaten dugu natural: “Bihar jai da”>.

Gipuzkoa erdialdean, eta ekialderantz ere, astearen egun hau izendatzeko «jai» erabiltzen den gunean, badira astearen beste edozein egunetan «jaia» esatea ere suerta daitekeela arrazoitu duten lekukoak. Halaxe diote:

- Mendaroko (G) berriemaileak, hauxe esan digu: *Jaixa, asteunian* [izan daiteke], *eo bertan eunian; “gaur jaixa da” eo “juan dan jaixan” esan leike*. <Jaia,

astegunean [izan daiteke], edo bertan egunean; “gaur jaia da” edo “joan den jaian” esan daiteke>.

- Debako (G) lekukoak: *Geixen bat, lengo esaeria, “jaixa”. Asterdixan tokatzen bada, ba, “jaixa” eo “asterdiko jaixa”* [esaten da orduan ere]. <Gehien bat, lehengo esaera, “jaia”. Aste erdian tokatzen bada, bada, “jaia” edo “aste erdiko jaia” [esaten da orduan ere]>.

- Amezketan (G) ere arrazoi bertsua argudiatu du lekukoak: *“Jaië”, “igandea”, “datorren jaien”...*; [baina] *Santio eunek eta oiek, jaiëk esate zaie.* <“Jaia”, “igandea”, “datorren jaian”...; [baina] **Santiago egunari** eta horiei ere “jaiak” esaten zaie>.

- Tolosan (G) ere, berdin: *“Jaya” geyo ibiltze deu.* <“Jaia” gehiago erabiltzen dugu>.

\*\*\*

Igandea dela-eta, herri-tradizioan ageri diren sineskizun, errefrau eta lokuzio batzuk-batzuk ekarriko ditugu orain:

— Elizari eskaini beharreko eguna da domeka: «Astea lanari, igandea Jainkoari» (*Garate* 1393).

— Igandez lan egitea ez da begi onez ikusia izan. Igandeko lanak onurarik inori ez dakarkiola ohi da mezuetariko bat: «Igandeko lana, alferrikako lana» (*Garate* 7079); «Domekatan bier [‘beharra’, ‘lana’] eitten dauenak, praka zarrak ezteuz faltako» (*Garate* 3144). Laborantza-lanik egin behar ez delako sinestea ere badago: «Idiak igandean lanik ez» (*Garate* 7061). Belarra ebakitze lana ere susmo txarrez jotzen da: «Igandean belarra ebaki, eguraldi txarra» (*Garate* 7077).

— Baina, ezinbestean edo ezbeharrak eraginda, lan egitearen alde ageri da tradizioko herri-pentsamoldea, igandea izan zein izan ez: «Halabeharrak ez du iganderik» (*Garate* 6260).

— Igandez horditzea edo gehiegi edatea salatzen dutenak ere badira: «Pantalonei petatxue beretik eman; mozkorrak astelenian igandean bezela nai» (NEZ 2330).

— Eta, azkenik, jaiegun izatetik astegun edo lanegun izatera dagoen aldea biguntzeko esan ohi dena: «Igandetik astelehenera bada gaua» (EY III 1716).



## ASTE-BURUA / ASTEGOIENA / ASTE-BUKAERA / ASTE-AKABUA

Larunbatak eta igandeak osatzen duten denbora-tartea izendatzeko, hainbat eratako erantzunak jaso dira euskararen eremuan EHHAko inkesten bidez. Izan ere, gaur egun **asteburua** bi egun horiek egiten dute.

Astearen bi egun hartzen dituen amaierako aldiari esateko, izen-elkarketaz baliatzen da euskara mintzatua, funtsean: «aste» izena du lehen osagarritzat, eta bigarren osagaia da hizkeratik hizkerara aldatzen dena: «buru», «goien», «hondar», «bukaera», «akabu», «azken» bezalako izenek hornitzen dute gehienik amaiera.

Gaur egun, bi eguneko denbora-tartea hartzen duen aldi horrekin, lan-atsedena hartzen da gogoetan batez ere, leku askotan. Nolanahi ere, banakuntza handia ageri da euskararen eremu osoan zehar aldi-tarte horri izena emateko orduan.

**Aste-hondar** da euskararen eremuaren ekialdean nagusiki erabiltzen den izena. Iparraldeko eta Nafarroako herrietan, bada, izen horren aldaerak dira ugarietak eta finkatuena: *asteondar*, *asteundar*.

**Aste-bukaera**, izen elkartua, eta *astearen bukaera*, izen-egitura «-en» markaz josia, dira nagusi gipuzkeraz hitz egiten den lurraldean.

**Aste-azken** ('astearen azkena') izenaz ezagutzen da bizkaieraren ekialdeko hainbat herritan; hain zuzen ere, astearen hirugarren egunari «eguzten» deritzon eremuetan.

**Astearen azken** izen-multzoa erabiltzen da Gipuzkoako anitz herritan. Horrela eginez, argiro bereizten baita, gramatika-egitura bidez, aste barruko hirugarren egunaren «asteazken» izenetik. Hala jaso da, adibidez, Hernanin (G): *Astian azkena, launbata ta igandia*. <Astearen azkena, larunbata eta igandea>.

**Astegoien** izena ematen zaio aste-bukaerari bizkaieraren eremuko hainbat herritan. ‘Astearen goiena’ du oinarrian, baina izen-elkarketaren legera makurturik. Hala, Errigoitin (B) *astegoidxen* aipatu dute: *Bein barikue etorri eskeru, astegoienien gaus*. <Behin barikua etorritz gero, astegoienean gaude>.

Forma horren aldaeratzat har litekeen *asteguen* izena darabilte bizkaieraren ekialdeko eta Debarroko herri batzuetan (Eibar). Elorrion (B): *Zapatu edo bariku edo, asteguenera* (A. Agirrebeña-J.M. Elexpuru). <Zapatu edo bariku edo, astegoienera>. Baina *astearen guen* ere esaten zaio leku batzuetan. Eta tradizio idatzian ere bai: «Astiaren guenian ateraten dabee zer kastau dan» (KO).

**Aste-akabu** da bizkaieraren sartalderengo herrietan entzuten dena, Uribe Kostako eta Mungialdeko herrietan berariaz (Getxo, Bakio, Laukiz, Fika...).

- Gatican (B): *Orres ganera, gu onekas laurekas ona asteakabun fijo etorten gare* (I. Gaminde). <Horrez gainera, gu hauekin laurekin hona aste-akabuan fijo [‘ziur’] etortzen gara>. Baina leku batzuetan **astearen akabu** izen multzoa darabilte.
- Eta Leioan (B) *astinakabu* esaten diote astegoienari. Eta bertako lekukoak haxe diosku, argitze aldera: *Asten atzenengo egune, asten akabekerea*. <Astearen atzenengo eguna, astearen akabera>.

**Astearen akabera** izendapena, baina, eremu zabalagoan ere ezaguna da, Oñatin (G) eta Dorraon (N), esaterako.

**Asteburu** izena bakan eta mehatz erabili izan da herri-hizkeran, EHHako emaitzek darakustenez. Baina herri gutxi batzuetan —Alduden (N), Anizen (N) eta Errezilen (G)— bai, ordea. Azkuek hiztegi nagusiaren eranskinean jaso zuen, Bortzirietan (N) ere erabilia zela forma hori. Oraintsuago, Bergaran ere bai: *Ia datorren asteburuan ate-markua aldatzen down* (J.M. Elexpuru). <Ia datorren asteburuan ate-markoa aldatzen dugun>.

**Aste-atzen** izen elkartuaz eta izenlagundun egituraren bidez, **astearen atzen**

izenaren bidez ere izendatzen da herri batzuetan, Arrasaten (G) eta Urdiainen (N), kasu.

Gogoan hartzeko moduko oharra dugu, hainbat lekutan zeharbidez edo azalpen bidez adierazten dutela aste-bukaeraren kontzeptu hori. Pentsa liteke, herri-ohituretan modernoa edo oraintsuagokoa dela beste denbora-izenen ondoan.

\*\*\*

Hortixe dator geure buruari galdetzea: zein izan ote da tradizio-gizartean asteburuaren kontzeptuaren balioa? Honezaz EHHako inkestetan jalki diren erantzunak lanik ez izatearen ingurukoak izan dira, oro har:

- Zeanurin (B): *Opor-egunek, deskantzuko egunek.* <Opor-egunak, deskantsuko egunak>.
- Donibane Lohizunen (L): *Aste-ondarrian lanik eztuu, pausako euna duu.* <Aste-hondarrean lanik ez dugu, pausako eguna dugu>.
- Ezterenzubin (NB): *Lanik in gabe pasatuko'tu, igain'tu.* <Lanik egin gabe pasatuko dugu, iraganen dugu>.
- Behorlegin (NB): *Aste-undarra goxoa, lanik gabe.* <Aste-hondarra goxoa, lanik gabe>.

Errezilgo (G) lekukoak datu etnografiko jakingarria gehitu du asteburuak direla eta: *Oañ ai gea ikasten oi're, semiak-eta esaten due-ta... Guk ezkenun lanik in gabeko eunik izaten-da, asteburuik etzan izaten.* <Orain ari gara ikasten hori ere, semeek-eta esaten dute-eta... Guk ez genuen lanik egin gabeko egunik izaten eta, astebururik ez zen izaten>.



## 1.2 Urtaroak

### UDABERRIA / PRIMADERA / BEDATSEA

Udaberriari euskaraz deitzeko, hiru izen nagusi dira, EHHAn ere bildu denaren arabera.

**Udaberri** eta bizkaieraren *udabarri* aldaera —ahoz, *udebarri* eta *urebarri* ere bai— dira forma nagusiak euskararen eremuaren sartalde eta erdialde osoan.

**Primadera** latinetikoa mailegua da Iparralderik gehienez (L, NB), oro har, erabiltzen dena, Zuberoan salbu. Baita Nafarroa ipar-ekialdean ere. Euskara batuaren barruan haren aldaeratzat jo den *primavera* forma ere —gaztelaniazkoaren berdina— erabilia da Nafarroarik gehienez, salbu Sakanan eta ekialderengo hizkeretan. Izen berau hedatzen da Gipuzkoa ekialderaino ere, Beterrin batez ere.

**Bedatse** da Zuberoako bazterrean urtearen lehen aro honi ematen zaion izena, zenbait herri-kantutan behin eta berriz entzuten dena. Hona hemen Louis Liguëixen kanta: «Bedatsian eijer da oihanian bagua, / ekhiari hedatzen lehen bedats-ostua» (*Herria* aldizkaria, 1973). Erronkariko mintzairan ere halaxe zeritzan: «Zamariareki bizi bear dionak onki xin bear du barrideareki, negiuan xagitan laguntako eta bedatsean arrapatako» (*ErronkUsk*).

Baina badira beste izen batzuk ere, eremu mugatuagoan erabili izan direnak:

**Udalehen** izena, *udalen* aldaeraz, leku gutxi batzuetan bildu da EHHako informazioaren arabera. Halaxe, adibidez, Nafarroako Alkotz eta Erratzu herrietan.

**Uda-hasiera** —*udasiera* aldaeraz— Gipuzkoa ekialdean (G) bildu zuen Azkuek (ikus DVEFren eranskina).

**Udaitzin**, edo horren aldaerak, Nafarroan. Hala Ultzaman (N): *udaitzin* eta *udaltzin*. Baina baita **udaurre** ere, herri horrexetan bertan. Azkuek jasoak dira denok (ikus DVEFren eranskina).

**Udaurren** izena ere lekukotua dago Gipuzkoak eta Nafarroak muga egiten

duten inguru horretan. Hona hemen Orixeren lekukotza: «Udaurrenean atarira banaiz, ikusten det osto miña lertzen asi dala zugatzetan» (*Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria, 1919).

Udaberria izendatzeko euskal tradizioan ezagutzen diren zenbait izen, ordea, ez dira EHHAn bildu izan. Esate baterako, **uda-haste** eta **udatse** (<‘uda-hatse’) formak. Edota, lapurtera klasikoan ezagunak diren **belhaste** eta *belhartze* ere ez dira jaso. Hala ere, Zuberoan bizirik dirauen «bedatse» izenaren jatorri bereko formak dira.

Nafarroako berriemaile batzuek aitortzen dute, beren hizkeran *primabera* esan izan duten arren, «udaberri» izena ere sartzen ari dela emeki-emeki... Euskal izen gardenagotzat dute. Hauxe diotena:

- Dorraon (N): “*Udaberriya*” *da auskeas, beño guk “primabera”*. <“Udaberria” da euskaraz, baina guk “primabera”>.
- Ezkurran (N): *Oañ ya hasi da yendea “udaberri”* [esaten], *aiz gutxi*. <Orain ja hasi da jendea “udaberri” [esaten], hagitx gutxi>.
- Berueten (N): “*Udaberri*” [esaten du] *bat eo’atek, kanpotik etorriik, baño emen ez* [da esaten]. <“Udaberria” [esaten du] bat edo batek, kanpotik etorriek, baina hemen ez [da esaten]>.
- Oderitzen (N), guztiz kontrako iritzia agertu du lekukoak: *Apezak ekarri zula “primabera”*. <Apaizak ekarri zuela “primabera”>.

Gipuzkoako Beterri inguruko herrietan ere *primabera* anitz erabili izan da herri-hizkeran. Hona hemen Lesakakoa (N) zen Dabid Aranburu bertsolariaren lekukotza: «Gero berriztik nolako otzak / primabera bitartian, / bañan guztiak sufritzen dira / osasuna degunian» (*AmarUrt*).

Zuberotar lekukoak, aldiz, ondo jakitun daude, «bedatse» dela beren forma, eta «primadera» mailegua bertakoak ez diren kanpoko euskaldunena. Altxürükün (Z): “*Primadera*”, *manexek* [diote]. <“Primadera”, manexek [diote]>.

\*\*\*

Urtaroak ez dira egun, denbora-kontzeptu gisa, asteak edo urteak bezain markatuak, edo ez dira oro har erreferentziazkoak. Horregatik aipatzen dira maiz, «alde», «buelta», «inguru» eta antzeko izenez lagundurik.

- Nabarnizko (B) adibide bat: *Udebarri bueltan* (A. Martínez de la Cuadra). <Udaberri bueltan>.
- Eta Gipuzkoako beste bat, Berrobikoa (G): «Aldean, aldera: “Udaberri aldera bear zuan Iñaxiok soldadu joateko deia”» (*BordaB*).

Urtaro honen hastapena era bat baino gehiagotara aipatzen da. Ondo zehaztua da «haste» izena alboan duela Iparraldean. J. Duvoisin adibide bat: «Primadera hastean [...] belharra berdatu zen» (*Lab*); eta egile beraren beste etsenplu bat: «Primadera hastean sorhoa oraino gorri-gorria zegoelarik» (*Lab*). Eta «hatsarre» izenez lagundurik ere bai, Tartasen idatzietan: «Primaberaren hatsarrian» (*Arima*).

\*\*\*

Udaberri aldiaren ezaugarri ezagunen artean aipagarri dira honako hauek:

— Urtearen irudi gisa erabili izan da «udaberria» pertsonen adinaz ari garelara. Hona hemen Bitañoren adibide bat: «Ogei ta bat urte bakarrik daukoz, eta gudaria da. Beste bost udabarri daukoz oraindiñoko, ondo pentsetako» (*Atalak*).

— Landareak eta loreak aipatzen dira herri-hizkeran maiz udaberriaren ezaugarri agerien gisa; lurraren berpiztearen irudi, alegia. «Bedatse» izena, Zuberoan urtaroari ematen zaiona, belarren hasteari atxikia dago, hau da, [bedar + (h)atse] osagaiez ehoa.

— Loreen ugaria, aro loretsua izatea, euskal idatzi zaharrenetarik datorkigun irudia da. Maiatzeko loreak aipatzen dira behin: «Udabarri guztiz alegerea, / maiatzeko lora ederraena» (*Lazarraga*). Landareen biziberritzea dakusgu Lizarraga Elkanokoren beste adibide honetan: «Plantak ikusten dire eartzen ta iltzen [...] eta berriro primaberan berdatzen» (*FedeChrist*).

— Negutik aldendu eta udaberriaren gozotasunean sartzea da mintzagai beste batzuetan. Hala, elurren urtzea: «Gaur elurrak urtu ditu, zabaldu da primadera» (*OdolMintz*).

— Zenbait txoriren etorrera edo agerreraren iragarle ere bada udaberria... Hala, *kukuaren* etorrera martxoko hilari loturik ageri da errefracuetan: «Ama Birjina Martxoko, egunez kukuak Erromako zubian jotzen du» (*Garate* 666). Enaren etorrera ere aro honi atxikirik dago, esaera zaharretan esaterako: «Bena adajioak dio: “Ainhera bakhoitzak eziala bere hegaletan bedatsia ekhartzen”» (*Egiat*).

— Laborantza, lur-lantzea abian jartzeko aroa dela udaberria, maiz aipatzen den gaia da. Idatzizko lekukotza dugu Duvoisinena: «Primadera da arorik hobeena igeltsuaren hedatzeko» (*Lab*).

— Baratzeko ereintza edo landare-sartzea udaberriz egin behar dela sarri aipatua da EHHAn ere. Hala, Berangoko (B) lekukoak diosku: *Baya in ber da udabarrin, udabarrin ein ber da; piperra, tomate t'orrek dustik udabarrin, patate bere bai [...]. Or, a, San Joseti ingirun* (I. Gaminde). <Baina egin behar da udaberrian, udaberrian egin behar da; piperra, tomatea eta horiek guztiak udaberrian, patata ere bai [...]. Hor, San Josetik [‘San Jose egunetik’] inguruan>.



Urtearen lau aroetan bigarrena ohi da Ipar hemisferioan beroena, ekaineko eguzki-biratik, solstiziotik, iraileko ekinokziora arte luzatzen den aroa.

Euskararen eremu osoan izen nagusi bi hartzen ditu egutaro horrek: **uda** deritzo Euskal Herriko eremurik gehienez. Beronen aldaerarik ezagunena *ude*

da, Bizkaian eta Nafarroa erdialde-ekialdeetan hedatzen dena. **Udara** deritzo —aurrekoaren izen eratorria— Gipuzkoa erdialde eta ekialdean, baita Nafarroako Jaurrietan ere. Zuberoatarrek *üda* esaten diote.

Uda eta negua dira urtearen arorik nagusien eta markatuenak. Sarri ageri dira herri-mintzairan biak batera. Urtaro biak, edo zehazkiago, urtearen lau arook barne hartzen dituen esamoldea da: «uda eta negu». Errefrau gisa finkatua dugu, modu honetaraxe: «Uda ta negu, egizu ogi ta su» (RS 304). **Uda-neguak**, izen elkartu bezala ere erabili izan da herri-hizkeran. Oihenartek ere erabilia da; hona hemen etsenplu bat: «Aro emearen beha dagoena uda-neguetan, eskas date bere gauzetan» (*ProvBasq* 546).

Uda eta negua aurkez aurke herri-jakintzan maiz aipatu izan dira, berariaz elkarren behar diren edo elkarren osagarri diren urtaro bezala. Errefrau batzuetan ageriago. Hala: «Negu bigunegiak, uda gogorregia» (EY III 1780); «Negua elhurte, uda ogite» (EY III 1781); «Elurra neguan eta giro ederra udaran, gauza danak bere sasoian» (EZBB I 872); «Abendoa heze eta hotz, etxeko nausia udan botz» (EZBB I 6).

Noiz hasi eta noiz arte luzatzen den uda, Beasaingo (G) lekukoak, santuen izendegia gogoan harturik, honela azaldu du: *San Juanetik San Mielea bittarten, udea*. <San Juanetik San Migelera bitartean, uda>.

Udaren iraunaldia dela eta, tradizio-pentsaeran, udaberria ere barruan delarik ulertua da, erranairu batzuen arabera. **Uda luzea** aipatzen da halakoetan. Atsotitz ezagunak dira, udaren hasiera-puntua martxoan jartzen dutenak: «Andra Mari Martiko, artean udak “tatiko” [‘agertu eta desagertu’]; andik aurrera betiko» (*Garate* 802). Edota maiatza aipatzen dutenak udaren hasikintzat, lorearen irudiaz: «Maiatzeko lorea, udako “floreia”» (*Garate* 9264).

**Uda laburra** ere gogoratzen dute, aldiz, beste batzuek. Doniane egunetik San Pedro egunera errefrau batzuetan: «Hemengo udara, San Juanetik San Pedrotera» (EZBB I 902).

Udaren amaiera iragartzen duten esaerak ere badira. Iparraldekoetan, buruila, iraila, alegia, aipatzen da. Hala dio batek: «Buruila udaren buztana eta neguaren hastapena» (*Garate* 7381). Antzeko mezua beste honek ere: «Buruilak uda ez hiltzen, baina neguaz oroitzen» (*Garate* 7383).

Bestalde, bada udazkenean ere, azaroaren erditsuan, uda itxura hartzen duen

aldi laburra, San Martin izenaz iragartzen dena: «**San Martin uda**, uda ttiki» (*Garate* 11788), dio esaerak.

\*\*\*

Uda-garaia, uda-aldia adierazteko hitz egitura jakinak dira, izen elkartu taxukoak, herri-hizkeran sarri-sarri erabiliak. Hara hemen ezagunenak:

**Uda-parte** izena, batez ere inesiboz, «uda-partean», Hegoaldeko hizkeretan zabal erabilia da. Errenterriarra zen Xenpelarren adibide bat: «Uda-partian aita-semiak / aritzen giñan labrantzan (*XenpBerts*). Eta Uztapiderena beste bat, zestoarra bera: «Jaiian e lana egiten degu, / geienak uda-partian» (*Sasoia*).

**Uda-denbora**, edo *uda-denpora*, sartaldeko hizkeretan da berariaz erabilia: “*Uda-denboria*”: *Urberuagara noia uda-denborarako* (T. Etxebarria). <“*Uda-denbora*”: *Urberuagara noa uda-denborarako*>. Eta beste etsenplu bat, Oñatiko Arantzazukoa (G): «Uda-denporan sorora gizonak letxe joan bear» (*AitUzta*).



**Uda-garaia**, Gipuzkoa erdialdean agian ezagunena: «Uda-garaian, gure zelaietako belarrak ondu bear ziran» (*BBirigarroa*).

**Uda-erdi** izena, ‘uda betea’ adierazteko, aspaldi zaharretik ageri den hitza dugu, eta herri-hizkeran ere oihartzun apurra izan du. Donibane Lohizunekoa zen P. Urteren adibide bat ekarriko dugu: «Adulta aestas: uderdia, uda-erdia» (*Urte*).

Uda gorria denean, **uda min** adierazpidea erabili izan da, berariaz Iparraldeko hizkeretan. Hala, J. Etxepare idazlearen hiru adibide: «Girtainetik xuxen mozten dituzte haixturrez [ostoak]; uda minean: ebaki gunetarik ez diten andea ondoak» (*Bur*); «Landarerik xumeena uda minaren indarrak harrotzen zuen» (*Ber*); «Haizerik ez, bero, uda mina, zertarik edo hartarik, jabal zagon» (*Ber*).

**Uda-bihotza** Iparraldean jaso izan dute Azkue eta Larrasket lexikografoek, ‘uda mina’ adiera beraz. Zuberoa aldean erabilia izan da, Eskiula barne (ikus DVEF eta *Larrasket*).

**Uda betea**, ‘udaren erdi-erdia’ adieraz, batez ere Iparraldeko hizkeretan ageri da: «Ez ditake kasik sinhets zoin goiz ilhuntzen duen herri hetan, uda bethean ere» (*Metsikorat*).



W

Eta eratorri gisa, aipagarri da **udate** izena ere. «Negute» izena bezala, «-te» denbora balioko atzizkiaz eraikia. Gutxitan ageri da, baina leku diferenteetako herri-hizkeran bizi da. Esaterako, Leitzan (N): «Udate euritsua» (OEH). Edo, Bermeon (B): «Udate goiz beranduan» (*Oroigarriak*).

\*\*\*

Goian azaldu direnez gainera, beste bizpahiru atsotitz ekarriko ditugu hurrengo lerroetara, atalari amaiera emanez:

— Udaren hasieran zelako eguraldia, halakoa egingo omen duela udate osoan dio honek: «Ekaina eder, uda halaber» (*Garate* 3671).

— Uda alferkerietan igaro duenari neguan tokatuko zaiola etxea hornitzea, gogorarazten digu D. Intzaren beste honek: «Udan eperrak jan nai dittuenak, neguan txakurrak manten'txela [‘manten ditzala’]» (NEZ 90). Beste era batez esanda: «Negu(a)n txakurrei jate(r)a ematen ez dienak, udan ez du eperrik jango» (NEZ 479).



## UDAZKENA / LARRAZKENA / UDAGOIENA

Lau urtaroetan hirugarrenak, udazkenak, Ipar hemisferioan iraileko ekinokziotik abenduko solstiziora doan aldia hartzen du barruan.

Aro honi datxezkion izenik gehienak «uda» izenaren oinaz eraikiak dira, bigarren osagaitzat «azken», «atzen», «goien» (edo *guen*, aldaera) eta «ondo» erantsirik dauzkatela.

Bigarren izendapen-eredu bat «larre» izenean bilbatua dugu, bigarren osagaitzat «azken» duela.

Hirugarren izen-eredu bat ere bada, bitxiagoa, «urri» izenaren oinaz eraikia. Horrek, bigarren osagaitzat, «aro» izena, «-eta» atzizkia edo kideko den beste atzizkiren bat du. Zenbait hizkeratan bizi da oraino, baina iraganean zabalago hedaturik zegoen. Erronkarin, gaur herri-euskara aldendua den ibarrean: «Urteko laur estazioniak dira, negiua, bedatsia, uda eta urrieta» (*Mendigatxa*).

Alabaina, **urrieta** orokorrean urriko hilaz berdintzen da gehienik gaur egun. Baina sartalderengo hizkeretan, berariaz Uribe Kostako eta Arratia-Nerbioi eskualdekoetan, **irail-urriak** osorik hartzen dira, «urri» pluralez erabiltzen denean: **urrietan**. Sondikako (B) lekukoak EHHAn emaniko azalpena, «urri» izenaren gainekoa, ohargarria da guztiz. Hiru hilabete hartzen dituen aro osoari esaten zaio «urria», hark dioenez: *Urri, "otoño" da urri! Orrie jausten asten danean. Urrie da bere denporea. Urrie iseten da iru ilebete! Negue, beste iru ilebete. <Urria, 'otoño' da urria! Orria jausten hasten denean. Urria da bere denbora. Urria, izaten da hiru hilabete! Negua, beste hiru hilabete>*.

Ekialdeko hizkeretan, **larrazken** da izendapen nagusia. Iparraldeko lurralde guztietan ageri da: Nafarroa Beherean eta Zuberoa osoan, eta Lapurdiko hainbat herritan. Nafarroa Garaian ere hainbat lekutan azaldu da, «larrazken», edo horren aldaeraren bat (*larrazkan*). Abeltzaintzaren bizimodutik erakarria dirudi «larrazken» izenak: 'larreen, larreetako belarren azkena', nolabait. Goiko larreetatik beheiti jaisten izan dira artaldeak eta laborari-etxaldearen hurbil diren borda eta etxolen babesera ekarri, neguan sartu baino lehen.

Euskararen eremuaren erdialde zabalean **udazken** da izendapen nagusia, edo beronen aldaeraren bat (*udaizken, urasken*). Hala deritzo aro honi Gipuzkoa osoan, Nafarroa sartaldean eta Lapurdirik gehienera.

Bizkaieraren lurraldean, Bizkaikoan batez ere, **udagoien** edo *udaguen* izenak dira nagusi, lehenengoa sartalderengo eta erdialdeko hizkeretan eta bigarrena, bizkaieraren eremuaren ekialdean, Debarroko herri batzuk barne (Elgoibar, Mendaro).

**Udatzen** ('udaren atzena') izena ere ematen zaio barrualdeko herri batzuetan, baina sakabanatuta eta bata bestearen ondokoak ez diren herrietan (Otxandio, Gatzaga, Urdiain, Tolosa...).

**Udondo**, Nafarroako Etxalekun eta Alkotzen lekutu den izena dugu.

«Negu» izenaz eraikiak diren urtaroaren izenak bakanago ageri dira, baina batzuk badira, hala ere. Horietako bat da Gaintzako (N) herrian ematen zaion **neguri** izena. **Negu-haste**, Iparraldeko hizkeretan esan izan zaio berariaz. **Neguantz** izena ere ezaguna da sartaldeko hizkeretan, Markinaldeko klasikoetan ageri den bezala: «Arboliaren orriak jausten diran legez neguantzian, [...]». (*Eskolia*). Eta, amaitzeko, **negu-aurren** izena bildu zuen Azkuek Tolosan (ikus DVEF).

Beste izendapen batzuk ere badira, urtaro honi lur-eremu mugatuagoan ematen zaizkionak. Hala:

- Lekeition (B): **Otoño**.
- Jaurrietan (N): **Abendu**.
- Mugerren (L) eta Urketan (L): **Udakaila**.

\*\*\*

Herri desberdinetako zenbait lekukok urteko sasoi hau noizik noiza luzatzen den azaldu dute. Arestian aipatu dugun moduan, Sondikako (B) berriemaileak hauxe diosku: *Orrie jausten asten danean. Urrie da bere denporea. Urrie iseten da iru ilebete*. <Orria jausten hasten denean. Urria da bere denbora. Urria izaten da hiru hilabete>. Eta Bermeokoak (B), beste era honetara: *Urrixe da setienbrien* [‘irailean’]. *Setienbretik* [‘irailetik’] *negu asi arte*. <Urria da setienbrian [‘irailean’]. *Setienbretik* [‘irailetik’] *negua hasi arte*>.

Urte-sasoi hau, bestalde, zenbait lan egiteko aldi egokia ere bada:

Baigorriko (NB) berriemaileak, «larrazken» eta «urrieta» izenen eta berean egiten diren nekazari-lanen gainean, hauxe esan du: *Biak berdin* [“larrazken” eta “urrieta” izenak]. *Urriita da, hainitz lan delakotz*. “*Urriita gaixtoa*”, *erraiten zen, ihaurkinak biltzen, gaztenak biltzen... Urriita lan-gose da. Gehiago pizatzen ziin edo zaphatzen ziin gizona udak bezain, eskulan baitzen*. <Biak berdin [“larrazken” eta “urrieta” izenak]. *Urrieta da, anitz lan delakotz*. “*Urrieta gaiztoa*”, esaten zen,

inaurkinak biltzen, gaztainak biltzen... Urrieta lan-gose da. Gehiago pisatzen edo zapaltzen zuen gizona udak bezain, eskulan baitzen>.

Ezterenzubín (NB), uzta-garaia dela esanez zehaztu du lekukoak: *Larrazkena, errekolta* ['uzta'] *biltzeko sasoña*. <Larrazkena, errekolta ['uzta'] biltzeko sasoia>.

\*\*\*

Urtearen hirugarren aroaren inguruan, gizakiari doazkion albo- edo irudi-mezuak ere garatu dira herri-jakintzan. Heriotza mintzagai dute gehienetan. Horretara, larrazkena heriotzaren ate bezala erakusten du errefrau batek: «Larrazkeneko sukarra luze, ala ekartzen heriotze» (EZBB II 4). Eta heriotzaren geriza artez aipatzen duten lokuzio eta irudiak ere ez dira falta: «Udazkeneko ostoaikin batera orrenak egin du! (Zaintzen ezpadu eztul ori...)» (OE).



Euskararen eremu osoan hala deritzo urtearen azken aroari, **negua**; izen horren aldaerak ere gutxi-gutxi dira: *negü*, *nego*.

Negua dugu udarekin batera, urtearen lau aroetarik funtsezkoena denboraren partiketaren aldetik. Hala ere, EHHako inkestetan informazio guztiz urria bildu da, zuzen, neguari buruz.

Negua, Ipar hemisferioan, neguko eguzki-birarekin hasten da, abenduaren 21ean, eta udaberriaren hastearrekin burutu, martxoaren 21ean. Baina eguraldiaren

aldetik, tradizioko herri-sinesmenean hiru hilabete hartzen ditu neguak: abendua, urtarrila eta otsaila.

Urtearen aro nagusien artean, negua eta uda dira ardatzak, eta beste bi aroak, udaberria eta udazkena, aldameneko aroak, nolabait esanda. Azken bi horien izenak ere, lekuan-lekuan ematen zaizkienak, gehienbat udaren hitz-oinari atxikirik daude, eta, hein apalagoan, baita neguari ere.

Aro nagusi bion kontrajarpena, negu eta udarena, herri-tradizio osoan sakon sustraiturik dago, eta biok uztarturik erabiltzen dira maiz. Hala, herri-kantuetan, 1566ko Azkoitiko kantuak dio: «Orain negua bada ere / etorriko da udea» (*CancAzc*); «Neguaren ondotik jiten duzu uda» (*ChantP*); «Xori erresiñula üdan da kantari, / zeren ordian beitu kanpua janari; / negian ez t'ageri, / balinban ezta eri» (*ChantP*). Eta berdin hitz lauz: «Neguari darraio uda» (*SP-Imit*).

\*\*\*

Neguaren izena ardatz harturik, hainbat hitz garatu dira euskaraz, izen horren oinaz elkarturik edo eratorririk, herri-hizkeran batean edo bestean erabiliak direnak. Horietariko batzuk garanduko ditugu.

«Negu» izen nagusiaren ondoan, **negute** eratorria garatu da «-te» atzizkia erantsirik, negualdi luzearen denbora adierazte aldera. Hala ere, herri-hizkeran bakan lekukotua da «negute» izena, Azkuek ia hizkera guztietako hitza dela ziurtzat jotzen badu ere (ikus DVEF). Hiztegegile batzuek ere jasorik dakarte izen hau (ikus OEH). Adjektiboz lagundurik ere bai batzuetan: «Negute luzea, laburra» (*Harriet*). *Ne(g)ute luzia* (K. Izagirre). <**Negute luzea**>. Bai sartaldean, bai ekialdean dira oraindik hitz horren lorratzak. Sartaldeko hizkera batzuetan bizirik dugu oraindik. Hona hemen Abadiñoako (B) adibide bat: *Neguta gogorra pasau biule esan like* (I. Gaminde-M. Salterain). <Negute gogorra pasatu behar dugula esan liteke>. Eta ekialdean ere bai, Alduden (NB) jasotako etsenplu bat: «Negute gaiztoa egin du aurtan» (DVEF).

Izen-sintagma konplexu moduan josirik erabili ohi dira «uda» eta «negua». Hala esaten da, batzuetan «negu eta uda» egitura, baina maizago **uda eta negu**, Hegoaldean berariaz. Egituraren adierazkizuna, 'urte osoaren' irudi. Errefrauetan: «Uda ta negu, egizu ogi ta su» (RS 304); «Den negu nola den uda, betik da

arropa lagun ona» (*ErronkUsk*). Orobat herri-hizkera anitzetan: «Beira zeruak, airea, lurra [...], uda ta negu, bero ta otz, ta gañarako aize ta denboren aldaketa» (*UrtIgande*); «Jantzi beti bardin, uda ta negu, ta soñeko ariña» (*Abarrak II*). **Uda ala negu**, Iparraldeko hizkeretan erabili ohi da: «Eta handik aintzina han zagon, izan zadiela, uri ala atheri, uda ala negu, gau ta egun» (*SBi II*).

**Negutu** aditza ere, bakan erabilia izanagatik ere, zenbait hizkeratan bizi da. Arantzazuko (Oñati) hizkeran bildua da, elur asko egitearen zentzuaz, zehazki: *Aurten negutu dau* (K. Izagirre). <Aurten negutu du>. Eta Oiartzungoa (G) den beste adibide hau ere badugu: —*Otz dago egun oetan...* —*Bai, negutu digu pixka bat...* (M. Oñatibia, informatzailea). <—Hotz dago egun hauetan... —Bai, negutu digu pixka bat...>.

«Negu» izena adjektibo seinalatu batzuez lagundurik ageri da maiz herri-hizkeretan. Kalitate gaitzesgarrien adierazle izan ohi dira «negu» izenarekin doazen izenondoak. Horietariko batzuk dira honako hauek:

**Negu beltz**, hizkera anitzetan ageri den hitz-segida. Iztueta zaldibiarrek diosku: «Eta osterontzeko lau-illetan ere berde berde irauten dute, abereak negu beltzean bazkatzeko lurra berez ematen dituen gorosti, agin, ota, erramu, isats, untz eta beste zenbait orni mueta» (GK). Xalbador Urepelgoak: «Negu beltza jin da gero, amentsetan nindagola, / ostotarik buluzi zen aldeko leizar arbola» (*OdolMintz*).

**Negu gogor** da sarri-sarri aipatzen den beste berba-kate bat. Tradizio idatzian: «Negu gogorraren igesi altraka duazen usoai» (*OñEsk*). Eta B. Mogelen beste adibide bat: «Partidu zan artillea agintari, zakur, otso, arrano ta miruaren artean, negu gogor bat otzez igaro bear zuela ardiak» (IO). Baina, halere, hiztunen mintzoan sarriago...

**Negu latz** ere entzuna da: «Negu latzak [...] histura bihotzean eta ilundura adimenean sarrarazten» (*Zubiri*). Eta **negu min**: «Tenpra digu negu minian bikain otz, dago elurrari ezin obroz; miseria andia dago ardidunetan» (*Mendigatxa*). Edo **negu tzar**: «Negu tzarraren uztar gaixtoak akabo dire agian!» (*Ox*).

Izen-errepikaz ere bai, **negu-neguan**. Ultzamako (N) etsenplu bat, negualdiaren une gordinenean adiera emateko: *Negu-neguen* (K. Izagirre). <Negu-neguan>.

Neguaren ingurumenean hasiera eta amaiera apatzen dira lantzean-lantzean, batak eta besteak beren izen finkoak dituztela. Hala esan ohi dira maiz:

**Negu-aitzin**, Oxobiren lekukotasuna: «Negu aitzin, dena lan» (*Ox*).

**Negu-lehen**, ‘comienzo del invierno’ esanguraz lagundurik, dakar J. Estornesek (ikus *ErronkUsk*). Eta baita **negu-haste** ere (ikus OEH).

**Negu-hondar**, Iparraldeko hizkeretan erabilera ziurra izan duena, P. Lhandek ongi adierazi bezala (L, NB eta Z). Esate baterako: «Basateak lothuak direnean zahartu behar diren lekhuak, xerthatzen dira negu-ondarrean, izerdia abiatzen denean» (*Lab*).

**Negu-akabantza** ere erabilia da Iparraldean: «Negu-akhabantza da xederatzeko tenorerik hobea» (*Lab*).

**Negu-azken**, erdialdetik sartalderantz erabili ohi diren formetariko bat dugu. G. Arrueren adibide bat: «Negu-azkena zan, eta gauez elurra egindako eguraldi ustel batean irtetea erabaki zuten» (*Genoveva*).

Negua iraunaldia adierazteko **negu-parte** erabiltzen da: «Makiña bat merienda egiñak gaude negu-partean» (*Senda-belarrak*). Eta Itxasondoko zen B. Barandiaranen hitzetatik hartutako bat: «Egunean iru aldiz, *negu-partean*, arbia egosita baldekada aundi bat» (*LanikGabe*).

Negua negu-eguraldiaz loturik ageri zaigu herri-tradizioko aipamenetan maizenik.

Noiz den negua edo noiz hasten den negu gordina, esaera zahar anitzetan ageri da, baina negu-hasteak, eguraldiaren arabera, aldakor bihurtzen direla.

\*\*\*

Herri-sineste, esaera eta errefracuetan egun seinalatuak aipatzen dira, neguaren sarrera, erdia edo amaiera iragartzen dutenak.

Neguaren etorreratzat San Simon eta San Judas eguna bihurtu da iragarle herri-errefrau batzuetan. Urriaren 28a da egungo egutegiaren arabera santuon eguna. Baina astebete lehenago zen XVI. mendean: «PORQUE YA EN FIN DE OCTUBRE SE ACERCA EL INVIERNO, Y EN 20 DE ÉL ES LA FIESTA DE LOS SANTOS APÓSTOLES SIMÓN Y JUDAS; DICEN: “San Simon eta Juda, negua eldu da”» (*Garibai A 16*). Nafarroan bildua da horren antzekoa den beste hau: «San Simon eta San Juda, / uda joan da ta negua eldu da; / artzai gaxoa galdu da» (NEZ 511).

Negu-eguraldia goiz hasten delarik, Baztan aldean esaten da: «Goiz negu, bi negu» (*Zeruko Argia* aldizkaria, M. Izeta).

San Bizente (eta *Bizenti* eta *Bixenti* ere bai) eguna, edo Iparraldean Bixintxo eguna, ageri da, batez ere erretrauetan, neguaren erdiaren iragarle: **neguaren bihotza** dela esan ohi da San Bizenti eguna, berariaz sartaldean. Oñatiko Arantzazu inguru horretan bildua da: *San Bizente otza, neguen biotza* (K. Izagirre). <San Bizente hotza, neguaren bihotza>. Iparraldekoa dugu, aldiz: «Bitxintxoz hotz, neguaren bihotz» (EY III 15).

Osagarria ere badu, eguraldi gozoa baletor San Bizentez, negua ondoren datorkeela iragartzen duena. Sartaldeko bertsioa: «San Bixenti hotza, neguaren bihotza; San Bixenti bero, negua dator gero». Eta Iparraldekoa: «Bixintxoz hotz, neguaren bihotz; Bixintxoz bero, negua gero» (EY III 15).

Kandelario eguna neguaren erreferentzia-gune garrantzitsua bihurtu da, negua aipu duten hainbat erretrautan dakusagunez, baina bereziki egun horretan egiten duen eguraldiaren arabera: negu-eguraldi gordinak egun horren aurretik edo atzetik direnez, hura da ezaugarria. Oihenartek Iparraldeko lekukotasun zahar hau dakar: «Ganderialu hotz, negua boz. Ganderalu bero, negua Pazkoz gero» (*ProvBasq* 178). Geroago, XVIII. mendean bildu zuen Arakistain euskarazaleak Nafarroan honako esakuntza hau: «Kandelaria bero, negua dauka gero; kandelaria otz, negua joan da motz» (*SuplementosDL*). Mezu berorren iragarle da Kortezubin (B) jasoa den beste hau: *Kandelaidxoatan edurre, joan da neguen billurre* (Bernardo Arejita, informatzailea). <**Kandelarioetan** elurra, joan da neguaren beldurra>.

Neguaren amaiera iragartzen duten seinaleak bat baino gehiago dira:

— Kukuaren etorrerak iragartzen du neguaren amaiera, sineste batzuen arabera: «Etorri da kukua, joan da negua» (*El diario vasco* egunkaria, 2011).

— **Andre Mari(a) Martxoko** edo **Andra Mari(a) Martiko** (euskara batuan, «Andre Mari(a) Martiko») dira, lehena ekialdean eta bigarrena sartaldean, neguaren akaberaren adierazle. Nafarroako berbaldi-kontaera labur batek dio: «—Ama Birjiña Martxoko: eman diok neguari ostiko —ori esan omen zuen beiak—. —San Markok bildur neri —esan omen zuen beorak—» (NEZ 992). Eta sartaldean beste eredu hau dugu: «Andra Maria Martiko, artean udea “tatiko” [‘agertu eta desagertu’]; arik aurrera betiko» (OE).

Honatx neguaren ezaugarri batzuk, behin edo bestean aipatzen direnak:

— Elurra da negu-etorreraren agergarririk argiena, errefracuetan ere aipu ohi dena, Nafarroako honetan bezala: «Sansimonetan kapa zuria mendietan» (NEZ 1284). Elurraren agerrera behin eta berriz ere: «Jo ta salto, ezta negu; jo ta malo, hori da negu. (Beti elur ta izotzetan dirauena: hori da zinezko negua)» (NEZ 243). Esan nahi baita, jarraiko elurtea dela seinale ziurra, ez noizbehinkakoa.

— Negua elurtsu izatearen mesedea ere aipatzen da batzuetan, ondoko uda emaritsu gerta dadin. Zuberoako euskaraz, R.M. Azkuek bildutako esaera bat: «Negua elhurte, uda ogite» (EY III 1781).

— Negua lehorra gertatu delarik, ondokoa mahats urtea izango dela gogoratzen du beste errefracu batek: «Negu xukoaren ondotik, mahats-urthe» (OE).



## 1.3 Urteko hilabeteak



Urtea banatzen den hamabi zati edo parteen izena, euskara mintzatuaren eremu osoan, «hil» izenaz eraikia da. «Hil» izen-oin horretatik hiru forma nagusi garatu dira: «(h)il» soila, «(h)ile» eta «(h)ilabete» konposatua. Eta hirugarren honen aldaerak: *illebete*, *ilaite*, *ilaete*, *ilaate*.

Erdialdean, ia gipuzkeraren eremu osoan eta bizkaieraren ekialdean **hil** (*ill*, ahoz) da izen soila. Bizkaieraren eremu ia osoan *ille*, Nafarroan ere behin edo behin (Beruete) ageri dena.

Ekialdeko hizkeretan, Iparraldean eta Nafarroan oro har, (*h*)*ilabete* edo (*h*)*ilebete* formak erabiltzen dira soilik izen modura, aspaldi batetik [hile + bete] lexikalizaturik direla. Tradizioan ondo dokumentaturik dagoen arren «hil» izen soila, **hilabete** era konposatuak berdindu eta estali du kontzeptu osoaren eremua, denboraren ibilian.

\*\*\*

Sartaldeko eta erdialdeko hizkeretan, *ill* edo *ille* batetik, eta *illabete* edo *illebete* bestetik, biak erabiltzen dituzte hiztunek, baina ingurune diferenteetan.

EHHAn eginiko inkestetan, batez ere sartalde eta erdialderik gehienez, lekuko berberak eman edo onartu dituzte *ill(e)* eta *illabete/illebete* formak. Lekuko gehienek ez dute argitu zein testuingurutan darabilten bata edo bestea, baina berriemaile batzuk, aldiz, saiatu dira bien arteko bereizkuntza argitzen, batez ere Gipuzkoan.

Argigarri gerta daiteke, Etxebarrian (B), inkestagilearen eta lekuko biren artean izandako berba-jarduna, «hil» edo «hilabete» izenen testuinguruak bereizteko.

Inkestagilea: ¿“Iré el próximo mes”?

A lekukoa: *Datorren illien joango nas*. <Datorren hilean joango naiz>.

Inkestagilea: *Lau...?*

A lekukoa: *Lau illabete*. <Lau hilabete>.

B lekukoa: “*Lau illabete*” *esaten da*; “*lau ill*” *esta esaten*, “*lau illabete*” [esaten da]. <“Lau hilabete” esaten da; “lau hil” ez da esaten, “lau hilabete” [esaten da]>.

Inkestagilea: ¿“Falta un mes para Pascuas”?

B lekukoa: *Paskuetako illebeta falta da*. <Pazkoetarako hilabete falta da>.

A lekukoa: *Da, andraskuek-eta ernai daosenien-da*: “*Senba denborakua dauke, ba?*”. *Ta, illebetekua, o iru illebetekua edo, ta bardin*. <Eta, andrazkoak-eta ernari daudenean-eta: “Zenbat denborakoa daukate, bada?” Eta, hilabetekoa, edo hiru hilabetekoa edo, eta berdin>.

Beste hainbat herritan ere forma biak ezagunak izan arren, bata eta bestea nola egiten diren azaldu dute lekukoek:

- Deban (G): *Bixeta. Datorren illian jun bier det. Amendik illabetea jun ber diat*. <Bietara. Datorren hilean joan behar dut. Hemendik hilabetera joan behar diat>.
- Azkoitiko (G) berriemailearen azalpenak, «hil» eta «hilabete» bereizteko, guztiz argigarriak dira erabilerari buruz: *Zenbat denbora da? Ta, illebeta*. <Zenbat denbora da? Eta, hilabete [da]>. “*Bost il die*” *eztezu esango*; “*bost illebeta die*”, *esango’zu*. <“Bost hil dira”, ez duzu esango; “bost hilabete dira”, esango duzu>. “—*Zema denbora da? —Illebeta*”. *Ta*: “—*Noiz jun ber dek? —Datorren illien*”. (—Zenbat denbora da? —Hilabete. *Ta*: “—*Noiz joan behar duk? —Datorren hilean*”>.
- Urretxun (G): *Gutzako berdin da, “datorren illen”*. *Gauza bat enkargau ta, “illabete aindu ziak, eitteko eo eamateko*”. <Gutzako berdin da, “datorren hilean”. Gauza bat enkargatu eta, “hilabete agindu zidak, egiteko edo eramateko”>. “*Jun dan illen*”. <“Joan den hilean”>.
- Beasaingo (G) berriemaileak honela bereizi ditu: “*Illabetea*” *da, illa bukautakoa*. *Ta “ille” da, “ilbeltzeko ille*”. <“Hilabetea” da, hila bukatutakoa. Eta “hila” da, “ilbeltzeko hila”>.

- Errezilgo (G) lekukoak ere *illabete* igarotako denborari buruz hitz egiteko erabiltzen dutela dio, eta *ille*, ordea, oraindik indarrean dagoenari erreferentzia egiteko: *Gaur ze illetan gare o ze il da gaur?* <Gaur zer hiletan gaude edo zer hil da gaur?>. *Pasatako denboragatik esaten da*, “*oain illabete*”, “*orain dala bi’illabete*”-o...; *baña*: “*ill ontan*” eo “*illa*”. <Pasatutako denboragatik esaten da, “*orain hilabete*”, “*orain dela bi hilabete*”-edo...; baina “*hil honetan*” edo “*hila*”>. “*Oain garen illabete ontan*” esateko oitura ezta; “*ill ontan*” bai, *baña* “*illabete ontan*” ez. <“*Orain gauden hilabete honetan*” esateko ohiturarik ez da; “*hil honetan*” bai, baina “*hilabete honetan*” ez>. *Esate bateako*: “*Ill ontan dia santiok*”, “*ill ontan dia saninaziok*”. *Baña ezta esaten*: “*Illabete ontan dia santiok*” eo “*illabete ontan dia saninaziok*”. “*Ill ontan*” [esaten da]. <Esate baterako: “*Hil honetan dira santiagoak*”, “*hil honetan dira saninazioak*”. Baina ez da esaten: “*Hilabete honetan dira santiagoak*” edo “*hilabete honetan dira saninazioak*”. “*Hil honetan*” [esaten da]>.

Azkueren azalpena ere argigarria da, berariaz Bizkaiko eta Gipuzkoako hizkeretan «hil» eta «hilabete» zein inguruetan erabiltzen diren eta nola bereizten diren argitzeko. «Hilabete» dela eta: «Se usa también [...] con los numerales: *zeinbat illebe*, *lau illebe*, *amar illebe*, en vez de *zeinbat ill*, *lau ill*, *amar ill* [...]». Con otros artículos se usa *ill*: *datorren illean*, el mes que viene; *ill onetan*, (en) este mes; *illerik illera*, de mes en mes; *illean-illean* (Vc), (en) todos los meses» (DVEF).

Gramatika-egitura bereziak garatu dira «hil» eta «hilabete» izenen inguruan:

«Hilaren zein egun» adierazteko diren egiturak: «Hil hunek zenbat du? Hilaren zenbata da, dugu?» (*Harriet*). Eta «hil» izenarekin batera elkarketa soila darabiltenak: «Abuztu ilak / egun bat kunplitzakarik» (*Lazarraga*); eta «Jaiotezen maiatz ilean» (*Lazarraga*).

Esapide bereizi batzuk ere aipagarri dira. Bata, **hila hilari erantsi ezinik**: «Hilla hillai erantsi ezinda: ‘hilaren amaierara iritsi ezinda’» (*ZestErret*). Eta bestea, **hilean-hilean**: «Illean-illean / milloe bat pezeta geitzen dot etxean» (*AmaE*).

Errefrauetan ere badira «hila» edo «hilabetea» aipu duten batzuk: «Hileko erdia, hileko eria» (*ProvBasq* 237), hau da, ‘hil honetan erditu dena, hil osoan gaixorik’ esatea legez.

\*\*\*

«Hil» izenaren oinaz taxutuak dira maiztasun handiko formak.

Hasiera dela eta: **hilaren lehena** eta **hil-hastea** edo **hilhatsea**.

Bukaera dela eta: **hilaren azkena** edo **hilaren atzena**, **hilaren goiena** (*illenguena*, ahoz), **hilaren akabera** edo **hilaren akabua**...

Eta bitartekoa, **hilaren erdia**.

Herri-sineste zahar bat bada, hil bat zein egunez hasten den, halako edo holako ondorenak izango direla hil horretan. Eguraldiari buruzkoa da Arboti-Zohotan (NB) bildu dena. Lekukoaren esanetan, hil bat asteazkenez edo ostiralez hasten denean, maiz euria egiten duela esaten da: [Hilabetea hasten bada] *astezkenae-kilan edo ostialeekilan, üsü, eürizü, ez bethi, e! Errana...* <[Hilabetea hasten bada] asteazkenarekin edo ostiralarekin, usu, euritsu, baina ez beti, e! Errana...>. J.M. Barandiaranek era berdintsuan jasorik duen sinestea da: «Illa ostiralean sartzen bada, egun ortan egiten duan eguraldia il guztian ere izango dala» (ELG).



## URTARRILA / ILBELTZA / IZOTZILA / LOILA

Urteko lehen hilabetearen izenaz EHHAn jaso diren forma nagusiak lau dira: «urtarril», «ilbeltz» eta «izotzil» eta gaztelaniazko «enero» ere bai.

Berriemailetariko askok forma bat baino gehiago ezagutzen dituzte, baina kasu gehienetan eurek egunero darabilten forma baino berriagotzat jotzen dituzte beste enparauak. Argudiatu dituzten arrazoiak dira, edo beste lekuren batean erabiliak izatea, edo beste herri edo lurralde batetik ekarriak izatea... Paperezko egutegien eta *takoen* eragin sarkorra nabarmena da hilei ematen dizkieten izenez lekukoek dituzten ezagueretan.

**Urtarril** hitza, edo honen aldaeraren bat (*urtail, urthail, urterril, urteil, utruil...*) da hedatuena dagoen izena. Iparraldeko euskararen eremu ia osoan, Nafarroaren goi-erdialdean eta Bizkairik gehiengan. Eibarren, XVIII. mendean (1755. urtea), lekukotua dago «urtarril» izena: «Bialdu daixela urtebarriko ilian, zeina baita urtarrilian» (*EibOrd*). Eta sartaldeko hizkeran *urteil* aldaera ere bai, XX. mendearen hasieran: «Illero urte barruan ein biar diran lugin biarrak. / Urtella» (*NekazKart*).

**Ilbeltz** hitzak euskararen eremuaren erdialde osoa hartzen du. Gipuzkoaren gehientsuena eta Nafarroaren erditik sartalderanzko lurralde osoa. XVIII. mendean ondo lekukotua dugu: «Ill beltza» (EBO). Oñatin (G) *ilbaltz* aldaera bildu da. Adierazgarria da, bestetik, **urtarril beltz** (*urtarril baltz*) izen elkartu bikoitza ere. Horren lekukotasunak ere badira: «Urtarril baltzaren azkenengo egunetako goiz bat zan» (AL).

«Ilbeltz» izena atzeraka joan dela dirudi, belaunez belaun zenbait herritan. Errezilen (G): *Oaingo berria oi* [urtarrila]. *Ibilli're asko itten da, baña guk ikasi gendun "ilbeltza"*. <Oraingo berria da [urtarrila]. Erabili ere asko egiten da, baina guk ikasi genuen "ilbeltza">. Bergaran (G): *Nik gurasoei "ilbeltza" geixau* [entzuten nien], *"enerua" baño*. <Nik gurasoei 'ilbeltza' gehiago [entzuten nien], "eneroa" baino>.

**Enero** erdal mailegu-izena Gipuzkoa eta Bizkaia bitarteko muga-herrietan da nagusi, eta lurralde biotako itsas hegi guztian ere berau gailentzen da. Baita Bizkai barruko herri askotan ere. «Urtarril» izena ezaguna den herri askotan ere «enero» erabiltzeko joera nagusitu da:

- Orozkon (B): ["Enerori"] *oin kalendarioetan-eta, "urtarril" esaten dotzie*. <["Enerori"] orain egutegietan-eta, "urtarril" esaten diote>.
- Pasaian (G) ere, «enero» forma bildu den arren, berdintsu argitu du hango lekukoak: *Oaingo gaztiak danak "ilbeltza"*. <Oraingo gazteak denak "ilbeltza">.
- Deban (G), aldiz, hauxe dioskute: *"Ilbeltza're", esaten da, baña "enerua" geixo. Konturauta esan eskero ["ilbeltza"], baño, bestela, konturau gabe esan[ez gero], "enerua"*. <"Ilbeltza" ere esaten da, baina "eneroa" gehiago. Konturatuta esanez gero ["ilbeltza"], baina, bestela, konturatu gabe esan[ez gero], "eneroa">.

**Izotzil** izena Nafarroa ekialdeko herrietan dago bizirik batez ere gaur egun. Erronkarin ere hala deitu izan zaio hil honi: «Izotzilaren ogei eta amargarre-  
nean» (*MRos*). Lehenago Iruñerrian ere hala erabilirik ageri da, 1501ean: «Izo-  
tzilla: ‘Januarius’» (ETZ 19). Izen horrek badu bere arrazoia, zeren izotz- edo  
izozte-eguraldien oihartzunak ere baitira hil honi loturik. Hala Zuberoan:  
«Bat-batetan jin beitzen izotz ezinago borthitz bat eta izoztiak irañ urtharila  
azkeniala drano» (*Armanak Uskara edo Ziberouko Egunaria* aldizkaria, 1892).

**Loil** bildu da, azkenik, Nafarroa Behereko iparraldean, Arbotin. Izen zaharra,  
nolanahi ere: «Loila, ez hadila hoila, ondotik darraik barandaila» (*ProvBasq* 303).

Ez dira bildu, aldiz, Añibarro idazle arratiarrak XIX. mendean eta Azkuek  
igarokoa Uribe Kosta aldean jaso zituzten *illole*, *ilull* hitzak. Ote da horren  
jatorria, [ilun + (h)ila]?

\*\*\*

Lurgintzaren inguruan badira urtarrilean egitekoak diren jarduera batzuk.

Hil honetan ortuan berakatzza eta naboa edo arbia landatzeko ohitura dagoela  
jaso da Bizkaiko zenbait herritan:

- Lemoizen (B): *Berakatzak ereitxen dires abendun eta koxi junion. Eneron bere ereitxen dires. “—Ajito, ¿por qué te quedaste tan chiquitín? —Porque no me sembraste por San Martín”. <Berakatzak ereiten dira abenduan eta koiu junioan [‘ekainean’]. Eneroan [‘urtarrilean’] ere ereiten dira. “—AJITO, ¿POR QUÉ TE QUEDASTE TAN CHIQUITÍN? —PORQUE NO ME SEMBRASTE POR SAN MARTÍN”>.*
- Zornotzan (B): *Soluen nabue... <Soroan naboa>.*
- Kortezubin (B): *Soloan berakatzak ipiñi-edo. <Soroan berakatzak ipini-edo>.*
- Aramaion (A), aldiz, ez dela ortu-sasoia dio lekukoak: *Esta solo-sasoie. <Ez da soro-sasoia>.*

Mahatsa egiteko hila dela ere bildu da Zamudion (B): *Eneroan [‘urtarrilean’] matza in be’da, ori bai!* (I. Gaminde). <Eneroan [‘urtarrilean’] mahatsa egin behar da, hori bai!>.



Eguraldiaren inguruko esaera-errefrauak berariaz ugariak dira hil honi buruz. Dakartzagun batzuk hona:

— Gaintzan (N) urtarrila urte osoko hilik gordinentzat epaitu du berriemai-leak. Eta horren indargarri den esaera batekin on egin du: “*Zozomikotean eunek, beltzak eta illunek*”, esaera da. *Urte guzin den ille txarrena, “ilbeltza” orregatik.* <“Zozomikotearen egunak, beltzak eta ilunak”, esaera da. Urte guztian den hil txarrena, “ilbeltza” horregatik>.

— Eguraldia dela-eta, hil hau bereziki hotza delako esaera eta aipua ez dira falta. Azkuek Erronkarin (N) aspaldi bildurikoa da honako hau: «Urtarril otza, neguan bigotza (R-uzt)» (DVEF).

— Oñatin (G), G. Anduagaren idatzietatik, bilduriko esaera batek urtarrila eta otsaila hilik hotzenak direla diosku: «Gozakaitz eta zepotzak izan dira ilbeltza eta otsaila: aitona zarrok garbitu bear, dardara egiñaz ortzak» (*AitUzta*).

— Elurraren aipua ere ugariak dira urtarrileko hilari buruz ari garenean. Errefrau ezagun bat bada, hilez hil elurraren eta horrekin batera hotzaren garapena zehazten duena. Batek dio: «Abendoan elurra burdinez; urtharrilan elurra altzairuz; otsailan elurra zurez; martxoan elurra urez» (OE). Eta beste batek: «Abenduko elurra gailtzerua; ilbeltzekua burniya; otsailekua egurra; martxokoa ura» (CEEN).

**Hil beltza** aldi berean **hil zuria** delako hitz-jokoaz jostatzen du errefrau batek: «Ilbeltz, il txuri, esan oi da» (OE). Askoz lehenago Itziarren (G) era osoagoz bildu zuen Arakistainek, nolabait urtarril hotza baba-uzta onaren mesedegarri delakoa iragarritz: «Hilbeltza, ill zuri, baba betez itzuli. (CUANDO NIEVA MUCHO EN EL MES DE ENERO, SERÁ ABUNDANTE LA COSECHA)» (*SuplementosDL*).

— Urtarrileko lehorteez mintzo da Iparraldeko errefrau bat: «Urtharrila idorte, laboraria dirute» (*Gure Herria* aldizkaria, Zerbitzari, 1936).

— Abeltzaintzaz, batez ere, artzaintzaz, loturik dauden errefrauak ere badira, berariaz Nafarroan: «Ilbeltza iten badau ilbeltz, ez ardi ta ez axuri» (NEZ 76). Eta beste bat: «Ilbeltza txuri? Ez ardi ta ez axuri!» (NEZ 50).

— Hegaztien gorabeheran ere badira urtarrileko hilaz kideguriko atsotitzak: «Illbeltzeko ollanda, dirua eskuan da» (*Euskal Eснаlea* aldizkaria, F. Aierbe, 1916).



## OTSAILA / ZEZEILA / BARANTAILA / KATUILA

Urteko bigarren hilabetea izendatzeko euskaraz erabiltzen diren formak, EHHAn jasoriko erantzunen arabera, hiru dira nagusiki. **Otsail** da euskara mintzatuaren eremuan zabalduen dagoen izena: Gipuzkoa ia osoan, Nafarroan, Lapurdin eta Nafarroa Beherean. **Zezeil** izena Bizkairik gehienez erabiltzen da, aldaeraren baten itxurapean (*seseil, sesil*). **Febrero** mailegu-izena ere guztiz hedaturik dago Hegoaldeko hizkera batzuetan, eta berariaz Bizkai-Gipuzkoako muga-hizkeretan, zubi antzekoa egiten duela, baina baita lurralde biotako itsas hegiko herrietan ere.


Zuberoan, batez ere, *bant(h)ail*, eta Arbotin (NB), esaterako, *bandail* izena ere jaso da. Bi-biak dira *barantail* izen klasikoaren oinordekoak edo aldaerak: «Loila, ez hadila hoila, ondolik darraik barandaila» (*ProvBasq* 303). Eta XVIII. mendeko beste etsenplu bat: «Mauleko hirian baranthallaren laurgerren egünian, eta mila zazpi ehün, eta berrogei eta hamasei gerren urthian» (*Maister*).

**Katuil** izena ere sartaldeko hainbat lekutan ematen zaio hil honi (Bakio, Errigoiti, Etxebarri, Kortezubi, Mendata, Zornotza eta Arrasaten jaso da). Baina bigarren izen gisa gehienetan, katuen beroaldia hil horretan delako ustearen ondorioz. *Katail* aldaeraz bildu zuen Azkuek: «Arrasate ta Gernikan bigarren ilaren izena [...] “katail” da, ‘katuen ila’» (EY I 66). Zabal dabilen herri-sinestea da, katuak, katemeak, hil horretan agi izan ohi direla: «Otsaillan katuak arro» (*Garate* 110037).

**Iltxiki** izena ere baderitzo Bizkaiko herri batzuetan, eta hala jaso da inkestetan (Orozko, Otxandio, Sondika eta Diman). Bigarren hilabete honek gainerako guztiek baino egun gutxiago izana dateke «iltxiki» izatearen arrazoia.

Eta **ilbeltz** izena ere bildu da hil horrentzat herri gutxi batzuetan, Elantxoben (B) eta Orozkon (B), kasurako.

\*\*\*



Urteko bigarren hilabete honen izena, araldiari, eta batez ere katuenari, estu loturik ageri da, arestian esan bezala. «Katuil» izenak ere oin hori bera du. Eta hainbat atsotitz eta esaera dira katu-animalien aipamena egiten dutenak. Hala:

- Berrizen (B): *Seseille, katuen ille*. <Zezeila, katuen hila>.
- Zestean (G): *Otsailla, kato-illa*. <Otsaila, katu-hila>.

- Gaintzan (N): *Katu-ille*. <Katu-hila>.
- Amezketan (G): *Esaera bada, bai, “otsaille, katu-ille”*. <Esaera bada, bai, “otsaila, katu-hila”>.
- Bardozen (L): *Gathuen ilaattia; berotzen dira eta orduko humiak onak dira, bana badira arra[k] iten direnak, berriz, maiatzian berotzen direnak, [katu] hek, berriz, eztute jeus balio gathu hek*. <Katuen hilabetea; berotzen dira eta orduko umeak onak dira, baina badira arra[k], berriz, maiatzean berotzen direnak, [katu] haiek, berriz, ez dute deus balio>.
- Behorlegin (NB): *Gatuen ilaitia, otsaillian diel’ar eta emiak elgarretaatzen*. <Katuen hilabetea, otsailean direla ar eta emeak elkarretaratzen>.

Nafarroa Behereko eta Zuberoako zenbait herritan katuen hilabetea izateaz gain, emazteena ere badela diote:

- Gamarten (NB): *Otsaila gatien ilaattia da, eta emaztena’re erraiten dute; urtharrila gizonena, otsaila emaztena*. <Otsaila katuen hilabetea da, eta emazteena ere erraiten dute; urtarrila gizonena, otsaila emazteena>.
- Garrüzen (NB): *Gatien ilaitia, ta emaztena*. <Katuen hilabetea, eta emazteena>.
- Urdiñarben (Z): *Bantalla, gathien hilabethia, emazten ilabethia dela*. <Barantaila, katuen hilabetea, emazteen hilabetea dela>.
- Altzürükün (Z): *Üsü, “banthaila kokia da”, entzün dit. Gathien hilabethia; emazten eta gathien hilabethia*. <Usü, “barantaila kokina da”, entzun dut. Katuen hilabetea; emazteen eta katuen hilabetea>.

Senperen (L) eta Izturitzen (NB) kontakizun politak bildu dira, hil hau laburrago izatearen arrazoia argitzera datozenak; egunak kentzea proposatu izanaren edota kendu egin izanaren inguruan:

- Senperen (L): *Españ artzainek erraten omen’tzuten samurtu [‘haserretu’] zela bertze ilaite guziekin; bear’tzela kendu*. <Españiar artzainek erraten omen zuten, samurtu [‘haserretu’] zela bertze hilabete guztiekin; kendu behar zela>.

• Izturitzen (NB): *Lehen bazen erran bat: españolek otsaila expitzuten maite, khendu zuten otsaila. Españolak eta hemengoek'e berdin. Bana urtharrilari ta martxoari eman zuten otsaila; bena nola luzeegi bitzituzten, gio, bi ilabete, nahi zuten phartikatu, baziela ere otsailak zonbait denbora on. Aditu dut hola, expitakit egia zenetz.* <Lehen bazen erran bat: espainolek otsaila ez baitzuten maite, kendu zuten otsaila. Espainolek eta hemengoek ere berdin. Baina urtarrilari eta martxoari eman zieten otsaila; baina nola luzeegi baitzituzten, gero, bi hilabete, partekatu nahi zuten, otsailak ere bazuela zenbait denbora on. Aditu dut hola, ez baitakit egia zenetz>.

• Larzabalen (NB) berriemaileak kontatu du, otsailari egun gehiago emateko asmoz, hogeita hamaika egun zituzten hilei egun bana kendu, hogeita hamar egunekin laga, eta kendutako egunok otsailari gehitzeko proposatu zela, baina ez omen zen onartu: *Lehenago galdegin zutela otsallari, ooitamekako egunak ken eta otsallari emaitia hek, ooitamarretan ilbete guziak finitzia. Ta gio, gio otsallari eman, berdin egiteko. Ordian otsalla, etzutela onhartu; otsalla aski luze zela gehio egunik eman gabe; otsalla gaixtoa zela, aski luze zela oitazortzi egunekin.* <Lehenago galdegin zion otsailari, hogeita hamaikako egunak kendu eta otsailari ematea haiek, hogeita hamarretan hilabete guztiak finitzea. Eta gero, gero otsailari eman, berdin egiteko. Orduan otsaila, ez zutela onartu; otsaila aski luze zela, gehiago egunik eman gabe; otsaila gaiztoa zela, aski luze zela hogeita zortzi egunekin>.

\*\*\*

Eguraldiaz mintzo diren hainbat errefrau ere badira, batzuk zuzenki otsailari zuzenduak, eta beste batzuk urteko beste hil batzuek konparaturik datozenak.

— Otsaila beste hil batzuekin konparatzen dutenen artean, zaharretariko batek urria eta otsaila jartzen ditu aurrez aurre, urria, eguraldi onekotzat eta otsaila, txarrekotzat iragartzen direla. Garibaik aspaldi bildu zuen honelaxe: «Urriak buztanaz, zezeilak bularraz» (*Garibai* B 47). Bada beste bat, martxoko hilaz aurkakotzen duena. Arakistainek —ziurrik Itziar aldean— bilduriko baten mezua, hauxe: «Otsailak buztanaz, martxoak bularraz» (*SuplementosDL*). Eta are urrunago, maiatzaz egiten du konparantza Larramendik beste honetan: «Ta maiatzaren lotsaz, otsaillaren signo obe» (*ImposVenc*).

— Eguraldi txarraren hotsa du hil honek hainbat atsotitzetan: «Zezillak txakur-arpegia ta zikin-etxea» (*EgutKarm*), dio horietariko batek. Baina euri asko egiten badu hil honetan, gero belarra franko izatearen mesedea dakarkeela iragartzen du beste batek: «Zezilla euritsu, bedartzak ederto gizendu» (*EgutKarm*). Otsail euritsua mesedegin handia dela nekazaritzarako, errefrau zaharretarik ageri den mezua dugu: «Otsailgo euria, eraiten dituz onzoeriak» (RS 89).

— Eguraldia otsailean aldakor izaten delakoa ere maiz aipatzen den leloa da. Zaharra dugu, behin eguzkitan, behin sutondoan egon beharra iragartzen duen bat: «Otsailean, aldiz eguzkitan, aldiz sutantzean» (RS 323). Otsaileko eguraldiaren ezegonkor-izaera dario Zaraitzun (N) eta Erronkarin (N) bildua den honi ere: «Otsaila, firili-faraila» (EY III 163).

Eguraldi zoroaren arabera da belarrak otsailean handi egitea, eta txarreanean, izotzak erretzea ere: «Otsailak belarra berak ekar eta berak ihar» (EZBB II 84).

— Ereintzari dagokion errefrau bat bada, Nafarroan bildua, oloa noiz ereitea komeni den aditzera ematen duena: «Otsaillen eraiñe, oloto; martxoan eraiñe olo; aprillen eraiñe olotto; maiatzian eraiñe, ez olo ta ez olotto» (*EsZab* I).



## MARTXOA / MARTIA / EPAILA

Urteko hirugarren hilabetea, bi izen nagusi bildu dira euskararen eremuan EHHako inkestetan: «martxoa» eta «martia».

**Martxo** edo horren aldaerek hartzen dute esparrurik zabalena: Gipuzkoa, Nafarroa, Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoako lurraldeak osorik hartzen ditu, eta hainbat lekutan, eremu sakabanatuan, *marso* aldaera ere jaso da, eta Nafarroako Sakana aldean, berriz, *marsu* aldaera.

**Marti** izena Bizkaiko lurralde osoan erabiltzen da, baita Araban (Aramaio) eta Debagoieneko herrietan ere (Arrasate, Bergara, Leintz Gatzaga, Oñatiko Araotz auzoa). Eibarko (G) erabileraz aipagarria da Toribio Etxebarriaren testigantza: *Gure artian, epaillan orde z esaten dogu “martixa”* (T. Etxebarria). <Gure artean, epailaren orde z esaten dugu “martia”>. Baina Bizkaiko herri batzuetan ere, «marti» izenaren aldamenean, *marso* edo «martxo» izenak jaso dira bigarren erantzun modura.

**Epail** izena, beste etorki batekoa dugu: ‘ebaki hila’. EHHAk Oñatin (G) eta Aramaion (A) bildu du bera, eta bigarren erantzun gisa herri gehiagotan ere bai (Elgoibar, Errezil, Orio, Donostia). Nekazaritza giroari loturiko izena da, Orioko (G) lekukoak zuhurki ohartu duenez: *Emengo baserritarrak esaten dute “epail”*. *Baserritarrak: epailla, urriya-ta. Bainan kalean ez, kalean “martxua” beti*. <Hemengo baserritarrek esaten dute “epail”. Baserritarrak: epaila, urria-eta. Baina kalean ez, kalean “martxoa” beti>.

Izen zaharra dugu berez. Larramendik eta Añibarrok euskal idazle klasikoek jasorik dakarte beren hiztegieta, eta etimologia garbiko izena delarik, harrezkeroko literaturan ere oparo erabili izan da. xx. mendeko egutegi eta *takoen* bidez hedakuntza handia ezagutu du aurreko belaunaldietan.

\*\*\*

Hil honen garrantzia handia da nekazaritza-munduan, eta lekuko en erantzunetan ugariak dira lurgintzaz zerikusia duten jarduera eta zereginak: ortu-lanak, soroen prestakuntza eta beste. Martxoan, lurra berotu ahala, belarrak eta landareak ere erne eta gorantz datoz. Abereentzako bazka izango den ganadu-jateko edo jatena, belarra, hazten doa. Ildo honetakoak dira, martxoaren inguruan hainbat herritan jaso diren oharrak.

— Ortuko lanen berri eman dute lekuko batzuek, beraz.

- Kortezubikoak (B) hauxe adierazi du: *Patatak erain, denporak isan eskero*. <Patatak erain, denborak izanez gero>.
- Aramaioko (A) berriemaileak: *Orduen laixen edo goldan, orduen aste’san. Arbixe atai alien, lekue eite’san*. <Orduan laian edo goldean, orduan hasten zen. Arbia atera ahalean, lekua egiten zen>.

- Bergaran (G), soroak goldatzeko aldia ere martxoan hasten dela aipatu da: *Martixan goldatu giñuan soua* (J.M. Elexpuru). <Martian goldatu genuen soroa>.

- Urretxuko (G) lekukoa ere, martxoan belar berriaren etorreraz mintzatu da: *Martxua etorri ezkeo, etzeok goseik, arri azpittik'e belarra ertetzen asten dek-eta*. <Martxoa etorritz gero, ez zegok goserik; harri azpitik ere belarra irteten hasten duk-eta>.

— Ganadua larrera, oihan, baso edo mendira ateratzeko garaia heldua dela dakarte gogora hainbat berriemailek, martxoko hila aipatzean. Berariaz Lapurdi eta Nafarroa Behereko lekukoek.

- Hendaian (L) esaera hau bildu da: *“Andredena Martxoko, behiak larrian aseko”*. <“Andredena [Maria] Martxoko, behiak larrean aseko”>.

- Landibarren (NB) beste molde honekin bildu da esaera bera: *“Andredona Maria Martxoko, behiak mendirat hopako; zezena barrukian, Erramuren [‘Erramu egunaren’] beldurxko”*. <“**Andredena Maria Martxoko**, behiak mendira opako; zezena barrukian, Erramuren [‘Erramu egunaren’] beldurxko>. Eta argibide gisa erantsi du: *Belharrak tipitiak baitira orduko, zertakoz behiak eortzen'tzian mendirat, bena zezena expitzuten eortzen mendirat*. <Belharrak tipiak baitira orduko, zertakoz [‘horregatik’] behiak mendira igortzen ziren, baina zezena ez baitzuten mendira igortzen>. Azkuek ere esaera gisako hau bildu zuen, Bizkaian omen: «Andre Maria Martxoko, behiak larrean aseko» (EY III 30).

— Martxoko eguraldiaz ere ohar jakingarriak bildu dira. Izan ere, neguaren amaiera eta udaberriaren hasiera hartzen dituen hila izanik, eguraldi onari ongi etorria egin aurretik, hotza eta elurra egiten duen hainbat egun ere izaten baititu batzuetan. Horren harian zenbait esaera eta kontakizun jaso dira Euskal Herriko leku desberdinetan.

- Mugerren (L) lekukoak kontatu du: *“Kaka otsaila!”*, *martxoak erran zakon mespretxuz* [otsailari]. *“Kaka otsaila, eta ekartzik hiru egun!”*. *Hiru egun eman zakon* [martxoak] *otsailai, ta hartan zozuen mokuak eta denak xehatu zitin denbora tzarrarekin*. *“Kaka otsaila, ba ekartzik hiru egun!”*, *eman*



*zazkon martxoak hiru egun otsailai. Martxoak erran zakon “kaka” otsailai; alainan martxokoa oitamarrekoa [da], eta bertzia ooitazortzikoa edo ooi-beatzikoa. <“Kaka otsaila!”, martxoak erran zion mespretxuz [otsailari]. “Kaka otsaila, eta ekartzak hiru egun!”. Hiru egun eman zizkion [martxoak] otsailari, eta hartan zozoen mokoak eta denak xehatu ziren denbora tzarrarekin. “Kaka otsaila, bada, ekartzak hiru egun!”; eman zizkion martxoak hiru egun otsailari. Martxoak erran zion “kaka” otsailari; alabaina, martxokoa hogeita hamarrekoa [da], eta bertzea hogeita zortzikoa edo hogeita bederatzikoa>.*

- Behorlegin (NB) ere artzainaren eta martxoaren kontakizuna jaso da: *Artzain bat joan'tzela Iratirat, biziki denbora ederrak eta, expitzen bireik oai bezala. Soboetan bazka pullita yina ta, bi edo hiru eunendako, ta geo haa yoana ta, zortzi eun, amar eun; beti denbora ederra ta ondarreakotz bazka yina ta ostoa're, pagoostoa're ateia, ta beti han gelditu. Oain, ta erran tzakon Martxori: “Martxo, xirtxi-xartxo, ene axuriek badituzte hiru-launa adarxko; e'nuk geio ire beldurxko!”. Ta martxoak eman'tzakon errepostia: “Batiat bi egun hie pentsaketan inaazteko, ta apiila hor deet ene launtzeko”. Ta emazte xaarrek erten'tzien: “Alimaleko elurra in'tzinen, eta artzañ hak marrogai bat [‘ahari gazte bat’] zinen, bere etxeolan kontserbatu zien guzia; artalde guzia futitu!”. <Artzain bat joan zela Iratira, biziki denbora ederrak eta, ez baitzen biderik orain bezala. Soroetan bazka polita etorria eta, bi edo hiru egunerako joana eta, [azkenean] zortzi egun, hamar egun; beti denbora ederra eta hondarreakotz bazka etorria eta hostoa ere, pago-hostoa ere aterea, eta beti han gelditu. Orain, eta erran zion Martxori: “Martxo, xirtxi-xartxo, ene axuriek badituzte hiru-launa adarxko; ez nauk gehiago hire beldurxko”. Eta martxoak eman zion errepusta: “Baditiat bi egun hiri pentsaketan eginarazteko, eta apirila hor diat ene laguntzeko”. Eta emazte xaharrek erraten zuten: “Alimaleko [‘ikaragarrizko’] elurra egin zuen, eta artzain hark marrogai bat [‘ahari gazte bat’] bazuen, eta bere etxolan kontserbatu zuen guztia; artalde guztia futitu!”>.*

- Altzürükün (Z) ere martxoaz eta eguraldiaz trufatu zen artzain batek jasotako zigorra kontatzen duen istorioa azaldu du lekukoak: *Artzañ batek behin erran zizün martxoko azken egünin: “Ah martxua, hitzaz futitzen nük!”. Eta haik aphilai hiu egün jesan, eta elhürra jin, eta artzaña lotsaazi. Zaharrer entzün dit, hiu egün jesan zoola aphilai eta haik eman ostikata! Martxua eder egin ziezün eta gio artzaña fanfarrü: “Ah martxua, futitzen nük hitzaz!”. Eta*

*aphilan jin denboa gaxto*. <Artzain batek behin erran zuen martxoko azken egunean: “A martxoa, hizaz futitzen nauk!”. Eta hark apirilari hiru egun jasan [‘hartu’], eta elurra etorri, eta artzaina lotsarazi zuen. Zaharrei entzun diet, hiru egun jasan [‘hartu’] zizkiola apirilari eta hark eman ostikada! Martxoa eder egin zuen eta gero artzaina fanfarroi: “A martxoa, futitzen nauk hizaz!”. Eta apirilean etorri zen denbora gaizto>.

— Neguari martxoan agur egitea ere ez omen da beti hain ziurra. Erronkariko mendietan, aldi horretan ere, elurra egiten duela gogorarazten digu aspaldiko atsotitz batek: «Martxoan airea gorri, goizoro elur berri» (DVEF). Baina badira, negua amaitu hurren dela gogora ekartzen digutenak ere. Hona hemen D. Intzak Ultzaman (N) batutakoa: «**Ama Birjiña Martxoko**, (e)man diok neguari ostiko» (NEZ 992).

— Gizasemeek eta emakumeek, zeinek bere hila izan ohi dutela ere herri-sineste ezaguna da. Hala esan ohi da, otsaila emaztekien hila dela, eta martxoa, aldiz, gizonena.

- Armendaritzen (NB) honelaxe kontatu digu lekukoak: *Marxoa, gizonen ilaitia, eztuzu sekula entzun? Dena burrunba, ortzi ta anitz iten baitu martxoan*. <Martxoa gizonen hilabetea, ez duzu sekula entzun? Dena burrunba, ortzi [‘ostotsa’, ‘trumoia’] eta anitz egiten baitu martxoan>.

- Landibarren (NB) ere berdintsu: *Martxoa, gizonen hilaitia, hori nik intzun dizit, ba San Josepen hilaitia zelakoz duai kabe*. <Martxoa, gizonen hilabetea, hori nik entzun dizut [‘dut’], San Josefren hilabetea zelako, dudarik gabe>.

— Arrantzu-garaia ere heldua dela martian, gogorarazten digute atsotitz batzuek. Hala Markinan (B): «Andra Maria Martiko, arrain barriak “tatiko” [‘agertu eta desagertu’]» (EY III 29).

— Kukuaren etorrera ere martxoarekin lotua da. Are zehatzago: **Andre Mari(a) Martxokoz** edo **Andra Mari(a) Martikoz**. Kepa Enbeita bertsolariaren esanean: «Kukuak pozik, kuku ta kuku, / emen Marti Andra Mariz / asi zaneko» (*Urretxindorra*). Eta beste bat: «*Epaillaren atzen aldera / asiko zaigu kukua*» (*Sasoia*).

— Martxoko oilarra zoritxar eta arrisku handien aurrean babesle edo laguntzaile delako sinestea adierazten duten errezitatuak ere badira. Arratian

bildua da, **marti-oilarra** aipatzen duen hau: «Marti-ollartxu gorrie, / orain balie, balie, / orain balietan espazara, / joan da nire bixie» (AEF). Eta Azkuek haran horretan bertan batutakoak dira hurrengo biok ere: «Marti-oilartto gorria, izan zakidaz balia» (EY I 67). Eta biltzaile beorrek honela argibidetu zuen errezitatuon ingurunea: «Bein, norbait deabruak estu ta larri erabilela, erregu auxe egin eban: “Marti-oilartto gorria, ointxe nigaz akordaten ezpazara, badoa nire bizia”» (EY I 67).

\*\*\*

Errefrau eta esaerak ere hainbat bildu dira EHHako inkestetan:

— Ardien eta artzaintzaren ingurukoak.

- Oiartzunen (G): “*A martxo, martxo! Ez ardi ta ez artantxo!*”. <“A martxo, martxo! Ez ardi eta ez artantxo [‘urtebeteko arkumea’]!”>.
- Oñatin (G): “*Marti kakatzu, marti kakatzu, aprilla errian sartu naitzazu!*”. <“**Marti kakatsu**, marti kakatsu, **apirila errean** sartu natzaizu”>.
- Hendaian (L): “*Martxo xirtxi-xartxo*”. <“Martxo xirtxi-xartxo”>.
- Armendaritzen (NB): “*Pazko goiz balitz, martxoz ez balitz*”. <“Pazko goiz balitz, martxoz ez balitz”>.
- Behorlegin (NB): “*Otsailak emanak, martxoak ereman*”. <“Otsailak emanak, martxoak eraman”>.

— Eguraldiaz beste bilduma zaharragoetan ere badira aipu batzuk. Garibai-renak ditugu zaharrenak: «Martian zenbatetan, aprilean ainbatetan» (*Garibai* A 15). «Eguzki eta euri, marti-eguraldi» (*Garibai* A 14). «Martiak buztanaz, aprilak bularraz» (*Garibai* A 44). Oraintsuagokoak dira: «Otsailak buztanaz, martxoak bularraz» (*SuplementosDL*), Gipuzkoan eta Nafarroa Beherean bildutakoa. Eta beste bat Mundakakoa (B): «Martiko eguzkijaren antzeko zara zu: igittu ta berotu orduko ibittu» (*Bertolda*).

— Naturaren biziberritzea ardatz duten atsotitzak ere badira. Loreak direla eta, berbarako, Oñatiko (G) hauek: *Martiko lora, utza baiño oba* (K. Izagirre).

<Martiko lorea, hutsa baino hobea>. Eta tximeletak berbagai direla: *Otsaillan mitxeleta orixak, martixan, gorularixak* (K. Izagirre). <Otsailean mitxeleta horiak, martian, gorulariak>.



## APIRILA / JORRAILA

Urteko laugarren hilabetea da apirila. Euskal herri-hiztunen mintzairan, nagusiki, **apiril** izenaren aldaerak dira ia leku guztietan: *april, apiril, aphil, abril*.

Horiez gain, **jorrail** izena ere bildu da herri bakan batzuetan: Oñatin (G), lehen erantzun gisa, eta beste bitan —Aramaion (A) eta Orozkon (B)—, bigarren erantzun modura. Baina «jorrail» izena bizkaieraren sartalderengo aldean ere ezaguna dutela agertu dute berriemaile batzuek, «jorran egite» jardueraz lotzen dutelako hil hori.

Aldi zaharragoetan eman zaizkion izen batzuk, aldiz, ez dira azaldu EHHAn. Esaterako, **ope** edo **opeil** izenak. Errefrau zaharretan azaldu diren izenak ditugu eurok. Bata, «ope» izen soilaz: «Opeko erlea enetzat; maiatzekoa anajeenzat» (RS 266). Bestea, «opeil» itxuraz: «opeileko erlea» aldaeraz (ikus RS 416). Eta bes-tetik badugu **orriaro** izena ere, Nafarroan dokumentatua, 1501. urteko Iruñeko idatzi zaharretan (ikus ETZ). Horren arrastorik ere ez da EHHAn.

\*\*\*

Eguraldiaz mintzo dira EHHAn jasotako argibideetariko batzuk. Hala, inkestaren puntu diferenteetan, zenbait erantzun esaera eta atsotitzen bidez emanak dira, anitz herritan.

— Hizkera estiloaren aldetik, hitzen amaieran errima bera izateari esker, **apiril biribil** dugu herri-jendearen artean sakonen erroturik dagoenetariko bat, eta halaxe batu da, jaso ere, behin eta berriz. Batez ere Lapurdiko lurraldean. Honetara: *“Apiill biribil”*. <“Apiril biribil”>.

- Hendaian (L): *Aphila lehen erten zen “aphil biribila”, hotza, bero ta hotza.* <Lehen erraten zen “apiril biribila”, hotza, bero eta hotza>.
- Urketan (L): *Ezta khundatzen ahal; aphila, bethi errana da aphilin, martxoan iten eztena apbiilak ien du. Martxoan in balu baazuzak, etzitiin uai inen.* <Ez da kontatzen ahal; apirila, beti errana da, martxoan egiten ez duena apirilean eginen duela. Martxoan babazuza egin balu, ez zuen orain eginen>.
- Bardozen (L): *“Aphiila biibila” erran bat da, erran nahi du [apirila] ezta beroa.* <“Apirila biribila” errana bat da, erran nahi du, [apirila] ez dela beroa>.

«Apiril biribil» hitz-jokoa da maiztasunez hiztunen artean ageri den hitz hoskideen jokoa, hil horren bertute eta alde onak goratzeko. Hala ageri da errefracuetan. Batzuetan martxoa eta apirila aurrez aurre ipinirik: «Martxo txartxo, apirila biribil» (OE).

— Elurra ere ez da guztiz joan edo aldendu apirilez, urte eta leku batzuetan, behinik behin. Oroitzapen hori aipatu da Bergaran (G): *Aprillian edurra blasta-blasta eitten makiña bat bidar ikusitta garek* (J.M. Elexpuru). <Apirilean elurra blasta-blasta egiten makina bat bider ikusita gaudek>. Errefrauetan ere ezagun da apirileko eguraldi txarraren hotsa: «Jorrailean negu, laborariak: Gaixo gu!» (EZBB II 22).

Euria apirilean guztiz mesedegarri ohi dela, esaera batzuetan ere ageri da. Hala: «Apirila euritsu, urte hura ogitsu» (*SuplementosDL*), bildu zuen Arakistai-  
nek XVIII. mendean.

— Lurraren emaitzak urriak ohi dira apirilean herri-sinesteen arabera, eta horien oihartzuna ere bada atsotitzetan. Janarien urritasuna mintzagai darabilten herri-sineste eta errefracuak oparo ageri dira EHHAn. Anizen (N) eta Lekarozen (N), neguan hildako txerria, txerrikoa, apirilean ere oraindik gatzun-askan gorde behar dela ohartarazten duten esaerak bildu dira. Anizen (N): *Aprille, zerrie urdendeian ille.* <Apirila, zerria urdandegian hila>. Eta Lekarozen (N): *“Apirile*

*biribile*”, *xerrie urdendeian ile*. <“Apirila biribila”, xerria urdandegian hila>. Antzinagoko aldietan, Azkuek ere ekialdeko eremu horretan bilduak dira hurrengo esaera hauek; Zaraitzun (N) eta Baigorri (NB), hurrenez hurren: «“Apirila biribila”, urdandegian urde ila»; «“Apirila biribila”, urdea urdandegian hila”» (DVEF).

— Kukua etorri eta hurrengo hiru hilabeteak (apiril-maiatz-ekainak) janari-eskasia handikoak ohi direla gogoratzen zaigu esaera eta errefrau batzuetan. Hala dio batek: «Kukuaren iru illabeteek, otzak eta goseek» (OE; F. Aierbe). Eta: «Kukua etorri, gosea etorri; kukua joan, gosea joan» (*Euzkadi* aldizkaria, F. Aierbe) dio beste batek, apiril eta ekain bitarteko hiru hilabeteok gogoan direla.

— **Udaberriko ziza**, perretxiko mota ezaguna, apirilekoa bada estimazio handikoa dela, herri-esaera eta adierazpenetan maiz aipatu izan da. Bergaran (G) bilduriko esaera: *Aprilleko zuzia urria baiño obia, maiatzeko zuzia, ase eitteko gauzia* (J.M. Elempuru). <Apirileko ziza urrea baino hobea, maiatzeko ziza, ase egiteko gauza>. Argibide ziurra Uztapide bertsolariaren hau ere: «Apirillian ziza zuriak / jaiotzen dira aurrena» (*Sasoia*).

— Luginza eta laborantzaz hainbat informazio bildu da herri diferenteetan:


- Leioan (B), lekukoak urteko laugarren hilabetea izendatzeko darabilten «jorrail» formaren gainean azalpen hau eman du: *Bai, “yorraillea”, yorraillea atxineko serak esta, baya guk, “yorraille”, “yorratu ile”* [esaten diogu]. <Bai, “jorrailea”, jorrailea antzinako zera ez da, baina guk, “jorraila”, “jorratzeko hila” [esaten diogu]>.
- «Jorrail» izenaren adiera dela-eta hainbat informazio bildu dira, lurra lantzen hasi eta ortu-landare batzuk sartu edo belar mota batzuk ereiteko sasoiak mintzo direnak:
  - Lemoizen (B), honako hau kontatu du lekukoak: *Aprillen ya* [lurra] *labraten eta preparaten, artorako ta indabe-ta*. <Apirilean ja [lurra] labratzen eta preparatzen, artorako eta indabarako-eta>.
  - Zornotzan (B): *Aprillen ya, ba, sekule-bedarra asixe, da, alfafie, da, onetara...* <Apirilean ja, bada, sekula-belarraren hazia, eta, alpapa, eta, honetara...>.
  - Elorrion (B): *Ortuen bearre(g)in, patatak ereiteko*. <Ortuan behar egin [‘lan egin’], patatak ereiteko>.
  - Aramaion (A): *Aprillien batzutan, siku oten basan, garixe jorratu, al basan,*

*ta bestelan barres lurre gertau, artue ereiteko, edo babie edo arbixe egondako tokixan. Patatak erein be bai iños; erremolatxa-edo. <Apirilean batzuetan, siku [‘lehor’] egoten bazen, garia jorratu, ahal bazen, eta bestela berriz, lurra gertatu, artoa ereiteko, edo baba edo arbia egondako tokian. Patatak erein ere bai inoiz; erremolatxa-edo>.*

Jorratze-jardueraren beharra ere aipatzen da errefracuetan: «Apiril-jorra, behar-jorra» (OE).

Ereintza egiteko aldiune egokitzen San Markos —apirilaren 25a— aipatzen da esaera batzuetan: «Artoak ereiteko esaera dan bezela: San Markos astea, atzea baiño aurea ohea» (*Euskal-Erria* aldizkaria, Marzelino Soroa, 1886). Iparraldean honelaxe: «San Mark, artorik baduk, lurrerat emak» (OE). Apirileko euria onuratsua delako iritzia sarri-sarri ageri da errefracuetan. Baita zaharretan ere: «Opeil bustiak dakaz ogiak» (RS 129).

— Ganaderitzaz eta oro har animaliez ere badira apirilaren aipamenak. Artzaintzari, eta berariaz gaztagintzari atxikia da Baigorriin (NB) bildu den esaera bat, gasnaren irudia erabilirik, ona edo ez hain ona izatearena, gizaki



batzuen kalitate irudikatzen duena: *Gasna bahintz, ehintzateke apirilekoa*. <Gasna [‘gaztaia’] bahintz, ez hintzateke apirilekoa>. Apirileko gazta omen da hoberenetariko bat... Eta ardiak bortura eramateko aldi egokitzat ere aipatzen da apirilaren azken astea: «San Mark alderat ardiak borturat, arthoak lurrerat» (OE). Erleen ezta ere, apirilekoa omen da onena; hurrengo hilekoa baino hobea, errefrau zaharraren esanean: «Opeileko erlea enetzat; maiatzekoa anajeentzat» (RS 416).

— Naturari buruzko ezaugarriez ere mintzo dira apirilaren gaineko erranairu eta oharrak. Oñatiko Arantzazun (G) bildua da apirileko lorez dugun esaera hau: *Apiilgo lora, axe da “flora”*(K. Izagirre). <Apirileko lorea, huraxe da “flore”>. Herri berorretan bildua da beste hau ere: «Apirilleko lorea, urrea baiño obea» (*AitUzta*). Eta azkenez, J. Mokoroaren bildumatik hartua den haxe: «Aphiril lore, urrearen pare» (OE).

Eta apirilaren azkenetan orriak airez aire direla dio Bakaikun (N) F. Ondarrak bilduriko hurrengo honek: «Apiribil azkenien, ostua aiz gainien» (*Bakaiku*). Beste hitz batzuez atsotitz honetan ere bildu dena: «Apirilla aizetsubak nekazaria poztutzen du» (EZBB I 36).

Urteko hilik ederrenak apirila eta maiatza direlako konparantzaz jostatzen da Bilintx bertso honetan: «Eta ainbeste apirillen erdiyan / zu bakarrik izango zera maiatza» (*Bilintx*).

Errefrauetan emankor da apirila. Gorago aipatuez gain, hona hemen *Esaera zaarren bilduma berrian* pilatutako beste esaera polit batzuk: «Apirila fan eta maiatza gero, agoztegian agotza bego» (EZBB I 36); «Apirila hotz, miseria ogi-artoz» (EZBB I 36); «Apirilean ihinzte, ogi-urte» (EZBB I 37); «Apirileko euriak balio du ardi-arkina hoberena» (EZBB I 37); «Apirileko lorea, piru bati dago» (EZBB I 37); «Apirileko zizea, urrea baiño hobea» (EZBB I 37); «Apiril hotxpil, gero ogi bil» (EZBB I 37).



Urteko bosgarren hilabetearen izen nagusia **maiatza** da, euskararen eremu osoan, ekialdetik sartaldera erabili izan dena.

Izen orokor horren aldaerarik ezagunena *maietz* da, «-i» bokalaren ondoan «a > e» bihurtzen dela. Sartaldeko hizkeretan gertatzen da maizenik *maiatz* > *maietz* bokal-itxiera. Baina aurreko bi horiek badituzte leku batzuetan *mayatz* edo *mayetz* aldaerak ere.

**Lorail** izena ere azaldu da Bizkai eta Gipuzkoako zenbait herritan, kasu batzuetan bigarren erantzun gisa, edo beste batzuetan hitz ezagun bezala —Bermeo (B), Dima (B), Errigoiti (B), Ibarruri (B), Lekeitio (B), Zornotza (B), eta Zestoako Arroa (G), Ikaztegieta (G) eta Oñati (G)—.

Herri-hizkeratik jaso den itxurarik ez du «lorail» izenak. Literatura idatzian ere xx. mendetik honunzko testuetan ageri da. Maiatza «lore-hila» izan da eliz liturgian, **maiatzeko loreen hila**, eta horretatik datorke «lorail» izena, gero egutegi eta *tako*en bidez oparo hedatu dena.

Azken mendeotako literaturan ere ez da oihartzunik falta, maiatza «lore-hila» izatearena. Hala I. Munitaren adibidea: «Maiatzean, lore-illan erneko dira» (*Munita*). Edo G. Arruerena: «Mariaren il edo maietzeko illa» (*Mai*). Eta lehenago J.A. Uriartek, erlijio-giroan, holaxe erabili zuen: «Maijatzeko lorelara, Jaungoikuaren berba santua entzutera» (*MarII*).

**Jorrail** izena ere bildu da maiaz hila izendatzeko zenbait lekutan: Ibarruri (B), Orozko (B) eta Donostian (G). Baina izen hau, nagusiki, apirila izendatzeko erabili izan da.

Baditu maiazak euskal tradizioan beste izendapen batzuk ere, gaur egungo hizkeran, EHHaren arabera, nekez entzun daitezkeenak.

**Ostaro** dugu horietariko bat, Etxeberri Ziburukoak aipatzen duena: «Maiatza edo ostaro» (*ElizLib*).


**Orril** dugu bigarrena. Tradizio idatzian ageri da, aurrekoarekin batera. A. Kardaberazek dio: «Maiatza, Ostaroa, Orrilla» (EBO). Orain mende bat inguru, *Erizkizunde irukoitza* galdetegian, Zaratamon (B) eta Galdakaon (B) bildu zen *orrille*. Harrezkero egutegi eta *tako*etan sarri azaldu izan da «orrilla» maiaz hilarentzat.

**Astoil** ere bildu zen *Erizkizunde irukoitza* galdetegian, Elgoibarren (G).

\*\*\*

— Ganaderitzari dagokionez, maiatz hilak lotura hertsia du, lekukoek adierazitakoaren arabera, astemearekin; antza, astemea maiatzean agi izaten da, hots, maiatzean berotu edo giritzen da. Iparraldean berariaz, nekazaritza- eta ganaderitza-eremuetan bizi direnen artean, maiatza **astoen hilabetea** dela esan ohi da. Eta hala bildu da zenbait herritan.

- Gamarten (NB), lekukoak dio: *Astoak maiatzean giritzen dira*. <Astoak maiatzean giritzen dira>.
- Garrüzen (NB) ere antzera: *Astoen ilaitia; astoak ordian giritzen'tzu*. <Astoen hilabetea; astoak orduan giritzen dira>.



W

Baina astoen beroaldia pertsonetara ere irauli da maiz, berariaz leku batzuetan. Hala:

- Donibane Lohizunen (L), astoak berotzen diren hila maiatza izanik, hil horretan jaiok direnengatik burlaz esaten omen da: *Bai, astoak maiatzian berotzen die... Yendietan erraten da gero, trufa'at bezala*. <Bai, astoak maiatzean berotzen dira... Jende artean erraten da gero, trufa bat bezala>.
- Bardozen (L) aldiz, astoen hila izate hori arrazoitzat harturik, ezkontzak egiteko hil desegokia ote delako sinestea ere bildu da. Hala azaldu du herri horretako lekukoak: *Astañak oai berotzen bitira; badakizu zer den? Etzuten frangok ezkondu nahi maiatzian, asto-ilaatia zelakoan*. <Astemeak orain berotzen baitira; badakizu zer den? Ez zuten frankok ezkondu nahi maiatzean, asto-hilabetea zelakoan>.

— Laborantzari gagozkiola, maiatza soro eta baratzetan zenbait ortuari edo barazki erein edo landatzeko hila delako ustea dago: arto, baba, tomate eta bestelako ortuariak erein edo sartzeko hil hau aiutua den iritzia bildu da zenbait lekutan:

- Erronkariko (N) esaera bat bada, dioena: «“Maiatzeko zazpi egun, zazpi ilabeteren lagun”. Erran nai du, garia, maiatzeko zazpi egunez, obro azkatan dela, ezik ez antzineko zazpi ilabetez» (*ErronkUsk*).
- Lemoizen (B): *Maiatzan ya eraiten, arto, babe, erremolatxe*. <Maiatzean ja ereiten [da] artoa, baba, erromalatxa>.
- Kortezubin (B): *Bai, artuek-eta, piperrak-eta, tomatiek-eta, dana orduntxe*. <Bai, artuak-eta, piperrak-eta, tomateak-eta, dena orduantxe>.
- Aramaion (A): *Maiatzan artue, al basan beñiñipein*. <Maiatzean artoa, ahal bazen behinik behin>.

Artoaren aipua errefrauetan ere ageri da maiatzeko hilari loturik. Lekarozen (N) laborantzaz zerikusia duen atsotitz hau bildu da: “*Maiatza, arto yale garratza*”. <“Maiatza, arto-jale garratza”>.

— Eguraldiazko zenbait iritzi, baterakoak edo besterakoak, pitean-pitean azaltzen dira maiatzaren inguruan. Hil horren hotz-beroak dira mintzagai zenbait

errefrautan. Eguraldiaren ezegonkortasuna batzuetan: «Maiatza, erdiz otzak illa ta erdiz beroak errea» (DVEF), Azkuek Bizkai sartaldeko herri batzuetan jaso zuen bezala. Eguraldi hotzaren kalteak, bestetan: «Maiatza otz, urtea zorrotz» (EZBB II 2004). Erronkariko (N) esaera batek dio: «Martxoak “maiaztan” badu, maiatzak “martxoetan” du» (*ErronkUsk*).

Naturaren eta landareen inguruan diren aipuen artean, loreen egoeraz hara zer esaten den herri-esaera batzuetan. Nafarroako Sakana aldean: «Apiril lore, ez ukana bano obe. / Maiatz lore, ez ukanain pare» (CEEN). Oñatin (G): «Maiatzeko lorea, utsa baiño obea» (*AitUzta*).

— Kukuaren hiltzat ere aipatua da maiatza, «kuku» eta «mutu» hitzen errima jokoaz: «Kukuak egiten du maiatzean kuku, garagarrilean gelditzen da mutu» (EY III 517).

— Janaritzeari eta elikadurari buruzko iritziak ere badira, maiatza dela eta. **Maiatz luzea** aipatzen da maiz, ondorenez neguan gordeak hil horretarako agorturik daudela iragartzeko: «Urdaiazpikoa maiatz luzeak eraman zuen» (EY III 1820). Arraina ugari porturatzen den hiltzat jotzen da maiatza ere. Hala dio errefrau zahar samar batek: «Etorriko da maiatza, jango deguna legatza» (*SuplementosDL*). Badira, bestalde, maiatzeko zizen jate-arriskuaz ohartarazten gaituztenak ere. Gipuzkoako Goierriin: «Maiatzeko zizea, eriotzako giltzea» (EZBB II 54).

Ganaduen janaritzean ere gorabehera handikoa omen da maiatzeko eguraldia. Maiatz hotzak ez omen dakar gauza onik. Erronkarin (N) bilduriko batek dio: «Maiatz otz, ez autz ez biotz» (DVEF). Eta Zaraitzun (N) bildua den batek: «Maiatz pardo, ogitan ardo; maiatza otz, ez gari ta ez agotz» (DVEF).

— Euria ugari edo urri egiteaz mintzo diren maiatz hilaren esaerak ere badira. Euri asko egitea, datorkeen uztarentzat mesede izango delakoa errepikatzen da behin eta berriz: «Maiatza euritsu, laboraria orguilutsu» (EY III 1755); «Maiatz eurite, urte ogite» (*ProvBasq* 308). Gariaren burutzea du gogoan beste batek: «Maiatzean, tipi baniz edo handi baniz, burutu behar niz» (EY III 1760).



Urteko seigarren hilabete honek, beste edozein hilek baino izendapen gehiago ditu, eta sakabanatuagoak, oro har.

EHHako emaitzen arabera, «ekain», «bagil», «junio», «garagarril» edo «garagarzaro», «arramaiatz» eta «ereiario» dira hiztunen artean ezagunenak.

Nekazaritza-jarduerekin zerikusi estua dute izenetariko batzuek, hala nola «ereiario» edo «garagarzaro» izendapenek, ereiteko aro edo aldiarekin.

**Ekain** izenak, edo *ekhain* beronen aldaerak, udako eguzki-biraren ikuspegia erakusten digu eta [egu- + gain] datza oinean: urtean eguzkia goren dagoen aldia.

**Ereiario** edo horren aldaerak (*erearo, eriaro, eriro*) erabili izan dira Lapurdin eta Nafarroa iparraldean (Baztan, Bortzirietan), hil hau izendatzeko. Ereiteko aldi edo aroa dela iragartzen duen izena da. Bidarraiko (L) lekukoaren testigantzak honetaraxe dio: *Erearo, xuxena ala da, ba, eta nere burasoek ere ala erten zuten.* <Ereiario, xuxena hala da, bai, eta nire gurasoek ere hala erraten zuten>. Hala ere, **ereiario**, ekainaren sinonimo gisa barik, esangura zabalagoan gorde izan da gainerako lurraldeetan. Halaxe da errefrau zahar honetan ere: «Done Meteri Zeledon, porru-ereiario on» (RS 330). Bi hilabete atzerago ospatzen den santu-eguna, kasu honetan.

**Garagarril** eta **garagarzaro** izenek uzta-garaia gogorarazten digute: garagara ebakitzearen aldia. Baina laborantza-gizartean garagarraren inguruan izan den ebakitze eta uzta-egite jarduerak zein aldi hartzen duen da izen horren giltza. Edozelan ere, «garagarril» eta «garagarzaro» izenek garagarraren uztak izan duen garrantzia sendotzen dute, ziurrik lurralde batzuetan laborantza horrek pisu handiagoa zuelako, eta hala, ekainaren eta uztaillaren ezaugarri bihurtu da labore hori, zein bere eremuetan. **Garagarraren hila** edo **garagarraren aroa** urteko seigarren hilabeteari dagozkion izenak dira Gipuzkoa gehienez eta Nafarroaren alde handi batean. Bizkai alderdian, aldiz, «garagarril» izena urteko zazpigarren hilabetearentzat gorde izan da. «Bizkaitarrak garagarrillari “bagilla” deitzen diote, ta uztaillari, berriz, “garagarrilla”» (*EgutAr*).

«Garagarzaro» izena Nafarroako euskararen eremuko leku askotan erabili izan da. Baztanen (N) bertan ere bai: «Garagartzarora maite dut, eguna luze eta gaua labur» (*BHizt1*).

**Arramaiatz** izenak, Zuberoan hil honi deritzonak, “bigarren maiatz” bezala aurkezten digu hil hau. Eta Erronkarin (N) ere halatsu deitu izan zaio, «bigarren maiatza» (*ContR*).

**San Juan hil** edo **sanjuanetako hil** bezala ezagutu izan da Urola Kostako herrietan hil hau:

- Zestoako (G) lekukoaren hitzez: *Guriak* [gure aita zenak] *beintzat ala esate'zun, ta gañuntzian'e "junioa"-o... Izango zian akaso bestelako esate'zienak, baño nik ala ikasi nun emen* [sanjuanetako illa]. <Gureak [gure aita zenak] behintzat hala esaten zuen, eta gainontzean ere “junioa”-edo... Izango ziren akaso bestelako esaten ziotenak, baina nik hala ikasi nuen hemen [sanjuanetako hila]>.
- Baina Gipuzkoako Goierrin eta Nafarroako Sakana aldean ere bildu zituen Azkuek izenok. Doniane edo San Juan eguna hartzen da eurotan hilaren ezaugarri nagusizat.

Kardaberaz idazleak hil honen hiru izen bildu zituen bere saioan: «Garagarilla, bagila, erearoa» (EBO).

Sartaldean esaten den **bagila** izenaren sustrai bila, hara zer idatzi zen *Arantzazuko Andre Mariaren egutegian*: «Ill oni izen dexente eman dizkiote gure asaba zaarrak. “Bagilla” edo “babaila”; garagarrena ez ezik, “babaren illa” ere au bait degu» (*EgutAr*).

**Junio** mailegu-izena guztiz hedaturik dago Euskal Herriko Hegoalde osoan. Leku batzuetan errotuago, beste batzuetan azalago, baina zabal erabilia edozelan ere. Bizkai aldean hartzen du eremurik gehien izen horrek: baita Hegoaldeko itsas hegi guztian ere. Guztiz adierazgarria da Bizkai-Gipuzkoako muga-herrietan, berariaz Gipuzkoa sartaldean, mailegu-izen honek duen nagusitasuna. Gaztelaniazko izenaren aldeko joeraren adigarri dugu Igoako (N) lekukoaren esana: *“Junio”, beti erdaas emen kostunbri*. <“Junio”, beti erdaraz hemen kostunbrea [‘ohitura’]>.

Nekazaritza- edo laborantza-lanen oihartzunak ugariak dira hil honen inguruan. Besteak beste, belar iharrak moztu, artoa jorratu, berakatz edo baratxuriak atera eta beste hainbat ortu-lan egiteko sasoi ontzat jotzen da ekaina.

- Lemoizko (B) lekukoaren esana: *Bagillen itxen da, bedar sikuk ebai, yorratu arto, da orrek gausek, da erein direnak goberna. San Juan ingerun berakatzak atara.* <Bagilean egiten da, belar sikuak ebaki, artoa yorratu, eta horiek gauzak, eta erein direnak gobernatu. San Juan inguruan berakatzak atera>.
- Aramaion (A) ere berdintsu deskribatu dira aldi horretako lanak: *Sarriten artuek erein esiñdde sanantoniuk arte iguel. Lenau pagatxie batu, franzasia be batu, gero jorrakin mokille jo ta...* <Sarritan artoak erein ezinda sanantonioak arte igual. Lehenago pagatxa batu, frantsesa ere batu, jorrarekin mokilak jo eta...>.
- Altzürükün (Z) ekainaren 8an ospatzen den San Medardo eta ekainaren 11n ospatzen den San Bernabe egunekin eta eguraldiaren iragarpenarekin lotutako esaera bat ere erabiltzen dute: *“Sen Medar nolako, berrogei egün halako, nun ezton Sen Barnabek belharra zankhopin muzten”.* <San Medardo nolako, berrogei egun halako, non ez duen San Bernabek belarra zangopean [‘hankapean’] moztzen>.



Belar-ebakitzeak ere hil honetan abiatzen direla gogorarazten zaigu tradizioko zenbait idatzitan: «Eraieroan: hilabethe hunetan abiatzen dira belhar ephaiteak» (*Lab*); «Ekain ondarrerat, horra belarra jina zela mozteko» (*ArtzainE*); eta «Garagar-ilean garagarra ebagi» (PB).

\*\*\*

Eguraldiaz lotuak dira hil honi dagozkion zenbait esaera. Maiatza eta ekaina aurrez aurre ageri dira esaera zahar batean: «Maiatz iluna ta bagil argia, hurte gustiko ogia» (RS 43). Era berean, ekaina jotzen da eguraldi onaren ekarle gisa: «Ekaina eder, uda halaber» (EZBB I 90).

Janaria, lurraren uzta, ekainean orainik ere urria dela gogorarazten zaigu beste batzuetan. Halaxe esaera zahar honetan: «Bagila, sei goseen baila» (RS 523). Eta oraintsuagoko batek, ereiaroaz hara zer dioen: «Nahi baduzu senarrari bizia laburtu, emotzu errearoan azak jaterat» (EZBB II 66).

Hilaren azkenerantz Donibane eguna, San Juan eguna, alegia, urtemuga esanguratsua da uzta berriari begira. Errezitatu barruan ohartzen zaigu, ekainean oraindik artoak eta gariak ondo gorderik eduki beharraren aholkua: «Artoak eta gariak gorde, / gorde, / gora San Juan Bagilean!».

Kukuak alde egiteko, mutu gelditzeko aldia ere ekainaren azkenerantz delakoa gogoratzen zaigu errefrau bidez, **San Pedro Bagileko** aipaturik: «Andra Mari Martikoz agertu zan kuku; San Pedro Bagillekoz martxau egin jaku» (EZBB I 34).





## UZTAILA / GARAGARRILA / GARILA

Urteko zazpigarren hilabetearen euskal izenaz galdetzean, EHHako erantzunetan lau forma nagusi gailendu dira. Sartaldetik ekialderantz joanda: «garagarril», «julio», «uzta» eta «uztail» —edo *üztail* aldaera Zuberoan—. Izenik hedatuena horiek badira ere, badira hedadura laburragoko beste batzuk ere, hiztunek ezpainetaratatu dituztenak: «uztaro», «garil», «*Santa Ana hil*» edo «*santanetako hil*» eta «*Santiago hil*» edo «*santiagoetako hil*».

**Garagarril** —eta **garagaril**— izen zaharra dugu euskaraz zazpigarren hilabetearentzat, eta errotuago ageri da sartaldeko hizkeretan, Bizkaian eta Araban. Landucciok xvi. mendean Gasteizen inguruan hala jaso zuen. Mende bereko errefracu-bilduma zaharrea ere bai: «Garagarrilean neskea ezark alborean» (RS 313). Andramendiko idatzi apokrifoan ere: «Garagarrilaren ogeta bost egungarrenean» (*Andramendi*). Mikoleta bilbotarrak ere xvii. mendean halaxe dakar: «Julio mes, “garagarila”». Eta ondoko hiztegi eta glosarioetan berdintsu.

«Garagarril» izena, aldiz, euskararen erdialdetik ekialderantz, seigarren hilabetea izendatzeko erabili izan da, ekaina, izen-kidetasun horrek eragin duen nahasmendu eta guzti. Nahasmen honen aitormena da, lehentxoago aipatu dugun Arantzazuko egutegiaren aspaldiko ohar hau: «Bizkaitarrak garagarrillari “bagilla” deitzen diote, ta uztaillari, berriz, “garagarrilla”» (*EgutAr*).

**Uzta** eta **uztail** izenek udaldian nekazaritza-munduan izan ohi den uzta-biltzeari egiten diote aipamena. J. Etxepare kazetariaren hitzetan: «Uztaila da; hitzak polliki erraiten duen bezala, uzten hilabetea» (*Mendekoste*). Iparralde osoan «uztail» era nagusi den bitartean, Gipuzkoa ekialdetik Nafarroa erdialderaino «uzta» izen soila da erabiliena.

**Uztaro** izena ere hil berau izendatzeko erabili izan da, Azkuek dakarrenez: «Uztaro (G, AN, L, BN, S), julio, época de la mies» (*Morf*).

Eta Erronkarin (N) jaso da, xvii. mendean, **garil** izena ere: «Erronkalti, ogei eta sei gari ilaren garrenean» (*MRos*).

\*\*\*

Hil hau izendatzeko diren forma gehienek, **julio** mailegua izan ezik, nekazaritza-jarduerekin zerikusi estua dute, laborearekin. Hainbat argibide eman dituzte, ildo horretan, herri desberdinetako lekukoek.

- Hala, «garagarri» izena Lemoizen (B) erabiltzen dela eta, lekukoak esan du: *Lenau garik julion* [‘uztailean’] *ebaten siren*. <Lehenago gariak julioan [‘uztailean’] ebakitzen ziren>.
- Kortezubin (B) ere, berriemaileak antzera hitz egin digu: Batzen asten da orduntxe; lenau garixe-ta ebai. <Batzen hasten da orduantxe; lehenago garia-eta ebaki>.

Eusebio M. Azkuek hil honen izenaren arrazoia honela ematen du: «Garagar-ilean garagarra ebagi» (PB). Badira izen batzuk santu-izendegiari lotuak direnak. Hala, **santiagoetako hil** edo Nafarroako Sakana aldean erabiltzen den **Santiago hil** izen ezagunak dira garagarriari esateko: «Julio, santiille» (*NavEncLing*). Baita **santanetako hil** edo Urola aldeko **Santa Ana hil** ere. Mende bat inguru bada, *Erizkizunde irukoitzan* izendapen hori bildu zela, uztaila izendatzeko, Azpeitian (G): «Santaneko ill» (EI).

- Azkoitiko (G) berriemaileak San Inazioen izena ere aipatu du hilaren izentzat: “*San Inazio ille’re*” bai, *batzuek, bañe gutxik*. <“San Inazio hila” ere bai, *batzuek, baina gutxik*>.
- Zestoako (G) berriemaileak Santa Ana egunaren izenaz kidetu du hil hau, bere gurasoak hala esaten zuela eta: *Esango zun bierba... Guriak beintzat ala esate’zun* [santanetako illa]. <Esango zuen beharbada... Gureak behintzat hala esaten zuen [santanetako hila]>.
- Eskiulan (Z) *üztaila* ogikaren egiteko sasoia, ogi- zein arto-uzta jasotzeko garaia dela zehaztu du lekukoak: “*Ogika*”, *erran nahi da, phikatzetik eta sartzila artio, eta “üzta*”, *erran nahi da “la récolte*”, *üzta, ala artho ala ogi, üzta hun*. <“*Ogika*”, *erran nahi da, pikatzetik eta sartzera arte, eta “üzta*”, *erran nahi da, “la récolte*” [‘bilketa’]; “*üzta*”, hala arto ala ogi [‘gari’], *üzta ona*>.

Laborantzari dagokionez, aintzat hartzekoak dira garia —edo ogia— ebakitzea aipatzen duten izenak, hil honi eta hurrengoari dagozkienak, oro har. Iparraldean

**ogi-epaiteak:** «Noiz zen iguzki, noiz euri, noiz fruituak zohi, noiz ogi-epaiteak, **mahats-biltzeak**» (*Mendekoste*).

Fruitu batzuen izenetan ere azaltzen da «uzta» izena, uztapikuarenean berariaz. Azkuek bilduak dira: «Iko-lorari batzuk “astapikoa” (Markiñan eta Oñatin), “ustapiko” (A) esaten jako. “Ustapikoa” andiagagaitik batzuk esaten dabe» (*Euskalzale* aldizkaria, R.M. Azkue, 1897).

Eguraldiaren aldetik, hil biok dituzten ezaugarri berdintsuak direla medio, maiz aipatzen dira herri-jakintzan batera uztaila eta abuztua. Eguzkitsuak eta beroak izatea da hil bion ezaugarriker ageriena. Hala bildu zuen Azkuek: «Ilabete beroenak uzta-abuztuak dira» (DVEF). Antzera idatzi zuen M. Soroak ere are lehenago. «Baratzuriyak gorriik ez badu, izaten du burniyari ateratzen zaion gisan, ordoi bat ostuan uzta-aboztutan» (*Baratzan*).

Herri-sinesteen arloan, seinalagarri da J.M. Barandiaranek eguzkiarekin egiten duen lotura: «Antziñan garagarrilla eguzkiari opaldua zegon» (ELG).



## ABUZTUA / AGORRILA

Urteko zortzigarren hilabeteari irizteko, herri-mintzairan bi forma nagusi jaso dira EHHAn: batetik, **abuztu**, edo beronen aldaeraren bat, eta bestetik, **agorril** (edo horren aldaeraren bat). Erromantzetiko izen-mailegua lehena, eta natura-eguraldien ezaugarrietatik sorturiko euskal erroko izena, bigarrena.

Bi izenok dira gutxi-asko ezagunak edo erabiliak Iparraldean eta Hegoaldean, baina EHHAn emaitzen arabera, «abuztu» hitzaren aldaerak dira hedatuena dau-denak Hegoalde osoan, baina baita Lapurdiko itsas hegian ere. Eta «agorril» izena, edo beorren aldaerak, Iparraldean ageri dira, Lapurdi erdialdetik ekialderantz.

Abuztu dela-eta forma arautua, esan beharra dago, hiztunen artean askoz zabalago erabiliak direla, *ag-* hasiera duten aldaerak: *agostu*, *aguztu* eta *agustu*, batez ere.

Mailegu-izena dela ondo dakite lekukoek. Hara Iparraldeko lekuko batzuen ohar eta azalpenak, «abuztu» izena aipatu ondoren:

- Uharte Garazikoak (NB) hauxe dio: *Lapurdin erten dute*. <Lapurdin erraten dute>.
- Aldudekoak (NB): *Espainolez da ori*. <Espainolez da hori>.
- Eta Itsasukoak (L): *Oi kasik erdia frantsesa'uzu*. <Hori kasik erdi frantsesa duzu>.

«Agorril» izena ez da, «abuztu» izenaren forma bezalakoa, hots, mailegu-izena, euskal sustrai zaharrekoa baino. Eguraldiari eta lurraren hezetasunari lotua da izen hori: hil «agorra», «lehorra» izatea du ezaugarri nagusia.

**Dagonil** izena urri ageri da EHHako erantzunetan, eta bigarren erantzun gisa, batean izan ezik —Etxebarrian (B)—. Aranismo garaian sortutako neologismoa da, herri-hizkerara elizaren eta egutegien bidez ezagutzera igaro dena.

- Zestoako (G) lekukoak adierazi duena esanguratsua da: *Arruako apaizak esate'zun, eakutsi ziun: —Noiz da San Esteban euna? —Dagonillaren iruan... Baño eztakit nungua zan! Baño nik andik dakit "dagonilla"*. <Arroako apaizak esaten zuen, erakutsi zigun: —Noiz da San Esteban eguna? —Dagonilaren hiruan... Ez dakit nongoa zen! Baina nik handik dakit "dagonila">.

K. Mitxelenak epai zorrotza eman zuen «dagonil» hitza dela eta: «Abuztua atsegin ez zitzaigulako, antzinako hitz galdu bat “ederturik”, zegoen-zegoenean ezin utzi, “dagonila” sortu genduen» (MIH).

Izan ere, «dagonil» izenaren oinean, «udagoenil» izena dagoke. *Erizkizunde irukoitzak* xx. mendearen 20ko hamarkadan, *udagoenille* forma Bizkai sartaldeko herri batzuetan (Zaratamo eta Galdakao) jaso zuen.

Eta are urrunagora joanda, euskal errefrau-bilduma zaharrenean, RSn, ageri den **daguenil** hitzak ere izen berera garamatza, «udaguenil» —hau da, ‘uda

goeneko edo amaierako hila'— izenera: «Daguenileko euria, / ardaoa ta ezta» (RS 28); alegia, abuztuko euriak bedeinkatuak direla ardotan eta ez titan, uzta ona izateko.

Abuztuari esateko, herri-egutegietan —kasurako, *Arantzazuko Andre Mariaren egutegian*— jaso den **tilistaro** ('dilisten aroa') izena, ez zaigu EHHako emaitzetan ageri...

Tradizioko idatziek, hiztegiek zein bestelako izkribuek, **agorril** izenak antzina eremu zabalagoa eta maiztasun handiagoa zituela erakusten dute.

Ziburuko (L) seme zen J. Etxeberrik bi formak aipatu zituen: «Illhabetheen izenak dire zein bere lerroan: Urtharilla, Otsailla, [...], Abustua edo Agorrilla» (*ElizLib*).

Eta Kardaberazek hiru forma ematen ditu lerroan hil horrentzat: «Urteko illen erdiak izen bana, besteak biña [...]. 8. "Agorrilla, Abustua, Abostoa"» (EBO).

\*\*\*

Abuztuko eguraldiaz, beroa da hil horren ezaugarriarik aipatuena ageri diren testigantzetan. Beroa eta eguzkiaren hila izatea dakarte gogora zenbait erre-frauk ere. Hala Oihenartek: «Sentona, agorrilan bidez bahoia, uk eureki ekitakoa ['eguzkitakoa']» (*ProvBasq* 669). Azkuek bildua da lekukoren baten baieztapen hau ere: «Ilabete beroenak uzta-abuztuak dira» (DVEF).

Lehortearen oihartzuna ere ezaguna da abuztuan... Hala dio Uzta-pide bertsolariak: «Agozto aldian / egin zigun legor» (*BertsoTxapel*62).

\*\*\*

Nekazaritzaren alorrera gatozela, soroetako laboreen uzta garaia ere bada abuztua, uztailearekin batera, baina irailera ere luzatzen dena. Gariaz ari den pasarte batean dio Zerbitzari idazle lapurtarrak: «Agorrilak ontzen, buruilak biltzen, bigek oro antolatzen» (*Gure Herria* aldizkaria, Zerbitzari, 1936).

Gariak eta artoak biltzea dela eta, honako hau jaso zuen I. Gaminde hizkuntzalariak Jataben (B): *Onenbesteko bat abadek, edo elixati emongo yakon, ta gero errin batu itx'eun gari'txe arto. Epoka. Gari batuko'eun igol ba, agostun-edo. Julio-agostun-edo, garik yoten siren ingeruen, ta arto gero, ba eneron-edo, urterrallen-edo, olan arto* (I. Gaminde). <Honenbesteko bat abadeak, edo elizatik emango zitzaion, eta gero herrian batu egiten zuen garia eta artoa. Epoka. Garia batuko zuen igual ba, abuztuan-edo. Julio-abuztuan-edo ['uztail-abuztuan'-edo] gariak jotzen ziren inguruan, eta artoa gero, ba eneron-edo, urtarrilean-edo, hola artoa>.

Arbia ereitea eta gariak jotzea noiz egiten ziren ia mende pare bat lehenagoko bertso-kopletan ere jasota dago: «Abustua zortzigarrena / nabo ereitia; / bitarte onetan, barriz, / garijak jotia» (*DurPl*).

Eta abuztuko sikatearen erdian urak duen garrantzia gogora ekartzen digu Erronkariko (N) esaera bitxi honek: «Agorrileko ura da zafran ezti eta arda» (*AzkRonc*).

\*\*\*

Herri-sineskeretara joanda, hona hemen aintzat hartzekoak diren batzuk:

— Abuztuaren lehen egunak **igarregun** eta **hilegun** izenaz ezagutzen dira. Egunok zenbat diren esateko orduan, ordea, ez dago adostasunik lekukoen artean. Azkuek jaso zuenez: «“Igarregun” ordez “ilegun” esaten dan tokietan, egun auek ogei ta lau dirala uste dute» (EY IV). Oñatin (G), hamabi egun zenbatzen direla “ilegun” modura, diosku B. Gandiaga idazleak: «Illegunak, igarteko egunak dira. Agostuaren lenengo amabi egunak izaten dira» (*ArantzFolk*).

Baztanen (N) **zotalegun** izenaz ezagutzen dira abuztuaren lehen hamabi egunok: «Zotalegunek [...]. Zotalegunetan sineste aundie dugu» (*BHizt2*).

— Abuztuan jaiotakoak ez omen dira sendo eta osasuntsuak izaten, ahul, erkin edo gaixoberak baino. Larramendik *aboztuki* > **abuztuki** eta **agorrilki** izenak bildu zituen hiztegian, abuztuan jaiotzen zirenak izendatzeko (ikus DT). Azkuek, hil horretan jaiotako abereez beste zertzelada hau bildu zuen: «Dagenilean jaiotako ume (abelume) makal elberak» (DEV).

\*\*\*

Abuztuko jaiegun ezagunena, beharbada, **Ama Birjina Abuztuko** edo **Andra Mari(a) Abuztuko** —euskara batuan, «Andre Mari(a) Abuztuko»— izenaz ezagutzen dena da; lehenbiziko forma euskararen eremuaren erditik ekialderantz erabiltzen da, eta bigarrena, aldiz, sartaldean. Atsotitzak ere badira, egun hori mintzagai dutenak. «Ama Birjiña Aguztuko, urtean bi aldiz balitzeke!» (NEZ 1457), bildu zuen D. Intzak Nafarroan, kasu.



## IRAILA / BURUILA / AGORRA

Urteko bederatzigarren hilabetearen izenetan banatasun eta berdineztasun handia azaldu da EHHako erantzunetan. Hizkera eta lurralde guztietan da ezagun dibertsitate hori, agian beste hil batzuetan baino handiagoa.

Mailegu-izenak, **setienbre** forma Hegoaldean eta *seteme* forma Zuberoan, gutxi-asko herri askotan ageri dira. «Setienbre» mailegu-izena Bizkaiko herri askotan ageri da gailen, sartalderengo herrietan bereziki. Baina bestetik, hil-izenen beste mailegu batzuekin gertatzen den bezala, bizkaieraren ekialdean ere, Deba, Debagoieneko Leintz Gatzagan eta Durangaldean sakon erroturik dago mailegu-izen hori. Euskalki bien banatze-gune horretan mailegu-izenak egiten du zubi, «irail» sartaldekoaren eta «agor» erdialdekoaren artean. Eta itsasaldeko herrietan ere mailegu-izena da nagusi. Honen arrazoietariko bat izan liteke beharbada, itsasotik atera dutela bizimodua, eta ez «irail» edo «agor» izenen giroko laborantzatik.

**Irail** euskal oina duen izena ira-ebakitzearen udazkeneko nekazaritza-jarduerarekin estuki lotua dago, ‘ira-hila’; «iratze», «garo» edo «iraztor» ere deritzan baso-belarra, tradizioz ganaduaren azpigarritzat eta simaurraren ongarriztat biziki estimatua izan dena, uda ondoko hiletan ebaki, metatu eta

etxera ekartzen zena. «Ira» landarearen izenak eman dio hil horri gaur egun nagusi den izendapena. Beronen aldaerarik ezagunenak, *irille* eta *ireille*. Errefrau batek ere irailaren 1a aipatzen du ira-ebakitze aldiaren abiapuntutzat: «San Gil, iretzeak ebakitzea zil» (NEZ 1916).

Gipuzkoa Erdialde eta ekialdean **agor** deritzo irailari, eguraldiari eta batez ere luraren giroari atxikirik dagoen izena. Euririk ez edo euri gutxi egiten duen hila izatearen ezaugarria bihurtu da Erdialde horretan hil horren izena.

- Errezilgo (G) lekukoak diosku: “*Iraila*” *oaiñ; guk ikasi genduna: “agorra”*. <“*Iraila*” orain; guk ikasi genuena: “*agorra*”>.
- Eta Azpeitikoak (G): *Udik eztaonen, agortuta eote’a, ba... Ola jarritako izena izango’ula orrek... Ebik it’eztulako, “agorra”*. <Urik ez dagoenean, agortuta egoten da, ba... Hola jarritako izena izango duela horrek [uste dut]... Euririk egiten ez duelako, “*agorra*”>.

Urik ezaz errekek agortzea ere aldi honekin lotua dago: *Agorrillian erreken agorrak eitten dira* (T. Etxebarria). <Agorrilean erreken agorrak egiten dira>.



• Aramaion (A), «irail» zein «agor», bietara ohi deritzo urte-sasoi honi. Baina lekukoak zehaztasun bat gehitu nahi izan du, ira-biltzea dela eta. Irak gehienbat hurrengo hilean biltzen zirela argitu gura izan du: *Oin iraille, bañe nik estot ori ondo topau eitten, se oin irie erretiretan asi eitten da, bañe iraille urrengua da geixau*. <Orain iraila, baina nik ez dut hori ondo topau egiten, zeren orain ira erretiratzen hasi egiten da, baina **iraila hurrengoa** da gehiago>. Eta «agor» izenaz, beste ohar hau erantsi dio: *Agorrien iketz ein; egurre erretirau, de gero irie ebaiten ekin. Samieletarako, al basan, ire apurtxu bet ekarten ekin*. <Agorrean [‘irailean’], ikatza egin, egurra erretiratu eta gero ira ebakitzen ekin. Sanmigeletarako, ahal bazen, ira apurtxo bat ekartzen ekin>.

**Buruil** deritzo hil horri Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Nafarroa iparraldean, edo berorren aldaeraren bat (*buuil, buul* eta *büül*).

Badira eremu laburragoak, beste hil baten izenaz baliatzen direnak, edo «lehenengo» edo «bigarren» osagarriez lagundurik: **urri lehenengo** (*urri lelango*, ahoz) edo **urri lehenengoko** (*urri lelangoko*, ahoz) dugu bat, hurrengo hilaren «urri» izena ardatz hartuta; **bigarren abuztu** (*bigarren aguztu*, ahoz) dugu beste bat, «abuztu» aurreko hil-izena oinarekin batera.

**Urri** izen soilaz izendatzen da hil hau Nafarroa hegoalderengo euskararen eremuan: hala, Sakanako herrietan eta gorantz Ezkurra ingururaino. Baina Nafarroa ekialdean ere, Abaurregainean EODA, izen hori bera du. Eta denboran ehun urte atzera jotzen badugu, xx. mendearen 20ko hamarkadan egin zen *Erizkizunde irukoitza* hartan, oraindik euskara bizirik zegoen Arabako Lautadako herrietan (Gopegi eta Nafarrate) ere «urri» zeritzola hil honi ageri da. Eta Bizkai sartaldean, Arratia aldera jaitsiz gero, Zeanurin (B) «urri» bildu da erantzun modura, eta Diman (B) *urri lelango*. Bigarren izen hori Bizkai sartaldeko beste herri batzuetan ere —Orozko, Laukiz eta Bermeon— batu da bigarren erantzun modura.

*Urri lelango* edo *urri lelangoko* izendapenen arrazoia gardena da. Zeanuriko berriemaileak honela arrazoitu du: “*Urri lelango*”: *bata lelangoa ta bestea bigarrena*. <“Urri lehenengo: bata lehenengo eta bestea bigarrena>. Izan ere, inguru horretako herrietan hurrengo hilari **urri bigarren** ohi deritzo. **Urria aurreko** ere bildu izan zen EIn, hil honentzat Gernikan (B): *Urridxe aurrekoa*.

Aldi zaharragoetan, 1501. urtean, Iruñean ere **urril** (*urrilla*) bildu izan da (ikus ETZ 19). Eta Gipuzkoako Goierri aldean ere berdin: «Milla seieun ta amalaugarren urtean urri-illaren amabian» (GK).

Idazle klasikoetara joanda, Kardaberaz hernaniarrak, esaterako, irailari dagozkion izen nagusi bezala hiru aipatu zituen: «Burulla, Iralla, Agorra» (EBO).

\*\*\*

Iraileko eguraldiari erreparatuko diogu orain. EHHako lekukoek gorabehera handiak izaten direla nabarmendu dute. Eta halaxe, klimak ere hilaren izena hau edo hura izatea dakar sarri.

- Lehentxoago jaso dugun Azpeitiko (G) lekukoaren esana gogora ekar dezagun berriz, «agor» izenaren arrazoi arteza eman baitu: *Ebi gutxi ite'un..., agortu [...]. Ebik it'eztulako, "agorra".* <Euri gutxi egiten du..., agortu [...]. Euririk egiten ez duelako, "agorra">.
- Nafarroa Behereko Arboti-Zohotan zentzu berean datorren esamolde bat darabilte: *Büilaz gioz, eüria gapharpian.* <Buruilaz geroz, euria kaparpean>.

Beste herri batzuetan ere sineste bera aitortzen dute hil honi buruz errefrau batzuek. Iraileko haizeaz mintzo da errefrau bat, Burunda eta Etxarri Aranatz (N) ingurukoa: «Urriko tenporetan zer aize, urte guzian alaxe» (CEEN).

\*\*\*

Nekazaritza-alorrean, ira-biltzeak aipatu ditugu lehen, baina aspaldi batean lihoa ere erein eta lantzen zen eta, horren testigantza dakarkigu D. Intzak Ultzaman (N) jasotako honako errefrau honek: «Ama Birjiña Urriko, lioa iru orriko» (NEZ 1109).

\*\*\*

Hil honetako egun izendatuen artean bi aipatuko ditugu:

— Irailaren 8a dugu Andre Mariaren edo Andredena Mariaren eguna. Egun horri buruzko izen, sineskera eta errefrauak badira eta, hona hemen batzuk-batzuk.

**Andra Mari(a) Irailgo** (euskara batuan, «Andre Mari(a) Irailgo») ohi deritzo Bizkaiko eta oro bat sartaldeko hainbat lekutan. Dantza-kopla ezagun baten hitzak dira Lekeition batutako honako hauek: «Andra Maridxa Irailgos, / Andra Maridxa Irailgos / Arraten erremedidxa. / Neu bere araxe noya, / eitten espadau euridxa. / Eitxen espadau euridxa, / Arraten erremedidxa» (Maria Leniz Urkiaga, informatzailea). <“Andre Maria Irailgoz, / Andre Maria Irailgoz / Arraten erromeria. / Neu ere haraxe noa, / egiten ez badu euria. / Egiten ez badu euria, / Arraten erromeria”>.

**Ama Birjina Urriko** ohi deritzo Nafarroako hainbat lekutan. Egun horri atxikia den errefrau batek dio: «Ama Birjiña Urriko, inoiz ez al duk etorriko!» (NEZ 1457). Udaldiko jai-festen bukaera-unetzat aipatua, berariaz jai-giroan segitzeko zale direnen aldera.

**Andredena Maria Buruileko** ohi deritzo Iparraldean nagusiki. Antzinagoko idatzietan: «Behar zuten harmetan pasatu buruillaren 8an, hori da Andredena Maria Buruillakoz» (*Fedearen Propagacioneco Urtecaria* aldizkaria, 1911). Oraintsuagoko aldian, Zuberoan, *Andredana Maria Setemerekoa* izenaz ezagutu da egun hau bereziki (*UskLiB*).

— Irailaren 29an Jondoni Mikeleren eguna da: «Buruilaren ondarra Jondoni Mikele» (*Kantuz*).

\*\*\*

Udatik negurako bidean doala urtea oroitarazten digute hil honi dagozkion zenbait errefrauak. Hala, hil honen inguruko errefrauetan aipagarri dira, batetik Baigorri (NB) jasotako hau: «Buruila udaren buztana, ta neguaren astapena» (CEEN). Eta bestetik, hauxe: «Buruilak uda ez hiltzen, bainan neguaz oroitzen» (EZBB I 74).





## URRIA / URRIETA / LASTAILA

Urteko hamargarren hilabeteak euskararen eremu osoan euskal sustraiko izen bakarra du ointzat: **urri**.

Oin-izen horren inguruan garatua da **urril** izena ere, [urri + (h)il] osagaiez ehoriko hitz elkartua, beste hainbat hil-izenen analogiaz garaturiko egitura berekoa. Gipuzkeraren eremuko hainbat herritan azaldu da EHHAn berau, hala nola Aian, Asteasun, Errezilen, Hondarribian, Oiartzunen eta Tolosan; baina herriotariko batzuetan, «urri» era soilarekin batera.

**Urrieta** izen eratorria, *ürrieta* aldaerapean, Zuberoako hizkera guztietan ageri da. Mende bete aitzinago egin ziren EI inkestetan, Gamere-Zihigan (Z) eta Erronkaribarreko Uztarrotzen (N) ere dokumentatu zen. Halaxe ageri da XVII. mendeko gutun batean: «Zure azken gutuna urrietaren ogei eta borz garrenekoa» (*MRos*). Eta XX. mendean, Mendigatxak Azkueri bidaliriko gutunean ere badugu: «Bidankoze 1904ko urrietaren 29na» (*Mendigatxa*). Bizkai sartalderengo herri batzuetan ere bizirik dirau oraindik «urrieta» hitzak, beti edo ia beti leku-denbora kasuetan, berariaz **urrietan** inesiboan. Getxon (B) bildu da EHHako erantzunetan, baina Arratiako ibarrean ere —Zeanurin, Arantzazun...—, halaxe entzuten da gaur egun: «urrietan», pluralez. Pluralezko erabilera horren sustraian «urri» bi direlako dago, hots, «urri» izeneko bi hilabete: «urri lehenengoa», iraila izendatzeko, eta «urri bigarrena», hamargarren hilabete honentzat.

«Urrieta» izena aspaldi zaharretik lekukotua dugu sartaldeko hizkeretan, bestalde: «Urrieteak urri gauzak, ta urri dira aren bearrak» (RS 149).

**Urri bigarren** izena, edo **urri bigarreno**, Bizkai sartaldean jaso da EHHAn: Hego Uribeko herri batzuetan (Zeberio, kasu) eta baita Arratian ere (Zeanurin, esaterako). Baina XX. mendearen 20ko hamarkadan egin zen EI inkestetan, Bizkai sartaldeko eremuan askoz errotuago eta hedatuago zegoen izen hori. Arratian (Igorre) eta Nerbioiko ibarrean (Laudio, Orozko, Ugao, Bilboko Buia auzoa) ez ezik, Txorierrin (Loiu, Sondika, Leioa) eta Mungialdean (Jatabe-Maruri, Meñaka) ere bildu zen. Leku batzuetan **bigarren urri** izena ere eman zaio, hala Sondikan (B), nola Gopegin (A). Eta **urria osteko** ere bai, Maurgan (A): *urridxe ostekoa*.

Aipagarri dira Nafarroan **urriaro** izena, *urriyero* aldaerapean Donamarian (N), eta **gaztainazitu** izena, *gaixtañezittu* aldaerapean, Ezkurran (N).

**Lastail** ('lasto-hila'), hil lastotsua, alegia, Nafarroa hegoaldean, batez ere Sakanan (Arbizu, Dorrao, Urdiain), eta Nafarroa ekialdean (Etxaleku) hartu izan duen izena geroz ahantziago dagoela dirudi zenbait herritan (Igoa, Suarbe, Beruete). Horrekin batera, gariaren ereintza hurrengo hilean izango dela iragartzen duten errefrauak badira: «Lastella lastozu, azaroko lohiei gariya bota'zoozu ['egiozu']» (*Garate* 8890).

Hil honetan laborantzari lotuak diren ezaugarriak adierazten dituzte izenok: uztaren urritasuna, lastoen hila edo hil «lastozua» izatea edo gaztainen hila delakoa, berariaz.

**Otubre** mailegu-izena Hegoaldeko lau probintzietan azaldu da, hainbat herritan eta lehen izen gisa, EHHaren arabera. Nerbioiko ibarrean, Bizkai eta Gipuzkoako itsas herrietan, Deba eta Debagoieneko Leintz Gatzagan, eta berdin Gipuzkoako eta Nafarroako herri batzuetan. Bergarako (G) etsenplu bat, J.M. Elexpurrena: *Gaur egun otubre ia bakarrik* (J.M. Elexpuru). <Gaur egun otubre ['urria'] ia bakarrik>.

\*\*\*

Urriko eguraldia aipu duten esaera ezagunak ere badira. Aipamen berezia merezi dute, urriko eguraldia ondoko hiletako eguraldiaren igargarri izan ohi dela dioten esaera eta errefrauak.

— Haizea da mintzagai batzuetan. Zelako haize-modu den urrian, halakoxea izango omen da negu guztian ere: «Urriko tenporetan ze aixe, negu guztien alantxik» (*Garate* 13121); «Urriko tenporetan zer aize, urte guzian alaxe» (CEEN).

— Elurraren etorrera goiztiarra ere luzaroko elurteen iragarle delakoa esaten zaigu beste batzuetan: «Urriko edurra, zortzi hilebeteko edurra» (EY III 1223). Beste era batera esanik: «Urriko hilberrian elurra zuritzen badu, ondo(r)engo zazpi hilberrietan seguru zurituko du» (*Garate* 13119).

— Neguaren sarreratzat jotzen den hila izanik, eguraldi txarretatik babesteko neurriak hartu beharra ohartarazten zaigu batzuetan: «Urriak buztanaz, zezeilak bularraz» (*Garate* 13105).

Eguneko argia laburtuz doala iragartzen duten errefrauak ere ez dira falta, eta berdin hurrengo hilak aipatzen dituztenak ere. Hala, Baigorri (NB) D. Intzak jasotako honako hau: «Urriko eguna, argiko iluna» (*EsZah* I).

\*\*\*

Laborantza-arloan, lihoa aipatzen da errefracuetan, urri hasieran handi eginda egon behar duela-eta esanez urriaren 4an ospatzen den San Frantzisko eguna da egun seinalatua horretarako: «San Franzisko Urriko, liñua hiru orriko» (EY III 71). Gaztaina-biltzen jarduteko hila ere urria dela gogora ekartzen digu beste errefracu batek: «Urriaren azkenean, gaztaina etxean» (*Garate* 13108). Baita ardo berriaren hila ere: «Urrietan arno berri, dupetan limurtzen ari» (*Garate* 13109); «Urrian matsa dator» (PB).

Urrian ehiztariak ere pozik ei dabilta... Hurrengo esaera hau uso-ehizaz mintzo da: «Urria, usoaren galgarria» (*Garate* 13104). Beste batzuetan eperraz: «Agorra eta urria / eper-eizerakoak dira» (*IztOlerk*). Eta beste gehiagotan ehizaz orokorrean: «Urria, ilabete eztea, ihiztarien loria» (*Zubiri*); «Aurten ere joan da amilka urrilla, eiztarion illa... » (*GoierLor*).

Artoak bildurik eduki beharreko alditzat ere jotzen da urria: «Urrijan artua batuta» (KO).

\*\*\*

Urriaren egun seinalagarrien artean **San Simon eta San Juda eguna** dugu, hil amaieran, urriaren 28an ospatzen dena. Neguaren sarrera iragartzen duen eguntzat ageri da herri-siniskeretan zein errefracuetan. Ezagunena: «San Simon eta San Juda, joan zen uda eta negua heldu da». Artzaintza lanbide dutenen artean honako gehigarria gehitu izan zaio: «San Simon eta San Juda, uda joan ta negue eldu da, artzai gaxoa galdu da» (NEZ 511). Aldi horretantxe elurra egiten hasten dela gogora dakarten esaerak ere badira: «Sansimonetan, kapa zuria mendietan» (NEZ 1284).





## AZAROA / ZEMENDIA / HAZILA

Urteko hamaikagarren, azken aurreko hilari esateko, lau izen nagusi bildu dira EHHAn Euskal Herrian zehar: «azaro» (*azau* aldaera ere bai), «zemendi» (*semendi*), «azil» eta «nobiembre».

**Zemendi** izena sartaldeko hizkeretan dago erroturik, bereziki Bizkaikoetan, eta zabal erabilia da, berariaz nekazari-giroan. Latinetiko maileguaren etorkia badu ere (SEMENT- erroa du), «azaro» eta «hazil» izenen adiera berbera du: hazi-ereitea gogorarazten digu. «Zemendi» hitzaren erro berekoa da, nekazarien artean hain ezaguna den *sementera* hitza ere.

**Nobiembre** mailegu-izena Pirinioez hegoaldeko euskararen lurralde guztietan hedaturik dago gutxi-asko, era sakabanatuan. Horretara, Nafarroan maila apalean esango genuke, Gipuzkoan ere bai, baina batez ere: Bizkai-Gipuzkoako herri mugakideetan, itsas hegiko herri anitzetan, eta partikularki Bizkaiko askotan.

**Azaro** izena da euskararen lurraldean zabalerarik handiena hartzen duena. Gipuzkeraren eremuan hasi eta Nafarroa osora hedatzen da. Baita Nafarroa Beherean eta Zuberoan ere, hor *azau* aldaerapean. ‘Hazi-aroa’ da esanguraz, hazia ereiteko aldi edo aroa.

«Azaro» izena Bizkai aldean ere guztiz ezaguna da nekazaritza-arloan, baina ez hilaren izenari esateko, baizik eta ereiteko tertzio ona dagoela aditzera emateko. **Azaroa** dagoela esan ohi da sartaldeko hizkeretan, hau da, euria egin ostean lurrak izan ohi duen giro ona adierazteko modua. Halaxe bildu du Mallabian (B) Pello Mugartza ikertzaileak: *Euri edarra eindde, au da asarue ipiñi dabena!* (Berbategia.eus). <Euri ederra eginda, hau da azaroa ipini duena!>.

**Hazil** izena Iparraldeko tradizioan erabili izan da, Lapurdin eta Nafarroa Beherean nagusiki, baina ez Zuberoan. Gaur egun, aldiz, EHHAn arabera, Nafarroa Beherean «azaro» izena da nagusi, eta *azil* Bidarrain (NB) eta Larzabal (NB) baino ez da ageri, eta eurotan ere bigarren erantzun gisa. «Hazil» izenak, dena den, Gipuzkoako herri batzuetan ere bizirik dirau oraindik, bigarren erantzun modura, Errezilen, kasu. Krispin Beobide azpeitiarrak XIX. mendean darabilen izena dugu «hazila»: «Bukatu zituania Erromako egitekuak, azillian itzuli zan Asisa Santa Maria Aingeruenera» (*AsL*).



Nafarroa ekialdean «abendu» izenaz baliatu izan dira urtearen azken hil biak izendatzeko. Azaroko hilari, **lehenbiziko abendu** bildu da Abaurregainean (N).

Azkuek Zaraitzun (N) eta Erronkarin (N) *abentu andia* eta *len abentua* bildu zituen, hots, **abendu handi** eta **lehen abendu** (ikus DVEF).

Kardaberazek hiru izen eman zituen, hil honi dagokionez: «Azaroa, Azilla, Zemendilla» (EBO). Hirugarrena analogiaz ehoa, [zemendia + (h)ila] osagaiez, beste hainbat hil-izenen taxuan, baina nekez entzuna.

\*\*\*

Eguraldiaz ere badira errefrau edo bestelako esamoldez iritzia ematen dutenak. Negualdiko beste hil edo aldi batzuetan bezala, azaroz ere eguneko argiaren laburra gogorarazten da errefrau bidez. Gipuzkoan bilduriko batek dio: «Azaroko eguna bostak eta illuna» (AEF). Halaber, azaroko eguzkiaren indar apala: «Hazileko ortzia, neguko iguzkia» (*Garate* 1733).



## ABENDUA / GABONILA

Urteko hamabigarren eta azkenengo hilabeteari herri-hizkeretan ematen zaizkion euskarazko izenak, hil horretan den kristau-ospakizun alditik datoz: «abendu» eta «gabonil»; baina maileguz hartua den «dizienbre» izena ere sakon sartua dago leku askotako hizkeretan.

**Abendu** izenaren oinean latinezko adventu(m) dugu. Izen honek euskararen eremuan hiru aldaera nagusi ditu: *abendu*, Pirinioez beheitian nagusi den

forma; *abendo*, Iparralderik gehiengan —Lapurdin eta Nafarroa Beherean— eta Nafarroa goiengan erabilia den aldaera, eta azkenik *abendü*, Zuberoako lurraldean darabiltena.

«Abendu» izenaz bi hilabete izendatu izan dira Nafarroa ekialdeko hizkerezan, EHHAn. Jaurrietan (N) eta Abaurregainean (N) «bi abenduen» kontzeptua jaso da, azaroa eta abendua barne hartuz. Abaurregaineko lekukoak diosku, urteko hamaikagarren hilabeteari, «lehenbiziko abendu» (*lemixiko abendu*) edo «abendu» soilik esaten zaiola. Hamabigarren hilabeteari, zehaztasun gehiagoz, **bigarren abendu** deritzola bildu da Jaurrietan. Baita Zaraitzuko (N) hizkeran ere: «Baia bigarren abenduan ta izotzilian gaba kain luze nola baita» (*ZarHizt*). Eta **abendu txikerra** (*abendu txikerra*) Erronkarin (N): «Vidankoze 1903 abentu txikerreko 29na» (Mendigatxa); «Orai xa kontan baratan naz aiketa abentu txikerrekoaraino» (Mendigatxa).

Baina **abenduko hil** izen elkartuaz ere izendatu izan da hil hau: «Milla sei eun ta amargarren urteko abenduko illaren seigarren egunean» (GK).

**Gabonil** izenaren oinean «Gabon» eguna dugu, kristau-dotrinan Jesus haurra jaio zen «gau ona». Beste hainbat hil-izenetan gertatzen den elkarketa beraz eratua dugu «gabonil» ere, «urtarril», «otsail» eta abarren antzera. Euskararen sartaldeko hainbat herritan, Bizkai erdi ingurutik Gipuzkoa erdi ingururaino, hedatzen da —tarteka, baina— izen honen erabilera. Lehen erantzun modura jaso da, Arrazolan (B), Mendatan (B), Arrasaten (G), Oñatiko Araotz (G) auzoan eta Azkoitian (G), «abendu» edo «dizienbre» izenak bigarren erantzunak dituztela. Lemoan (B) **gabonetako hil** (*gabonetako ille*, ahoz) izen modura bildu da. Ehun urte inguru lehenagoko EIn ere, Ataunen halaxe esaten zitzaioela batu zen.

**Dizienbre** mailegu-izena, beste hil-izen batzuekin gertatzen den bezala, zabal erabilia da, edo aurreko izenetariko batekin alternantzia, edo izen printzipal gisa. Belaunaldia berritzean gertatu ei dela «abendu» esatetik «dizienbre» esatera aldatzea, berriemaile batek baino gehiagok ohartu dute:

- Andoaingo (G) lekukoak, «abendu» erantzun du hilaren izenaz galdetu diotenean, baina jarraian erantsi: *Baño ibilli, “dizienbria” itte deu*. <Baina erabili, “dizienbrea” egiten dugu>.
- Bergarakoak (G) ere antzera: *Gaztiekin-da, “dizienbria”; geure edadeko batzuekin, “zemendixa”*. <Gazteekin-eta, “dizienbrea”; geure edadeko batzuekin, “zemendia”>. (Aurreko hilaz nahasturik agian?)

- Oderizko (N) berriemaileak ere hauxe dio: *Guk emen beti “dizienbre”, baño amak beti “abendu”*. <Guk hemen beti “dizienbre”, baina amak beti “abendu”>.
- Bizkaiko herri batzuetan ere —Mañarian (B) eta Lekeition (B), berbarako— «abendu» hitza zahartzat jo dute, «dizienbre» darabiltelako.

**Neguil** izena Orotz-Betelun (N) erabilia zela dokumentaturik dakar EI inkesta-lanak.

Bestetik, **lotazil** izena ere badugu. EIk Galdakaon (B) eta Zaratamon (B) *lotazille* forma bildu zuen, EHHAn ez da horren aztarnarik jaso.

Beste izendapen batzuk ere ageri dira zenbait agerkaritan. Hala Iparraldeko urtekari batean ageri da: «Abendoari erraiten diote han hemenka neguila, lotazila, **beltzila** edo **hotzaroa**» (*Gure Almanaka*, 1951).

\*\*\*

— Laborantzari dagokionez, gariaren ereinaldia amaitua da abendurako, eta neguko hotzei aurre egiteko sugarria biltzea da behineneko zeregina, negualdi luzea bero-berotan igarotzeko.

- Aramaioko (A) lekukoaren hitzak dira honako hauek: *Abenduen garixe ereiten bukatu; orbela batu, egur apur bat gerta...* <Abenduan garia ereiten bukatu; orbela batu, egur apur bat gertatu...>.

— Soro eta baratzetako lanak abenduan geldian uzten direlako iritzia era diferentez azaltzen da herri-jakintzan. Honetara jaso du Pello Mugartza ikertzaileak Mallabian (B): *Abenduen es da bierrik egoten ortuen* (Berbategia.eus). <Abenduan ez da beharrik [‘lanik’] egoten ortuan>.

— Ereintza-lanak, azaroan ardura handiz egin beharrekoak, abendura atzeratzea ez dela ona ohartarazten zaigu errefracuen bidez: «Ereiteko, abenduko autsak baño azaroko loiak obe» (*Garate* 4060). Baina behar den baino beranduago ereitea ere batzuetan tamalez gertatzen omen da...: «Gure azarora abenduan, / goiz bear ta beranduan» (*Amezketarra*).

— Ganaderitza dela-eta diren sineste-iritzietan, badira elurtzen etorreraz eta ondoko kalteez mintzo direnak. Errefrau baten esana: «Abendu txuri, ez ardi ta ez axuri» (*Garate* 24).

— Artazuritzeak ere abendu inguruan egiten dira. Horren testigantza utzi ziguten Durangoko zilarginek beren kopletariko batean: «Abenduba amabi / artuak zuritzia, / mutil-neskatillentzat / ondo alegria» (*DurPl*).

\*\*\*

Hotzaldien etorrera aipatzen da maiz abenduari dagokionean. Hotzak, euria, elurra eta izotza heltzen diren sasoia da urte amaierakoa.

- Eguraldi gordin horiei lotua dagoke, Uztaritzen (L) xinaurriaren kantuetan agertzen den **abendu beltz** forma: *“Abendu beltza” erraiten da, maiz abendoan ormak eta, denbora tzarrak egiten baititu*. <“Abendu beltza” erraiten da, maiz abenduan hormak eta, denbora tzarrak egiten baititu>. Eta ostean: *Xinaurriaen kantuetan erraiten da: “Ona abendo beltza, neguarekin, orma ta elurra egiten duilaik”*. <Xinaurrien [‘inurrien’] kantuetan erraiten da: “Hona abendu beltza, neguarekin, horma eta elurra egiten duelarik”>.

Elurteen etorrera ere hil honetan sarrien gertatzen dela iragartzen duten esaerak hainbat dira. Eta abenduko elurrak, izotzarekin nahaste, izan ohi duen gogortasuna ezaugarritzen duten adjektiboak ohi dira: burdinazkoa batzuetan, altzairuzkoa beste batzuetan. «Abenduan elurra altzeiruz, urtarrilean burdinez...» irudikatzen da errefrau batzuetan (*Garate* 29); eta aldiz: «Abenduan elurra burdiñez, urtarrilean altzeiruz...» (*Garate* 30).

Eguneko argia laburra eta gaua luzea dela, maiz aipatzen den leloa da esaera eta errefrauen bidez. Hala, D. Intzak Nafarroan bildua du: «Abenduko eguna, argitu orduko iluna» (NEZ 1097). Batzuetan Santa Luzia eguna (abenduak 13) aipatzen da zehazki: «Santa Luzia eguna, argi deneko illuna» (OE).

Abenduko haizea ere hurrengo hiletakoaren igargarri izan ohi delako adierazpenak ere badira, beste hil batzuetan ere ohi diren moduan. Olentzero eguneko, abenduaren 24ko haizeaz mintzo da horietariko bat: «Olentzero arratseko aizeak berrogei edo iru illabeten segitzen du» (*Garate* 10571).



W

Abenduko lainoaz mintzo da esakune zahar ezagun bat ere: «Abenduko lainoa, euria edo egoa» (RS 4).

Oro har, pitean-pitean erabilia da abendu hila atsotitz eta esamoldeetan: «Abenduko illa, izar» (*Garate* 35).

\*\*\*

Eta amaitzeko, bi ohar abenduko etxe-barruko jardunen gainekoak:

— Abenduko janariez diharduten esaeren artean, errefrau zaharretarik datorren leloa da arbia dela abenduko janari berezia: «Nor bere tenporako, arbia abendoko» (*Isasti* 64). «Dagonean dagona ta abenduan arbija» (*Garate* 3454). Eta beste behin aipatzen da ere *arbi errea*: «Gauza bakoitza bere garairako ta arbi errea abendurako» (*Garate* 5352).

— Errenta-ordaintzea ere hil honetan egiten zen, San Tomas egunean, hain zuzen. Hara hemen Erandioko testigantza: *Disienbren ogetabaten isete san ori errenteori pagateko* (I. Gaminde). <Dizienbrearen [‘abenduren’] hogeita batean izaten zen hori errentaori pagatzeko>.

Errenta-ordaintze egun horri, destainaz-edo, «Santu Larri» deitu izan diote leku batzuetan. Hala dakar Azkuek: «Santu Larri eguna eldu daiñean, etxe-jaubeari eztautsat gabonkari andirik eroan al izango» (*Euskalzaletze* aldizkaria, R.M. Azkue, 1897).



2

# **EGUNAREN ATALAK ETA AGURRAK**



## 2.1 Egunaren atalak

### EGUNSENTIA / ARGÍ-HASTEÁ / GOIZNABARRA

Eguna argitzen den unea nola izendatzen den galdegitean, lekukoek eman dituzten euskarazko forma nagusiak bi eratakoak dira funtsean: **egunsenti** eta bere aldaerak, batetik; eta «argi» izenaz eraiki diren izen elkartuak bestetik: **argi-haste**, **argi-zirrinta** (eta *argi-xirrinta* aldaera), **argi-azkorri**, **argi-leinuru** (eta *argi-leinhürüa* aldaera), **argi-urratze** eta beste gehiago. «Egunsenti» izena da euskararen sartalde eta erdialde osoan nagusi, «argi-haste» Nafarroan, Lapurdi sartaldean eta Nafarroa Behereko hegoaldean, eta «argi-zirrinta» gainerako eremuetan, Zuberoan salbu.

- «Egun» izenaren oinaz eraikiak diren izen elkartuen artean, «egunsentia» da hedatuena; Bizkai eta Gipuzkoako eremu osoan hedatua dago. Hala Zaratamon (B), pluralez: *egunsenteiyek*.

Zenbait herritan, aldiz, «egun» izen-oinaren bigarren osagaia ez da beti «-senti», baizik eta besteren bat:

- Bizkaiko itsasaldean eta sartaldean, **egun-ikara** bildu da. Bakion (B), Bermeon (B), Leioan (B), Laukizen (B) eta Mungian (B), *egun-ikera*, eta Kortezubin (B): *egun-ikerie*.
- **Egun-txinta** bildu da Gipuzkoako zenbait herritan, esaterako, Legazpin (G), Andoainen (G) eta Tolosan (G): *euñ-txinta*.
- **Egun-txirrinta** eta berorren aldaera ugariak, ekialdean. Kasurako, Bardozen (L), *euñ-txirrinta*, eta Goizuetan (N), *euñ-txirriñtxa*.
- **Egunabar** jaso da sartaldeko hizkera batzuetan. Berbarako, Diman (B), Arrasaten (G), Busturian (B) eta Arrankudiagako Zollon (B): *egun-abar*. Halaxe erabili izan dute zenbait idazle klasiko modernok ere: «Biamononeko egunabarrean agertu zirean txalupa guztiak aide ta adiskideen pozgarrirako» (*Josetxo*).

- **Egun-punta** bildu da Bastidan (NB). Eta «goiz» izenarekin, **goiz-punta**, Hondarribian (G): *goiz-puñtta*.
- **Egun-zabalera** izen elkartua ere bildu da. Esaterako, Donostian (G): *eunsabaleran*.

**Eguna zabaldu** izen-aditzen arteko elkarketa-lokuzioa da, hala ere, askoz ugariago eta hedatuago ageri dena, berariaz sartalde eta erdialdeko hizkeretan. Hala:

- Zegaman (G): *Eune zabaldu*. <Eguna zabaldu>.
- Eibarren (G): *Goizian eguna zabaldu ebanian* (T. Etxebarria). <Goizean eguna zabaldu zuenean>.
- Durangaldean: «Bere diruen gordelekura joan zan eguna zabaldu orduko» (*Ibaizabal* aldizkaria, Kirikiño, 1889).

**Eguna argitu** ere ohikoa da:

- J. Mokoroaren bildumatik ekarria da: «Bein baiño geiagotan aditu izan nien gau guztiak, arik eta eguna argitu arte, ze ardaila gorrian ibiltzen zitun Mariya Murukok...» (OE; Josefa Martina Mujika).
- Zestoan (G), Uztapideren idazlenetatik: «Eguna argitzen duanetikan / berriz ilundu artian» (*Sasoia*).

**Egundu** aditzaz ere izendatzen da egunsentia, edo egunaren etorrera. Agian literatura idatzian ugariago, ahozko testigantzetan baino. Hala, Añibarro Arratiako idazlearen idatzian: «Egundu baxen len» (EL). Edo Duvoisin lapurtarren luman: «Egundu zenean» (*DuwoBiblitzulpen*). Edo P. Iraizoz nafarraren testigantzaz: «Egundu zuenean» (*YKBiz*). Edota Azkue lekeitiarrarenean: «Baita gaurko andikiak bere, eguna gautu ta gaua egundu gura leukeela bizi dira-ta» (*Euskalzale* aldizkaria, R.M. Azkue, 1897).

«Argi» izen-oinaz eraiki diren izen elkartu edo lokuzioak ere ugariak dira.

**Argi-haste** da maiztasun eta hedadura handienekoa. Zenbait aldaera ere baditu berekin: *artatse*, *artaste*, *argiste* dira ezagunenak. Hala azaldu dira:

- Zugarramurdin (N): *Argi-astean*.
- Zilbetin (N): *Argi-astian*.
- Suarben (N): *Argixtian*.
- Berueten (N): *Argi-axte*.
- Pagolan (Z): *Argihastin*.

**Argi-urratze** izena ere aspalditik datorren forma dugu: «Argi hastea, argi urratzea» (*SP-Imit*). Baina *arturratu* aldaera zaharraz aditz modura ere erabili izan da: «Alborear, arturratzen asi» (*SuplementosDL*).

**Argi-zirrinta** eta **argi-tirrinta**, eta euron aldaerak:

- Beskoitzen (L): *Argi-tirrinta*.
- Itsasun (L): *Argittirriñtta*.
- Bidarrainen (NB): *Argi-zirrint*.
- Domintxainen (Z): *Argi-xirrinta*.
- Montorin (Z): *Argi-txirrinta*.
- Santa Grazi edo Urdatxen (Z): *Argizirrinta*, ez *argi uano*. <Argi-zirrinta, ez argi oraino>.

**Argitze** aditz-izen soilaz ere izendatzen da egunsentia hainbat lekutan, bera-riaz Iparraldean: «Argitzeko uriak busti zaitu» (*DvHizt*); «Argitzean, eguerdi-tan, / arratsean nazano, / gaua goizak ordaritan / biharamunt dazano, / zuri huts, et' ez bertzeri / darraik' ene gogo» (*OihPo*). Nafarroako Sakanan, Urdiainen (N), bildua dugu hurrengo hau ere: *Argitziekin batea*. <Argitzearekin batera>.

**Argialde** izena ere franko erabili izan da Lapurdi aldean. Idatzietan, hala darabil Oxobi Bidarraiko semeak: «Argialdea da. Elizetarik izkilak entzuten dira; oilarren kokorikoak ere» (*Ox*). Baita Lafittek ere: «Argialdera arribatu niz etxera...» (*Kantuz*).

**Argi handi** ere baderitzo Lapurdiko partean. Zerbitzari azkaindarrak idatzia da: «Ilhuntzetik argi handiraino nahi ginuen bezenbat loz aseak» (*Gerlan*).

**Argisenti** izena, «egunsenti» orokorragoaren kide txikia ere erabilia da leku batzuetan. Hala Oñatiko Arantzazun (G): *Argisentikua jo* (K. Izagirre). <**Argisentikoa jo**>.

**Argi-azkorri** eta **argi-oskorri** formak, Zuberoan bildu dira oro har:

- Santa Grazi edo Urdatxen (Z): *Argi-azkorria*.
- Larrainen (Z): *Argi-oskorria*.
- Ürrüstoin (Z): *Argiezkorria*.

«Goiz» hitz-oinaz eraikiak direnen artean, aipagarri ditugu batzuk. Ikus ditzagun zeintzuk.

**Goizalde** izena Bizkaiko herri batzuetan azaldu da, ziurrenik lekuko horientzat «goizaldea» eta «egunsentia» kontzeptuen arteko bereizkuntza lausoa delako. Hala bildu da, Etxebarrin (B), Gamiz-Fikan (B), Lemoan (B) eta Zeanurin (B): *goxaldea*.

**Goiz-haste** izena Iparraldean erabili izan da, baina «argi-haste» baino eremu askoz murriztagoan: «Biziak hiltzea ekartzen, goiz-hasteak gaua» (*Gure Almanaka* aldizkaria, 1961).

**Goiznabar** eta **goizabar** izendapenak Bizkai-Gipuzkoako muga-herrietan lekukotu da berariaz, baina askoz zabalago erabilia da. Bietarik, «goiznabar» forma gardenagoa ez ote den gaude, [goiz + nabar] osagaiez osatua.

- Berrizen (B): *Goxnabar*.
- Gamiz-Fikan (B): *Goisnabar*.
- Idazleetan forma bitasuna ageri da. Mogel idazle markinarrak: «Goxabar edo egun usaiñagaz batera» (*PAb*).
- Eta oraintsuagoko Toribio Etxebarriak, Eibarren (G): *Aren etorrerea izan zan beste mundu baten goiz-abarra* (T. Etxebarria). <Haren etorrera izan zan beste mundu baten goizabarra>.
- Baina baita beste erara ere, E. Arrese tolosarraren idazlanetan: «Jeiki naiz goiznabarrean» (*OlBe*).

**Goiz-ikara** ere bildu da Bizkaiko kostaldean, **egun-ikara** bildu den era berean. Esaterako, Bermeon (B): *Goixikera*.

**Goiztiri** izena ere erabilia da Iparraldean, baina EHHako inkestetan ez da bildu izan, ordea. Alabaina literatura zaharrea eta hiztegieta —Harrietenean, barbarako— ondo lekukotua da: «Mana goiztirian biltzen etzuen Israeltarrak ezin bil zezakeien iguzkia ilkiz gero» (*SP-Imit*). Azkueren testigantza ere badugu, *goiztirin* Zuberoan, eta Erronkarin, Uztarrotzen (N), *goizteri* formak bildu baitzitu.

**Goizetik hara** lokuzioa barra-barra erabilia da Bizkai aldean, kontzeptu berau adierazteko gutxi gorabehera. Hala: «Baltzolako jaira ogetaka lagunak juan ziran emendik; geu goizetik-ara joan gintzazan, egun ederraz, basorik-baso» (*Euzkadi* aldizkaria, Mañariko).

**Goiztu** aditza, 'goizean goiz jaikitzea' adierazteko erabili izan da. Hona hemen 1596. urteko *Refranes y sentencias* errefracu-bilduma zaharrea datorren adibide bat: «Lukiari trankart egiteko goixtu bearko» (RS 437).



«Eki» izenaren oinaz bilbatuak dira **eki-jalgia** eta **eki-jalgitzea** formak ere, bi-biak Zuberoan jasoak, Sohütan (Z): *ekhi-jelkigia* eta *ekhi-jelkitzia*.

**Alba** izena, edo soilik edo hitz elkartu barruan, berariaz itsasaldeko herrietan dago sustraiturik. «Alba» izen soil bezala, Azkainen (L), Bermeo eta Elantxoben (B), eta Getarian (G) dokumentatu da. Errefrau barruan ere bai. Hona hemen Markinako (B) adibide polit bat: «Muxarrak, gabean edo alban» (EZBB II 64).

**Alba gorri** dugu, aldiz, tradizioz, izen elkartu modura ezagunena. Esaera arras entzuna dugu harako hau dioena: «Alba gorri, hego edo uri» (*Gure Herria* aldizkaria, Zerbitzari, 1936). Edo era osotuagoan: «Alba gorri, egoa edo euri; arrats gorriak eguraldi» (OE). Eta autore zaharretan ere, Etxeberri Ziburukoaren bidez, ondo giroturiko izena: «Huna itzala non den mehetzen / alba gorria berriz agertzen» (*ElizLib*); eta bigarren adibide bat: «Iguzkia nahi bezain / goizik ezta agertu, / alba gorria ere ez nahi / bezain sarri urratu» (*Noelak*).

Ildo horretatik joanda, bi izen bitxi nabarmendu nahi ditugu: **oskorria** eta **ostrantz**a, biak «ost-/ortz-» izen-oinaz eraikitakoak; bata, ekialdean ezagunagoa eta bestea, sartaldean. **Oskorri** da ezagunena, bereziki Zuberoa aldean erabiltzen dena. Gamarteko (NB) lekukoak diosku: *Oskorri, zerua gorri-gorria delaik*. <Oskorri, zerua gorri-gorria delarik>. Eta Bizkai sartaldean, Diman (B), bildua dugu **ostrantz** forma: *Egunen ostrantz dau: egunsentie, egunen argie*. <Egunaren ostrantz dago: egunsentia, egunaren argia>.

**Oillarite** izena ere ezaguna da kontzeptu horrentzat tradizioan: «Nola erori zinen, artizarra, goizean goiz, oillaritean sortzen ohi zinena?» (*Gero*).

\*\*\*

Bigarren osagaitzat ageri diren hitzen artean bi nabarmenduko ditugu, beraz: «senti» eta «nabar».

«Senti», ia beti «egunsenti» hitz elkartuaren barruan, baina batzuetan bakarrik ere bai: **senti-sentian**. Hauxe adibide aproposa «Egunaren xenti-xentian asten da ura» (*BasoM*).

«Nabar» bigarren osagai dutela taxutu diren izenik ezagunenak, «goiznabarra» eta «egunabarra» dira, arestian ikusi bezala. Aditz bezala **egunabartu** ere

nabarmendu nahi da. Hala Salvatore Mitxelena Zarauzko semearen idatzian: «Onen argira, gure Iñigoren / santutasun elburua / egunabartzen, zeru-gorritzen, / argiagotzen dijua» (*Arantzazu*).

\*\*\*

EHHako inkestetan, egunsentia edo goiznabarra eguneko lehen argia agertzen deneko unea dela azaldu dute zenbaitzuek.

- Ondarroan (B) honela definitu du lekukoak: *Gaba kentzen asten danien da “egunsentixe”*. <Gaua kentzen hasten denean da “egunsentia”>.
- Pasaian (G), lekukoak zera azaldu digu: *Eguna asten danian..., albatik dator eguna...* <Eguna hasten denean..., albatik dator eguna>.
- Larraineko (Z) berriemaileak honela deskribatu ditu lehen argia eta egunaren hasiera: *Ekhia jelgitzen ai düzü eta algar eztizügü ikhusten; ezin ezagüt, übel-übelä*. <Ekia jalgitzen ari da eta elkar ez dugu ikusten; ezin ezagutu, ubel-ubela>.

Egunaren lehen argiaren agerrera zerua **gorri-gorri** dela esanaz deskribatzen da batzuetan: **oskorri** edo **argi-azkorri**. Hala bildu da Ürrüstoin (Z): *Argiezkorria, ikhusten delaik argia abiatü nahi dela*. <Argi-azkorria, ikusten delarik argia abiatu nahi dela>.

Errefrau ezagunen bidez hilezkortu da, zerua «goiz gorri», «oskorri» edo «argi-azkorri» azaltze hori:

- Hala Berrizen (B): *“Goix gorri edo goix argi, illuntzi euri”*. <“Goiz gorri edo goiz argi, iluntze euri”>.
- Gamarten (NB): *“Oskorri”, zerua gorri-gorria delaik: “Goiz-oskorri, arrats-ithurri”*. *Goizian oskorri delaik, arratsian euria*. <“Oskorri”, zerua gorri-gorria delarik: “Goiz-oskorri, arrats-iturri”. Goizean oskorri delarik, arratsean euria>.
- Altzürükün (Z) ere: *Argiazkorri, jüsto-jüsto hantik agei da, gaia fini dela*

*eta jinen dela egüna. <Argi hazkorri handik ageri da, gaua fini da eta eguna jinen dela>. “Argitzirrinta”, argitüik eta lehen-lehen, eta “argi-azkorria”, ekhi-elkigia gorri gorria. Hodeiak balin badira gorri, erraiten zizien, “gaurko aize edo ebi”, eta gaian gorria balin bazen, bihameneko ekhia. “Argitzirrinta”, argiturik eta lehen-lehen, eta “argi-azkorria”, eki-jalgia gorri-gorria. Hodeiak baldin badira gorri, erraten zuten, “gaurko haize edo euri”, eta gauean gorria baldin bazen, “biharamunerako ekia” >.*

Errefrauetan ugari samar ageri den mezua da EHHako lekukoaren esanetan aipatzen den hau: oskorriak gehienetan iluntze edo gauerako euria dakarrela. Hala, Oñatiko Arantzazun (G): *Goizeko oskorrixak, illunkaako (gaberako) iturrixak: “Goiz-oskorrixak, gau-eurixak”* (K. Izagirre). <Goizeko oskorriak, ilunkarako (gauerako) iturriak: “Goiz-oskorriak, gau-euriak”>. Eta oñatiarrazen G. Anduaga idazleak ere: «Goizeko ozkorriak (laiño gorriak), illuntzerako euria» (*AitUzta*). Edo Aita Zabalak Gipuzkoako Goierri jasotako hau: «Goizeko ozgorrik illuntzerako iturrik; gaueko gorritsu, goizerako aizetsu» (EZBB I 133). Baina euria barik, iluntzerako haizea iragartzen digutenak ere badaude, esaterako G. Anduagaren hau: «Illuntzeko ozkorriya, goizerako aizea» (*AitUzta*).

Barkoxeko (Z) lekukoaren ahotik, eguneko lehen une honi buruzko Pierre Bordazarreren kantu ezaguna bildu da. Hona hemen bera: *Goizian argi-hastian / ene leiho hegian, / xori bat phausatzen da ta / gorati hasten khantan. / Xori eijerra, / hañ alegera, / entzüten haidanian / ene bihotzeko tristüra / laster dua aidian.* <Goizean argi-hastea / ene leiho-hegian, / txori bat pausatzen da eta / goratik hasten kantan. / Txori ederra, / hain alegera, / entzuten haudanean / ene bihotzeko tristura / laster doa airean>.



Hegoalde osoan hedatuen dagoen izena **goizalde** da, aldaera txikiekin.

Funtzio-markaz lagundurik behin baino sarriago: «-ra/-rat» marka adlatiboaz edo «-(e)n» marka inesiboaz. Hegoaldeko adibide batzuk: *goizaldea*, Orion (G); *goizaldera*, Alkotzen (N) eta Zilbetin (N). Eta Iparraldean («-rat» deklinabide-atzizkiak): *goizaldeat*, Jatsu (L); *goizaldat*, Arrueta (NB) eta *goizaldeat*, Landibarren (NB).

Iparraldean egitura konplexuagoak ageri dira, «goiz» hitza oinarri dutenak. Hauexek ezagunenak:

**Goizean goiz** errepika-egitura soila azaldu da zenbait lekutan:

- Hendaian (L): *Goizian goiz*.
- Azkainen (L): *Goizian goiz*.
- Larrainen (Z) eta Barkoxen (Z): *Goizan goiz*.



**Goizean goizik** edo **goizetan goizik** da nagusi Nafarroa Beherean eta Zuberoan:

- Baigorri (NB): *Goizian goizik*.
- Behorlegin (NB) eta Altzürükün (Z): *Goizian goizik*.
- Arbotin (NB) eta Armendaritzen (NB): *Goizian goizik*.
- Arruetan (NB): *Goizetan goizik*.

**Goiz-goizik** errepika egituraz:

- Uharte Garazin (NB): *Goiz-goizik*.

**Goiz** edo **goizik** adberbioa «biziki» graduatzaileaz, edo baita «izugarri», «anitz» bezalako graduatzaileez lagundurik garatuak dira:



- Mugerren (L) eta Larzabalen (NB): *Biziki goiz.*
- Sohütan (Z): *Izigarri goizik.*
- Ürrüstoin (Z): *Hanitx goizik.*

Iparraldean eta Nafarroa goiengan perifrasi batzuk ere maiz erabilirik ageri dira, argia oraindik ez dela heldu aditzera emateko:

— **Argitu baino lehen**, edo honen aldaerak ezagunak dira Nafarroan:

- Abaurregainean (N): *Argitu beino len.*
- Urdiainen (N): *Argitu beño leno.*

— **Argia gabe** edo **argi gabe**, Iparralde barnealdean eta ekialdean:

- Domintxainen (Z), Ezterenzubin (NB) eta Larzabalen (NB): *Argia gabe.*
- Urdiñarben (Z): *Argi gabe.*

Eta «egun» izenaz, **eguna gabe** bakan erabilia da. Honetara, Montorin (Z): *Egüna gabe*.

— Gauerdia denbora-abiapuntutzat harturik, handik aurrerako denbora-tartea adierazteko perifrasiak ere badira: **gauerditik goiti** eta **gauertostean**, biak esangura berarekin.

- Itsasun (L): *Gauerditi goiti*.
- Eta sartaldeko hizkeran, Oñatin (G): *gaberdioste*. Forma hau, K. Izagirrek ere batua da Arantzau-Oñatiko hiztegian: *Gabertostian* (K. Izagirre). <Gauertostean>.

\*\*\*

**Gauerditik** egunsentira bitarteko orduei dagokien izenaz erantzuna ematean, honelako argibideak erantsi dizkiete hainbat herritako hiztunek:

- Ondarroan (B): *Orixe da, amabietatik aurrera*. <Horixe da, hamabietatik aurrera>.
- Pasaian (G): *Goizaldia, ba, ordu biyak, iruak*. <Goizaldea, ba, ordu biak, hirurak>.
- Goizuetan (N): *Arratseko amabitatik aurrera, goizeko eun'asitzeako*. <Arratseko hamabietatik aurrera, goizeko eguna hasterako>.
- Ezterenzubin (NB): *Goizalde, gauerditik iguzkia agertu artio*. <Goizaldea, gauerditik eguzkia agertu artio>.
- Behorlegin (NB): *Gauerditik eta argitu artian*. <Gauerditik eta argitu artean>.

Badira, horrez gain, gauaren une desberdinak bereiztu dituztenak ere:

- Urretxuko (G) lekukoak **gaulehena**, «gauerdia» eta «goizaldea» bereizi ditu: “*Gaulena*” [esaten zaio] *illuntze alde orri, gauleneti, gaulena. Ezta*

*neurtuta eongo, baño amarrak-eo inguru, orti bittartian. Beste ori [goizaldea] gauerdin, orti aurrera. <“Gaulehena” [esaten zaio] iluntze alde horri, gaulehenetik, gaulehena. Ez da neurtuta egongo, baina hamarrak-edo inguru, hortik bitartean. Beste hori [goizaldea] gauerdian, hortik aurrera>.*

- Zestoan (G), ere «gaulehena» eta «goizaldea» bereizi ditu lekukoak; eta **gaulehenetan** darabil, inesiboz: *Gaulenetan...* <Gaulehenetan...>.

Eta aurrerago: *Bakizu, eun muan aurretik baa, gaulenetik gaulena... Goiza baño leno baa, ordu bik baño leno, ordubata-o... “Gaulena” da ordu biz aurretik, ta bestia goizaldia. <Badakizu, egun mukan aurretik bada, gaulehenetik gaulehena... Goiza baino lehenago bada, ordu biak baino lehenago, ordubata-edo... “Gaulehena” da, ordu biz aurretik, eta bestea goizaldea>.*

- Ezkio-Itsasoko (G) lekukoak ere halatsu adierazi du: *Gaulen amabik arte da. Esan izan da inoiz: “Gaulenen extet loik inñ, gaulen guziñ, goizaldea lo in det”. Esan izan da inoiz: “Amabikalde arte lo artu eziñik eon, gaulenen, da geo, andi goizea, ba, lo inñ”. <Gaulehen hamabiak arte da. Esan izan da inoiz: “Gaulehenean ez dut lorik egin, gaulehen guztian, goizaldera lo egin dut”. Esan izan da inoiz: “Hamabiak alde arte lo hartu ezinik egon, gaulehenean, eta gero, handik goizera, ba, lo egin”>.*

Iparraldeko zenbait herritako hiztunek egunaren une hau argiarekin zuzenean lotu dute.

- Urketan (L), **argitu gabe** ahoratu du berriemaileak, eguneko une hau izendatzeko: *Hobe uzu goiz-goiz, argitu gabe, doi-doia ikhusteko. <Hobe duzu goiz-goiz, argitu gabe, doi-doia ikusteko>.*
- Hazparnen (L) lekukoa, **argia hasi gabe** eta **argi aitzin** hitzez baliatu da, goizaldea adierazteko: *Argia asi gabe... Argi aintzin...* <Argia hasi gabe... Argi aitzin>.
- Altzain (Z) ere argiari erreferentzia egindako erantzuna jaso da: *Argiko han nündüzün. <Argiko [‘argia zeneko’] han nintzen>.*

\*\*\*

Egunaren lehen ordu horiek askorentzat lanera joateko orduak ere izaten dira, baina baita parranda edo festatik etxera heltzekoak ere. Horrela adierazi dute zenbait berriemailek:

- Azkainekoak (L) «goizian goiz» esan du: *Festalaria batez ere bai, goizian goiz sartu da*. <Festalaria batez ere bai, goizean goiz sartu da>.
- Izturitzen (NB): *Festa egitetik edo lanerat joanez*. <Festa egitetik edo lanera joanez>.
- Ezterenzubikoak (NB) «goizaldera» aipatu du: *Goizaldera laneta joan*. <Goizaldera lanetara joan>.
- Eskiulakoak (Z) «goizik» eta «argitzea» bereizi ditu: “*Goizik*”, *argitzetik landa da*: “*Argitziaeki jun nük lanilat*”; *goixtiarra*, “*matinal*”. <“*Goizik*”, *argitzetik landa da*: “*Argitzearekin joan nauk lanera*”; *goixtiarra*>.

\*\*\*

Errefrau bakan batzuk ere badira goizaldea mintzagai dutenak. Batek dio: «Goizaldean lo dagoen azeriak ez du lumarik ahoan» (*Garate* 5950).



Gauerditik eguerdira bitarteko denbora-tartearen izenaz galdegin zaie EHHAn, inkesta egin zaien lekukoei. Eta erantzun nagusia **goiz** izan da.

Hala ere, hor-hemen, beste izen batzuk ere bildu dira zenbait herritan.

«Egun» izenaren oinaz eraikiak dira horietariko batzuk. Hala nola **eguerdiarte** edo **eguerdi-aurre**. «Bazkari», elkarketan «bazkal-» oinaz eraikiak dira beste batzuk. Esaterako, **bazkalarte** edo **bazkalaurre**. Horiez gain beste antzeko erantzunak ere azaldu dira.

«Egun» izena ointzat harturik, hurrengo hitz hauek.

**Eguarte**, Bizkai ekialdetik Gipuzkoa barrenera, era zaharra dugu: *eguarte* (Andoain, Zestoako Arroa, Oñatiko Araotz, Deba, Ikaztegieta...). Tradizio idatzian ere aspalditik sakon errotua. Kapanagaren testigantza: «Eguartean» (*Kapanaga*). J.A. Mogelek ere berdin: «Euki eragingo deusut arrastegi edo egubarte ez txarragua» (*PAb*). Eta Atañoaren adibide bat: «Eguarte guzia lanean pasa ta gero, zazpi semerekin lasai bazkaltzen ari nintzala» (*TxanKan*).

«Eguerdiarte» eta berorren aldaerak Gipuzkoa erdialdetik ekialderantz hedatzen dira, batik bat:

- Gipuzkoan: *Eguardiarte* (Aia, Amezketeta, Azpeitia, Beasain, Elgoibar, Zegama).
- Nafarroako partean era honetako aldaerak ditugu: *Egordearte* (Beruete), *eberdearte* (Etxarri), *eguerdearte* (Igoa).

**Eguerdi-bitarte** izen elkartua ere bide beretik garatua da:

- Alkotzen (N): *Eguardi-bittartian*.
- Etxalekun (N): *Egurdi-bittartea*.
- Ondarroan (B): *Eguerdi-bittarte*.

**Eguerdate** eta **eguerdarte** formak, **eguerdiarte** izenaren aldaera finkatuak dira. *Eguerdate*, Bizkai sartalde eta erdialdean forma propio gisa finkatua da, aldaera batzuekin:

- Arrietan (B): *Eguerdate*.
- Bakion (B) eta Mungian (B): *Egurdate*.
- Errigoitin (B): *Eberdate*.

- Eta bizkaieraren ekialdean eta Urola Kosta aldean, Azkoitian (G) eta Bergaran (G): *Eguardarte*.

«Eguerdi-aurre» forma ere bada, bizkaieraren eremuan: *Eguerdi-aurre* (Arrazola, Mañaria, Arrankudiagako Zollo).

«Goiz» izena ointzat harturik, hurrengo hauek ditugu.

**Goiztiri** izena Iparraldean eta Nafarroa goialdean lekukoturik ageri da, zenbait aldaerapean:

- Saran (L) eta Senperen (L): *Goiztiri*.
- Ahetzen (L): *Goizteri*.
- Donibane Lohizunen (L): *Goiztei*.

**Goizera** izen-eratorria, Uribe Kosta aldean gaur ere entzuten dena, etorki zaharrekoa da: «Arrezak leien ganeko laiñoa ta dokek goxera gaxoa» (RS 439). Azkue, «-era» izen-atzizkia zela ohartu zen, eta «goizera» (*goxera*, ahoz) izen-kategoriatzat epaitu.

**Goiz-parte** hainbat lekutan bizirik dagoen izen elkartua da:

- Errezilen (G) eta Mendaron (G): *Goiz-parte*.
- Aian (G): *Koizparte*.

**Goizondo** Lapurdi aldean erabilia da: *goizondo* (Arrangoitze, Makea, Senpere).

**Goizaldi**, bakanago erabilia, baina finkatua, esaterako Eskiulan (Z): *goizaldi*.

«Bazkari» izenaren «bazkal-» oina abiapuntutzat hartu duten elkarketak ere aintzat hartzekoak dira. **Bazkalarte**, bazkalordua goizaren atze-mugatzat jotzen duena, ziurrik «eguarde» izenaren analogiaz garatua. Esaterako:

- Ataunen (G): *Bazkalarte*.

Eta **bazkალაurre** ere taxu bertasukoa. Adibidez:

- Etxalekun (N): *Bazkალაurrea*.

\*\*\*

Noiz hasten den goiza eta noiz arte luzatzen den zehazteko irizpideak ez datoz beti bat. Leku batzuetatik besteetara aldatzen dira.

Goizaren hasiera, askok gosaltzearekin kidetzen dute; batzuek hasiera legez eta beste batzuek, ordea, bukaera legez:

- Mungian (B) argibide hau erantsi dio erantzunari lekukoak: *Oiti altxeute sikeran lelengo orduak-edo, armosetako ingerue-edo*. <Ohetik altxatuta sikiera lehenengo orduak-edo, almortzatzeko ['gosaltzeko'] ingurua-edo>.
- Deban (G), aldiz, bestelako azalpena eman du lekukoak: *Amarrak aldetikan baskaldu bitxartian-ero, inguru ori*. <Hamarrak aldetik bazkaldu bitartean-edo, inguru hori>.
- Ataunen (G) ere: *Goiza, zortzirak aldeako, aaztu're eitten asten gea gu*. <Goiza, zortziak alderako, ahaztu ere egiten hasten gara gu>.
- Orion (G) ere gosaria hartu aurreko denbora-tarteari deritzola esan du lekukoak: *Goiza, gosaldu bitarteko tarte ori*. <Goiza, gosaldu bitarteko tarte hori>.
- Arbizun (N) honela zehaztu du lekukoak: *Argitzen [duenetik] gosaldu artik. Amarretakoa in eskeos, eguerdi*. <Argitzen [duenetik] gosaldu arte. Hamarretakoa eginez gero, eguerdia>.
- Igoan (N) ere antzeko bidetik joan da erantzuna: *Gosaldu artik, amarrak aldeano-o ola; gosaldu artik, binipin*. <Gosaldu arte, hamarrak alderaino-edo hola; gosaldu arte, behinik behin>.

\*\*\*

«Eguarte» izena Bizkai eta Gipuzkoako herri askotan bildu da. Goizaren eta eguerdiaren artean eguartea dagoela aipatu dute berriemaileek. Hala ere, ez dago erabateko adostasunik denbora-muga zein ordutan den zehazterakoan. Askotariko erantzunak jaso dira:

- Bakioko (B) lekukoak honela azaldu du: “*Goixa*” *amarraz ingururarte-edo. Gero “egurdatie”*. <“Goiza” hamarrak ingurura arte-edo. Gero, “eguerdatea”>.
- Lemoan (B), aldiz, beste era honetara: *Egurdatea da, goxean sortziretan asi ta amabiak arteiño-edo*. <Eguerdatea da, goizean zortzietan hasi eta hamabiak arteraino-edo>.
- Gizaburuagan (B): [Goiza], *saspirek, sortziek, bedratziek... Ya amaiketan, “eberdiartie”*. <[Goiza], zazpiak, zortziak, bederatziak... Ja hamaiketan, “eguerdatea”>.
- Elgoibarren (G), zehaztasun handiko azalpena jaso da: *Goiza da, euna zabaldu ta... Eguardiartia da, ba, andikan eguardia bittarteko oi, amarretatik amabixetara-eo*. <Goiza da, eguna zabaldu eta [aurrera]. Eguardiartea da, ba, handik eguerdia bitarteko hori, hamarretatik hamabietara-edo>.
- Deban (G): [Eguarte] *amarraz aldetikan, baskaldu bitxartian-ero, inguru ori*. <[Eguarte] hamarrak aldetik bazkaldu bitartean-edo, inguru hori>.
- Azpeitian (G), **goiz berandu** kontzeptua darabilte: *Zortzieta bitarte ori, “goize”*. *Beatziyak ezkeo, goizei beandu esate’zako. Beatzitatik [aurrera], “eguartie”*. <Zortzietara bitarte hori, “goiza”. Bederatziak ezker, goizari berandu esaten zaio. Bederatzietatik [aurrera], “eguartea”>.
- Elduainen (G): *Goiz-goizei bai... Eunsentitiken aurreneko orduetan “goiz[a]” esate’zaio, ta ia bein beatzitatiken o amarretatiken bazkaldu bittarte oni, “eguardiartea”*. <Goiz-goizari bai... Egunsentitik aurreneko orduetan “goiza” esaten zaio, eta ia behin bederatzietatik edo hamarretatik bazkaldu bitarte honi, “eguardiartea”>.

\*\*\*

Beste zenbait lekutan, ordea, goizaren eta eguerdiaren arteko tarte hori gosaldutik ondoren hasten dela diote. Hala:

- Gamiz-Fikan (B): *Goixa da armozue baiño lenao. Armozetan danik eta baskarire, “eguerdatea”*. <Goiza da, armozua baino lehenago. Almorztatzen denik eta bazkarira [bitartean], “eguerdatea”>.

- Zestoan (G): *Gosaldu bitartekuai “goiza” o “goiz-partia”, gosaya bittartian, ta geo, “eguartia”*. <Gosaldu bitartekoari “goiza” edo “goiz-partea”, gosaria bitartean, eta gero, “eguartea”>.
- Ataunen (G): *“Bazkalartea”, gosarittik bazkaltarte orri: “bazkalartea”. “Eguardiar-te” auè, beeti etorritako kontua bezela da au: eguardie, baña “bazkalar-tea”*. <“Bazkalar-tea”, gosaritik bazkaltarte horri: bazkalar-tea. “Eguerdiar-te” hau ere, behetik etorritako kontua bezala da: eguerdia, baina “bazkalar-tea”>.
- Orion (G): *Bein gosaldue ezkeo, “eguardiar-tea”*. <Behin gosaldue gero, “eguerdiar-tea”>.
- Ezkurran (N): [“Eguerdiar-tea”], *bein gosari-edo in ezkeo*. <[“Eguardiar-tea”], behin gosaria-edo ginez gero>.

\*\*\*

Esaera-lokuzioetan ere ageri zaigu. Hona hemen banaka batzuk:

— Azkuek Nafarroa Beherean bilduriko honetan: «Goizean Parisen, arratsean han berean. SE DICE DE TARDOS, DE PERSONAS QUE PROGRESAN POCO EN SUS ASUNTOS» (EY III 340).

— Errefrau batzuek, **goiz gorria** izateak eguraldiari zein ondorio ekar liezaiokeen iragartzen dute. Zuberoako honek, adibidez: «Arrats ozadar [ortzadar], goiz eki» (*Garate* 1250).

— Esaera batzuek **goiz gaiztoa** ere aipatzen dute, zorigaiztoaren adierazgarri bezala: «Zor zaarra goiz gaiztoen begira» (RS 475).



Egunaren erdialdeko bitartea, goizaren eta arratsaldearen artekoa izendatzeko **eguerdi** izena da euskara mintzatuaren eremuan gehien eta zabalen erabiltzen dena, lekuan-lekuan dituen aldaeren bitartez: *eberdi, ebarði, eguardi, egurdi, egunerdi, iguardi, iguerdi*, besteak beste.

Egunaren igaroan zehar, eguerdiak zein aldi-tarte hartzen duen zehazteko orduan, iritzi diferenteak azaldu dira berriemaileen esanetatik.

Maiz, eguerdia eguneko jarduera, zeregin edo ohituraren batekin zerikusia duela aipatzen da, batez ere jatorduekin:

- Mungian (B), bazkalorduekin lotu du berriemaileak eguerdia, zehazki ordu bataz gero hasten dela: *Ordu bataz eskero baskariteko ordu ori*. <Ordu bata ezker, bazkaritako ordu hori>.
- Gaintzan (N), eguerdia hamabietaraino luzatzen dela azaldu da: *Egoardie, amabitaño, ta amabitanè, egoardie*. <Eguerdia, hamabietaraino, eta hamabietan ere, eguerdia>.
- Goizuetan (N), eguerdiaren ordu zaharra denborarekin aldatuz joan dela zehaztu du lekukoak: *Ordu zarren-da, “eguardia” beti amabitan; oañ ordu bata-edo*. <Ordu zaharrean-eta, “eguerdia” beti hamabietan; orain ordu bata-edo>.
- Oderitzen (N), ordea, eguerdia hamarretakoa egin ondoko denborari esaten diote: *Amarretakoa in eskeos, “eguerdi”*. <Hamarretakoa eginez gero, “eguerdia”>.

\*\*\*

«Eguerdia da» era mugatuarekin batera, «eguerdi da» era mugagabea ere erabiltzen da Iparraldean eta hurbileko muga-herrietan: «Eguerdi jina eta nehor ez bazkaria prestatzeko» (*Etxebarne*).

Zein ordutan gertatu den zer edo hura, hiru eratara erabiltzen da «eguerdi» izenaz aditzera emateko:

— Iparraldean, **eguerdian** inesibo neutroaz batera, **eguerditan** mugagabea ere maiz: «Hirurgarrena *egunerditan*» (*Onsa*); «Eguerditan artzain xaharra etzen oraino etxean sartua» (*Mendekoste*).

— Erronkarin **eguerdiz** erabili izan da: «Elten dun biar eguerdiz» (*ErronkOndak*). «(Goxan) askal, *eguerdiz* bazkal, arrestrian askal eta artsen aigal» (*ContR*).

\*\*\*

Angelus otoitza errezatzea, kristau-elizaren tradizio-ohituren barruan, egunaren hiru partetan egin izan da. Kanpai edo ezkilaren hotsaz iragarri izan da ordu bakoitza. Eguerdiko otoitz-orduari, Iparraldean eta Nafarroa goialdean (*Zaraitzu*), **eguerdi-ekzila** deitu izan zaio, goizekoari, **argi-ekzila**, eta gauekoari, **ilun-ekzila**. Eta izen orokorragoa ere bada, hiruroi esateko balio duena: **eguerdi-zeinu**. Hona hemen idatzizko bi adibide, bata B. Joannategirena, eta J. Tartas idazle klasikoarena bestea: «Eguerdi-ekzilak jo zuen...» (*SBi I*); «Egunerditan eguerdi-zeiñiak» (*Onsa*).

\*\*\*

Denbora-inguru horretan egiten den otorduari ere «eguerdia» deitzen zaio leku batzuetan. Hala Urdaibai aldean, itsas hegitik hurreko herrietan —Bermeon (B) eta Busturian (B), kasurako—: «Mikolas, jan da eguerdia ala?» (*Oroigarriak*). «Hamabiak inguruan, eguerdia jaten hasi gara» (*Bermeo*). «Eguerdikoa» ohi deritza barruragoko herrietan. Esaterako, Arratzun (B) eta berorren auzoa den Barrutian ere: *Eguerdikoa jan*. <**Eguerdikoa jan**>.

Nafarroa aldean ere ezaguna da «eguerdia», otordua izendatzeko: «Erri guziko nausi ta âideek / egiten dute eguerdia» (*Euskaldunak*).

\*\*\*

Eguerdia denbora-tarte zabalean, gutxi gorabehera hartzen denean, **eguerdi alde** forma konposatua erabiltzen da leku askotan. Bai Gipuzkoako bizkaiera-eremuan, bai ekialdeko hizkeretan ere, zubereraraino iritsirik. Halaxe dakar



G. Garatek: «Eguerdi aldera arte egon zan» (*Erdarakadak*); «Eguerdi aldera» (*Erdarakadak*) eta: «Eguerdi altian jin zen» (*Erdarakadak*).

Bizkai sartaldean **eguerdi-parte** ezagunagoa da.

**Eguerdi iri** ere adiera beraz erabiltzen da Iparraldean eta Nafarroa goiengan. «Atzo, eguerdirian» (*AGald*); «Eguerdi irian Royeko herrian sartzen naiz» (*Iku-siak*); «Dituela hiruzpalau urte, eguerdi-iri batez» (*Gure Herria* aldizkaria, 1924); eta azkeneko adibide bat: «Eguerdi irian sartzen dira bere etxetan» (*Zubiri*).

Eguerdia bere puntuan dagoela, errepika-egituraz adierazten da maiz eremu zabaletan, **eguerdi-eguerdia** dela esanez, edo zerbait «eguerdi-eguerdian» egin dela: «Eguerdi-eguerdian eman zioten amaia» (*DirG*).

**Eguerdi berandu** edo **eguerdi belu** erabiltzen da sartaldeko hizkeretan eguerdiaren azken ordua edo luzapena adierazteko. «Eguerdi beranduan, AVANZADO EL MEDIODÍA: “Erdu biar eguerdi beranduan”» (*ManVascf*).

\*\*\*

Errefrauetan badira eguerdia aipu dutenak. Saran (L) bildua da EHHako inkestetan hurrengo errezitatu hau, «eguerdi» eta «erdi» ('erditu') hitzez jokoia egiten duena: *Eguardi, gatu labean erdi. —Nor da zerbitzari? —Batista begigorri.* <Eguerdi, katu labean erdi. —Nor da zerbitzari? —Batista begigorri>. Honen aldaera batek dio: «Eguerdi, gure katua leioan erdi ['umatzen']» (*Garate* 3493).

Eguraldiaz mintzo den bat ere bada: «Eguerdikoa euria, egun guztikoa euria» (*Garate* 3499).

Eta eguerdikoa jatorduaz mintzo direnak, gehiago segurki. Batek dio: «Apezak eguerdikoa mahainean» (*Garate* 941). Bada beste bat, eguerdian gehiegi jateaz mintzo dena: «Eguerdian ase ta arratsaldian bete» (*Garate* 3495).





## ARRATSALDEA / ARRASTIA / ARRASTIRIA

Egueditik ilunabarrera doan denbora-tarteari euskaraz ematen zaizkion izen nagusiak bi dira: **arratsalde** eta **arrasti**.

«Arratsalde» formaren aldaerarik ezagun hedatuena *atsalde* da, hizkera mintzatuan zabaldu dabilena, berariaz Hegoaldeko eremurik gehienean.

«Arrasti» forma Zuberoan (*arrest*i ere bai, ahoz) eta Bizkai hizkeretan ageri da, batez ere sartalderengoetan, baina forma beraren atzean izen bi bereizi behar dira, ekialde bazterrekoa eta sartalderengoa. Zuberoako formaren oinean **arrastiri** izena dugu, [arrats + iri] osagaiez osatua; eta Bizkai hizkeretako «arrasti» formaren ostean **arrastegi** izena. Oraindino ere hizkeran bizirik daude, era apalagoan baina, bai «arrastiri», bai «arrastegi» (*arrastei*, ahoz) forma klasikoak.

Nafarroa Beherean «arrastiri» era klasikoaren eremua «arratsalde» izenak beregandu duela dirudi, Baigorriko (NB) lekukoaren esanari kasu eginez gero: *“Aastiri” bada ere, bainan hainitz aldiz “arratsalde”*. *Hitza ere garbiagoa da, “aastiria” baino*. <“Arrastiri” ere bada, baina anitz aldiz “arratsalde”. Hitza ere garbiagoa da, “arrastiria” baino>.

Erronkariko hizkeran ere «arrastiri» honen aldaera batek iraun du, *arrastre* itxurapean: «Apezaren etsekoandre, / ez dago bizi oberik: / goxtre oroz mezara, / arrosarioara arrastrerik» (*AzkRonc*).

Tradizio modernoan, «arrastiri» hori *arrasti* edo *astiri* bihurturik agertu da maiz: «Entzun xoriak kantuz goiz ala astiri» (*OdolMintz*). Hala ere, tradizio idatzian nagusi den forma «arrastiri» dugu, baita aldi modernoan ere. Hala Oxobi bidarraitarraren honetan: «Nun ukan duzu eztikiago iguzkiaren argia [...], / nola udazken arrastirian, iganik Larhun mendia?» (*Gure Herria* aldizkaria, Oxobi, 1921).

Agur-formula gisa usu erabilia da, berariaz Zuberoan: «**Arrastiri hun!**».

Bizkai hizkeren sartaldean, «arrasti» era da erabiliena, eta halaxe bildu da Arratian eta Hego Uriben. Berbarako: Diman, Lemoan, Zeanurin, Zeberion... Hiztunen artean, eta berariaz «Arrasti on!» agur-formula barruan. Baina *arrastei* zahar usainekoa ere bildu da (Zaratamo) eta «arrastegi» klasikoa ere bai (Gamiz-Fika, Getxo).

Tradizio idatzian: «Euki eragingo deusut arrastegi edo egubarte ez txarragua» (*PAb*), «Arrastegian guztiak alkargana biribillatutakoan [...], jarriko ziran dantzari» (GK).

Badira euskara mintzatuan, hala ere, eguerdi ondotik ilunkera bitarteko denbora-tarte honi deitzeko beste izendapen batzuk ere EHHako lekukoek adierazi dutenez: **bazkalondo**, **bazkalondore**, **eguerdiondo**, **eguerdioste**, besteak beste.

Arratsaldeak zein ordutatik zein ordutara dirauen, era bat baino gehiagotara azaldu dute berriemaileek:

- Gamiz-Fikan (B): *Arrastegie da, ba, bazkalondotik iluntzixera dagoen bitartea*. <Arrastegia da, ba, bazkalondotik iluntzera dagoen bitartea>.
- Oderitzen (N): *Lauretatik asita-o, or*. <Lauretatik hasita-edo, hor>.
- Lekarozen (N): *Ilundu arteño da atsaldia*. <Ilundu arteraino da arratsaldea>.
- Mugerren (L): *Oren batak eta ilundu artio*. <Oren batak eta ilundu arte>.
- Jutsin (NB): *Eguerditan hasten, ilundu artio*. <Eguerditan hasten da eta ilundu arte>.
- Santa Grazi edo Urdatxen (Z): *Egüerditaik hasten eta ülhünian [fini]*. <Eguerditarik hasten eta ilunean [fini]>.

Baigorri (NB), Larrainen (Z) eta Santa Grazi edo Urdatxen (Z), arratsaldea zati bitan bereizten dela aitortu dute, hasierako tarte eta amaierakoa. Batetik, **arratsalde apal** edo **arrastiri apal** eta **arrastiri berandu** ditugu; eta bestetik, **arrastiri goiz**:

- Baigorri (NB), arratsaldearen azken parteari «arratsalde apal» esaten diote: *Eta “arratsalde aphala”, “la fin d’après-midi”; arratsalde aphaletik jauts ginezake ilunaarrera*. <Eta “arratsalde aphala”, “la fin d’après-midi”; arratsalde apaletik jauts gaitezke ilunabarrera>.
- Larrainen (Z): *“Arresti goiza” düzü eta “arresti aphala”*. <“Arrastiri goiza” duzu eta “arrastiri aphala”>.

- Santa Grazi edo Urdatxen (Z): *Arresti beantian; arresti beanta, gio, ülhüntzia*. <Arrastiri beranduan; arrastiri berandua, gero, iluntzea>.

Arestian aipatutako «bazkalondo», «bazkaloste», «eguerdioste» eta taxu horretako izenak leku askotan erabiltzen dira, baina ia beti «arratsalde» izen orokorra-goarekin bizikidetzan. Bigarren izendapenok, biaoa egiteko edo bazkaldu ondoko atsedean hartzeko aldi-tartea aditzera emateko erabiltzen dira batez ere.

«Bazkalondo» forma, bizkaieraren ekialdeko eta gipuzkeraren sartaldeko herrietan (Oñati, Azkoitia, Otxandio, Beizama) ageri da berariaz, eta Nafarroako batzuetan ere bai, Berueten eta Etxarrin, esaterako.

«Bazkalondore» izena Dorraon (N) bildu da.

«Bazkaloste» forma bizkaieraren eremuan zehar: Aramaion (A), Bolibarren (B), Elorrion (B), Leintz Gatzagan (G), Mungian (B) eta Zornotzan (B) erabiltzen da.

«Eguerdi» izenaren gainean bildu den era nagusia «eguerdioste» (ahoz, *eberdioste* ere bai) da, Bizkaiko hainbat herritan (Gizaburuaga, Mendata, Mañaria) jaso. Berariaz aipatzekoa da *eguerdiostei* forma zaharra ere, Arrankudiagako Zollon (B) bildu dena.

- Errigoitin (B), «eguerdioste» (*eberdioste*) deritzote, bazkaldu eta gero, soro edo alorrera berriz lanean joan aurretiko denbora-tarteari. Lekukoaren esanean: *Solora joateko sasoararte, iruterdixek lauretarte. Eta gero andi gora arratzaldie*. <Sorora joateko sasaira arte, hiru eta erdiak, laurak arte. Eta gero, handik gora arratsaldea >.
- Elorrioko (B) berriemaileak, aldi-tarte horrek gutxi gorabehera zenbat denbora dirauen zehaztu du: *Baskaldu eta pare bat orduen-edo, "baskalostie"*. <Bazkaldu eta pare bat orduen-edo, "bazkalostea">.
- Mendaroko (G) lekukoak, ordu batetik aurrera eta gaua egin bitartean, eguna nola banatzen den azaldu du: *Ia ordu batatik atzea baskalondua da. Baskalondua, arratzaldia ta illuntzixa*. <Ia ordu batetik atzera bazkalondoa da. Bazkalondoa, arratsaldea eta iluntzea>.
- Debako (G) lekukoak, biaoa egiteko aldi-tartea ere aipatu du: *Siestia-o, ordubete o bi-o... Geo, "arratzaldia"*. <Siesta-edo, ordubete edo bi-edo... Gero, "arratsaldea">.

Nafarroako Etxarri Larraunen eta Suarben ere antzeko informazioa eralki dute.

- Etxarri Larraunen (N): *Siestako denboa o bazkalondoa*. <Siestako denbora edo bazkalondoa>.
- Suarbe (N): *Siesta ittera, siesta itteko ratori*. <Siesta egitera, siesta egiteko rato ['tarte'] hori>.
- Getarian (G) «bazkalondoa», bazkaldu ondoren kafea hartzeko tarteari esaten diotela dio: *Baskalondua berris segidan. Baskalondua da kafia artzeko garaya, "sobremesa"*. <Bazkalondoa berriz segidan. Bazkalondoa da kafea hartzeko garaia, "sobremesa">.
- Errezilen (G) ere berdintsu, bazkaldu ostean mahai bueltan egoteko tartetxo aipatu da: *Motxa izate'a. Siesta jun bitartekuai, bazkaldu ta mayan garen tarte orrexe bakarrik* [esaten diogu] *emen*. <Motza izaten da; siestara joan bitartekoari, bazkaldu eta mahaiian gauden tarte horrixek bakarrik [esaten diogu] hemen>.

Arratsaldearen azken orduari «arratsalde apal» deritzotela Iparraldean esan dugu lehentxoago; **arratsalde berandu** da Hegoaldeko eremu zabaletan horren ordeztu erabiltzen dena. J. Etxepareren hitzez: «Iguzkia, begietarat baitago arratsalde ahalarekin, guziz giblekoentzat!» (*Buruxkak*). Domingo Agirrerren berbak: «Arratsalde beranduan, Malentxo aitonarekin atarian zegoala jakinda, [...] Zabaletako beitegian sartu zan» (*Garoa*).

\*\*\*

Arratsaldea aipu duten esaera finko ezagunak dira euskaraz. Goiz-arratsaldeak aurrez aur azaltzen dira maiz.

— Lan egin edo ez egin da mintzagai batean: «Goizegi bereaz zeginak emaitza, aurkit zezan arratsalde gaitza» (*ProvBasq* 519).

— Hasierak bukaera ohi duela iragartzen du era diferenteetara beste batek: «Goiz guziak du bere arratsaldia» (*ProvBasq* 611); «Goiz orok arratsaldea, aste orok ortziralea» (*Garate* 5942).

— Eta eguraldiaz dihardutenak dirateke ugarienak. Hala: «Goizean ortzadar, arratsaldean iturri; arratsaldean ortzada, biharamunean ateri» (*Garate* 5954).



## ILUNTZEA / ILUNABARRA / ARRATSA

Eguzkia ostendu eta berehala izan ohi den argi-ahultzea gertatzen den uneari zein izen ematen zaion itaunduta, hitz diferenteak azaldu dira EHHako inkestetan, batean eta bestean. Eta hainbat herritan izendatze aukera bat baino gehiago azaldu dira. Izen guztion artean hiru jo ditugu nagusitzat, euren aldaerak barru direla: «iluntze», «ilunabar» eta «arrats».

**Iluntze**, «ilundu» aditzetik eratorririko izena, euskara mintzatuaren eremuan, ia hizkera guztietan erabilia da, eta berau da denetan formarik nagusien eta neutroena. Sartaldean eta erdialdean gailen da, Bizkaian eta Gipuzkoa sartalde zabalean batez ere. Eta gainerako lurraldean, erdialdetik hasi eta ekialde osora hedatzen da bere presentzia, baina era mehatz-banakatuagoan. Nafarroan, batez ere Sakana aldean: *Iluntzien* (Urdiain). Iparraldean ere bai —Ahetzen (L) eta Alduden (NB)—, Zuberoa barne: *Ülh'üntze* (Altzai, Ürrüstoi).

**Ilunabar**, [ilun + nabar] izen-adjektibo motako elkarketa den hori, Gipuzkoa erdi ingurutik hasi eta ekialderatz zabaltzen da, Nafarroa ia osora eta Iparraldearen parte batera iritsiz (batez ere Nafarroa Behereko alderdi bat eta Zuberoa ere bai): Altzürükün (Z): “*Ülhünabarra*”, “*entre chien et loup*”, *ez gai, ez egün*. <“Ilunabarra”, “entre chien et loup”, *ez gau, ez egun*>.

Sartaldeko hizkeretan *iluntabar* aldaerapean dirau bizirik, Lemoan (B) eta Zornotzan (B), kasu. Bergaran (G) lekukoak erantsi duen bereizkuntza interesgarria da: batetik, *illuntabarra illuntzia* baino ilunagoa dela esan digu; eta bestetik, *illuntabar* eta **istantza** berdinak direla; egunsentiaren kontrakoak, alegia.

Aipagarri dira izen horren aldaera ugariak batean eta bestean. Aldaerarik ageriena *inular* (edo *inulabar*), metatesi bidez jaretsia, Gipuzkoa ekialdean hainbat lekutan bizirik dirauena: *iñularra* (Lasarte-Oria).

**Ilunabartu** aditzaz ere baliatu izan dira hiztunak, egun-argitatik iluntzerako bihurrera hori adierazteko. Hala F. Lardizabal: «Illunabartzera egin zuenean amar lakari alerekin amagiarrebari joan zitzaion» (*Lardizabal*). Errefrau barruan ere bai: «Illunabartzean, eguzkia etxeain ertzean eta neskatxa etxean» (NEZ 888).

**Arrastiri** izena, [arrats + iri] osagaien elkarketaz garatua, edo horren aldaerak, dira Iparralde erdialdean nagusi, EHHaren emaitzei begira, Nafarroa Beherean berariaz. *Astiri* eta *atsiri* dira aldaera nagusiak. Hala bildu dira:

- Larzabalen (NB): *Atsiri*.
- Irisarrin (NB) eta Uharte Garazin (NB): *Astiri*.
- Jutsin (NB): *Aastiria*.
- Landibarren (NB): *Asteri*.
- Makean (L): *Arrastiri*.

Eta Zuberoan, aldiz, ‘arratsalde’ balioaz erabilia da «arrastiri» forma, eta «iluntze/ilunabar» (*ülhuntze/ülhunabar*) izendapenak baliatzen dituzte gautu baino lehenagoko denbora-tartea aditzera emateko.

**Arrats** izen soilaz, edo *ats* aldaeraz, ere izendatzen da «iluntze», «ilunabar» edo «gaulehena» euskara mintzatuaren eremu zabaletan. Zenbait herritan bildu da:

- Lasarte-Oria (G): *Arratza*. Lasarteko (G) lekukoaren esana da hauxe ere: “*Arrats*” eta “*iñulabarra*”, *berdiñak*. <“*Arrats*” eta “*ilunabarra*”, *berdinak*>. Idatzizko tradizioan, euskara osoko hizkeratan ageri da balio honekin, batez ere izkribu zahar eta klasikoetan.
- Hazparne (L): *Aats*.
- Jutsin (NB): *Ats batez haugi* [‘etorri’]! <Arrats batez jaugin [‘etorri’]!>.
- Altzürükün (Z): *Ats*.

«Egun» eta «arrats» izenak aurrez aurre erabili izan dira. Ildo horretatik, batzuetan **eguzki zuri** eta «arrats» dira argi-ilunen adierazgarri, eta beste batzuetan «goiz» eta «arrats» dira aurkez aurke jartzen direnak. Nafarroan D. Intzak bilduriko errefrau baten esanean: «Goiz gorri, arrats iturri» (NEZ 233); «Goiz gorri, arrats euri; arrats gorri, goiz aize-egualdi» (NEZ 1485).

«Arrats» izenaren eratorpenez garatua da **arratsero** denbora-adberbioa, ‘arrats guztietan’, ‘gaulehen guztietan’ adiera duena. Azkuek kontrajarpen bikaina bildu zuen Bortzirietan (N) «egunero» vs «arratsero» formen artean garatua: «Egunero aragia yan ta arratsero ate-xokoan lo egin» (EY III 381).

**Arratsalde apal**, edo **arrastiri apal**, izen-adjektibo bakuntza ere maiz erabilia da Iparraldean, berariaz Lapurdin. Egun-argitatik ilunerako azken aldiunea, argia apaltzearen unea zehazki izendatzeko. Hala:

- Itsasun (L): *Arratsalde apal*.
- Gamarten (NB): “*Atsalde apha*” goizago da, “*astiria*” eta *ilhunarra baino* <“Arratsalde apal” goizago da, “arrastiria” eta “ilunabarra” baino>.
- Altzürükün (Z): *Arresti apha*la, *bost onetatik hat*; *gio, ülhüntzia*. <“Arrastiri apala”, bost orenetatik at; gero, “iluntzea”>.

Baina, Nafarroan ere bai; hala:

- Abaurregainan (N): “*Arratsalde apala*”, *ilundu baño leentxo, ilunttoan. Ori da, ez ilunt, ez argi*. <“Arratsalde apala”, ilundu baino lehentxo, ilunttoan. Hori da, ez ilun, ez argi>.
- Eta Eugin (N): *Atsalde apal*.

Eta baita ekialde bazterrean ere Eskiulan (Z): *Arrastiri apha*l, *arresti apha*l.

Tradizioan ere Haranederren lumaz: «Arratsalde apha

Badira beste izendapen batzuk ere, bitxi edo bakanagoak, iluntzearen adierazgarritzat herri-hizkeran erabiliak. Hala:

**Ilun-ertz** deritzo ilunabarrari zenbait lekutan. Hala bildu zion J. Mokoroak Gipuzkoan Manuela Ormaetxea lekukoari, adibide hauekin: «Illun-ertzean ez due ala jaten oilloak, nola **egun-argiz**...» (OE). Eta: «Illun-ertza zan; illun-ertza zegoan» (OE).

**Ilun iri** izena ere gorde da Iparraldean. Hala: «Ilhun-irian han zituen ministro guziak bazoazila erraitera joanak» (OE).

**Ilunkara** izena, eta *ilunkera* aldaera, bizkaieraren ekialdeko hizkeretan eta Gipuzkoako Goierri aldean ageri da:

- Leintz Gatzagan (G) eta Oñatin (G): *Illunkara*.
- Zegaman (G): *Ilunkera*.

**Ilunde**, eta *ilundi* aldaera, ageri dira Bizkai sartaldean, Mungialde, Hego Uribe eta Txorierriko hizkera batzuetan. Esaterako:

- Leioan (B): *Ilunde*.
- Mungian (B) eta Etxebarrin (B): *Illundi*.

**Ilun-ekzila** izenaz ere iragarri izan da ilunabarra Nafarroa aldean. Hala Ultzaman: «Illunabarretan ere, yayetan ezpagañen illun-ekzillerako tortzen itxera, asarre» (*UltzGai*).

**Ilunto** jaso da Abaurregainean (N), «ilun» hitzak «-to» atzizki txikigarria lagun duela, eta bustiduraz: *ilunttoa*. Azkuek ere Nafarroan, Aezkoa ibarrean, horrelaxe jaso zuen, «illuntoan, illunabarrean» (ikus DVEFren eranskina).

**Ilunbista** forma dela eta, Leitzan (N) jaso da: *Illundu ez illundu daonen, "illunbixte". Illunabarra baino beranduago dator illunbixte.* <Ilundu ez ilundu dagoenean, "ilunbista". Ilunabarra baino beranduago dator ilunbista>.

**Eguzki-sartze, eki-sartze eta eki-sargia** ere bildu dira Iparraldean:

- Larzabalen (NB): *Iguzki-sartzian*.
- Altzürükün (Z), Urdiñarben (Z) eta Eskiulan (Z): *Ekbi-sartze*.
- Ürrüstoin (Z): *Ekbi-sargi*.

«Gau» izenaz lagundurik garatu diren forma elkartuak ere badira Bizkaian, **gaulehen** eta **gausenti**:

- Zornotzan (B): *Gaulen*.
- Orozkon (B): *Gausenti*.

**Ostantz** formaren aldaerak ere bildu dira bizkaieraren ekialdetik hasi eta gipuzkeraren sartalderantz joanda:

- Ondarroan (B): *Ostantz*.
- Getarian (G): *Ostantza*. Lekuko horrek bereizkuntza erakusgarria azaldu du baserritarren eta itsastarren artean: “*Ostantza*”, *arrantzalien artian*; *baserritarrak esango’ixoe, berris*, “*ilunabarra*”. <“Ostantz”, arrantzaleen artean; baserritarrek esango diote, berriz, “ilunabarra”>.
- Eta **ilun-ostantz** izen-elkarketa, Elgoibarren (G): *Illunistantzian*.

\*\*\*

EHHAn, egunaren arratsalde beranduko aldiuneari, argia apaltzen hasten den uneari nola deritzan izan arren egin zaien galdera zuzena, eman diren erantzunez gain, une hori deskribatzeko azalpen jakingarriak ere gehitu dituzte lekukoek, alderdi batean edo bestean:

- Arrankudiagako Zollon (B) adierazpen hau egin du berriemaileak: *Ya illunduten asten danian, arik eta illundu tarteiño: “ilunabarra”. Gustis illundu barik dauen denporia*. <Ja iluntzen hasten denean, harik eta ilundu arteraino: “ilunabarra”. Guztiz ilundu barik dagoen denbora-tarte>.

- Zeberion (B) ere argiari egin zaio aipua: *Ilunabarra da, ya kasik estau es argi, es ilun*. <Ilunabarra da, ia ez argi, ez ilun dagoen aldiunea>.
- Ondarroan (B) gautu aurreko uneaz ari da informatzailea: *Gaba iñeko egune galtzen da, gaba agertzen*. <Gaua egindako eguna galtzen da, gaua agertzen>.

Nafarroa Behereko Armendaritzen eta Behorlegin, eta Zuberoako Urdiñarben, egunaren aldi-tarte honetan ez ilun, ez argi dela adierazi dute lekukoek:

- Armendaritzen (NB): *Iluna ezbaian, ez ilhuna ta ez eguna*. <Iluna ezbaian, ez iluna eta ez eguna>.
- Behorlegin (NB): *Ez argi eta ez ilhun... Iuzkia gordia ta ez ilundia, ta “encore” [‘oraindik’] untsa ikusten aal*. <Ez argi eta ez ilun... Eguzkia gordea eta ez ilundua, eta oraindik ontsa ikusten ahal>.
- Urdiñarben (Z): *Ülhüñabarra, “l’entree de la nuit”; ez osoki egüna, ez osoki atsa*. <Ilunabarra, ez osoki eguna, ez osoki arratsa>.

Eguzkiaren aipua egin duten azalpenak ere hainbat jaso dira.

- Orion (G): *Euzkiyan sarrerako momentu ori da illunabarra*. <Eguzkiaren sarrerako momentu hori da ilunabarra>.
- Antzeko adierazpena egin du Leitzako (N) berriemaileak: *Euzkie sartzen denetik, bittarte ori bezala..., illundu arteko*. <Eguzkia sartzen denetik, bitarteko hori bezala..., ilundu artekoa>.
- Bardozen (L) honela bildu da: *Iguzkia poxi bat apal delaikin*. <Eguzkia poxi bat [‘piti bat’] apaldu delarik>.
- Landibarren (NB) ere, eguzkiaren apaltzeaz mintzo da lekukoa: *Iuzki apaltze, atsalde apala*. <Eguzki-apaltze, arratsalde apala>.

Eguraldiari atxikiak dira, egunsentia eta ilunabarreko eguzki gorria kidetzen dituzten hainbat errefrau eta esaera. Ugariak dira herri-hizkeran, bateko eta besteko hainbat atsotizetan:

- Eibarren (G) honela jaso da: *Illuntzi gorri aixetzu da goiz gorri euritzu.* <Iluntze gorri haizetsu eta goiz gorri euritsu>.
- Tolosan (G): *Laño gorrik aizetsu ta goiz gorrik ebitsu.* <Laino gorriak haizetsu eta goiz gorriak euritsu>.
- Ezterenzubin (NB): *Iguzkia gorri sartzen delaik, hua askorri, eta lanhoen artetik agertzen delaik, goiz gorri: “goiz gorri, atseko iturri”, “atseko iturri, haize edo euri”, eta “as gorri, bihar iguzki gorri”.* <Eguzkia gorri sartzen delarik, hura arrats gorri, eta lainoen artetik agertzen delarik, goiz gorri: “goiz gorri, arratseko iturri”; “arratseko iturri, haize edo euri”, eta “arrats gorri, bihar eguzki gorri”>.

\*\*\*

Agur-formula gisa ere badiraute «ilunabar», «iluntze» edo «ilunkara» bezalako formek, «Gabon!» edo «Egun on!» egiten diren egitura beraz garatuak: **ilunabar on!**, **iluntze on!**, eta **ilunkara on!** Esaterako:

- Goizuetan (N): *Illunabar on!*
- Bolibarren (B): *Iluntze on!*
- Berrizen (B) eta Eibarren (G): *Iluntzion!*
- Oñatin (G) eta Leintz Gatzagan (G): *Illunkara on!*

\*\*\*

Errefrauetan, eguraldiaz mintzo direnak dira ezagunenak. Berariaz, goiz-iluntzeak aurrez aurre jarririk mezua iragartzen dutenak. Hala, B. Gandiagaren adibide bat: «Goizeko oskurrixa, illuntzeko iturrixa» (*ArantzFolk*). G. Anduagaren beste bi: «Illuntzeko oskorriya, goizerako aizea» (*AitUzta*); «Goizeko oskorriyak (laiño gorriak), illuntzerako euriya» (*AitUzta*). Eta amaitzeko, Aita Zabalak Gipuzkoan, Goierri aldean, baturiko bat: «Goizeko osgorrik illuntzerako iturrik; gaueko gorritsu, goizerako aizetsu» (EZBB I 133).

Badira bestelako mezuen iragarle direnak ere. Hala, D. Intzak Erron (N) bilduriko hau: «Illunagarrian, yende aunitz iturrian» (NEZ 2256).



Eguzkia sartzen denetik hurrengo eguna zabaltzen denera bitarteko denbora-tartea izendatzeko, EHHAn bildu diren erantzunetan bat da nagusi, eta ia bakarra: **gau**.

Hitz monosilaboa izanik, bi silabako bihurtu da zenbait hizkeratan, *gaba* forma harturik Hegoaldeko hizkeretan barrena, bizkaieraren ekialdean bereziki —Berrizen (B), Otxandion (B), Bergaran (G), Oñatiko Araotzen (G)...—; baina Nafarroako herri batzuetan ere bai, Sunbilla (N) eta Donamarian (N), kasu. Zenbaitetan, erantzun gisa *gaba*, *gaue*, *gaube* jaso izan denean, mugatzailea barne duen izena ere izan daiteke.

Zuberoako mintzoetan *gai* aldaera azaltzen da: Larrainen (Z), Sohütan (Z) eta abarretan.

**Gaur** forma gorde da zenbait herritan ‘gaur gauaz’ esanguraz. Esaterako, Bastidan (NB): *No! Behorrak umia in din gaur*, “*cette nuit*”. <No! Behorak umea egin dun gaur [‘gaur gauean’]>.

**Arrats** forma eta horren aldaera den *ats* era ere eman dituzte lekukoek hainbat herritan, gauari irizteko erantzun gisa:

- Arrangoitzen (L), Asteasun (G), Mendaron (G), Leitzan (N), Donamarian (N), Hendaian (L), Hernanin (G): *Arrats*.
- Armendaritzen (NB), Landibarren (NB) eta Luzaiden (N): *Ats*.

**Ilun** izena ere eman da zenbait lekutan gaua izendatzeko:

- Arruetan (NB) eta Bastidan (NB): *Ilhuna*.
- Mezkiritzen (N): *Iluna*.

\*\*\*

- Azalpen garbia eman du Ezkio-Itsasoko (G) lekukoak, gauaren irautea dela eta: *Afaldu ta goiza bittarteko(a) gau. Illundu ta geo, andik eune zabaldu bittartekoa, dana gau. <Afaldu eta goiza bitartekoa, gaua. Ilundu eta gero, handik eguna zabaldu bitartekoa, dena gaua>.*
- Pasaian (G) ere antzera bildu da: *Illuntzen duenian, ya gaba. <Iluntzen duenean, ja gaua>.*

Eta gaua, zati edo parte banakoetan ere bereizten dela adierazi dute lekuko batzuek. Hala:

- Ilundu eta hamabiak jo bitarteko aldi-tarteari «gaulehen» deritzo herri batzuetan. Hala Mendaran (G): *Illundu ta ondorenai "gaulena", gauerdia bitxartiai "gaulena", amabixak aurretikan, gaulenetik. <Ilundu ondoko orduei "gaulehena", gauerdia bitarteari "gaulehena", hamabiak aurretik, gaulehenetik>.*
- Zegaman (G), berriemailearen esanean: *Gaulenen, gaua asten daneti, momentu artati, "gaulena" puxkaten esate'zako [...], amabi bitartea-o... <Gaulehenean, gaua hasten denetik, momentu hartatik, "gaulehena" puxka batean esaten zaio [...], hamabiak bitartera-edo>.*
- Beizaman (G): *Gaulenetik e bai; oira jun da arten amabi'pañño leno o ola... Gaulena da, lo itten jarri ta bela, oira jun da seittun. <Gaulehenetik ere bai; ohera joan eta artean hamabiak baino lehenago edo hola... Gaulehena da, lo egiten jarri eta berehala, ohera joan eta segituan>.*
- Igoan (N): *Bai, gaulenetik, illunduta seiden "gaulena", illuntzen asi ta ya, illundu eskeo; illundu ta asiera, amabi bittarte-o... <Bai, gaulehenetik, ilundu eta segidan "gaulehena", iluntzen hasi eta ja, ilunduz gero; ilundu eta hasiera, hamabiak bitarte-edo...>.*



«Arrats» deitzen diote gaulehenaren aldiune horri, euskara eremuaren erditik hasi eta ekialderantz joanda, ez denean, leku batzuetan baino:

- Hala Oiartzunen (G): *“Arratsa” esate’zayo amabiyak artiai*. <“Arratsa” esaten zaio hamabiak arteari>.
- Armendaritzen (NB): [Atsa], *iluntzeaz gioz gauerdi artio*. <[Atsa], iluntzeaz geroz gauerdi artio>.
- Mendaroko (G) lekukoaren oharra: *“Arratza”* [esaten zioten] *gabiai, lengo sarrak, korriente; oñ es.* <“Arratsa” [esaten zioten] gauari, lehengo zaharrek, korriente [‘normalean’]; orain ez>.

Gauaren iraupena hiru zatitan banatzen dela azaldu digute berriemaile batzuek: **gaulehena**, **gauerdia** eta **goizaldea**.

- Azkoitiko (G) lekukoak hala dio: *Gabeen, amabiak aurretek “gaulena”, lo artute berrixen-o... Oera sartze’zeanetiken alik eta erdiraño bittartie*. <Gauetan, hamabiak aurretik “gaulehena”, lo hartuta berrian-edo. Ohera sartzen zarenetik, harik eta erdiraino bitartea>.

Eta aurrerago: *Iru fase bearko lizke: “gaulena”, “gaberdixe” ta “goizaldie”. Goizaldiek bera tiratze’izu ta gaulena(k) gora. Gaulena erretiatze’zenetiken gaberdie bittartie bezele-o... <Hiru fase [‘epe’] beharko lituzke: “gaulehena”, “gauerdia” eta “goizaldea”. Goizaldeak behera tiratzen dizu eta gaulehenak gora. Gaulehena erretiratzen zenetik gauerdia bitartea bezala-edo>.*

\*\*\*

Gauaren inguruan hainbat sineskizun bildu dira, berriemaileon gogo-buruetan daudenak:

Beldurra da horietariko bat. Beldurrarekin zerikusia dute, gauez sorgin, lamina eta beilagileak ohi zebiltzala kontatzen duten herri-esaunda eta ipuinek.

— Zuberoan, Altzürükü (Z) eta Montori (Z) herrietan, gauezko kontuetan honelakoak kontatu izan dira.

• Altzürükün (Z): [Gaiaz] *bazela belhagile-ta, sorgin eta lamiñ-eta, bena uaiko jentik eztia lotsa* ['beldur'] *horren*. <[Gauetz] izaten zirela belagile-eta, sorgin eta laminak-eta, baina oraingo jendea ez da horren lotsa ['beldur']>.

• Montorin (Z): *Gai batez heldü zikük ustegabe. Lotsa zütützün lehen; llaminen eta belhagilen lotsan etziren* [gauetz] *ebilten. Defendüik etzen, lotsa beitziren*. <Gau batez heldu zaigu ustekabe. Lotsa ['beldur'] ziren lehen; laminen eta belagileen lotsan ez ziren [gauetz] ibiltzen. Defendaturik ['debekaturik'] ez zen, [baina] lotsa baitziren>.

— Aldude (NB) eta inguruetan izan den sinestearen arabera, behi itxura hartzen zuten belagileek, eta haiek ikusteko beldurrez ibiltzen omen ziren gauetz: *Lehen lotsa gauaiandako* [ziren], *zeit ikusiko zutela. Gio, "sorcierak" baziela behi forman jarriak. Hartako zitzün lotsa, ikhusiko zütenetz*. <Lehen gauaren lotsa ['beldurra'] [ziren], zerbait ikusiko zutela. Gero, "sorcierak" ['aztiak'] bazirela behi forman jarriak. Haren lotsa ziren, ikusiko ote zutenetz>.

— Eta Pagolan (Z) ere izan da hurrei zuzenduriko aholku edo gomendio zahar bat: behin ilunduz gero, jokorik ez jolasik ez egitekoa: *Ez jokhüik eztizü egin behar, ez deus' pariatü behar, ülhüntüz geoztik. Debriak badiela pothee gehio gaiian*. <Ez jokorik ez duzu egin behar, ez deus ere pariatu behar, ilunduz geroztik. Deabruak baduela botere gehiago gauean>.

\*\*\*

Esapide eta errefracuetan ere ugaria da «gau» izena.

RS bildumako hitzak, antzinakoak, honako hauek: «Gaba, gogaiaren ama» (RS 395).

Atalari amaiera emateko, gauaren luze-laburrak adierazten dituen herri-esaera bat: «Egunik luzeena San Juanena; gaurik luzeena, Santa Luziena» (*Garate* 3557).



Gauerdia, gaueko hamabiak, izendatzeko izen bera bildu da euskararen eremu osoan: **gauerdia**. Izen elkartu honen oinean dagoen izen egitura osoa: «gauaren erdia».

Izen honen aldaerak ere bata bestearen antzekoak dira han eta hemen: «gauerdi» da formarik orokorra; *gaberdi* Hegoaldeko hizkera guztietan sakabanatua dago; *gauberdi*, aurrekoa baino eremu mugatuagoan, baina era sakabanatuan baita ere. Azkenik, *gauberdi* eta *gaiherdi*, bata Nafarroa Beherean eta bestea Zuberoan.

Izena mugatzaileaz edo funtzio-markaz lagundurik jaso da batzuetan. Hala: *gauerdidda*, Urdiainen (N); *gaberdiya*, Pasaian (G); eta *gaberdie*, Mezkitzen (Z). Seinalagarri da, «noiz», «zein ordutan» adierazteko, Iparraldean usu erabiltzen den **gauerditan** inesibo mugagabea, Zuberoako Domintxainen *gauertan* aldaerapean bildua dela.

Izen-elkarketak gabe ere batu da behin edo behin: **gauaren erdian**. Hala, Jaurrietan (N), esaterako: *gabaren erdian*.

\*\*\*

Gaua hiru ataletan banaturik dagoela jakinarazi digute berriemaile batzuek. Ildo horretan zenbait testigantza jaso dira. Hona hemen arestian ere ekarri dugun testigantza, Azkoitiko (G) lekukoarena: *Gaberdixen esaeria're badezu amen. Iru fase bearko lizke: "gaulena", "gaberdixe" ta "goizaldie"*. <Gauerdiaren [inguruko] esaera ere baduzu hemen. Hiru fase beharko lituzke: "gaulehena", "gauerdia" eta "goizaldea">.

Gauaren erdia, gau bete-betea denekoa, **gau min** izenez ere ezaguna da. Honelaxe deskribatu dute Iparraldeko zenbait herritan:

- Senperen (L): *Konprenitzen da, ba, aise... Zerbeit gertatu balin bada orduan [gauerdian], errain da: "Gau minian gertatu da ola"*. <Aise konprenitzen da... Zerbeit gertatu baldin bada orduan [gauerdian], erranen da: "Gau minean gertatu da hola">.
- Itsasun (L), gauerdiari ematen zaion «gau min» izena aipatzeaz gainera, noiz gertatu den zerbeit aditzera emateko, honela erabiltzen dela zehaztu du

lekukoak: *Gauerditik ta oren bat artian... Gaua luze den denboran, "gau minian".*  
<Gauerditik eta oren bat artean... Gaua luze den denboran, "gau minean">.

- Beskoitzen (L) ere berebat: *Erten da, ba, "gau minin"* [izan dela zerbait], *"en pleine nuit"*: "gau minian". <Erraten da, ba, "gau minean" [izan dela zerbait]>.
- Uharte Garazin (NB): *Erten da, ba, "gau minian", erteko "gauerditan", nai bauzu..., arrunt ilundia delaik.* <Erraten da, ba, "gau minean", errateko "gauerditan", nahi baduzu..., arrunt ilundua delarik>.

\*\*\*

Ipuin bat bildu da Ezterenzubin (NB), gauerdiaren harian berriemaileak kontatua. Hala dio: *Bithiñan etxalde batian, baziren muthila eta nexkatoa, eta behartu ziren aintzur-hortxain, "le croc à fumier". Eta muthilak nunbait utzi zien han ta aintzur-hortx hori. Muthila joan behar zen. Gauaz baatu zen eztaikit zertako, artho xuritzeko-edo. Eta erran zien nausiak: "Nun duzie, ze in duzie aintzur hortxa?". Eta muthilak, utzi ziela hola... Eta muthilak etzien joan nahi xeka, beldur zen. Nexkatoak muthila maite zien, ta ze in zien? Nexkatoa deliberatu zen, joanen zela aintzur-hortxain xeka hua. Eta sorginek edo debriek eremana zuten, ta ekharri zuten horrat, Salbatorerat. Ta beilatokia bada han; bada nexkato bat bere aintzur-hortxaekilan.* <Bithiñan, etxalde batean, baziren mutila ['morroia'] eta neskatoa ['neskamea'], eta aitzur-hortzaren behartu ziren. Eta mutilak nonbait utzi zuen han [ahantzirik] aitzur-hortz hori. Mutila joan behar zen. [Baina] gauaz baratu ['geratu'] zen ez dakit zertako, artoa zuritzeko-edo. Eta erran zuen nagusiak: "Non duzue aitzur-hortza? Zer egin duzue?". Eta mutilak [erantzun zion], han utzi zuela hola... Eta mutilak ez zuen joan nahi xerka ['bila'], beldur zen. Neskatoak mutila maite zuen, eta zer egin zuen? Neskatoa deliberatu zen, joanen zela aitzur-hortzaren xerka hura. Eta sorginek edo deabruak eramana zuten, eta ekarri zuten horra, Salbatorera. Eta beilatokia bada han; bada neskato bat bere aitzur-hortzarekin.>



## 2.2 Agurrak



Goizean agur egiteko erabiltzen den esapide edo formularen inguruan era askotako ohiturak bildu dira herri-hizkeretan barrena.

**Egun on!** da formularik orokorra, Zuberoako aldaeran: *Egun hun!* Era laburtuak ere ugariak dira: *Eun on!* —Arbizun (N), kasu—.

\*\*\*

Orduen arabera nola agur egiten den, zein ordutara arte esaten den «Egun on!» eta zein ordutatik aurrera ez, honako testigantzak jaso dira:

- Zegaman (G): *Amabik arte*, “*Eun on!*”. <Hamabiak arte, “Egun on!”>.
- Beste herri askotan ere halatsu, kasurako Berueten (N): *Amabik pasatu bittarten*, “*Egun on!*”. <Hamabiak pasatu bitartean, “Egun on!”>.
- Santa Graziko (Z) lekukoak, goizeko eta arratsaldeko agur-formulak orduaren arabera bereizten direla gogorarazi digu. Behin arratsaldeaz gero ez omen da *Egun hun!* esaten: *Egüerditaik aintzina*, *batek arrestitan erraiten badü* “*Egün hun!*”, *bestiak* [erantzun]: —*Ah bena*, *egüna iragan dük!* “*Arresti hun!*” *erraiten ahal dik, bai*. <Eguerditik aitzina, batek arratsaldez erraiten badu “Egun on!”, besteak [erantzun]: —A baina, eguna [‘goiza’] iragan duk! “Arrastiri on!” erraiten ahal dik, bai>.
- Egunean zehar egiten diren agur-formulak zein diren, honela argitu du Mugerreko (L) lekukoak: *Egun eguerdi arte* [“Egun on!”]. *Arratsaldean*, *heldu oren batetik harat*: “*Aatsalde on!*”, “*Aatsaldon!*”. *Ilundu eta* “*Gau on!*”. *Eta arrapostia*, *gisa bera*: “*Ez adioik, berriz ikus artio!*”. “*Adio sekulako!*”, *hartan fñi*. *Haurrek gehio erten dute*: “*Adio!*”. *Nik*, “*adio*” *erraiten [dut] bere izenez*, “*Jean*”, “*Polo*” *edo... Oriko gaztek eztute pronunzaturako zure izena*: “*Adio!*”. *Aldiz*

*guk: “Adio, Jean!”, edo [“Adio,] Maddi!”. <Egun eguerdi arte [“Egun on!”]. Arratsaldean, oren batetik harat, “Arratsalde on!”. Ilundu eta: “Gau on!”. Eta arrapostua, gisa bera: “Ez adiorik, berriz ikusi artio!”. “Adio sekulako!”, hartan fini. Haurrek gehiago erraten dute: “Adio!”. Nik, “adio” erraten [dut] bere izenez, “Jean”, “Polo” edo... Oraingo gazteek ez dute pronunziatuko [‘erranen’] zure izena: “Adio!”. Aldiz guk: “Adio, Jean!”, edo [“Adio,] Maddi!”>.*

— «Berori» agur egitean:

- Mugerren (L):

Inkestagilea: *Jaun erretorari? <Jaun erretoreari?>*.

Lekukoa: *“Adio, jaun erretora!”, eta boneta altxatuz. <“Adio, jaun erretore!”, eta boneta [‘txapela’] altxatuz.*

- Berrizen (B) bildu da, agurtu beharreko laguna ikasia edo eskoladuna zenean, apaiza, medikua edo halakoren bat, era jasoagoa erabiltzeko ohitura izan dela: **Egun on daukala!** Berorika tratamenduaz: *Edukasinokok dianien edo estudioko(k), mediku-ero, abade-ero...*: “Egunon deukola!” <Eduka-ziokoak direnean edo estudiokoak, mediku-edo, abade-edo...: “Egun on daukala!”>.

— «Jainkoaren izena» agur egitean:

Agur egiterakoan Jainkoaren izena aipatzeko ohitura izan dela leku gehienetan ere gogoratu dute hainbat berriemailek. Halako formulak jaso dira han-hemengo herrietan:

- Aramaion (A): —*Egun on Jangoikoak emon deisule!* —*Baite seuri be.* <—**Egun on Jangoikoak eman diezazula!** —**Baita zeuri ere!**>.
- Lasarten (G): *Jainkoak egun on!* <Jainkoak egun on!>.
- Alduden (NB): *Yainkoak dautzuetela egun on!* <Jainkoak dizula egun on!>.
- Domintxainen (Z): *Jinkua(k) deiziela egün hon!* <Jainkoak deizuela egun on!>.

Baina edozelan ere, agur egitean Jainkoaren izena aipatzeko lehengo ohitura hori gero eta galduago dagoela ohartarazi digute lekuko askok, gazteen artean bereziki. Hala jaso da ondoko herrietan:

- Errezilen (G): *Oañ Jainkua gutxi attatze'a, baña leno: "Jangoikuak eun on dizuela!"*. <Orain Jainkoa gutxi aipatzen da, baina lehenago: "Jangoikoak egun on dizuela!">.
- Azkainen (L): *"Yinkoak eman diozula egun on!" lehen erraten zen. Apezak erraten zuen "Egun on!" etzela aski.* <"Jainkoak eman diezazula egun on!" lehen erraten zen. Apaizak erraten zuen "Egun on!" ez zela aski>.
- Gamarten (NB): *Yinkoa ezta erraiten gehio. Gaztek "Egun on!" erraiten dute, Yinkoik eztute aiphatzen gehio.* <Jainkoa ez da erraten gehiago. Gazteek "Egun on!" erraten dute, Jainkorik ez dute aipatzen gehiago>.
- Zaraitzun (N) Azkuek agur egiteko era formalagoa bildu zuen: «—Yinkoak dizula, anderaurena! / —Bai eta zuri ere, galaia zalduna!» (EY IV 185).

Tradizio idatzian usuago ageri da Jainkoaren izena agur egiteko formula barruan. Hala Gerriko idazlearenean: «Jaungoikoak egun on dizula, adiskidea!» (Gerriko I). F. Arrese Beitiak honexetara jarri zuen: «Jaungoikoak dizula, / aitatxo, egun on!» (AmaE). Eta B. Mokoroaren hirugarren adibide bat: «—Jaungoikoak diyela egun on! —Bein ere bada ta, premiyan arkitzen gera» (Damuba).

— Agur egitean agurtzen den horren izena aipatzea:

Herri-jakintzaren tradizioan aise erabilirik ageri da. Zaraitzun (N) bilduriko balada baten agurrak ditugu hauexek: **Jainko onak dagizula egun on!** Eta erantzuna: **Bai eta zuri ere!** Hona hemen aipamen zuzena: «—Jinko onak dagizula egun on, / nere Klara maitea! / —Bai eta zuri ere, / Dongaraieko primia!» (Balad 75).

Berdin tradizio idatzian ere; hona hemen adibide batzuk. Agirre Asteasuko: «Agur, otso jauna, egun on!» (Erakusaldiak III); N. Etxaniz: «Egun on, lagun! Egualdiari begira, ala?» (LBB); M. Izeta: «"Egun on, yaunak!" —agurtu zuten alaiki ertzañek» (DirG); F. Bilbao: «Egun on, gazte! Ardaoa dakarstak ala? —Berorixe, Bixente » (IpuiB); eta A. Barriola: «Egun on danori!» (Goi).

— Agur egiten duenari erantzuna:

Tradizio idatzian, R. Illarramendiren adibide bat: «—Egun on, Jose! —Baita zuri ere! —Arrantzako asmuetan al gera?» (*Testimonio*).

Bizkaian, Arratiako herrietako berbetan, ohitura da **Hala ekarri!** (*Halan ekarri!*, ahoz) erantzuna ematea.

Agurrik egiten ez den kasuetan, gertakaria gaitzesteko eta edukazio falta agertzeko asmoz, «txerriek ere kurrinka egiten dutela» esaten dela azaldu da Iparraldeko zenbait tokitan. Horra lekuko batzuen esanak:

- Ezterenzubin (NB): *Ondoan phaasten bada deus erran gabe: “Urdek ‘khurk’ iten die!”*. <Ondotik pasatzen bada deus erran gabe: “Urdeek ‘kurk’ egiten dute!”>.
- Garrüzen (NB): *Eztuk “hunk’e” erten; zerriek’e “hunk” iten die pasatzian!* <Ez duk “hunk” ere erraten; zerriek ere “hunk” egiten dute pasatzean!>.
- Sohütan (Z): *Urdek’e erraiten die “Egün hon!”* <Urdeek ere erraten dute “Egun on!”>.

— «Agur» hitzaz agurtzen zaituenari erantzuna:

- “Egun on!” esan ordez, “Agur!” esaten duenean norbaitek, horri barre-burlaz edo zirika erantzuteko formula bat ere gogoraraziko du Itsasuko (L) lekukoak: *Itsusi da erratea, bainon: “—Agur! —Koskoila luzeak ta buztana labor!”*. <Itsusi da erratea, baina: “—Agur! —Koskoila [‘barrabila’] luzeak eta buztana labor!”>





WV



## ARRATSALDE ON! / ARRASTI ON!

Zein ordutan den zehazki goizaren eta arratsaldearen arteko muga ez da euskararen eremu osoan bat eta bera. Askorentzat goizeko hamabietan egiten da egunaren aldi bien arteko bereizkuntza. Baina beste askorentzat, beranduago amaitzen da goiza eta arratsaldea hasten; bazkalorduekin, hain zuzen.

Ondorioz, eguerdiko hamabietan agur egiteko moduak ere diferenteak aurki daitezke.

Bazkaria edo bazkalordua goiz-arratsaldean banatze-muga bihurtu den eremuetan, bazkalaurretik goizeko agurra egiten da eta bazkalostean, aldiz, arratsalde-parteari dagokiona.

Hegoaldeko lurraldeetan, partiketa hori ohikoena dela esan daiteke. Bazkaldu aurretik «Egun on!» esaten dutela aitortu dute ondoko herrietan, besteak beste:

- Deban (G): *Bazkaldu aurretikan, “Eun on!”*. <Bazkaldu aurretikan, “Egun on!”>.
- Azkoitian (G): *Amen da “Eun on!”; bazkaldu artekue “Eun on!” da*. <Hemen “Egun on!” da; bazkaldu artekoa “Egun on!” da>.
- Zestoan (G): *Orduan’è “Eun on!”*, *bazkaldu bittartian*. <Orduan ere “Egun on!”, bazkaldu bitartean>.
- Oderitzen (N): *Bazkaldu arte, “Eun on!”*. *Amabitan’è, “Eun on!”*. <Bazkaldu arte, “Egun on!” . Hamabietan ere, “Egun on!”>.

Behin bazkalduz gero, «Arratsalde on!» dela jaso da, besteak beste, herriotan:

- Mañarian (B): *Bazkaldute basaus, “Arratzalde on!”*. <Bazkalduta bazaude, “Arratsalde on!”>.
- Ezkio-Itsason (G): *Bazkaldu ezkeo, “Atsalde on!”*. *Ordubaten’è, “Eun on!”*, *bazkaldu be baldima zaude’re*. <Bazkalduz gero, “Arratsalde on!” . Ordu batean ere, “Egun on!”, bazkaldu gabe baldin bazaude ere>.
- Azpeitian (G): *Beñ bazkaldu ezkeo, dana “Arratsalde on!” esate’a*. <Behin bazkalduz gero, dena “Arratsalde on!” esaten da>.

Baina leku batzuetan, lekukoen esanean, goiz eta arratsaldearen arteko muga orduaren arabera finkatzen da. Hala ere, zein ordutan zehazki esatean, ez dago adostasun osorik leku bateko eta bestekoen artean.

Gehien-gehienek eguerdiko hamabietan finkatzen dute goiz-arratsaldean banatze-ordua. Hala:

- Elduainen (G): *Beñ amabik ezkeo, "Atsalde on!"*. <Behin hamabiak ezkerro, "Arratsalde on!">.
- Elgoibarren (G): *Beñ amabixetatik atzea eskero, ["Arratsalde on!"]*. <Behin hamabietatik atzera ezkerro, ["Arratsalde on!"]>.
- Berueten (N): *Amabi pasatu bittarten, "Egun on!"*. <Hamabiak pasatu bitartean, "Egun on!">.
- Lekarozen (N): *Amabiek mana'palin badire, "Atsalde on!"*. <Hamabiak emanak baldin badira, "Arratsalde on!">.
- Hendaian (L): *Amabiak arte, "Egun on!"*. <Hamabiak arte, "Egun on!">.

Beste leku batzuetan, ordea, ordu bata aipatzen dute goiz-arratsaldean banatze-muga bezala. Hala:

- Ikaztegiatan (G): *Ordu batetan ya asten gea "Atsalde on!" esaten*. <Ordu batean ja hasten gara "Arratsalde on!" esaten>.
- Ataunen (G): *Ordubatetik aurrea*. <Ordu batetik aurrera>.
- Gaintzan (N): *Ordobetati aurrera. Ordobeta allatzen denean, andik aurrea, "Atsalde on!"*. <Ordu batetik aurrera. Ordu bata ailegatzten denean, handik aurrera, "Arratsalde on!">.

Leku batzuetan ordu biak ere aipatu dituzte arratsaldearen hasiera ordutzat. Hala bada:

- Hernanin (G): *Beñ ordu bik ezkeo*. <Behin ordu biak ezkerro>.
- Domintxainen (Z): *Dioenex "Atsalde hun!" bi orenak igan-eta. Beraz, hemen "Egün hun!"*. <"Arratsalde on!" bi orenak iraganda. Beraz, hemen "Egun on!">.

Badira bitarteko formula bat darabiltenak ere, «Eguerdi on!», baina lekukoek eurek diotenez, esapide hau berriagoa da. Bai erabiltzen dela dioten lekukoek esanean, askorentzat ezaguna izan arren, ez omen dute erabili izan. Hala:

- Azkoitian (G): *“Eguardi on!” inoiz esate’zu, bañe zure kasa, esateatik bezela, bañe... ez [da esaten].* <“Eguerdi on!” inoiz esaten duzu, baina zure kasa, esateagatik bezala, baina... ez [da esaten]>.
- Urretxun (G): *Oain geiao. Leno beti “Eun on!”.* <Orain gehiago, baina lehenago beti “Egun on!”>.
- Beizaman (G): *Noiz eo noiz, baño oañ ze san ber deu, “Eun on!” eo “Atsalde on!”? Ola dudan baldin bagea... <Noiz edo noiz bai, baina orain zer esan behar dugu, “Egun on!” edo “Arratsalde on!”? Holan dudan baldin bagara...>.*
- Orexan (G): *Oin esate’a oi; guk ez, guk beti “Eun on!”.* <Orain esaten da hori [“Eguerdi on!”], baina guk ez, guk beti “Egun on!”>.

**Arratsalde on!** edo **Arrasti on!** formula, beste agur-formulak bezala, maizenik bakarrik erabiltzen da, perpauk bakarra osatuz. Domingo Agirrek idazleak dioen bezala: «Gora ta bera ebiltzanai “Agur!” edo “Arratsalde on!” egiñaz, baziarduen euren amaibageko jardunean» (*Kresala*).

Baina beste batzuetan, nori zuzendua den agurra, haren izena aposizioan dela ere bai. Hala: P. Larzabalen aipamena: «Arratsalde on, jauna!» (*Iru*). Oxobirena: «Egarri, gose, hunu nun giren: Arratsalde on, Kattalin! / Zure senharra fleitean denetz nahi ginuke jakin» (*Ox*). Edo pluralez, Uztapide bertsolariaren ahotik: «Arratsaldeon, anai-arrebak, / auxen da egun mardula!» (*BertsTxapel65*).

Perpauk luzeago baten hasieran erabiltzeko ohitura ere bada, sarrerako agur-formula gisa. Esaterako, plazan jendaurrean hitz egiten hasterakoan. B. Mokoroak dakar: «—Arratsalde on Jaungoikoak dizutela! —Baita zuri ere, ala dizula!» (*Damuba*).



Gauean, behin ilunduz gero batez ere egiten den agurraz galde egin denean, jaso den erantzun orokorra **Gabon!** izan da.

EHHAn hitz beraren zenbait aldaera bildu dira, guztiak ere bata besteagandik guztiz hurbilak Iparraldean: *Gau on!* —Lapurdin eta Nafarroa Beherean— da nagusi, *Gau hun!* eta *Gai hun!* aldaerak dituela Nafarroa Beherean eta Zube-roan. Euskararen sartaldean, *gaubon*, *geubon* eta *gau on* aldaerak ere bildu dira.

Zein ordutan apur bat gorabehera egiten den formula-aldaketa, «Arratsalde on!» esatetik «Gabon!» esatera noiztsu igarotzen diren itaunaren aurrean, honako iritziak jaso dira:

Arratsaldeko zortzietan nola agur egin behar den erabakitzeko, zenbait herrikako hiztunek eguneko argitasunari edo iluntasunari kasu egin behar zaiola azaldu dute. Iluntzen duelarik «Gabon!» esaten dela ziurtatzen dute lekukoek, batean zein bestean.

— Eguna, oraindik argi den bitartean, «Arratsalde on!» formula erabiltzen dela diote lekukoek oro har; baina behin gautuz gero, ilundurik edo iluntzen hasia bada, orduan «Gabon!». Argiaren eta ilunaren arabera banatzen dira gehienetan agur-formulok:

- Elgoibarren (G): *Beñ illundu eskeo*, “Gabon!”. <Behin ilunduz gero, “Gabon!”>.
- Andoainen (G): *Beñ iya illunbixta ezkeo*, “Gabon!”. <Behin ia ilunbista ezker, “Gabon!”>.
- Legazpin (G): *Aatsalde on!*, *argi badao*; *illun badao*, “Gabon!”. <“Arratsalde on!”, argi badago; ilun badago, “Gabon!”>.
- Errezilen (G): *Illundu arte etzaigu iruitzen gaua danikan-da*, *beñ illundu ezker*, “Gabon!”, *naiz goizo illundu*. <Ilundu arte ez zaigu iruditzen gaua denik-eta, behin ilunduz gero, “Gabon!”, nahiz goizago ilundu>.
- Ikaztegietan (G): *Illuna ezten bitartean*, *beti Aatsalde on!*. <Iluna ez den bitartean, beti “Arratsalde on!”>.

- Lasarten (G): *Iñularra etorri bitartean, "Atzalde on!"*. <Ilunabarra etorri bitartean, "Arratsalde on!">.
- Elduainen (G): *Beñ illuntzen asten danetiken, "Gau on!", bañon argi daon arten, "Atsalde on!"*. <Behin iluntzen hasten denetik, "Gau on!", baina argi dagoen artean, "Arratsalde on!">.
- Hondarribian (G): *Beñ eguzkiya gorde ezkeo, "Gabon!". Ordu bittikan zortziyak-edo, udan eitten bada, orrei esaten zayo "Arratzalde on!". Gero ya, "Gabon!". Oiñulabarra. Biño "Iñulabar on!" estigu esaten...* <Behin eguzkia gordez gero, "Gabon!". Ordu bietatik zortziak arte edo, udan egiten bada, horri esaten zaio "Arratsalde on!". Gero ja, "Gabon!". Ilunabarra. Baina "Ilunabar on!" ez dugu esaten>.
- Berueten (N): *Illundu eskeostiken, "Gabon!"*. <Ilunduz geroztik, "Gabon!">.
- Sohütan (Z): *"Gai hon!", ülhünai büüz.* <"Gau on!", ilunari buruz>.
- Arrasaten (G), zertzelada bitxia jaso da, «Gabon!» esaten noiz hasi behar den ezaugarri gisa: *Etxien lengo sarrak esate'un: etxea argiten danien "Gabon!" esan bear da.* <Etxean lehengo zaharrek esaten zuten: etxea argitzen denean "Gabon!" esan behar da">.

— Arratsaldean abemarietakoak jo orduan, «Gabon!» esateko tertzioa dela aipatu dute beste berriemaile batzuek ere. Hala Amezketan (G): *Oraindik ilundu ez badu ere bai. Behin aimarik kanpaiak jo ezkeru, "Gau on!", aik eta goizea arte.* <Oraindik ilundu ez badu ere bai. Behin abemariak kanpaiak joz gero, "Gabon!", harik eta goizera arte>.

— Urteko zein sasoiatan den ere gogoan izaten dela agur-formula hautatzerakoan, zehaztu dute informatzaile batzuek. Argiago edo ilunago dagoen ere aintzat hartzen dutela diote askok, ordu bera izanda ere, argi-ilunaren arabera erabakitzen dutela, alegia. Hala:

- Azpeitian (G): *Neguan "Gabon!", baño [udan] nola argi eote'an, "Atsalde on!" esan ber.* <Neguan "Gabon!", baina [udan] nola argi egoten den, "Arratsalde on!" esan behar>.
- Tolosan (G): *Zortzitan? Ze garaitan dan, ze urte sasoiatan dan... Oain "Gabon!", udaran "Atzalde on!"*. <Zortzietan? Zer garaitan den, zer urte-sasoiatan

den... Orain “Gabon!”, udaran “Arratsalde on!”>.

- Gaintzan (N): *Udan, garagarrillen-da, segun noizten, “Atsalde on!”*. Oañ [urtarrilean] “*Gau on!*”, seitan *illuntzen do ta. Garagarrillen, amarretan “Gau on!”*; bitarten “*Atsalde on!*”. <Udan, garagarrilean-eta, segun noiz den, “Arratsalde on!”. Orain [urtarrilean] “Gabon!”, seietan iluntzen du eta. Garagarrilean, hamarretan “Gabon!”, bitartean “Arratsalde on!”>.

— Formula osatuagoak bildu dira herri batzuetan, eta euskararen eremuaren ekialdean are ugariago, Jainkoaren aipua egiten dutenak agur-formula barruan:

- Arnegin (NB): *Eta aurrek yuaitian kasia zuten: “Yinkoa’tauazula gau on!”*. <Eta haurrek joatean ikasia zuten: “Jainkoak dizula gau on!”>.
- Goizuetan (N): *“Jainkok gabon!”*. <“Jainkoak gabon!”>.

Aditza agerian dago lehen formulan, «dautzula». Bigarreanean, aldiz, ezabaturik dago, baina azpian datzana: **Jainkoak gabon dizula!** izan daiteke.

Errefrau batzuetan ere islatzen da «Gabon!» formula, sartaldeko hizkeretan «gabon» eta «emon» hitzekin errima eginez, **Halan Jangoikoak emon!** edo **Jangoikoak deigula emon!** erantzunak direla: «—Gabon! —Alan Jangoikoak emon!» (*Garate* 5401) edo «—Gabon! —Jangoikuak deigula emon!» (*Garate* 5121). Badira, «egon» aditzaz puntua jagoten dutenak ere badira: «“Egun on!, gabon!”, nor bere etxean egon» (*Garate* 3522).





3

# URTEKO EGUN SEINALATUAK



Urtearen lehen eguna, herri-ohiturez, kantu-errezitatuz eta sineskizunez betea ageri da euskaldunon artean ere, beste herri batzuetan bezala.

Bi izen nagusi eman izan zaizkio urtearen lehen egun horri euskaraz. Batetik, **Urteberri**, sartaldean *Urtebarri* aldaera duena, eta bestetik *Urt(h)ats* eta horren aldaerak, berariaz Iparraldean.

Esangura bertsua dute izen batak eta besteak, baina hitz-egitura bereiziez eraikiak dira: «Urteberri» izen-adjektibo egiturakoa dugu: [urte + berria]. Eta bestea izen-aditziz egiturakoa: [urte + haste]. Pirinioez beheiti lehena erabiltzen da ia orobat, eta haietaz goiti, bigarrena.

Lurraldeka xehaturik, *Urtebarri* sartaldean, bizkaieraren eremuan, «Urteberri» erdialdean eta Nafarroa ia osoan, eta **Urtats** edo *Urt(h)ats* Iparralde ia osoan, salbu Lapurdiko eta Zuberoako mugatik hurbil dauden herrietan. *Urt(h)ats* bildu da Ürrüstoin (Z).

Gramatikari dagokionez, urte-hasiera egunaren izena mugagabez eman izan da luzez, eta gaur ere hala da hizkera askotan. EHHAn, hala ere, zenbait herritan «-a» mugatzaileaz lagundurik bildu da. Adibidez, Oiartzunen (G): *Urteberriya*; edo Itsasun (L): *Urteberria*.

Urtearen haste-egunaren izena, bere soilean barik, «egun» izenaz lagundurik erabiltzen da gaur egun zenbait lekutan: **Urteberri egun** (*Urtebarri egun*, bizkaieraz) eta **Urtats egun**. Hala:

- Bermeon (B), Bolibarren (B) eta Kortezubin (B): *Urtebarri egun*.
- Ondarroan (B): *Urtebarri eun*.

«Egun» izena erantsirik datorrenean, mugatzaile eta guzti dakarte izenok. Hala:

- Sunbillan (N), Etxalarren (N) eta Donamarian (N): *Urteberri eguna*.
- Goizuetan (N): *Urteberri euna*.
- Leitzan (N), Mezkitzen (N), Elduainen (G): *Urteberri eune*.

- Azkainen (L): *Urteerri eguna*.
- Donibane Lohizunen (L): *Urtats euna*.
- Larrainen (Z): *Urtats egüna*.

\*\*\*

— Bizkaiko hainbat herritan egun horretan entzuten diren errezitatuak, berbaz edo kantuz esandakoak, gogora ekartzeko modukoak dira. Horien bertsio diferente mordoak bildu da EHHako inkestetan. Hots, leku batetik bestera aldaketa txikiak dituzte errezitatuok.

- Arrankudiagako Zollon (B) jaso da: *Urtebarri, / txarri-belarri, / daukenak estaukenari. / Nik estauket-eta niri, / ni lango probetxu beteri*. <Urteberri, / txerri-belarri, / daukanak ez daukanari. / Nik ez daukat-eta niri, / ni lako probetxu bati>.
- Etxebarrin (B): *Urtebarri, / txarri-belarri, / dekonak estekonari, / nik estekot-eta niri...* <Urteberri, / txerri-belarri, / daukanak ez daukanari, / nik ez daukat-eta niri...>.
- Zaratamon (B): *Urtebarri, barri, / nik estekot-eta niri, / espabere txarri-belarri*. <Urteberri, berri, / nik ez daukat-eta niri, / espabere txerri-belarri>.
- Markina alboko Etxebarrian (B): *Urtebarri, barri, / txarri-belarri, / daukenak estaukenari*. <Urteberri, berri, / txerri-belarri, / daukanak ez daukanari>.
- Larrabetzun (B), luzexeago: *Urtebarri, barri, / dekonak estekonari, / nik esteko'ta niri, / espabere txarri-belarri. / Urtesarra joan da, / barrie etorri*. <Urteberri, berri, / daukanak ez daukanari, / nik ez daukat-eta niri, / espabere txerri-belarri. / Urtezaharra joan da, / berria etorri>.
- Mañarian (B) errezitatu bat baino gehiago bildu dira, bata bestearen atzean, nahastean-edo. Hauexek dira: *Urtebarri, barri, / deukenak estekonari, / niri emoten esteutostenak... // Itxi don Nikolas "karamelo-konfesero", / Mariandres, alarguna dontzeillia, / "cantaremos alegría". / Bost etxe ta sei ate, / saspi etxe ta*

*sugate. // Agillando, agillando, / “suma txikarrando”. / Angeruek gara, / serutik gatos, / “por una limosnita / por amor de Dios”. / “Sí, sí, sí, no, no, no”, / otzara bete solomo. <Urteberri, berri, / daukanak ez daukanari, / niri ematen ez didanak... // Itxi don Nikolas “karamelo-konfesero”, / Mariandres, alarguna dontzeila, / “cantaremos alegría”. / Bost etxe eta sei ate, / zazpi etxe eta sugate [‘sukalde’]. // **Agilando**, agilando, / “suma txikarrondo”. / Aingeruak gara, / zerutik gatoz, / “por una limosnita / por amor de Dios”. / “Sí, sí, sí, no, no, no”, / otzara bete solomo>.*

- Azkuek Bizkaian batu zituen bertsioren artean, Markinako (B) batek dio: «Urtebarri, barri, / txarri-belarri, / daukanak eztaukanari / katillutxu bete gari» (EY III 651).

- Antzeko beste batek, Lekeition (B) bilduak, dio: «Urtebarri, barri, / txarri-belarri, / daukanak eztaukanari / intxaurtxu bi, iru gaztaiña, “Marimontaña”, / atsoak dauko uzkar-usaiña» (EY IV 379). Azken osagarritzat umeek beste hau ere kantatzen zutela dio: «... agureak dauko arda-usaiña» (EY IV 379).

— Nafarroako hainbat herritan ere jaiegun honetan errezitatu edo kantatzeko ohitura izan da. Herri horietan, umeak etxez etxe joaten izan dira limosna eske. Hara hemen bildu diren batzuk:

- Dorraon (N): *Eltze berri, eltze zar, / eltzien urdei kozkorra, / meyen ogi zuridda, / tazan ardo gozua. / Eltze berri, eltze zar! <Eltze berri, eltze zahar, / eltzean urdai-koskorra, / mahaian ogi zuria, / tazan [‘katiluan’] ardo gozoa. / Eltze berri, eltze zahar!>. Eta ohitura hori nortzuek eta nola egiten zuten azaldu du lekukoak: *Umiek, limosnan-da ibiltzen dia, orei eztakit ibiltzen dian, e? Lenauko denboran ibiltzen giñen da, jaskitxo bat-o ta, etxe denetan ori. <Umeak, limosnan-eta ibiltzen dira, orain ez dakit ibiltzen diren, e? Lehenagoko denboran ibiltzen ginen eta, saskitxo bat [hartu]-edo eta, etxe denetan hori>.**

- Oderitzen (N) ere gauerdian etxez etxe kantatzeko ohitura izan da: *Urteberri, egun ona, / egun onaren señalía. / Emen dekarg’ur berria. <Urteberri, egun ona, / egun onaren seinalea. / Hemen dakargu ur berria>. Eta ohitura horren arrazoia era honetan azaldu du lekukoak: *Iresen kantatzen tzin oi! Da emenè bai. Nik eztut emen gogoan, baño gaberdin, amabitan, ordun ordu**

zarretan ibiltzen tzen denak. Ta amabitan ateatzen tzen kantatzea, ta erri guzire ematen buelta. Ta mutillek ateatzen tzen eta oi kantatuz etxi guzietan. Ure beinkatu izaten tzen elizan. Urteberri eunin, baño lendabixiko orduan, amabitatik aurrea [kantatzen zen]: “Urteberri egun ona / egun onaren señaia...”. Ta gero bazen beste koplak batzuk: “Etxe ontako etxeko andreak, Ama Birjiña dirudi”, *pusk'ematen bazeon. Ez bazeon ematen, ba, “labe zatarra diruri”*. <Iribasen kantatzen zuten hori! Eta hemen ere bai. Nik ez dut hemen gogoan, baina gauerdian, hamabietan, orduan ordu zaharretan ibiltzen ziren denak. Eta hamabietan ateratzen ziren kantatzera, eta herri guztiari buelta ematen. Ta mutilak ateratzen ziren eta hori kantatuz etxe guztietan. Ur bedeinkatua izaten zen elizan. Urteberri egunean, baina lehendabiziko orduan, hamabietatik aurrera [kantatzen zen]: “Urteberri egun ona, / egun onaren seinalea”. Eta gero baziren beste koplak batzuk: “Etxe honetako etxeko andreak, / Ama Birjina dirudi”, *puska ematen bazuen. Ez bazuen ematen, ba, “labe zatarra dirudi”*>.

- Azkuek Nafarroan bertsiok bat baino gehiago bildu zituen. Batek dio: «Aingiruak gara, zerutik eldu gara, / bolsa badugu, bainan dirurik ez. / Konbida gaitzazu txikiño batez, / guk ere einen zaitugu bertzeño batez. Urtats, Urtats!» (EY IV 115). Bigarren batek dio: «Aingerutxoak gira, zerutik eldu gira, / boltsa badegu, dirurik eztegu, / altzina yoaiteko, Urtatsa bear degu» (EY IV 274). Eta hirugarrenak: «Urte berri berri. / —Zer dakarrazu berri? —Uraren gaina, bakea ta osasuna. Urtats!» (EY IV 379).

— Iparraldeko zenbait herritan Urtezaharrez egiten zuten koplak-kantua eta eskea. Hala bildu da zenbait herritan:

- Donibane Lohizunen (L) Urtezaharrez joaten omen ziren etxez etxe, lekukoak dioenez, «Dios te salve» kantatzen eta jendeari urte berri ona opesten. Hala zioten: “*Dios te salve*”, *ungi etorri. / Gabon Jinkuak dizula! / Gabon Jinkuak dizula eta / urte onian sar gaitzala!* <“Dios te salve”, ongi etorri. / Gabon Jainkoak dizula! / Gabon Jainkoak dizula eta / urte onean sar gaitzala!>.

- Antzera jokatu izan dute Arrangoitze (L) eta Senpere (L) bezalako herrietan ere.

\*\*\*

Urteberri egunean etxekoei, lagunei, auzokoari-eta urte ona opatzeko ohitura ere izan da, **Urteberri on!** formula erabiliz. Aipatzekoa da Iparraldeko herri gehientsuenetan urte onarekin batera «osagarri ona» ('osasun ona') ere opa izan dela: **Urtats on, osagarri on batekin!** Eta erantzuna: **Baita zuri ere!** edo **Halaber zuri ere!**

- Mugerren (L): *Urtehaste on, osagarri on batekin!* <Urtats on, osagarri on batekin ['osasunarekin']!>.
- Gamarten (NB): *Urthe hun bat desiratzen dautzut, osaarri batekin!* <Urte on bat desiratzen dizut, osagarri batekin ['osasunarekin']!>.
- Landibarren (NB): *Urte huna suertatzen: "Urte on bat desiratzen dauzut, osagarri hun batekilar ta xantxa anitzekin!"*. <Urte ona suertatzen: "Urte on bat desiratzen dizut, osagarri on batekin eta xantza ['zorte'] anitzekin!">.
- Jutsin (NB): *Urthe huna desiratzen: —Urthe hun bat desiratzen dautziet osaarri on batekin! —Halaber zuri ere —bestiak arrapostia*. <Urte ona desiratzen: —Urte on bat desiratzen dizuet, osagarri on batekin! —Halaber zuri ere! —besteak arrapostua>.

\*\*\*

Errefrau ezagunak ere badira, urtearen lehen egunari aipu egiten diotenak.

Sartaldean guztiz ezaguna den bat: *Urtebarri, itsuak be igarri*. <Urteberri, itsuak ere igarri>. Edo: *Urtebarri, zoroak bere igarri*. <Urteberri, zoroak ere igarri>.

Gipuzkeraren eremuko dirudien honen antzeko beste bat, «Eguberri» eta «Urteberri» batera jasotzen dituenak: «Eguberri, eroak igarri eta Urteberri, oilloaren arrabete» (EZBB I 87).

Zer jaten den Urteberri egunez aipatzen duenak ere badira: Erronkariko Bidankozen (N) Azkuek bildurik: «Urteberri zereki? Urteko eguberri kareki» (EY III 1829).

Urte berriaren etorrerak bizia eta bizimodua berritzen duelako mezua dakartenak ere ez dira falta... Hona hemen M. Soroa idazlearen aipamen bat: «Urteberri, Urtezar, Martzelino galtza zar?» (*Jostirudia*).

Eguraldiaz mintzo direnak ere badira. «Urtatsez haize, urtearen erdian haize» (*Garate* 13190); eta «Urtatsez elur askoz, lili Pazkoz» (*Garate* 13189).



## ERREGE EGUNA / ERREGEN EGUNA

Urtarrilaren 6an, eguzkiaren sortaldetik hiru errege edo mago jakintsu, hots, Errege Magoak etorri zirela Jesus seintxo jaioberria adoratzera oroitzen duen eguna zelebratzen da kristau-erlijioan. Eta egun seinlatu hori era diferentziaz ospatzen da euskararen lurralde eta herrietan, leku batzuetatik beste batzuetara.

Zer izen ematen zaion egun horri zehaztu dezagun lehendabizi.

Izen bat baino gehiago eman izan zaizkio egun seinlatu honi. Hara batzuk:

**Errege** eta **Erregen** dira Pirinioez hegoaldean ematen zaizkion izen nagusiak; baita «egun» izenaz lagunduta ere: **Errege egun** (edo **Erregeen Eguna**) eta **Erregen egun**. Iparraldean ere, Nafarroa Beherean, mugaz hurbil dauden herrietan, ezaguna dute «Erregen egun» forma, eta Lapurdin, horrekin batera, **Erregen besta** eta *Erregen adorazio* (ahoz, *Erregen adorazionia*) izenak ere jasoa dira.

Iparraldeko lurraldean **Trufania** (ahoz, *Trüfania* ere bai), edo **Trufania egun**, da izenik hedatuena, eta EHHAn zein tradizioan ere «Errege(e)n eguna» izenez batera aipatuena. Halaxe ageri da kristau-dotrinetan: «Erregen eguna edo

Trüfania» (*CatLan*) eta «Trufania egunean, zeina deitzen baita berzela Erregen eguna» (*Belapeire*).

Euskararen eremuaren sartaldean «Erregen» da egun honi deritzon izena, gramatikaz soil eta mugagabez erabilirik: «Noiz da Erregen?»; edo: «Hilaren 6an da Erregen». Eta izen-elkarketan ere berdin: «Erregen aurretxean zan» (*Zirikadak*); «Erregen bixamon goixian» (*ArantzLar*).

Erdialdeko hizkeretan «Errege egun» izena gailentzen da. Idazle moderno batzuen testigantzak: «Zelebraztera gatoz Errege eguna» (*Festara*); «Urteberri eta Errege egunetako xeiak» (*Mendigatxa*). «Ilbeltzaren 6an egiten da [...] Errege eguna» (*YKBiz*).

Ziklo bezala kontenplazten denean jaiegun hori, **erregenak** da izenik hedatuena, eta **erregeak** ere ezaguna (Zuberoako muga-herrietan, esaterako; ahoz, *erregiak* erabilia). Tx. Garmendia eta J. Azpiroz idazleen adibide bana: «Andik erregenak pasa arte, pentsamentu bakarra izango zuan» (*BordaB*), «Urteberritatik asiko naiz [...] Gero erregenak» (*ArbZar*).

«Mago» adjektiboaz lagundurik ageri da «errege» izena hainbat aldiz: **Errege Magoak** edo *Errege Maguak*. Tradizinoaz halaber: «Errege Magoek adoratu» (*Tratado*), «Adoretan dozue Jesus Errege Magoak legez» (LS).

\*\*\*

**Apalazio egun** edo **Apalazioak** izena latineko APPARITIO izenetik eratorria da. Egunaren izendapen modura bakan azaltzen da, Bizkaiko errexitatu-kantuetan irau du bizirik berariaz, «Apalazio zalduna...» (*Apalasio saldune*, ahoz) hasiera duten horietan, baina eguna bera izendatzeko ere bizi da herri batzuetan. Hala bildu zen 1920ko hamarkadan Bedian (B): «REYES. SU NOMBRE: Apalasioak Y TAMBIÉN Erregen» (AEF).

Iparraldeko hizkeretan ere ezaguna zen: **Aparizio**. Hona hemen A. Belapeire idazlearen adibide bat (non **Pazko zahar** ere baitarabil): «—Noiz dira debetü ezteiak? —Adbentü lehen igantetik Aparizio, zoin baita Hirur Erregen besta, eta Hausterik Bazko zaharra igaran artio» (*Belapeire*).

Errezitatu moduan esan ohi diren koplak edo kantu labur batzuk guztiz ezagunak dira Bizkaiko hainbat herritan, Erregen egunari buruz. Hala bildu dira EHHAn:

- Zaratamon (B): *Apalasio saldune, / Iru Erregen egune. / Iru Erregek emongo'sku(e) / limosnatxu beten egune. / Aittuen ta amamaren kontuek, / Martinikoren kontuek. / Martinikok dekos... / Eroan dotzos iru ollanda katuek. / Aren atzien dabil [...] burue galtzen, / emoten dotzos seregiñek-eta Martin orrek. <Apalazio zalduna, / Hiru Erregen eguna. / Hiru Erregeek emango digute / limosnatxo baten eguna. / Aitoberen eta amamaren kontuak, / Martinikoren kontuak. / Martinikok daukaz... / Eraman dizkio hiru oilanda katuak. / Haren atzean dabil [...] burua galtzen, / ematen dizkio zereginak-eta Martin horrek>.*
- Arrankudiagako Zollon (B), aurreko horren aldaera berdintsu edo antzekoa jaso zen: *Apalasio sordune, Iru Erregen egune. <Apalazio zorduna, Hiru Erregen eguna>.*
- Mungian (B): *"Apalasio saldune, Iru Erregen egune" kantetan san baia gero. <"Apalazio zalduna, Hiru Erregen eguna" kantatzen zen baina gero>.*
- Zeberion (B): *"Apalasio" bai, aldi beten kantau eiten gindun. <"Apalazio" bai, aldi baten kantatu egiten genuen>.*
- Mañarian (B) bildu den errezitatuak, Durangaldean gorde den beste ohitura baten berri ematen du. Herri honetan bertsio hau azaldu da: *Erregen, Erregen "de la montaña", / saspi intxaur te sortzi gastaña, / aren onduen lau sagar, / mutillek kolkue sabal-sabal. <Erregen, Erregen "de la montaña", / zazpi intxaur eta zortzi gaztaina, / haren ondoan lau sagar, / mutilak kolkua zabal-zabal>.*
- Ondarroan (B) ere honako bertsio hau jaso da: *Iru Errege datos / oroien artetik munduan / edo deserregian (?) / beti urtuten asi san, / beti urtuten asi san. <Hiru Errege datoz / hodeien artetik munduan / edo deserrian (?), / behetik urtzen hasi zen, / behetik urtzen hasi zen>. «Deserrian» dela susma daiteke deserregian hori>.*

Gudu aurrean bertsio bat baino gehiago bildu izan ziren, iturri diferenteetarik. Azkuek «Apalazio» izenburupean bi bertsio atera zituen EYn:

- Zeanurin (B) bildu zuenak dio: «Apalazio zaldune, Iru Erregen egune. / Iru Erregeak bialdu gaitue / limosnatxo baten bila. // Zotzak eta paluek / Martin Antonen kontuek. / Martin Antoni eroan dautsoz / iru oillanda katuek. // Aren azurrek batu ezinik / ak erabilzan saltuek. / Saltu ta brinko, / saltu ta brinko, / Jose Marien aurrean, / Gabon gabeko intxaur-saltsea / guztiz birrindu artean» (EY II 282).
- Zornotzan (B) bildu zuenak: «Apalazio zaldune, Iru Erregen egune, / zotzak eta paluek / estudiantien kontuek. / Estudianteak sasirik asko, / asko yan ta gitxi ikasi» (EY II 282).

Arratian bilduak dira hurrengo biok ere. Bat: «Apalasio zaldune, / Iru Erregen egune, / Iru Erregeak bialdu gaitus / limosnatxu bet bi'ule ['behar dugula']» (AEF). Eta bigarrena: «Apalasio zaldune, / Iru Erregen egune, / sotzak eta paluek, / estudiantean kontuek» (AEF).

Aipagarria da, duen luzera eta osotasunagatik, G. Garatek *Atsotitzak* corpusen bildurik dakarren bertsio hau ere, itxura guztien arabera Arratiakoa jatorrikoa: «Erregen, Erregen txibiliton, / hiru intxur ta lau gaztañe. / Apalazio zaldune, Iru Erregen egune, / Iru Erregeak billatu eutson, limosnatxo bat be'ogule. / Zotzak eta paluek, Martin Antonion kontuek. / Martin Antoniori eroan deutoz iru ollanda miruek. / Aien azurrek batu ezinde (edo txupau ezinde), / ak erabili zituen sailtuek. / Sailtu ta brinko, sailtu ta brinko, / Martin Antonion atzean, / Gabon gaueko intxur-saltsea guztiz birrindu artean» (*Garate* 4241).


\*\*\*

Beste lurralde eta herri batzuetako ohitura eta sineskizunak ere bildu dira EHHAn. Dakartzagun hona batzuk-batzuk:

— Orexan (G), harri edo txingorrik eror ez dadin eta lureko uzta salburik gordetzeko, honako ohitura edo sineskizun baten berri bildu zen: apaizari uztaren eskaintza egitea (sagarra, garia, babarrunak, gaztainak...), gero berak, eskaintsariok aurrean zituela eta eliztarren aurrean, konjuru bat egin zezan. Azalpen hau eman du lekukoak: *Erregen Eunen sagarra eman bear gendun, bi sagar aundi, ofrenda..., apaizai eman, ta baborrone-ta, gaztaña-ta apaizai. Zaku(ka) gaztaña guk emate giñon, da beste etxe guztitanè bai. Guk geok paño gaztain geio biltzen tzun apaizak... Geo*

*baborrona're emate ginion, konjuroan alde. Konjuroa izaten'tzan, arria ez etortzeko ta, apaiza atea ta itten'tzun or, zimitorioan, ("zimitoria" esate'iu elizan azpiko orri), ta or eiten zuan konjuroa... Jarrita eukitzen'tzun, garia-ta, baborrone-ta.... Ama Berjiña Errosarioko eunean beti garia're eamate giñion. Ure eztakit, eztakit ze benefizio zun gari orrek, baño. <Erregen egunean sagarra eman behar genuen, **bi sagar handi**, ofrenda..., apaizari eman, babarruna-eta, gaztaina-eta... Zakuka gaztaina ematen genion guk apaizari, eta beste etxe guztietan ere bai. Guk gerok baino gaztaina gehiago biltzen zuen apaizak... Gero babarruna ere ematen genion, konjuruaren aldera. Konjurua izaten zen harria ['kazkabarra'] ez etortzeko eta, apaiza atera eta egiten zuen hor, **zimitorioan** ("zimitoria" esaten diogu elizaren azpiko horri), eta hor egiten zuen konjuroa... Jarrita edukitzen zuen, garia-eta, babarruna-eta... Ama Birjina Errosarioko egunean beti garia ere ematen genion. Hura ez dakit, ez dakit zer benefizio ['mesede'] zuen gari horrek, baina>.*

— Oderitzen (N), Errege egun bezpera gauean izaten ziren ohitura biren berri jaso da. Batetik, afalondoan ume eta gazteak joareak jotzen kalez kale irtetea: *Izaten'tzen joale-jotzea. Umeak ateatzen'tzen, ba, illunarren o gaben, afalondoren, gerrian joalek jarri eta Errege bezperan joalek jotzea, Erregek etortzeko bezela. Umeak. Eta gaben ateatzen zen mutillek. Lendabixin, illunaarren motikoak, ta ya*



WV

*gaben aundigoak. Ta igual joaten'tzen Mautzaño o Astitzaño joaleak jotzen. Ni, ni allatu naiz, joale-jotzea. Etzen kantatzen daius'e. <Izaten zen joare-jotzea [Errege bezperan]. Umeak ateratzen ziren ilunabarrean edo gauean, afalondoren, gerrian joareak jarri eta **Errege bezperan** joareak jotzera, Erregeak etortzeko bezala. Eta gauean ateratzen ziren mutilak. Lehendabizi, ilunabarrean mutikoak, eta ja gauean handiagoak. Eta igual joaten ziren Madotzaino edo Astitzaino joareak jotzen. Ni, ni ailegatu naiz joare-jotzera. Ez zen kantatzen deus ere>.*

- Donamarian (N) ere bazuten antzeko ohitura: *Bezperan biltzen'tziren yoarikin*. <Bezperan ibiltzen ziren joareekin>.

— Eta Oderitzen (N) bilduriko bigarren ohitura, hauxe. Errege bezpera horretan, etxekoek afari berezia izaten omen zuten. Honela azaldu du lekukoak: *Urdun etxen izaten zen afari bat berexia, Errege bezperan, ta Errege bezpean izaten zen, etxe bakoitxetan, ba, bat atea bea'zun errege eta beste erreñe. Errege atea bea'zun gizonen tarten eta erreñe atea bea'zun emakumen tarten. Ta errege ateatzen'tzenak, eun artan atea bea'zun ardoa eta inñtxaurrek, afari ondoren. Usadio oi zen, eta oi botatzen zen kartaz. Gure aittek bete botatzen'tzittun ta ateatzen'tzen errege, ya inñtxaurrek eosik eukitzen'tzittun amak; eta erregeak atea bear zittun inñtxaurrek eta ardoa, da balemaziñun dirua, ekarri bea'ziñun ardoa ostatutik. Eta biramonin, biramon goizin, erreñe ateatzen'tzenak, txokolate in bear zun desaunatzeko ['gosaltzeko'], denantzat. Go etxin oittuera oi izando'a. <Orduan etxean izaten zen afari bat berezia, Errege bezperan. Etxe bakoitzean, ba, bat atera behar zen errege, eta bestea erregina. Errege atera behar zuen gizonen tartean eta erregina atera behar zuen emakumeen tartean. Eta errege ateratzen zenak, egun hartan atera behar zituen ardoa eta intxaurrak, afari ondoren. Usadio hori zen, eta hori egiten zen kartaz. Gure aitak beti botatzen zituen eta errege ateratzen zen. Intxaurrak erosirik edukitzen zituen amak; eta erregeak **atera behar zituen intxaurrak eta ardoa**, eta dirua baldin bazenuen, ostatutik ekarri behar zenuen ardoa. Biharamunean, biharamun goizean, erregina ateratzen zenak txokolatea egin behar zuen gosaltzeko, denentzat>.*

— Luzaiden (N) eta Pagolan (Z) ere gorde da Errege egunez opila oparizat emateko ohitura. Luzaideko kasuan, amabitxik egiten zuen **morrodo** izeneko opil hori, bere besoetakoari oparitzeko: *Errege egunian, lehen, ene haur-denboran, amatxik, badakizu "la madrina", opil bat emaiten zakon, present iten zakon "a la ahijada". Lau puntaekilan, "morrodoa" deitzen zen. <Errege egunean lehen, ene*

haur-denboran, amaxik opil bat ematen zion, presente egiten zion besoetakoari. Lau puntarekin, “**morrodoa**” deitzen zen>.

Pagolan (Z), aldiz, ama zen opila egiten zuena: *Amak egiten ziin ophila eta baba ezarten*. <Amak egiten zuen **opila eta baba** [gainean] ezartzen>.

EHHAko inkestetan agerian azaldu den datua da, Errege edo Trufania egun hau Iparraldeko herrietan gutxi ezaguna dela, edo ia ezezaguna orokorrean. Nolabaiteko zelebratze edo ospakizuna egiten den herrietan elizarekin zerikusia duen edota eliza barruan egiten diren elizkizunekin lotua dela. Hara lekukoen adierazpen batzuk:

- Azkainen (L): *Hemen ezta iten hori, bertzaldian; besta ederra han*. <Hemen ez da egiten hori, bertzaldean; besta ederra han>.
- Uztaritzen (L): *Nik ez tut ezautu*. <Nik ez dut ezagutu>.
- Ezterenzubin (NB): *Hemen ezta egiten; hor bazen zernahi besta denbora batez, ardura dira* [Aezkoan]. <Hemen ez da egiten; hor bazen zernahi besta denbora batez, ardura dira [Aezkoan]>.
- Donibane Lohizunen (L): *Errege Maguain eguna... profesionia iten da*. <Errege Magoen eguna... prozesioa egiten da>.
- Arnegin (NB): *Ori elizan erten zen*. <Hori elizan erraten zen>.
- Armendaritzen (NB): *Elizan, elizako zeretan*. <Elizan, elizako zeretan>.



Urtearen lehen hileko, urtarrileko, lehen hamabi egunek iragartzen omen dute urte horretako hamabi hilabeteetan zer eguraldi izango den.

Egun horiei zer izen ematen zaien euskaraz, hori izan da EHHAn inkesta bidez egin izan den galdera. Iparraldeko eta Nafarroa iparraldeko herrietan, oro har, urtearen lehen hileko hamabi egun horiek dira erreferentzia gisa erabili izan direnak, eta lekukoen oroimenean ezagunagoa eta ziurragoa da euren izena eta euren esanahia.

Bizkai eta Gipuzkoako lurraldeetan, aldiz, lausoago eta galduago dagoela dirudi egun horien ezagutza, eta ondorioz euren izena ere bai. Arrazoi hori dela eta, erantzunik ere ez da jaso izan Bizkai eta Gipuzkoako lurraldeetako herri gehienetan.

Gaztelaniaz CABAÑUELAS deritze egun horiei, baina DÍAS AUGULARES bezala ere ezagunak dira. Azkuek, horien ordainez, euskaraz bost edo sei hitz badirela ziurtatu zuen: «Ilegun (V-arr-ger-oroz-m), **sortelegun** (BN), zotelegun edo zothalegun (L, BN, Z) ta **igarregun**» (EY IV 208). Dena den, EHHAn azaldu diren izenak **zotalegun** eta **hilegun** dira, edo euren aldaerak.

«Hilegun» izena Pirinioez beheitiko alderdirik gehienean erabili izan da.

«Zotalegun» izena, berariaz Iparraldean erabili izan da, eta Nafarroa goialdeko herrietan (Baztan, Bortzirietan). Zuberoan *zothalegun* aldaera izan du. Baztango testigantza M. Izetarena da: «Zotalegunek, los doce primeros días de agosto. Zotalegunetan sineste aundie dugu» (*BHizt2*). Iparraldeko testigantza: «Urtharrilako lehen hamabi egunak, zotalegunak» (*Gure Herria* aldizkaria, 1923).

Azkuek «zotalegun» hitzaz ematen digun azalpen xehea: «LOS HABITANTES DE BESKOITZE, Y TODOS LOS VASCOS POR LO GENERAL, CREÍAN UN TIEMPO QUE CADA UNO DE LOS DÍAS DE ESTE PERÍODO INFLUÍA EN EL TIEMPO DE LOS DOCE MESES CORRESPONDIENTES. SI EL TRES DE ENERO HACÍA BUEN TIEMPO, EL TERCER MES, EL DE MARZO, HABÍA DE SER MUY BUENO; SI LLOVÍA EL CINCO DE ENERO, TENÍA QUE LLOVER DURANTE EL MES DE MAYO». Eta adibide gisa: «Egun urtarrillaren bia, otsaillaren zotaleguna» (DVEF).

Sartaldetik erdialderantz, «hilegun» izenaz ezagutzen diren egun bereziok abuztukoak dira, ez urtarrilekoak. Eta batzuen iritzian hogeita lau dira, ez hamabi. Hala jaso zuen Azkuek: «“Igarregun” ordez “ilegun” esaten dan tokietan,

egun auek ogei ta lau dirala uste dute» (EY IV 209). Baina Bitoriano Gandiagak Oñati aldean (G), abuztuan bai, baina hamabi egun direlakoa ziur jaso zuen: «Illegunak, igarteko egunak dira. Agostuaren lenengo amabi egunak izaten dira» (*Euskera* aldizkaria, 1956).

Herriz herri honako testigantza hauek jaso dira:

Bizkaian, testigantza bi:

- Arrazolan (B), urtarrilekoak barik, abuztukoak direla hilegunok adierazi da: *Nik, agostukuek entzunde dekot: "ilegunek". Oiñ, enerokoik estait.* <Nik, abuztukoak entzunda daukat, "ilegunak". Orain, enerokorik ['urtarrilekorik'] ez dakit>.
- Gizaburuagan (B): *Or ile orretan amabi egun selako itte'ittun, euri'tten badau-edo.* <Hor hil horretan hamabi egun zelakoak egiten dituen, euria egiten badu-edo>.

Gipuzkoan testigantza ugariagoa bildu da:

- Eibarren (G): *Aostuanak... Aostuko amabi eunak amabi illabete dia. Antxe ze denporale eitten daben, orduan illian, axe itten dabela.* <Abuztuarenak... Abuztuko hamabi egunak hamabi hilabete dira. Hantxe zer denborale egiten duen, orduan hilean, huraxe egiten duela>.
- Oñatin (G): *Orrek dituk agostuen lelengotik amabira, da amabitik ogetalaurakuak: agostuan lelenengo egunak... Setienbrean leleanguari, bigarrenak otubriai.* <Horiek dituk abuztuaren lehenengotik hamabira, eta hamabitik hogeita laurakoak: abuztuaren lehenengo egunak... Setienbrearen ['irailaren'] lehenengoari, bigarrenak urriari>.
- Mendaron (G): *Lengo sarrak* ['esaten zuten']: *agostoko lelenengo amabi eunak, "illeunak".* <Lehenengo zaharrek ['esaten zuten']: abuztuko lehenengo hamabi egunak, "hilegunak">.
- Beasainen (G): *Agoztun illeunek izaten die. Agoztun aurreneko eune agoztuna da, biarrena aorra, iruarrena... Juten da amabiaño julioa bittarten; geo julion amabiarrena'e, amairuarrena berriz'e juliona da, ta geo atzeaka etortzen da, garagarrille eta... Aurrenekoa ta atzenekoa die agoztunak. Samartolome eunen bukatzen da.* <Abuztuan hilegunak izaten dira. Abuztuaren aurreneko

eguna abuztuarena da; bigarrena agorra [‘iraila’], hirugarrena... Joaten da hamabiraino juliora [‘uztailera’] bitartean; gero julioan hamabigarrena ere, hamairugarrena berriz ere julioarena da; eta gero atzeraka etortzen da, garagarrila [‘ekaina’] eta... Aurrenekoa eta atzenekoa dira abuztuarenak. San Bartolome egunean bukatzen da>.

- Urretxun (G): *Urteko illetako eunak, abuztun lelengo amabi eunak.* <Urteko hiletako egunak, abuztuaren lehenengo hamabi egunak>.

Nafarroan ere testigantza ziurak bildu dira:

- Leitzan (N): *Lendabiziko egune agoztuntzat; biarrena, aorrantzat; iruarrena, urriintzat; bai zea ortan, amabi allatu arte. Ta egun aitan zer aize edo ze giro itten’tzun, ba, ala izanen’tzela.* <Lehendabiziko eguna, abuztuarentzat; bigarrena, agorarentzat [‘irailarentzat’]; hirugarrena, urriarentzat; bai, zera horretan, hamabigarrenera ailegatu arte. Eta egun haietan zer haize edo zer giro egiten zuen, ba, hala izanen zela>.

- Goizuetan (N) ere antzeko azalpena eman da: *Lenbiziko euna, berea esaten dugu, abuztuna; biarrena asitzen da ya, burubillana; iruarrena, “pues”, urriina; laugarrena, azarona... Kostunbre zarra izaten da. “Pues”, goizen euldi arra iual yarriko’izu, ta eguardin o arrasalden iual kanbituko du, ta: “Ño! illen erdii txarra duk!”. Ola... Ta gero, “por ejemplo”, ego-aize igual’e, ta: “O! Aurtengo urriin, a ze ego-aizek in ber’ttun!”.* <Lehenbiziko eguna, berea esaten dugu, abuztuarena; bigarrena hasten da ja, buruilarena [‘irailarena’]; hirugarrena, urriarena; laugarrena, arazoarena... Kostunbre [‘ohitura’] zaharra izaten da. Goizean eguraldi ederra igual jarriko dizu, eta eguerdian edo arratsaldean kanbiatuko du, eta: “Ño! Hilaren erdia txarra duk!”. Hola... Eta gero, adibidez, hego-haizea igual ere, eta: “O! Aurtengo urrian, a zer hego-haizeak egin behar dituen!”>.

- Lekarozen (N): *Urtiain lenbiziko egunek nolako denborak iten’tuen, amabi ilebeteak ala gaten direla.* <Urtearen lehenbiziko egunak nolako denborak egiten dituen, hamabi hilabeteak hala joango direla>.

Eta Iparraldean, hurrengo hauek:

- Donibane Lohizunen (L): *Amabi iletiak representatzen’tuen... Aizia nundik [jotzen duen], ainitz inportantzia bazuela.* <Hamabi hilabeteak

errepresentatzen zituzten... Haizea nondik [jotzen duen], anitz inportantzia bazuela>.

- Saran (L): *Zotalegunak asten die. Amabi zotalegun. "Nolako eguna, alako ilaitia", errate'ute. <Zotalegunak hasten dira. Hamabi zotalegun. "Nolako eguna, halako hilabetea", erraten dute>.*

- Bardozen (L): *Lehenbizi hamabi egunak, ikusteko zer sasoin inen ziin. Hori bazen: hamabi egunak markhatzen ziela. <Lehenbiziko hamabi egunak, ikusteko zer sasoi eginen zuen. Hori bazen: hamabi egunek markatzen zutela>.*

- Armendaritzen (NB): *Lehen hamabi eunak: lehena urtarrila ta, bigarrena otsaila ta, zearo emaintzien yuyatzen'tzin eun etaik. Oai hirugarren eguna, martxoa... Eurite bazen, to! Martxoa eurite ta apiila denbora eder bazen, apiilez denbora ederra ta edo euria edo hotza-edo. <Lehen hamabi egunak: lehena urtarrila eta, bigarrena otsaila eta, zeharo emango zuten jujatzen zuen egun haietarik. Orain hirugarren eguna, martxoa... Euritea bazen, to! Martxoa eurite eta apirila denbora eder bazen, apirilez denbora ederra eta, edo euria edo hotza-edo>.*

- Behorlegin (NB): *Lemiziko eguna urtarrilain zotaleuna; bia, otsaillaina; hirua, martxoaina. <Lehenbiziko eguna urtarrilaren zotaleguna; bia, otsailarena; hirua, martxoarena>.*

- Eskiulan (Z): *Zothalegünak, ah [dira] hoik lehen hamabi egünak urthekuk! Egün bakhotxak errepresentatzen dü zer ordin egiten din denboa, zer denboa datekin hilabete hetan. <Zotalegunak, a horiek [dira] lehen hamabi egunak urtekoak! Egun bakoitzak errepresentatzen du, zer ordenatan egiten duen denbora, zer denbora datekeen hilabete haietan>.*

- Santa Grazi edo Urdatxen (Z): *Zonbaitek urtharrilan die; bestek, aldiz, agorrilan. Gük urthailan, bena zahar zunbaitek agorrilan. <Zenbaitek urtarrilean direla diote; bestek, aldiz, agorrilean. Guk urtarrilean, baina zahar zenbaitek agorrilean>.*

Bestalde, eguraldiaren aurreikuspena dela-eta, eta horren inguruko ohitura eta sineskeriei buruzko Erramu eguneko ohitura bat ere bildu da Bardozen (L) eta Ezterenzubin (NB). Egun horretan gizon bat meztatik ateratzen omen zen, zer nolako haizea zegoen ikusteko, horrek iragartzen baitzuen hurrengo hiletako eguraldia nolakoa izango zen.

- Bardozen (L): *Bazenè, Erramu egunian, ebanjelioan, jalitzen ziren gizonak khandeilluak, ikhusteko ze aire iten ziin, eta aire ona balin bazen: “To!, primadera ona diuk”; eta aire tzarra balin bazen: “To!, berrogei egunen euria badiuk”. Hori bazen hua zen meteo.* <Bazen ere, Erramu egunean, ebanjelioan, jalkitzen ziren gizonak kanpora, zer haize egiten zuen ikusteko, eta haize ona baldin bazen: “To!, primadera ona diagu”; eta haize tzarra baldin bazen: “To!, berrogei egunean euria badiagu”. Hori zen, hura, meteorologia>.

- Ezterenzubin (NB): *Lehenoz baziren Erramu egunian, Erramu eguneko mezan, hor, auzoan bazen gizon bat (joana da, ba, gaixoa)... Hua mezatik atheatzen khusteko ze haize zen, ikhusteko ebanjelio denboran, ze, ze, hain arabera, eta mezako ebanjelioko denbora hartan zen haize bera izain zen urthe guzian.* <Lehenago baziren Erramu egunean, Erramu eguneko mezan, hor, auzoan bazen gizon bat (joana da gaixoa)... Hura mezatik ateratzen [zen] ikusteko zer haize zen, ebanjelio denboran, ze haren arabera, mezako ebanjelioko denbora hartan zen haize bera izango zen urte guztian>.



## KANDELARIO / GANDELAIRU

Otsailaren 2an ospatzen da Kandelario. Euskal tradizio-gizartean urrats sakona utzi duen eguna da. Egun horri lotuak dira euskaraz eho eta garatu diren zenbait sineskizun, ohitura, kantu, errezitatu eta atsotitz. EHHAn ere horietariko batzuk bildu izan dira.

Euskaraz ematen zaizkion izenek oro har **kandela** hitza dute ointzat: **Kandelario**, **Gandelairu** (NB, L), eta horien aldaerak: *Khandeillü* (Z), *Kandelero*, *Kandelera*, *Kandelaria* eta enparatuak. Esan liteke, *Kandelaio* eta *Kandelairu* direla aldaeretan indartsuenak.

Baina, «egun» izenaz batera elkarketan, **Kandelario eguna**, da formarik erabiliena lekurik gehienetan:

- Aian (G): *Kandelayo euna.*
- Anizen (N): *Kandelerogune.*
- Arbizun (N): *Kandelera euna.*
- Arrasaten (G): *Kandelaridxo eguna.*
- Azkoitian (G): *Kandeladxo eune.*
- Arrietan (B): *Kandelaridxo egune.*

Eguna bera izendatzeko, soilik eta mugagabez erabiltzen da leku askotan, berariaz sartaldean: «Gaur Kandelario da».

Kandelario egunean, kandelak bedeinkatzeko ohitura izan da, eta bedeinkaturiko kandelok denboralea edo eguraldi txarra egiten zuen egunetan, ekaitz, oinaztu eta trumoietatik jagoteko biztu egiten ziren. Hala azaldu dute zenbait herritako lekukoek.

- Bakion (B): *Kandelak-edo bedeinkatu. Gero gorde trubonadie dauenerako-  
-edo.* <Kandelak-edo bedeinkatu. Gero gorde, trumonada dagoenerako-edo>.
- Ibarrurin (B): *Kandelak bereinketu, da gero trumoie danien orreik ixetu,  
aplakau daien.* <Kandelak bedeinkatu, eta gero trumoia denean horiek izetu,  
aplakatu ['baretu'] dezan>.
- Etxebarrin (B): *Kandelak bereinketu te, trumoye edo denpora txarra [denean]  
bixtuta eukitzeko ta, oñestarrixen kontra.* <Kandelak bedeinkatu eta, trumoia  
edo denbora txarra [denean] biztuta edukitzeko eta, oinaztarrien kontra>.
- Gaintzan (N): *Kandelak beinketo. Beinketzen de ostots-eauntsie sartu  
zazula o aziendan batekiñ eo, zen familin suerten bat nai baezu.* <Kandelak  
bedeinkatu. Bedeinkatzen da, ostots-erauntsia sartu zaizula edo, aziendaren  
['ganaduren'] batekin edo, zuen familian suerteren bat nahi baduzu edo>.

Bedeinkaturiko kandela horiekin etxeko lagunak bedeinkatzeko ohitura ere izan da leku batzuetan. Hala:

• Luzaiden (N) familiako kideak belauniko jarri eta hiru aldiz igarotzen zitzairen kandela buruaren gainetik. Gero etxeko bakoitzari hiru argizari-tanta isurtzen zitzaizkion sorbalda gainera, eta jarraian, ile pixka bat erretzen zen. Etxeko guztiak bedeinkatu eta gero, bordara joaten ziren, abereak bedeinkatzera. Honela kontatu du lekukoak: *Eroaiten zien etxeat, eta etxeko familia guziaz. Guztiak zartzen zien belauniko. Eta pasatzen'tzakon ola, hiru aldiz burutik tortxa, aldi oro potta eman ez tortxari, ba erraiten zen, bela rebelazione, funzione... Ta gero hiru xorta bota emen, eta bear zen, kasu inez eman, etziten hiru bezik eror... Naski ezkerrean, ba, ba ezkerrean; ta gero bilo puxiño'at erre... Baño belauniko zarri ta ari in, ta ura finitziakin, bestia. Ta gero bordaa yoa ta kabalak beneikatu, ta gero xorta'atzu eman borda zolan. Ta gero beraitzen zen ori ortziri ta orietan pizteko... Aire gaixtoain ez erortzeko, belarrak beneikatzen baititu [apaizak] San Juan bezperan elizan, "pues" belar ek eta Erramu ostoek erretzen ziren emeki-emeki, lanao, keia atera zadin erreposki arri-erauntsik eztzezan in. <[Bedeinkaturiko kandelak] eramaten ziren etxera, eta etxeko familia guztia [bedeinkatzeko]. Guztiak ezartzen ziren belauniko. Eta pasatzen zitzaion hola, hiru aldiz burutik **tortxa** ['kandela', 'argizaria'], aldi oro **pota eman ez tortxari**, bada erraiten zen, berehala errebelazio, funtzio... Eta gero hiru xorta botatzen zen hemen [sorbaldan], eta behar zen, kasu eginez eman, ez zitezen hiru baizik eror... Noski ezkerrean, ba; ta gero **bilo poxiño bat** ['ile zipitz bat'] erre... Baina belauniko ezarri eta hari egin, eta hura finitzean, bestea. Eta gero bordara joan eta kabalak ['ganaduak'] bedeinkatu, eta gero xorta batzuk eman borda zolan. Eta gero berotzen ['pizten'] zen hori **ortziri eta hodeietan pizteko**... Haize gaiztoaren ez erortzeko, belarrak bedeinkatzen baititu [apaizak] San Juan bezperan elizan. Belar haiek eta Erramu hostoak erretzen ziren emeki-emeki, lainoa, kea atera zedin erreposki, harri-erauntsirik egin ez zezan>.*

• Ezterenzubin (NB) ere antzeko erritua egiten zen. Han ere etxekoak belauniko jarri, otowitz bat egin, eta ondoren, kandela hori hartu eta bakoitzaren buruaren inguruan aurreratzen zen. Eta azkenez, kandelari muin eginda, buruko ile pixka bat erretzen zen. Hara lekukoaren azalpena: *Joaiten zen elizaat. Ekhartzen zen tortxa benedikatia elizatik eta, tortxa berria, eta gero behar zen, mezik heldu zenak, tortxa ekhartzen zienak, behar zitien etxeko jende guztiak belauniko ezarri. Iten zen othoitz bat han eta tortxa zombat aldi inguatzen zien buriain ingurian. Eta behar zen, tortxai musu emanta berriz ingura, ta undarrian bilho puxka bat erre, tirrit, eta fni zeremonia. <Elizara joaten zen. Tortxa ['kandela', 'argizari'] bedeinkatua ekartzen zen elizatik eta,*

tortxa berria. Gero behar zen, mezzatik heldu zenak, tortxa ekarri zuenak, etxeko jende guztiak belauniko ezarri behar zituen. Otoitz bat egiten zen han eta tortxa zenbait aldiz inguratzen zien buruaren inguruan. Eta behar zen, tortxari musu emanda berriz inguratu, eta hondarrean **bilo puxka bat erre**, tirrit [‘pitin-pitin bat’], eta fini zeremonia>.

- Gamarten (NB) ere ile pixka bat erretzeko ohitura bildu da. Etxekoandreairearen ardura izaten omen zen egiteko hori. Horri esker buruko minik ez izatea lortzen omen zen: *Tortxaekin hola bilho puxka’at erra eta etzu buuko minik ordian. Etxian etxekanderaiek egiten zie, mezzatik landa, gandeaillea benedikatiaekin heldu zun eta erre. Lehen hori.* <Tortxarekin [‘kandelarekin’, ‘argizariarekin’] bilo puxka bat erre, eta ez duzu buruko minik orduan. Etxean etxekoandreak egiten zuen [hori], mezzatik landa, kandela bedeinkatuarekin heldu eta erre. Lehenago hori>. Gamarteko berriemaileak berak gehitu du gainera, Kandelario egunez su berria ekartzen zela etxera: *Su berria Ganderailuz ekartzen etxerat.* <Su berria **Gandelairuz** ekartzen etxera>.

\*\*\*

Errefrau eta esaerak ere hainbat dira Kandelario egunaren ingurukoak, eta EHHAn horietako hamaikatxo bildu dira. Atsotitzetarik gehienak eguraldiari lotuak dira. Egun horretan zer eguraldi egiten duen, urte osokoa nolakoa izango den iragartzen omen du.

Hara zenbait herri eta lekutan jasoriko testigantzak:

- Azkoitian (G): “*Kandelari ta bero, negua da gero; kandelaritan otz, negua motz; kandelariotan elurra, joan zaigu neguan bildurra*”. <“Kandelario eta bero, negua da gero; kandelarioetan hotz, negua motz; kandelarioetan elurra, joan zaigu neguaren beldurra”>.

- Beasainen (G): “*Kandelero bero, negue gero; Kandelero otz, negue motz*”. <“Kandelario bero, negua gero; Kandelario hotz, negua motz”>.

- Oiartzunen (G): “*Kandelero bero, gue negua gero; Kandelero otz, akabo, gue negu motz*”. <“Kandelario bero, gure negua gero; Kandelario hotz, akabo, gure negua motz”>.



WV

- Igoan (N): “*Kandelero bero, negu eldu da gero; Kandelero otz, negu joan da motz*”. <“Kandelario bero, negu heldu da gero; Kandelario hotz, negu joan da motz”>.
- Suarben (N): “*Kandelera oz, negue joan da moz; Kandelera bero, negu eldu de gero*”. <“Kandelario hotz, negua joan da motz; Kandelario bero, negua heldu da gero”>.
- Alkotzen (N): “*Kandelera otz, negue motz; Kandelera bero, negue eldu de gero*”. <“Kandelario hotz, negua motz; Kandelario bero, negua heldu da gero”>.
- Zugarramurdin (N): “*Kandelairu bero, negua eldu da gero; Kandelairu otz, negua an du motz*”. <“Kandelario bero, negua heldu da gero; Kandelario hotz, negua han du motz”>.
- Hendaian (L): “*Kandelero bero, negua gero; Kandelero otz, negua motz*”. <“Kandelario bero, negua gero; Kandelario hotz, negua motz”>.
- Mugerren (L): “*Gandeailu hotz, negua bihotz; bero balinbada, negua gero*”. <“Gandelairu hotz, negua bihotz; bero balin bada, negua gero”>.
- Behorlegin (NB): “*Gandeallu hotz, negia joan da motz; Gandeallu bero, negia da gero*”. <“Gandelairu hotz, negua joan da motz; Gandelairu bero, negua da gero”>.
- Altzürükün (Z): “*Khanteallü beo, negia geo*”. *Sabaia erdia ordünko janik*. <“Kandelario bero, negua gero”. *Sabaia erdia orduko janik*>.
- Eskiulan (Z): “*Khandeallü beo, negia gio*”. *Khandeallü hotz bada, gü botz negi iganik*. <“Kandelario bero, negua gero”. *Kandelario hotz bada, gu poz negua iraganik*>.

Bizkai alderdian Kandelario aipu duten errezitatuak jaso dira, guztiz ezagunak direnak. Mañarian (B) eta Gizaburuagan (B), besteak beste. Hara hemen euren bertsoiak:

- Mañarian (B): “*Kandelarixo larixo, / atxak (sic) ura darixo. / Akarra jantzán, / atzue jantzán, / astuek tanboliñe jo*”. <“Kandelario lario, / haitzak (sic) ura dario. / Akerra dantzán, / atsoa dantzán, / astoak danbolina jo”>.

- Gizaburuagan (B): *Kandelarixo*, / *atxari ure darixo*; / *makatzari madari*. / *Eutzi, Peru, ankiorra!* <Kandelario, haitzari ura dario, / makatzari madari. / Eutsi, Peru, hanka horri!>.



## SANTA AGEDA / SANTA AGATA

Otsailaren 5ean zelebratzen da Santa Ageda, baina bezperako eguna, otsailaren 4a da herri-ohituretan zigilurik sakonena utzi duena. Leioako (B) lekukoak argitu duen legez: *Santageda bespera lauean, ta bostean, Santageda*. <Santa Ageda bezpera lauan, eta bostean, Santa Ageda>.

**Santa Ageda** deritzo Hegoaldean, eta **Santa Agata** edo **Agata** soilik Iparraldean. Hala ere, EHHAn, Iparralde ia osoan eta Nafarroako herri askotan ez da informaziorik jaso egun honen inguruan.

Anitz lekutan bildu da **Santa Ageda bezperan** egiten izan denaren informazioa. Bezpera-egun horretan etxerik etxe, baserririk baserri, koplak kantatuz joateko ohitura sakon erroturik eta zabal hedaturik egon da herri askotan.

Mutilak —mutil-kuadrilla— izan dira tradizioz kopla-kantuan etxez etxe ibili izan direnak. **Santaeskean** (*santeskean*, ahoz) ateratzea esaten zaio honi Gipuzkoa aldean. Eta **eskaleak** (berbaz, *eskaliak*) edo **santaeskaleak** (*santaeskaliak*, ahoz) iritzi izan zaie horretan zihardutenei, Bergaran (G), kasu.

Hara hemen EHHAn bildu diren testigantza batzuk:

- Leintz Gatzagan (G), urteko kinto-lagunak izaten ei ziren lehen, kantuz dirua biltzen zihardutenak: *Oitura aundixa san ori: Santageda kantetan da dirua batzen*. “Generalmente” ibilltten sien, ba, “urteko kiñttuak” esate jakonak,

*edo soldau fan biar eben kuadrillie, mutill-kuadrillie.* <Ohitura handia zen hori: Santa Ageda kantatzen eta dirua batzen [joatea]. Jeneralean ibiltzen ziren, ba, “urteko kintoak” esaten zaiona, edo soldadu joan behar zuen mutil-kuadrilla, mutil-kuadrilla>.

- Eibarren (G), berriemaileak dioenez, dirua barik, txerrikia biltzen ei zuten: txerri-belarria, txorizoa eta halako jeneroa: *Leen bai... Bezperan, eskean etorte'sian, eskian, kantau... Iru urtez onuntzian be etorri dia. Orduan, ba, oin baño geixao. Seseñia-ta, txarrixat-ta, [txerriak] iltte'sian, ba; ta orduan, ba, aren billa etorte'sian bee saku orrekin; txorixua-eo, seseña-sati bat-ero, txarrixan belarrixat-ero, ta gero banketia itte'eben. Ori usarixo aundixa eon san.* <Lehen bai... Bezperan, eskean etortzen ziren, eskean, kantatu... Hiru urtez honuntzean ere etorri dira. Orduan, ba, orain baino gehiago. Zezina-eta, txerria-eta, [txerriak] hiltzen ziren, ba; eta orduan, ba, haren bila etortzen ziren bere zaku horrekin; txorizoa-edo, **zezin-zati** bat-edo, txerriaren belarria-edo, eta gero **banketea egiten** zuten. Hori usadio handia egon zen>.

- Leitzan (N) herriko haurrak ziren herrian barrena ibiltzen zirenak sari eske: *Umek ibiltzen die etxez etxe. Oain larrikè asi die noski... Leno etxez etxe ibiltze'ginen erri guziko ume guzik. Iual'tzen kazkararra ta elurra bazenè... Santageda bezperan, jesus! Goxo'atzuk eta pezta batzuk-eta bildu itten'tzien. Baserritan gaztañ erreka eta intxaur betzuk-eta.* <Umeak ibiltzen ziren etxez etxe. Orain **larriak** ere hasi dira noski... Lehenago etxez etxe ibiltzen ginen herri guztiko ume guztiak. Igual zen kazkabarra eta elurra bazen ere. Santa Ageda bezperan, jesus! Gozo batzuk eta pezeta batzuk-eta bildu egiten ziren. Baserrietan **gaztaina erreka eta intxaur batzuk-eta**>.

Etxez etxe kantatzen ziren koplak, antzekoak dira sartaldeko herrietan egiten izan direnak. EHHAn bildu direnetariko bat, Zaratamoko (B) hau dugu: *“Ementxe gatos, ementxe gatos / ondo lotzas da beldurres. / Etxeko jaunak esan biar du / abestu'kun ala es. / Etxeko jauna isili'tago, / ekin bearko'tzu kantuen. // Santayageda, yageda, / beren besperan gaube da. / Oles da oles, abestutan gatos iru-lau mutil... / Ementxe dator etxeoandria / altzoak gora-gorakin. / Antxe dakar lukinke pareta, / da dosena arruntzekin. // Orain amendi bagoies / ta agur, urrengorartian!* <Hementxe gatoz, hementxe gatoz / ondo lotsaz eta beldurrez. / Etxeko jaunak esan behar du / abestuko dugun ala ez. / Etxeko jauna isilik dago, / ekin beharko diogu kantuan. // Santa Ageda, Ageda, / bere bezperan gaua da. / Oles eta oles, abesten gatoz hiru-lau mutil... Hementxe dator etxeoandrea / altzoak gora-gorekin. / Hantxe

dakar **lukainka pareta**, / eta dozena arrautzarekin. // Orain hemendik bagoaz / eta agur, hurrengora artean!>.

Ohitura horren berri ematen duten iturriak ugariak dira. Balia bekigu Urretxindorra bertsolariaren koplak hau: «Gaur baserriko etxetxu zuri / etarte zabaldunetan, / Santa Agedan sari ederrak / emon dauskuez danetan» (*Urretxindorra*).

Gipuzkoa alderdian bereziki, santaeskean zebiltzan kuadrillakoek bertsoetan edo koplak kantatzen zekien bat eramaten izan dute lagun. Eta bertsolari edo koplari horrek, ibilian-ibilian, zein egoeraren aurrean edo zer gerta han edo hemen, horretara egokitzen zituen etxe bakoitzean kantatu beharreko koplak.

- Zestoako (G) lekukoak, bertsolari bati behinola gertatu zitzaiona kontatu du. Dirudienez, neskazahar batek, apaiz batek eta Patxi izeneko baserriar batek limosna urria edota hutsa eman omen zioten. Eta zikoizkeria hori salatzeke, euretariko bakoitzari zuzenduriko koplak bana kantatu omen zuen. Hona hemen kontakizuna:

i) *Santaeskea-o eune omen tzan, da eskalen bat-**eo** etorri emen'tzan emen, ballaa. Aspaldiko kontua(k) dire, onuzkeo igual izango dira larogei urte-o... Da eskale orrek, pixkat eate zuna, da etorri emen'tzan, da ordun limosna zenbat emango zan, ba? Ez, asko etzan emango, baña geyo naiko zun artian, itxura danez eta, ala etorri da, amar sentimokua eman, eta gutxi iruittuko [zitzaion], eta etxeoandre orri esan emen'tzion (gaña, etxeoandria ez izan, neskazarra emen'tzan da): “Etxekoandre “mondongo”, / enaun luzaro egongo; / ik emandakuarekiñ / eztiñat asko erango”. <Santaeskea-**edo** eguna omen zan, eta eskalaren bat-**edo** etorri omen zen hemen, bailarara. Aspaldiko kontuak dira, honezkero igual izango dira laurogei urte-**edo**... Eta eskale hori, pixka bat edaten zuena [izan], eta etorri omen zen, eta orduan limosna zenbat emango zen, ba? Askok ez zen emango, baina gehiago nahiko zuen artean, itxura denez [eskaleak] eta, hala etorri da, hamar zentimokoa eman, eta gutxi irudiko [zitzaion], eta etxeoandre horri esan omen zion (gainera, etxeoandrea ez izan, neskazarra omen zen eta): “**Etxekoandre “mondongo”**, / ez naun luzaro egongo; / hik emandakoarekin / ez dinat asko edango”>.*

ii) *Arekiñ ibilli nitzan ni piñu-sartzen oañtxe'ala oetamar bat urte-o, da Bizkaiko muakua izan ber [zuen]. Da ayek garai artan santaeskian, ta bea soñu-jolia emen'tzan da, santaeske askotan abixatzen emen zittuen da, ala erte'men'tzuen*

santaeskea. Da, geo ala beintzat, basarri-sallen bat pasa emen'tzuen da, anguk, "apaiza" esate'youn bezela, an "abaria" esate'ye ba, Bizkaittan. Da "abare" orren etxea jun dia, ta asi dia kantatzen da, kantatu ta kantatu, ta limosna mourik ez. Da aspertu're i'men'tzian da: "Alperrik ai gaittuk!". Da geo, ala pasa emen'tzan, da ala alde'men'tzuen limosni gabe. Ta geo beste basarria jun'tzianen, apaiz ortako, orko kontua esaten asi'men'tzan, bertzotan. Easo emen'tzion apaiz orri, limosna etziola eman-da. Da berso bat goguan artua izango zun; nik ark esanda bezela [esango dut]: "Ara nun dagon / eleiza, añtxen dago kaliza. / Abade jaunak eman digu / izugarrizko paliza". <Harekin ibili nintzen ni pinu-sartzen orain dela hogeita hamar urte-edo, eta Bizkaiko mugakoa izan behar zuen. Eta haiek garai hartan santaeskean [ibiltzen ziren], eta bera soinu-jolea omen zen eta, santaeske askotan abisatzen omen zituzten eta, hala irten omen zuen santaeskera. Eta gero, hala behintzat, baserri-sailen bat pasatu omen zuen eta. hangoak, guk "apaiza" esaten diogun bezala, han "abadea" esaten diote ba, Bizkaian. Eta "abade" horren etxera joan dira, eta hasi dira kantatzen eta, kantatu eta kantatu, eta limosna modurik ez. Eta aspertu ere egin omen ziran eta: "Alferrik ari gaituk!". Eta gero, hala pasatu omen zen, eta hala, alde egin omen zuten limosnarik gabe. Eta gero beste baserrira joan zirenean, apaiz horren kontua esaten hasi omen zen, bertzotan.



Eraso omen zion apaiz horri, limosna ez ziola eman eta. Eta bertso bat gogoan hartua izango zuen; nik hark esanda bezala [esango dut]: “Hara non dagoen eliza, / hantxe dago kaliza. / Abade jaunak eman digu / izugarritzko paliza”>.

iii) “Atxutxo” etorri, Zienzar basarriya da, “Atxutxo” ori geo beste lekun batea ezkondua izango zan da, “Atxutxo” ori’tta, ta onea Zienzarrea etorri, gabaz, beandu... Zienzar basarriya(n) dao da, asi emen’tzian da, segi’tta segi, ta limosnaik ez, ta orduk txarrak eta: “Alperrik aiko gaittuk! Ordu txarrak eta eztaieu limosnaik izango”. Ta ola ai emen’tzian da, ori ezauna, ta launa izan arek, bertsolaya(k) beak, “Atxutxo” orrek Zienzar oi. Ta Patxi omen’tzun izena, da ala kantau emen’tzun: “Etxian bada Patxiko, / nik eztet oaindik etsiko, / limosnakiñ aurki bera / ez ote zaigun jetxiko”. <“Atxutxo” etorri [zen] Zigaranzar baserrira eta, “Atxutxo” hori gero beste lekuren batera ezkondua izango zen eta, hona Zienzarrera etorri, gauaz, berandu... Zigaranzar baserrian dago eta, hasi omen ziren [kantatzen] eta, segi eta segi, eta limosnarik ez, eta orduak txarrak [ziren] eta: “Alferrik ariko gaituk! Ordu txarrak [dituk] eta ez diagu limosnarik izango”. Eta hola ari omen ziren eta, hori ezaguna, eta laguna izan hark, bertsolariak berak, “Atxutxo” horrek Zigaranzar baserriko gizona. Eta Patxi omen zuen izena, eta hala kantatu omen zuen: “Etxean bada Patxiko, / nik ez dut oraindik etsiko, / limosnarekin aurki bera / ez ote zaigun jaitsiko”>.

- Azkoitian (G) ere bildua bide da, N. Etxanizek idatziz eskaini zigun eske-kopla hau: «Santa Agedak kendu digu gaur / eskean asteko lotsa: / dirurik ezpada, berdin zaigu / gizendutako bildotsa» (LBB).

Nafarroan, Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, ez da oso entzuna Santa Ageda bezperako ohitura. Igoako (N) lekukoaren hitzak dira hauek: *Itzea badela bai, biño ezta emen yusè zelebratzen*. <Aditzea badela bai, baina ez da hemen deus ere zelebratzen>. Eta informazio bertsea bildu da Nafarroako beste anitz herritan ere, esaterako, Etxarrin, Oderitzen, Goizuetan, Suarben, Etxalarren, Lekarozen, Zugarramurdin, Eugin, Anizen eta Erratzun.

- Leitzan (N), aldiz, gorde egin da ohitura hori, kantu eta guzti. Eguediko hamabiak bitartean nagusienak herri barruan etxez etxe ibiltzen ziren kantuz, eta eguerditik aurrera baserrietara joaten omen ziren. Etxe bakoitzaren aurrean launaka edo bosnaka kuadrillan jarri eta honako kopla hauek kantatzen zituzten: *Agir-agirando, / aquí estamos cuatro, / cantaremos dos*,

*/ una limosnita / por amor de Dios'. // Gaur egun ona, / biar Pazkoa, / biar ezkontzen da / gure atsoa. // Aera, aera kukurruku, / ollarrak ontzik autsi'ttu. / Apaltzeko bi... / etxe ontan ollo bi, / bata(k) bestea dirudi. / Etxe ontako etxekandreak / Amaerjiña dirudi. <“Agil-agilando, / ‘aquí estamos cuatro, / cantaremos dos, / una limosnita por amor de Dios’. // Gaur egun ona, / bihar Pazkoa, / bihar ezkontzen da / gure atsoa. // Hara, hara kukurruku, / oilarrak ontziak hautsi ditu. / Afaltzeko bi... / etxe honetan oilo bi, / batak bestea dirudi. / Etxe honetako etxekoandreak / Ama Birjina dirudi”>.*

Kopla horiek bi edo hiru aldiz kantatu ondoren etxetik inor ateratzen ez bazen, beste koplatxo hau abesten zuten beste etxe batera joan aurretik: *“Armarioan sague, / kontrarioan katue. / Etxe ontako limosnakin / eztu beteko zakue”*. <“Armarioan sagua, / kontrarioan katua. / Etxe honetako limosnarekin / ez dugu beteko zakua”>.

Iparraldean jaiegun hau gutxi ezaguna izan da. Herri gutxi-gutxi batzuetan baino ez da ospatu izan.

- Barkoxen (Z) «emakumeen eguna» dela azaldu dute, Santa Agata bera izan zen bezala. Emaztekiek, egun hori ospatzeko, bazituzten beren ohiturak. Egundorretan ez omen zen, ez labekorik, ez bokatarik egin behar; hau da, ez labean ogirik erre, ez eta erroparik garbitu. Hala dio lekukoak: *Lehen bazen meza, emaztik juiten ziren; emazteen egüna zen. Bazen erran bat: Ordin egiten baitzen labaka, ogi, eta latsatzia etzen behar egin. Eta nexkenegüna agitzen bazen, mezpean egiten labaka, bihamin libre izaiteko. Üsantxa hoi zen.* <Lehen bazen meza, emazteak joaten ziren; emazteen eguna zen. Bazen erran [‘esaera’] bat: Orduan egiten baitzen **labaka** [‘labekoa’], ogi eta **latsatzea** [‘bokata’] ez zen egin behar. Eta neskeneguna [‘larunbata’] izaten bazen, bezperan egiten zen labaka, biharamona libre izateko. Usantza zen hori>.

- Larrainen (Z) ere ohitura-sineste bera jaso da: *Latsakan, bukhata latsen, etzia ai behar Santaata egünin.* <Latsakan, bukata latsean ez zara ari behar Santa Agata egunean>.

Kantuz ibiltzeko ohitura izan da leku batzuetan, gutxi izanik ere: «Eta kantatze-sari / larga zerbeixka guri Santa Agata kantu xaharra» (*Gure Herria* aldizkaria, 1972).

\*\*\*

Mutil gazteak Santa Ageda bezalako egunetan koplakantuan ibiltzeko ohitura aspalditik dator nolana ere, eta susmo txarrik ere eragin dute egun horretako errondari-ibilerok, eliz dotrinaren zaintzaileen begietan. Esanguratsua da, ildo horretan, Juan Jose Mogelek bere obratxo batean idatzirik dakarrena: «Oi dira orregaitik mutill errondarijak, ta nosbait emakume lotsabaga, lagunduten deutseenak, eurak bagako saltsarik izan ez dedin. Gaurik jakineenak onetarako dira: Gabon gaba, Urte Barri besperia, ta beste atxakijareen bat dabeenekua; barriz entzuneena Santa Ageda bisperakua. Ez dago zer esan, ze kanta modubak kantau oi diran orduban, nundik nora ibiltan diran, ta ze lagun modu» (*Eskolia*).



## INAUTERIA / KARNABALA / ARATUSTEA

Garizuma aurretik egiten diren olgeta-egunak, bereziki Hausterre egun aurreko igande, astelehen eta astearte tradizio handiko egunak izan dira Euskal Herri osoan. Gaur ere bai. Herri eta inguru askotan ohitura desberdinak izaten dituzte. Leku batzuetan egun bakarra ospatzen dute, beste batzuetan, ordea, egun gehiagotako ospakizunak egiten dira.

Izen diferenteak eman zaizkio euskara mintzatuaren eremuan. Hara testigantza batzuk. Azkuek: «—Zelan esan euskaran “carnavalak”? —Emen “aratusteak” deritxe, Probintzia aldean “iñoteriak” edo “iñauteriak”, Naparroan “iagoteak» (*Euskalzale* aldizkaria, R.M. Azkue, 1898). Eta aspaldiago Agirre Asteasukok: «Deitzen diogu onela Urteberritik Austerrerañoako denborari, eta beste leku batzuetan deritza: “iñoteriak”, “iauteriak”, “aratuzteak”, “zanpanzartak» (KKE).

**Karnabal** mailegu-izena da hedatuena Bizkai eta Gipuzkoako herrietan, EHHAk garbiro erakutsi duenez.

**Aratuste** izena, eta honen aldaerarik esanguratsuenak, *aratoste* eta *aratiste*, eta beste batzuk (*atuste*, *atiste*...) atzeraka joan dira herri-hizkeran, eta «karnabal» izenak estaldu du gehienbat bere erabilgune zaharra, eta bizirik iraun duen lekuetan ere, bigarren izen modura gorde da, batez ere herri txikietan. Bizkaian ez ezik, Gipuzkoa sartaldeko hizkera batzuetan ere bai:

- Eibarren (G): *Aratoste*.
- Bergaran (G): *Aratuste*.

Dakargun Eibarreko (G) testigantza: *Aratostiak*: Los tres días de carnestolendas. *Aratostiak izaten dira, jendia zoratzeko* (T. Etxebarria). <Aratusteak izaten dira, jendea zoratzeko>.

Aipamen berezia dagokio *aratiste* formari, zenbait aldaerarekin batera (*aatiste*, *ateste*) Bizkai sartalderengo herrietan eta Oñatiko Araotz alde horretan bizi dena: *Aatiste danak*: TODOS LOS CARNAVALES. *Aatistietan*: EN LOS CARNAVALES (K. Izagirre). <Aratuste denak. Aratusteetan>. Arabako Lautadan ere aldaera zahar hau erabili izan da, idatzi zaharretan ageri denez. Landuccio, XVI. mendean: «ANTRUEJO, “aratizteak”»; eta Lazarraga, hau ere XVI. mendekoa: «Esan badagie eztaozela / alegere, baxe sekula triste, / nik diot egun dala aratixte». Batean pluraleraz, inauteri-egun guztiak barru harturik, eta bestean mugagabez, egunik seinalatuena adierazteko.

**Inaute** (ahoz, *ihaute* ere bai) eta horren aldaerak dira Nafarroan eta Iparraldean aldi honi eman izan zaizkion izenak.

Gipuzkoan, bigarren erantzun modura ageri da **Inauteri** izenaren aldaera batzuk:

- Zestoako Arroan (G): *Iñauteri*.
- Azkoitian (G): *Iñauti*.
- Hernanin (G): *Iñutei*.

Zein egun hartzen dituzte Inauteriek edo Aratusteek? Hara lekukotasun batzuk:

- Zornotzan (B) hiru egun seinalatu ditu lekukoak: *Karnabal, aratoste ta saldun atoste. Eutzegune, eguastenien, da karnabal martisenien*. <Karnabal, aratuste eta zaldun aratuste. **Hautseguna**, eguaztenean [‘asteazkenean’], eta karnabal, martitzenean [‘asteartean’]>. **Zaldun aratuste** (*zaldun atoste, ahoz*), domekaz zelebratzen den aratuste-egunari deritzo. Azkuek Gernikan (B) baturikotzat dakar egun horren izena (ikus DVEF).
- Mañarian (B) honelaxe kontatu digute: *Garisumie asi baño aurreko domekan, aratuste-egune, tostada-egune, da gero Autzen Egunien barrero*. <Garizuma hasi baino aurreko domekan [‘igandean’] **aratuste-eguna, tostada-eguna**, eta gero **Hautsen Egunean** berriro>.
- Lekeition (B) inauterietako astearteari **Turuturu eguna** edo **Turuturu** esan diote: *Bai, aratuste ta beste egun ba’pe, “Turuturu eguna”. “Turuturu isaten da “martes de carnaval”*. <Bai, aratuste eta beste egun bat ere, “Turuturu eguna”. “Turuturu” izaten da “aratuste-martitzen”>.

Zeintzuk izen diren egun horietako ohitura eta usadioak? Mozorroturik edo koko jantzita ibiltzen da jendea kaleetan barrena, lagunartean, musikarekin lagundurik, dantzan... Egun horiek parranda-egunak izaten dira azken finean. Hara hemen lekuko batzuen esanak:

- Leioan (B) **muxaranga** izen zahar berezia bildu da —**muxaranga jantzi** esamoduaz—: *Bai, karnabal-egunek “muxeranga” yantziteko. “Muxeranga” esaten da “disfrasau”*. <Karnabal-egunak “muxaranga” jantziteko. “Muxaranga” [‘muxiganga’] esaten da “disfrazatu”>.
- Bakion (B) **anarru** forma jaso da —**anarru jantzi** esamoduaz—, beste toki batzuetan erabiltzen den «marro» edo «mamarro» izenaren pareko dena: *“Anarru” jantzite ta, arpeie tapaute ta juergan*. <“Anarru” jantzita eta, arpegia tapatuta [‘estalita’] eta juergan [‘parrandan’]>.
- Elorrión (B) **artz** izena jaso da: *Amen ardien narruas...*, *“artzak” esat’otzien. Ardien narru bat ameti, ta beste bat atzetik ipiñi, arranak gerrixen lotuta, da arpegixa piñntau*. <Hemen ardien larruaz..., “hartzak” esaten zieten. Ardien larru bat hemendik [aurretik] eta beste bat atzetik ipini, arranak gerrian lotuta, eta arpegia pintaturik>.
- Aramaion (A) **kokomarro** izena jaso da — **kokomarroak jantzi**

esamoduaz—: *Kalien “kokomarruek” jantzite-ta ikusite dekot.* <Kalean “kokomarroak” jantzita-eta ikusita daukat>.

- Elgoibarren (G) **koko** izena bildu da —**koko jantzi** esamoduaz—: *Oingo aldian asko amen sasoe baten. “Kokuak” esate geñon sasoe baten, “koko jantzitxa”... Eote sian ba bost eo sei soñujole, trikitixa, pasaoblia, beste zea ta... Orduan ezan rokik-eta oin daon moruan.* <Oraingo aldean asko [zegoen] hemen sasoi batean. “Kokuak” esaten genien sasoi batean, “koko jantzita”... Egoten ziren, ba, bost edo sei soinu-jole, trikitixa, pasodoblea, beste zera eta... Orduan ez zen rokik-eta orain dagoen moduan>.

- Ikaztegieta (G) **Txantxo egun** izena eman izan zaio: *“Txantxo eune”, txantxoak jazten dialako. “Txantxo eguna”; oain “disfrazatuta” esaten den bezala, lenao “txantxo jantzi” izaten zen: “Txantxo jantzikin dijoa o dator”.* <“Txantxo eguna”, txantxoak janzten direlako. “Txantxo-eguna”; orain “disfrazatuta” esaten den bezala, lehenago **“txantxo jantzi”** izaten zen: **“Txantxo-jantziekin doa** edo dator”>.

Janari berezi batzuk ere ospea irabazi dute aratusteetan hainbat lekutan, berariaz sartaldean. Janaririk bereziena, egun horiei usadioz lotuen ageri dena, tostadak dira. Testigantza jakingarriak jaso dira Bizkaiko herri batzuetan:

- Etxebarrin (B): *Fotak, ogi apropositukoak... Satitu, da esnartien asukereagas ipini, an beratu eta gero txarri-koipiegas tostau.* <**Fotak**, ogi apropositukoak [‘berezikoak’]... Zatitu, eta esnartean [‘esnetan’] azukrearekin ipini, han beratu, eta txerri-koipeaz tostatu [‘txigortu’]>.

- Gamiz-Fikan (B): *Aratusteak tostada-egunek dire.* <Aratusteak **tostada-egunak** dira>.

- Berrizen (B): *Gure aittek “karnabalak” barik, “aratuste” esat’otzen. Aratoste-egunetan gero tostadaik estaittela faltau etxien.* <Gure aitak, “karnabalak” barik, “aratuste” esaten zien. **Aratuste-egunetan**, gero, tostadarik ez dadila faltatu etxean>.

- Oñatin (G): *Torradak-eta jateko egunak, gure saarrak “aratusteak” esaten’xuai. “Torraak”, ogias egindakoak. “Peillak”, urunakin egiten dana.* <**Torradak**-eta jateko egunak. Gure zaharrek “aratusteak” esaten diete. **Torradak**, ogiaz egindakoak. **Pellak**, irinarekin egiten direnak>.

Ekialdeko eremuan bestelako ohitura bereziak ere izan dira. Hara batzuk:

— Nafarroan eta Iparraldean egunotan etxez etxe eskean ibiltzeko ohitura handia zegoen; koplak kantatuz batera, xingarra, haragia, oilaskoak, arrautzak-eta biltzeko tradizioa. Kasu gehientsuenetan, gainera, bildutakoarekin eta aurrez prestatutakoarekin ostatuan biltzen ziren ibilian jarduniko lagunak, eta lagunartean ospatzen zituzten jai-egunok.

- Oderitzen (N), ardi bat hil eta hiru eguneko jana egiten omen zen ardiarekin eta etxez etxe biltzen zen gainontzekoarekin. Lekukoaren hitzak: *“Iotek” pestak baño dotoreo emen; oso polittek. Mutillek, urdun nola izate mazen mutil salle aundie, ba, igual oitamar mutil emen erri ontan, erre txiki baten, ba, oik urdun, gauz aundiik ez baño, ardi bat il eta ya ostatua ortako, jana prestatzeko, iru eun. Ardia bezperatik il ta ongi prestatu. Ta bezpean afari bat, gibela ta oikin, ya iote bezpera, ya akordeonixte etortzen’tzenin, arrekin afari bat.* <Ihauteak, festak baino dotoreago hemen; oso politak. Mutilak, orduan nola izaten baitzen mutil sail handia, bada igual hogeita hamar mutil herri honetan, herri txiki batean, ba, horiek orduan, gauza handirik ez baina, ardi bat hil eta, ostatua horretarako, jana prestatzeko, hiru egun. Ardia bezperatik hil eta ongi prestatu. Eta bezperan afari bat, gibelarekin eta horiekin, jada **inaute bezperan** akordeonista etortzen zenean, harekin afari bat>.

Eta aurrerago: *Biramoinin gosaltzeko ya “menudo” o esaten tzayon... “Tripekiak” esaten’tzay’emen, eztakit an nola esaten’tzayon, emen “tripekik”, ardinak, tripekik gosaltzeko. Gosalduta ta erronda. Urdun erronda, etxis etxi, gosalduta, mutillek gosaltzen’tzenin; ianden. Oi izaten’tzen Pazko aurreko iande, da bukatzen’tzen, ba, Auster’eunin iotek, bete Auster eunin bukatzen’tzen iotek. Urdun ateatzen’tzen ianden, ianden “puske” biltzekoan. “Puskek” esaten tzayo emen, ba, txistorra-ta..., “puske bat”, “puskek biltze” esaten tzen. Emakume o neska zauden lekuan ollo bat, eta neskak, etxe artako neskak, laune arten zauden neskak, azkeneko eunin afaria mutillekin olloangatik. Gaña, an biltzen’tzen arrautze, txistorra... oi itten’tzen. Iru eun botatzen’tzittin ardiakin da “puske” bildutakoakin ostatun; ta azkeneko egunin, afarin, oi bai, launarteko neskak afaria izaten zin, olloa, olloa emandako neskak.* <Biharamunean gosaltzeko, **“menudo”** esaten zitzaion... **Tripakiak** esaten zaie hemen, ez dakit han nola esaten zaion, hemen “tripakiak”, ardiarenak; **tripakiak gosaltzeko**. Gosalduta eta erronda. Orduan erronda, etxez etxe, gosalduta, mutilek gosaltzen zutenean; igandean. Hori izaten zen Pazko aurreko igandea. Eta Hausterre egunean bukatzen ziren inauteak, beti Hausterre egunean bukatzen



ziren inauteak. Orduan ateratzen ziren igandean, “puskak” biltzekoan. **Puskak** esaten zaio hemen, ba, txistorra-eta..., “puska bat”, **puskak biltzea** esaten zen. Emakume edo neskak zeuden lekuan **oilo** bat [biltzen zen], eta etxe hartako neskak, lagunen artean zeuden neskak, azkeneko egunean afaria mutilekin batera oiloaren truke. Gainera, han biltzen zen arrautza, txistorra..., hori [ere] egiten zen. Hiru egun botatzen zituzten ostatuan ardiarekin eta puska bildutakoarekin; eta azkeneko egunean, afarian, hori bai, lagunarteko neskek afaria izaten zuten, oiloa emandako neskek>.

Eta hauxe diosku saila amaitzeko:

*Bueno, gero, bigarren eunin be(rri)s beste puske-biltze bat eitten zen. Azkeneko janak akatzen zen eta'este puske-biltze bat. Ta ordun itten zen jitok bezela, ta artzen zin asto'at, artzen zittin bi umi txikinak o zea ta, ze'onetan sartu biek, bi alderditan, ta batek eitten zun, launarteko neska batek, ba, “jitanana”, eta besteak eitten zun, ba, “jitona”. Eta kuadrille guzik atzetik, da oso graziosoa zen eta. Erdaras eskatzen zion, ejitok eskatuko baleo bezela, eta etxe guzitan erdaras eskatzen'tzun, iun artan, klaro!, ejito batek eskatu bezela, azkeneko zea ortan erdaraz. Iru'unex atea're in gabe, etxea etorri gabe, bai, bai... Lanen apuroik ez bazun, ezta muittu're ostatuti'ek! Ta geo andik dantzaa. Akordeon bat izaten'tzen, etzen besteik, iotetako beti akordeona, bai, neikoa izaten'tzen. <Gero, bigarren egunean berriz beste **puska-biltze** bat egiten zen. Azkeneko janak akabatzen ['bukatzen'] ziren eta beste puska-biltze bat. Eta orduan egiten zen ijitoak bezala, eta hartzen zuten asto bat, hartzen zituzten bi ume txikienak, edo zera eta, zera honetan sartu biak, bi alderdietan, eta batek egiten zuen, lagunarteko neska batek, ba, “jitanarena” ['ijito neskarena'], eta besteak egiten zuen “ijitoarena” ['gizonezkoarena']. Eta kuadrilla osoa atzetik, eta oso graziosoa zen. Erdaraz eskatzen zion, ijitoak eskatuko balio bezala, eta etxe guztietan erdaraz eskatzen zuen, egun hartan, klaro!, ijito batek eskatu bezala, azkeneko zera horretan, erdaraz. Hiru egunez atera ere egin gabe [ostatutik], etxera etorri gabe, bai, bai... Lanean apururik ['estuasunik'] ez bazuen, ezta mugitu ere ostatutik haiek! Eta gero handik dantzara. Akordeoi bat izaten zen, ez zen besterik, ihauteetarako beti akordeoia, bai, nahikoa izaten zen>.*

- Ezkurran (N) ere antzeko ohitura bildu da: *Ordun yoaten'tzin baserri guzita, neskatzek zien lekuta. Zen kostunbrea arrautze biltzekoa. Denataa yoaten'tzin iotetan, baño akordionakin ez, e! Akordionikabe yoaten'tzin. Akordiona ematten'tzun neskak zien lekura bakarrik. Ta dantzan, yotzen'tzittuen jota bat edo bi, t'ibiltzen'tzin dantzan, eta biltzen'tzun zeozer, bueno, piperropillek,*

*arrautzek “más que nada”, eta kostunbre oi zen.* <Orduan joaten ziren baserri guztietara, neskatak ziren lekuetara. Kostunbrea [‘ohitura’] zen, **arrautza biltzekoa**. [Etxe] denetara joaten ziren inauteetan, baina akordeoiarekin ez, e! Akordeoirik gabe joaten ziren. Akordeoia eramaten zuten neskak ziren lekura bakarrik. Eta dantzan, jotzen zituzten jota bat edo bi, eta ibiltzen ziren dantzan, eta biltzen zuten zeozer, **piper-opilak**, arrautzak batez ere. Kostunbre [‘ohitura’] hori zen>.

- Donibane Lohizunen (L) mozorroturik eta burruntzia eta otzara hartuta, **xingar eta arrautza** eske ibiltzen ziren —**xingar eta arrautza ibili** esamoduaz—: *Maskatuta ibiltzen’tzelaik, “xingar eta arrautze” erraten da: “Xingar eta arrautze ibili’ge”, ta gerrena bizkarrian zuna izaten’tzen bat, eta arek xingarrak biltzen’tzituen, eta bertze’at otarriaikin, arek arroltziak. Musika ta dantza.* <Maskaturik ibiltzen zelarik, “xingar eta arrautza” [‘txerriki edo urdai eta arrautza’] erraten da: “Xingar eta arrautza ibili gara”. Eta gerrena bizkarrean zuena izaten zen bat, eta hark xingarrak biltzen zituen, eta bertze bat otarrearekin, eta hark arrautzak. Musika eta dantza>.

- Azkainen (L), orobat. Honelaxe azaldu du berriemaileak: *Etxez etxe ebiltzen zen kantari; bi-hiru lagun maskatuak gerren batekin zingarra emateko eta arroltziak otarrian.* <Etxez etxe ibiltzen zen kantari; bi-hiru lagun maskatuak [‘mozorrotuak’], gerren batekin xingarra eramateko eta arrautzak otarrean [direlarik]>.

- Ezterenzubin (NB), antzeko ohitura bildu da (**Santibate egin**, dio): *Etxez-eta ibiltzen zen. Santibate iten zuten komunzki. Ihaute bezperan baziren khantiak: “Santibate, andere, / aurthen bezala gero’re. / Santibatek igortzen gaitu / xingarketa gu ere.” Ezta biziki hemen, hartako doia. Tripota edo lukhainka-puxka bat emaiten zen.* <Etxez etxe ibiltzen zen. **Santibate** egiten zuten komunzki. Inaute bezperan baziren kantuak: “Santibate, andere, / aurtzen bezala gero ere. / Santibatek igortzen gaitu / xingarketa gu ere”. Hemen ez dago biziki hartako dohaina. **Tripota** [‘odolkia’] edo **lukainka-puska** bat ematen zen>.

- Irisarrin (NB) ere horren antzeko kopla bildu da: *“Santibate, andere, / orai bezala gero ere. / Santibatek igortzen gitu / xingarketa gu ere. // Ez dugu nai tripotik, / eltzean sartzan ez denik, / beldurrez eta urde-kakaz beterik, / beldurrez eta tronpa gitzatan urdei-kakaz beterik”. Omen’buamek eskatzeko ori kantatzen zuten iausterian.* <“Santibate, andere, / orain bezala gero ere.

/ Santibatek igortzen gaitu / xingarketa gu ere. // Ez dugu nahi tripotik, / eltzean sartzen ez denik, / beldurrez eta urde-kakaz beterik, / beldurrez eta tronpa gaitzaten urdai-kakaz beterik”. Hemengoek eskatzeko, hori kantatzen zuten inauterian>.

- Behorlegin (NB), etxeoandreak xingarrik ematen ez zuen kasuetan, koplak batzuk kantatzen zituzten, eta ematen zuenean, ordea, beste batzuk: “*Santibate, andere, / aurten bezela geo’re. / Santibatek igortzen gaitu / xingarketa gu ere*”. <“Santibate, andere, / aurten bezala gero ere. / Santibatek igortzen gaitu / xingarketa gu ere”>.

Eta ostean hurrengo azalpen hau erantsi dio berriemaileak: *Ezpazun deus’ee ukaiten*: “Goazen, goazen ebentik, / eben ez dut (dük?) xingarrik. / Etxe untako gazitegian / sagüak umiak azten’tik”. // “Etxian eder aitzurra, / nausiak bilo izurra, / guri kolpe baten emaiterat / yeiki bazinte unat. / Kadera[n] zaude yarririk, / koloria gorririk”. <Ez bazuen deus ere ukaiten: “Goazen, goazen hemendik, / hemen ez duk xingarrik. / Etxe honetako gazitegian / saguak umeak hazten ditik”. // “Etxean eder aitzurra, nagusiak bilo izurra, / guri kolpe baten emaitera / jaiki bazina hona. / Kaderan [‘jesarlekuan’] zaude jarririk, / kolorea gorririk”>.

Eta kontent bazen: *Etxian eder korzeiru / dabiltzanean minguru, / etxe untako etxekandera / parabisuan aingeru*. <Etxean eder kortzeiru / dabiltzanean minguru [‘inguru-minguru’], / etxe honetako etxekanderea, / paradisuhan aingeru>.

- Pagolan (Z) ere antzeko koplak bildu dira, baina lekukoak azaldu du, neskak ez zirela eskean joaten; gero bai bildutakoa jatera: *Tripotak eta lukhainkak biltzen zütützün eta arraultzik. Eta geo, ihauti-astelehenez, gaztiak biltzen zütützün eta muletak jaten. Khantia bazün*: “*Santagataz andere, / aurthen bezala gero’re. / Santagatak igorten gaitü / xingarketa gu ere*”. *Galthatzen zien eta makhila lüze batetan xinkhorrak sartzen, eta gio tripotak. Zonbeitek ezarten beitzüten zabi eta hua emaiten... Bena khantatzen ziezün (bazütützün bertsiak denentako)*: “*Guazen, guazen hebentik, / heben eztük txingarrik. / Etxe huntako gazitegian / sagiak hümiak hazi’tik*.” *Tzintzarriekin. Nexkatuak etzütün juiten; geo bai jateat, ez etxetan*. <**Tripotak eta lukainkak biltzen** ziren, eta arrautzak. Eta gero, **inaute-astelehenez**, gazteak biltzen ziren eta **omeletak** jaten. Kanta bazen: “**Santa Agataz** andere, / aurten bezala gero ere. / Santa Agatak igortzen gaitu / xingarketa gu ere”. Galdetzen [‘eskatzén’] zuten, eta makila luze batean xingarrak sartzen, eta gero tripotak. Zenbaitek ezartzen

baitzuten zahia eta hura ematen... Baina kantatzen zuten (denendako bertsioak baziren): “Goazen, goazen hemendik, / hemen ez duk txingarrik. / Etxe honetako gazitegian / saguak umeak hazi ditik”. Zintzarriekin. Neskatoak ez ziren joaten; gero bai jatera, ez etxeetan>.

- Garrüzen (NB) ere, herriko gazte guztiak, neska eta mutil, mozorroturik ibiltzen omen ziren etxez etxe: [Inauterietan] *maskatzen gintzun ta etxetaat iiltzen gintzun, eske itea. Ordian emaiten 'tzaukuzien gue denboran arrotze-ta, tripota-ta, lukinka-ta. Gio ostatura yoiten gintzun ta oik preparazten gintzin. Eta gazte güziak, denak, han biltzen gintzun aubaitea-ta, yan eta... Neskatoak'ee ba; gazte güziak.* <[Inauterietan] maskaratzen ginen eta etxeetara ibiltzen ginen, eskea egitera. Orduan, gure denboran, ematen zizkiguten arrautza-eta, tripota-eta, lukainka-eta. Gero ostatura joaten ginen eta horiek prestatzen genituen. Eta gazte guztiak, denak, han biltzen ginen afaritera-eta, jan eta... Neskatoak ere bai; gazte guztiak>.

— Den-denek, ordea, ez omen zituzten begi onez ikusten inauteri-ospakizunok. Leku guztietan ez, behintzat. Hara hemen testigantza bi:

- Igoan (N) kontatu dute Franco diktadorearen garaian mozorrotzea debekaturik zegoela, baina, hala ere, herriko gazteek ez ziotela uko egin tradizioari: *Biño oan beak nai dutenin itte'ute! Galaazi zuten, eztakit, ola, estadutik-o... Nik eztaki ze... Oi Francon denboan kendu zuten iote ori. Biño etzuten erriko mutillek geldittu nai ta, arpegik tapatuta ta... Ta febreroan in bearrin, "pues", beti itte'ute eneroan. Arrek proibittu zun, da oan berriz asi'te, bai. Bai, etzen beñe geldittu.* <Baina orain berek nahi dutenean egiten dute! Galarazi zuten, ez dakit, hola, estatutik-edo... Nik ez dakit ze... Hori, Francoren denboran kendu zuten inaute hori. Baina herriko mutilek ez zuten gelditu nahi eta, aurpegiak tapatuta eta... Eta febreroan ['otsailean'] egin beharrean, beti egiten dute eneroan ['urtarrilean']. Hark debekatu zuen, eta orain berriz hasi dute, bai. Ez zen behin ere gelditu>.

- Elizak ere bekatutzat omen zuen mozorrotzea. Hala azaldu du, behintzat, Armendaritzeko (NB) lekuko batek: *Maskatzia? Maskekilan? Ba, ikusi dut. Niaur'e iili niz, iili niz nior'ee... Lehen beldur ginden, defendio zen. Ertorak, pedeikiak eta guziak elizatik, etzitian maite degisatze horik; bekatu ziren... Astearte iaunteriekin'tzen eiten, e? Ori, geihenik, astearte ihauteriekin... <Maskatzea? Maskarekin? Bai, ikusi dut. Nihaur ere ibili naiz, ibili naiz*

nihaur ere... Lehenago beldur ginen, defendu zen [‘debekaturik zegoen’]. Erretoreek, predikuak eta guzti [egiten zituzten] elizatik. Ez zituzten maite **desgisatze** [‘desitxuratze’] horiek; bekatu ziren... Astearte inauteriarekin ez zen egiten, e? Hori, gehienik **astearte inauteriarekin**>.



## OSTEGUN GIZEN / EGUEN ZURI

Inauteri aurreko osteguna izendatzeko eta ospatzeko era diferenteak dira Euskal Herrian barrena, eta euskararen eremuan partikulariki.

Egun honi euskaldunen herri-gizartean, bazterreko lurraldeetan izan ezik, eman zaion izen printzipala **Ostegun Gizen** edo **Ortzegun Gizen** da. Gipuzkoaren erditik ekialderantz, eta Iparraldeko eremu batzuetan, «Ostegun Gizen», eta Iparralderik gehienez «Ortzegun Gizen». Izenon aldaera hurbilak ere hainbat dira.

Etxalarren (N) diosku lekukoak: *“Ortzegun Gizen” izanzen da, baño emen erraiten zaito “Urtzain Gizen”*. <Ortzegun Gizen izango da, baina hemen erraten zaito **Urtzain Gizen**>.

Sartaldeko eremuan, Bizkai ekialdean eta Gipuzkoa sartaldean, **Eguen Zuri** izenaz ezagutu da hainbat lekutan, eta gutxi batzuetan **Eguen Gizen** ere deitu zaito. «Eguen Zuri» izatearena, eskola-umeentzat «zuri» izatetik datorrela esan daiteke... «Zuri» zen, eskolarik gabeko eguna zelako, «zuri egiten» zen eguna.

Eskola-umeak etxez etxe kantuz eta sari eske ibiltzeko ohitura horrek Durangaldean iraun du berariaz, baina lehen zabalago zebilen. Hona hemen Aramaioko (A) testigantza Eguen Zuri egunaren inguruan: *Ori, gu andi e(g) iñdde gero “Eguen Surixorrek” urten euen. Gerraostien sartu san emen*. <Gu handi eginda gero irten zen “Eguen Zuri” hori. Gerraostean sartu zen hemen>.

Sartaldeko leku batzuetan **Eguen Lardero**, edo **Lardero** soilik deitu izan zaio egun honi. Azkuek horrelaxe bildu zituen: «“Eguen Lardero” Arratian, eta “Eguen Lardero” Debagoiengan» (DVEF).

Etorki berekoa da Zuberoarik gehiengan ematen zaion **Lerdo** izena (baita **Lerdo eguna** ere), sartaldeko «Lardero» (edo *Lardero*) izenaren kidea.

**Basatoste** izena, [basa- + aratoste] egiturakoa, aipatu dute lekuko batzuek —Laukizko (B) berriemaileak, kasurako—, baina izen hori, eta berdin **Sasikoipetsu** izenarekin ere —*Sasikoipatsu*, ahoz—, inauteri aurreko igandeaz lotzen da herririk gehienetan. Azkuek Gernikan (B) eta Ispasterren (B) jaso da **Basaratuste**; *Basaratiste* aldaeratzat jo genezakeen hitza ere badakar bere hiztegian, ziurrik Bizkai sartalderengo hizkeretatik batua. Gaztelaniaz itzulpen hau xe eman zion sarrera horri: «DOMINGO ANTERIOR AL DEL CARNAVAL» (DVEF).

Deigarria da edonola ere, Bizkaiko eremu euskaldunik gehiengan «Ostegun Gizen» horri ez ematea bere izen propio berezirik.

Egun horri atxikirik Nafarroan diren ohiturak herri edo leku jakinetara mugatzen dira, heldu zaizkigun testigantzen arabera. Izan ere, Nafarroako eremurik gehiengan ez da bildu EHHAn Ostegun Gizen egun honen erreferentziarik. Baina herri batzuetan ezagunak dira **Emakunde**, **Gizakunde** eta **Orokunde** (*Orakunde*, ahoz) bezalako izenak, nolabait inauteri-zikloaren barruan, aurreragoko egun jakinak izendatzeko, euren ohitura berezi eta guzti aipatuta.

- Oderitzen (N) Emakunde eta Gizakunde egunetako ohiturak zehatz aditzera eman ditu lekukoak. Etxez etxe puskak biltzen ibiltzen ziren **Emakunde egunez**. Mutilak puska-biltzean aritzen ziren etxeetatik, etxeotan emakumeren bat izatekotan. Puskak biltzen zebiltzan mutilek, inauterietan dantzaren bat edo zerbait agintzeko eskaria egiten omen zioten emakume horri. Hona hemen lekukoaren beraren kontaera: *Ostiunen izaten'tzen beste bat*, “Emakunde”, *beste puske-biltze bat*: “Xixtor-mistor, Emakunde!”, *emen oittuera esaten zen bezela*: “Pues”, *etxeta etorii puske-biltzea, ta neskaik balen bazeon*, “pues”, *lepotik eldu ta*: “Txixtor-mistor, Emakunde! Ze aintzen dun? Zer aintzen den?” [esaten zitzaion]. *Ia zer aintzen zun, ba, o dantza bat iotetan-o, zer aintzen'tzion mutillei*. <Ostegunean izaten zen beste pusketa-biltze bat, “Emakunde”, *beste puska-biltze bat*: “Txistor-mistor, Emakunde!”, hemen ohitura esaten zen bezala. Etxeetara etorri puska-biltzera, eta neskarik baldin bazegoen, lepotik heldu eta: “**Txistor-mistor**, Emakunde! Zer agintzen dun?

Zer agintzen den?”. Ea zer agintzen zuen, ba, edo dantza bat inauteetan-edo, zer agintzen zion mutilari>.

Aurrerago, berriemaile berak **Gizakunde egunaren** gainean dihardu. Emakunde aurreko ostegunean, aldiz, Gizakunde edo Gizakunde eguna izaten zela dio, eta orduan emakumeek, puska-bilketarik egiten ez bazuten ere, mutilei dantzaren bat agintzeko eskaria egiten zietela: *Iote-igande aurreko ostegunean Emakunde izaten zen eta aurreauko astean izaten zen Gizakunde. Orduan emakumeak, ba, gauze berdiña, nai bazun gizoneskoai esan ze aintzen zun-o... Urdu etzun puskek biltzen emakumek, baño esan zezaken osteiun artan, o kanpoan, o nai baziñun jorratik etorriko zinen... Baño, “zer aintzen duk?”-o... Zen kostunbre oi. Oi, izautu dot nik oi. Odoitzen, bai. <Inaute-igande aurreragoko ostegunean Emakunde izaten eta, eta aurreragoko astean izaten zen Gizakunde. Orduan emakumeek, ba, gauza berdina [egiten zuten]. Nahi bazuen, gizonezkoari esan zer agintzen zuen-edo... Orduan ez zituen **puskak biltzen** emakumeak, baina esan zezakeen ostegun hartan, edo kanpoan nahi bazuen, edo nahi bazuen jorratik etorriko zinen... Baina, “zer agintzen duk?”-edo. Bazen kostunbre [‘ohitura’] hori. Hori, ezagutu dut nik hori. Oroitzen [naiz], bai>.*

Egun horri atxikirik ohitura diferenteak dira leku batean eta bestean. Mozorrotzea, dantza egitea, eske-koplak kantatzen ibiltzea eta beste. Hara horietariko batzuk, EHHAn bildu direnak:

- Leintz Gatzagan (G) **Lardero egun** deitzen izan diote egun honi. Eta egun horretan eskola-umeak etxez etxe ibiltzen ziren saritxo eskean: *Eskola-umiak, komente, neskatilla-mutiko(ak) ibilltten sien, seoser batuas, etxerik etxe. <Eskola-umeak, komunmente [‘gehienetan’], neskatila eta mutiko ibiltzen ziren, zeozer batuaz, etxerik etxe>.*
- Deban (G) **Sasikoipetsu egun** (ahoz, *sasikopatzu*) deritzote ostegun honi. Eskolan umeek jai izaten zuten, eta arratsalde zartagina, ogia, arrautza eta txorizoa hartuta basora joaten ziren gazteak: *Gu gastiak giñanian, Sasikopatzu eunian jute giñan. Artu zartañia, ogixa ta arrautzia ta txorizua, “o lo que sea” artu, ta juten giñan mendira, ta an itxe gendun merienda. Ori isate’a “sasikopatzu”, ba, “jueves gordo” leno, e? On galdu in da ori, oingo gastiakè... Neska koskor ta muti koskorrak artu zartañia ta... zea, ta in sua, eun ortan, e? Gero beñ eskolan, ostegun arratzaldian itte’san. Jai itte’san, bai, leno bai, ostegun arratzaldia jai itte’san, da sapatuan eskola jute’giñan, da ostegun*

*arratzaldian Sasikopatzu itxe'gendun, "jueves gordo", eun ortan sasikopatzu.* <Gu gazteak ginenean, Sasikoipetsu egunean joaten ginen. Hartu zartagina, ogia eta arrautza eta txorizoa, eta joaten ginen mendira, eta han egiten genuen merienda. Hori izaten da Sasikoipetsu, ba, "jueves gordo" lehenago, e? Orain galdu egin da hori, oraingo gazteak ere... Neska koskor eta mutil koskorrak hartu zartagina eta... zera, eta sua egin, egun horretan, e? Gero behin eskolan, ostegun arratsaldean egiten zen. Jai egiten zen, bai, lehenago bai, ostegun arratsaldea jai egiten zen; eta zapatuan ['larunbatean'] eskolara joaten ginen, eta ostegun arratsaldean Sasikoipetsu egiten genuen>.

- Lekeition (B) ere *Sasikoipatzu* izen bera eman izan diote egun horri. Lekukoaren esanean: *Aurrerako eguna ixaten da Sasikoipatzu. Merixendia eitten da: txorixu, tostada, tortillia-ta...* <Aurrerako eguna izaten da Sasikoipetsu. Merienda egiten da: txorizo, tostada, tortilla-eta...>.

- Eibarren (G), egun horretan mozorrotu egiten ei ziren: *Eguen Zuri egunian, umiak koko janzten ziran* (T. Etxebarria). <**Eguen Zuri egunean**, umeak **koko janzten** ziren>.

- Orion (G), zio bera bitarte dela, **Zomorro Txiki** izena bildu da, ahoz, *zomorro txiki*. Inauteriak baino lehen, aurrerapen gisa egiten zen mozorrotzea. Hara bertako testigantza: *Karnabal aurreko osteguna, "Zomorro Txiki"; sakuba buruti bera sartu ta makillakin.* <Karnabal aurreko osteguna, "zomorro txiki"; zakua burutik behera sartu eta makilarekin>.

- Ikaztegiatan (G), «Ostegun Gizen» eta **Ostiral Flako** aurrez aurre aipatzen dira, batean asko jan eta bestean **mehe** edo **barau egiten** dela aditzera emateko: *"Osteun Gizen, Ostial Flako ta lanbata regularra", esaten giñun guk, eta jaye, "karnabala"*. <"Ostegun Gizen, Ostiral Flako eta larunbata erregularra", esaten genuen guk, eta jai, "karnabala">.

- Ezterenzubin (NB) ere zehazki kontatu dute **Ortzegun Gizen eguneko** barau-salbuespena: *Gaizuma guzian egiten zen barur eta mehe. Bazen egun bat phausa hartzen ahal zena penitentziatik: Ortzegun Gizen.* <Garizuma guztian egiten zen barau eta mehe. Baina bazen egun bat, penitentziatik pausa hartzen ahal zena: Ortzegun Gizen>.

- Zugarramurdin (N) ere antzeko ohitura zen; goizean bildutakoa iluntzean jan: *Egun bat bakarra. Mendian ibiltzen die eskean gazteak, baserritan; eta zingarra, arroltze-eta biltze'ute. Eta jan. Goizean martxa eta illuntzean jan.*

<Egun bat bakarra. Mendian ibiltzen dira eskean gazteak, baserrietan. Xingarra, arrautza-eta biltzen dute Eta jan. Goizean martxa eta iluntzean jan>.

- Zaldibarren (B) **Basokoipetsu** esan izan zaio egun honi. Eta honako sekuentzia bildu zuen Iñaki Gaminde ikertzaileak inauteri aurreko egunen inguruan: *Gero, Eguen Suri'tte urrengo Basokoipetzu ixango da, gero karnabalak* (I. Gaminde). <Gero Eguen Zuri eta hurrengo Basokoipetsu izango da, gero Karnabalak>.

**Eguen Zuri eguneko** koplak direla eta, hauxe jaso zuen Gamindek, Zaldibarren (B) bertan: *Arek erakutzi'oskun guri, Eguen Suri oin kantatzen dana, da geuk ikasi gendun a, da geuk lelengo eiñ, estrenau genduen amen* (Berbategia.eus). <Hark irakatsi zigun guri, Eguen Zuri orain kantatzen dena, eta geuk ikasi genuen hura, eta geuk lehenengo egin, estreinatu genuen hemen>.

- Iztueta idazle zaldibiarrak (G) egun horretan dantza egiten zelako testigantza aitortu zigun: «Urte guzietako **Ostegun Gizen egunetan** egiten dute [...], gizon-dantza oniritzi pozkarri bat» (GD).

- Elizanburu idazleak, Heletako (NB) semeak, hau idatzi zuen: «Urthe guziez, Ortzegun Gizenez, idi gizena paseatzen da xingola flokaz aphaindua» (*Framazonak*).

Eguen Zuri egunari atxikirik, eskola-mutilak etxerik etxe sari eske zebiltzala kantatu izan dituzten koplak ere bildu dira herri batzuetan. Hara hemen bi testigantza:

- Arrazolan (B): *Mutikuek etxerik etxe ekite'otzen: "Eguen Suri onetan, / asmo onegas kantetan, / Maixu Jaunaren disipuluak / amen gaus Jesus kantetan. // Egun on jente noblia! / Kristori gure bakea / ...". Etxerik etxe kantau eitte'san, da iñor baeuen illdde, kanta bearrien erresau, aitegurie.* <Mutikoek etxerik etxe ekiten zioten: "Eguen Zuri honetan, / asmo honekin kantatzen, / Maisu Jaunaren dizipuluak / hemen gaude Jesus kantatzen. // Egun on, jende noblea! / Kristori gure bakea / ...". Etxerik etxe kantatu egiten zen, eta inor hilda bazegoen, kantatu beharrean errezatu, aitagurea>.

- Gizaburuagan (B) ere ohitura bera gorde da: eskola-umeek etxez etxe koplak kantatu eta bildutako sariarekin merienda eder bat egitea. Lekukoaren

hitzez: *Amen errixen Eguen Suri kantetan ibiltten siren umiek. Merixenda bat-  
edo eitte'san: "Eguen Suri eguna danes, / gatos gu ona eskian, / eskian gatos, eskian,  
/ iñor badago etxian. // Gure maistrak agindu deusku / ibiliteko bakian, / bakian  
gabis, bakian, / Jangoikoaren legian. // Bakian es bagabiltzas, / sartu karsela  
batian, / andik geiago es atarateko / bertan usteldu artian. // San Kasiano obispo  
jauna, / eskola-maixu entzuna, / ... / ikasitako sentzuna. // Lukainkatxo bi, sei  
bat arrautza, / ogi bat edo sei lauko, / emen gatosan eskola-umiak / merixenda  
on bat eitteko". <Hemen herrian Eguen Zuri kantatzen ibiltzen ziren umeak.  
Merienda bat-edo egiten zen: "Eguen Zuri eguna denez, / gatoz gu hona  
eskean, / eskean gatoz, eskean, / inor badago etxean. // Gure maistrak agin-  
du digu / ibiltzeko bakean, / bakean gabiltza, bakean, / Jangoikoaren legean.  
// Bakean ez bagabiltza, / sartu kartzela batean, / handik gehiago ez ater-  
ratzeko / bertan usteldu artean. // San Kasiano obispo jauna, eskola-maisu  
entzuna / ... / ikasitako zentzua. // Lukainkatxo bi, sei bat arrautza, / ogi bat  
edo sei lauko, / hemen gatozen eskola-umeak / merienda on bat egiteko">.*

- Nabarnizen (B) Azkuek bildua da hurrengo hau: «San Kasiano obispo jauna, / eskola-maisu entzuna, / zeure koprade garean legez / egizu laguntasuna. // Emon egizu maisu jaunari / irakasteko grazia; / baita guri bere / ikasteko gomuta ona ta argia. // Orain artean usu dan legez / gatoz gu zeure etxera. / Etxekoandrea, bota egizu / limosna on bat zakura» (CPV).

Errefrau edo errezitatu modura ere gorde dira Egun Zuri eguneko koplak batzuen zatiak. Azkuek Gernika aldean bildua da hauxe: «Eguen Zuriko astea / Jaungoikoak emona guztia» (DVEF).

Markinan batukotzat dakar Azkuek beste hau ere: «Eguen Zuri, eguen baltz, txakurra arrautza ganean datz» (EY IV 308). Baina bere kantutegian bertsio osoa-goak eta ugariago dakartza. Bat, esaterako, Munitibarren (B) jaso. Eskola-umeek egun horretan etxerik etxe kantatzen zuten kopletariko bat dugu hurrengo hau: «Eguen Zuri, eguen baltz, / txakurra arrautza ganean datz. / Baltz-baltztxoa mai-suentzat, / zuri-zuritxoa geuretzat» (CPV).





## HAUSTERRE / HAUSTE / HAUTSEGUN

Hiru izen nagusi eman izan zaizkio herri-hizkeran egun honi: «Hausterre» edo «Hausterre eguna», «Hautsegun» eta «Hauste» soila, edo «Hauste eguna».

Ekialdean **Hauste** izena da nagusi, Iparraldean eta Nafarroa goialdean. Maiztasun handiz, soilik eta mugagabez: «Haustez hasten da Garizuma» (*Harriet*). Edo «egun» izenaz lagundurik datorrela, **Hauste egun**: «Austegune da; denak autse artzera» (*BHizt2*). Baina *Hausterri* aldaera ere ondo hedaturik izan da, hona hemen P. Urteren hiztegiko aipamena eta bigarrena Harrietena: «Hausterri, Hautseguna, Garizumako lehen eguna» (*Urte*); «Orhoit hadi hausterriz hautsaren burura emateaz» (*Harriet*).

Erdialdean, Gipuzkoarik gehienez eta Nafarroan barrena ere zabal, **Hausterre**, eta batez ere elkarketan, **Hausterre egun**, da izendapen nagusia, baina *Hausterri* aldaerak ere hots handia du.

Sartaldean, Bizkaian eta Gipuzkoan barrena eta Getariaraino, **Hautsegun** eta **Hautsen Egun** dira izendapen nagusiak. Izen-elkarketaz hainbat lekutan (*Autsegun* edo *Eutsegun*) eta gramatika lotura gardenaz beste askotan (*Autsen Egun* edo *Eutsen Egun*). Baina betiere «-a» mugatzaileaz gramatikalizaturik.

Izen arrunten gramatika bera gorde ohi du [hauts + egun] hitzen elkarketak, «-a» mugatzailea beregandurik: «Hautseguna». Baina «Hausterre» eta horren aldaerak soilik erabiltzen direnean, mugagabez erabili ohi da, eta noiz edo zein egunetan denean gura denean, denbora-adizlagun gisa: **Hausterrez**. Tradizio idatzian: «Iru egun on; laugarrena, aldiz, / erio oroi dan Austerre» (*Euskaldunak*); «Austerrez autsa artzera joaten diran bezala» (*Erakusaldiak* I).

- Arrasateko (G) lekukoak Hautseguna, Garizumaren sarrera izatea nabarmendu du: *Garisumie orduntxe sartu*. <Garizuma orduantxe sartu>.
- Hausterre egunaren hurrengo asteari Larraulen (N) **aste txiki** deritzotela bildu zuen Azkuek (ikus EY I 60).

Zenbait ohitura gorde dira egun honi datxezkionak, eta EHHAn azaldu:

- Ikaztegieta (G) lekukoak, Bibliako pasarte ezaguna gogoratu du, egun

hau aipatzean, hitz-jokoa eginez: “*Autsa zea ta aus biurtuko zera*”, ta *autse artzea danak*. <“Hautsa zara eta hauts bihurtuko zara”, eta hautsa hartzera denak>.

- Armendaritzen (NB), elizan mahats-aihen edo -xirmenduekin hautsa egiteko ohitura bildu da, eta elizara etorri ezin zirenei etxeetara eramatekoa: *Hautsa, goizian iten'tzen elizan, ba, ta gio etxen tzienendako paper puxiña'aten barnian ekartzen. Oi xirmendiekin iten da hautsa horina, maats-xirmendiekin*. <Hautsa, goizean egiten zen elizan, bai, eta gero etxean zirenendako paper poxi baten barnean ekartzen. Hori, xirmenduekin egiten da hautsa, **mahats-xirmenduekin**>.
- Montorin (Z), Hauste egunez zer jaten zen bildu da: **arrautza-moleta**. Hauxe dio: *Arraultze-muleta jaten, ez txinkhorrik*. <Arrautza-moleta jaten zen, ez xingarrik>. Hau da, bijilia egiten zela.

Aspaldi Azkuek beste hauek ere bildu zituen:

- Ainhoan (L), **krosketak** erretzen zirela, hauts bihurtu ondoren, eta hura Haustegunerako gordetzen zela: «Krosketa-maillu onek erreta, honen hautsa Hausteguneko gordetzen da» (DVEF).
- Nafarroa Beherean bildu zuen hurrengo hau ere: «Benaparroan lastoz egindako gizon bat ihauteriz ('aratuste-egunetan') eta Hausterrez ('Hutsaren Egunean') karriketari erabiltzen dute» (EY I 318).

Garizumako baraualdia Hausterre egunez hasten denez, egun horretatik aurrerako ostiraletan haragirik ez jatea izan da herri euskaldunetan ere, Elizaren aginduz sakon sustraiturik egon den ohitura; hots, bijilia-egunak edo **barau-egunak** ziren. Baziren, hala ere, bulda bereziak, agindu hori salbuesteko. Hala: «Zelako eskubideak emoten dituz **okela-buldeak**? Garizumako eta baru-egunetako egun guztietan okelea jan al izatea, ez izanik Auts-eguneko egubaztena» (*Iturzaeta*). Azkuek, gizakion inguruko animaliak ere barau egiten edo egin behar dutelako sineskizuna ere bildu zuen Bizkaian: «Auts(ar)en Egunean txakurrak eta katuak bere barau egiten dabe» (EY I 58).

Hauste egunetik Pazko egunera bitarte ezteirik ez egitea ere indarrean izan da Eliza Katolikoan. Hona hemen euskal idazle klasikoen eskuetatik iritsitako

aipamen bi: «Hauste-egunetik Bazko zahar arteño ezteirik ez egitea» (*Materre*).  
Eta bigarrena: «—Noiz dira debetü ezteiak? —Adbentü lehen igantetik  
Aparizio, zoin baita Hirur Erregen besta, eta Hausterik Bazko zaharra igaran  
artio» (*Belapeire*).

\*\*\*

Errefrau eta esaera gisa ere azaldu izan da batzuetan egun honen izena.  
Nafarroan, hauxe: «—Bazkoz il-zar, Austerrez il-berri, ire aita ta ama ez dituk  
gose ez egarri. —Illak ttuk ordu(a)n? —Ik diok ori» (NEZ 1682).



Latineko QUADRAGESIMA izenean du sustraia **Garizuma** mailegu-izenak.  
Euskararen eremu osoan izen beraz izendatzen da berrogei eguneko kristauen  
aldi hau.

EHHAko inkestetan «Garizuma» edo honen aldaeraren bat jaso da leku  
guztietan. Aldaerarik aipagarriena, Zuberoan ohi dena: *Goxüma*. Gainerako  
aldaerak askoz hurbilagoak dira: *Garisume*, *Gaisuma* eta beste.

«Garizuma» izena «-a» mugatzaileaz gramatikatzen da beti, eta ez izen  
bereziek ohi duten eran, mugagabez. Sartaldeko hizkeretan eta erdialdeko  
batzuetan, «Garizumea» edo honen moduko beste ebakerak eginez. Hala:

- Eibarren (G): *Gaizumia*.

- Elgoibarren (G): *Garizumia*.
- Oñatiko Araotzen (G): *Garisimia*.
- Ataunen (G): *Gaizemea*.

Beste izen batzuk ere ageri dira tradizioan, baina idatzizkoan: mailegu-izenaren ordeztu hiztunentzat gardenago datekeen baten ahaleginez eraikiriko neologismoak. Halakoak dira **Berrogeia** eta **Berrogeizaro**, kasu. Hala Oihenartek modu honetara darabil: «Barur egik ieigeietan, / Berrogeian, laur mugetan, / Bait “elik” aragi iatez / Orzirale larunbatez» (*ProvBasq* 54). Aranismoaren garaian **Berrogeikaro** bultzatu zen: «“Garizuma” ori euskeraz esango bazenduke, “Berrogeikaroa” obe esango zenioke. Berrogeikaro ori barauetan igarotzia Tertuliano jakintsuaren aldirian ere —199garren urtian— egiten zuten barau-aldia da» (*Jesusen Biotzaren Deya* aldizkaria, 1920).

Garizuma noiz hasi eta noiz arte dirauen jakiteko, honako testigantza hauek bildu dira:

- Aramaion (A), labur adierazi du berriemaileak: *Berrogei egun dire. Paskuetan amaituten da*. <Berrogei egun dira. Paskoetan amaitzen da>.
- Urretxuko (G) lekukoak, urteko zein hiletan eta zeintzuk egunetan den azaltzeko. Hauxe diosku: *Garizumia, illargiti atatzen'due*. <Garizuma ilargitik ateratzen dute>.

Garizumari loturik euskal herrietan ageri diren ohiturak direla eta, hona hemen hurrengo lerroetara ekarritako batzuk.

Lehenik eta behin, bijilia eta baraua zaintzea. Bigarrenik, dantzaldirik ez erromeriarik ez izatea. Testigantza batzuk era honetakoak izan dira:

- Lemoizen (B): *Garisumeko bariku gustitxan iten da bijili*. <Garizumako bariku guztietan egiten da bijilia>.
- Elgoibarren (G): *Ezin'tzen dantzan egin, expaitzan eoten, gañea, erromeririk. Ez, ez, ixil-ixilikan*. <Ezin zen dantzan egin, ez baitzen egoten, gainera, erromeriarik. Ez, ez, isil-isilik>.

- Altzürükün (Z), bijiliari ardura harturik, Garizuma sasoian «zartagina gorderik» eduki behar zela kontatu dute: *Zartegiña goititzen züzün, Goxüma denboan. Ez txinkhorrik ez deus'e.* <Zartagina goititzen ['gordetzen', 'jasotzen'] zen, Garizuma denboran. Ez xingarrik ez deus ere>.

Antzeko azalpenak eman dituzte Nafarroa Behereko eta Zuberoako herrietan ere: **mehe-egun** zorrotz gorde beharrekoak zirela. Hala:

- Gamarten (NB): *Ordian astezkena ta ostialia, biak mehe ziren. Etzen, ez, zingarrik, ez.* <Orduan astezkena eta ostirala, biak mehe ziren. Ez zen, ez, xingarrik, ez>.
- Domintxainen (Z) ere gauza bera: *Barur eta ostiale güziez mehe.* <Barau eta ostiral guztiez mehe>.
- Barkoxen (Z) ere antzeko zerbait: *Bijile, astizkena eta ostialia, gogor zen lehenago ürbentü.* <Bijilia, astezkena eta ostirala; gogor zen lehenago urrendu ['bukatu', 'amaitu']>.
- Erronkariko Uztarrotzen (N), bijilia dela-eta Azkuek hauxe bildu zuen: «Gorozimako orzilaretan aragi-xateatik bagetan naz» (DVEF).

Bulda bidez Garizuman haragia jatea zilegi izan dela ere maiz ageri zaigu, batez ere idatzietan. Hala 1701. urte inguruan *Zarauzko bulda* izeneko eskuizkribuan, hauxe irakurri dugu: «Bulda onen bitartez jan leike okelia Garisimako denpora gustian» (SLMSO). Bulden kontua anitz aipatua izan da, batez ere dirua ordainduz jadesten zelako maiz haragi-jakia ahora sartu ahal izateko lizentzia. Baina pobre-jendearentzat neke zen hori... Horretara zuzentzen diren errefrauk ere badira: «Justizia eta Garizuma pobreentzat eginak» (*Garate* 8200).

\*\*\*

Garizuma, denbora luzearen, luzeegiaren irudi bihurtu da herri-esapide anitzetan, konparazio egituren bidez: goranzkoaz, [baino + -ago] egituraren bidez, edo berdinekoaz, «bezain» marka erabilia:

- Azkuek Markinan (B) bildutako bat: «Garizimea baiño luzeago» (DVEF).
- Hau ere Azkuek jasotakoa, Aezkoa ibarrean: «Garizuma bezain luze» (EY III 269).
- Baztanen ere antzera: «Garizime aizia hotza da. Garizime luzea da» (*BHizt1*).
- Eta oraintsuagoko bat, J.M. Elexpuruk Bergaran (G) batutakoa: *Garizumia baiño luziaua ein jat gaurko atsaldia* (J.M. Elexpuru). <Garizuma baino luzeagoa egin zait gaurko arratsaldea>.

Badira baita, Garizumako denbora labur irudiz darabilten atsotitzak ere: «Pazkoz urkagei duenak, Garizumaren laburrez ditu penak» (*ProvBasq* 395).

\*\*\*

Eguraldia mintzagai darabilten errefrauk ere badira. Arakilen (N) bildua: «Garizuma aurretik, Garizuma atzetik, Garizuma beti bustia» (NEZ 45). Eta G. Garate ikertzailearenak hurrengo hirurok: «Garizuma berandu, udaberrie berandu» (*Garate* 5360); «Garizuma bero, negua da gero; Garizuma otz, negua joan da poz» (*Garate* 5362); «Garizima goiz, Garizima berant, Garizima otz» (*Garate* 5364).



Aste Santu aurreko igandeari, nola deritzon galde egin da EHHAn, eta «Erramu» izena bildu da gehien-gehien. Iparraldeko alderdian izena soilik: **Erramu** (*Erramü* aldaera, Zuberoan), salbuespen batzuk gorabehera; eta Pirinioez beheitiko lurraldean, izen-elkarketa barruan dagoela jaso da, berariaz: **Erramu egun**, alegia.

**Erramu igande** Nafarroa ekialdean bildu da batez ere. Baina Iparraldean ere ezaguna da: «Zebebratu zuten Erramu igandea» (*SFran*). Eta **Erramuko Igande** ere (ahoz, *Arramuko igandea*) deitu izan zaio egun honi: «Nondik heldu da, Arramuko Igandea hain ohoratua baita Elizan?» (*KatLav*).

**Erramu domeka** da sartaldeko herri batzuetan bildu dena. Eibarren (G): *Erramu domekan, erriko aintzalliak juaten ziran prozesiñuan, gero euren ate gañian agertuko zan palma-adarragaz* (T. Etxebarria). <Erramu domekan, herriko agintzaileak joaten ziren prozesioan, gero euren ate gainean agertuko zen palma-adarrarekin>.

Tradizioan **Erramuko Domeka** erabili izan da: «Zegaiti Erramuko Domekan erabilten dozuz prozesiñoan erramuak eskuetan?» (OE).

Jaieguna nola zebebratzen izan den, zein ohitura eta sineskera dagoen egun horri buruz, edota zer esaera edo errefrau darabilten euskal hiztunek... Hori guztia bildu da inkesta bidez.

Herri gehientsuenetan ageri da erramuak bedeinkatzeko ohitura, eta bedeinkaturiko erramu horiek etxe eta soroetan banatzea, ekaitzetatik babestu eta uzta ona jaresteko asmoaz. Hona hemen testigantza batzuk:

- Lemoizen (B): *Eroten da erramu, ta gero a imintxen da aten eta solon.* <Eramaten da erramua, eta gero hura atean eta soroan ipintzen da>.
- Bakion (B): *Erramu egunien ereiñotza, kurtze modun einde, eroate'san elixara. Gero soloatan imiñi, erdixen ingerun. Solo bakotxeko bat.* <Erramu egunean ereinotza, gurutze moduan eginda, eramaten zen elizara. Gero soroetan ipini, erdi inguruan. Soro bakoitzeko bat>.
- Zornotzan (B): *Amen kurutziek eroaten dus. Ereiñontza ta erramue. Bixek nastaute, txortie eroaten da, gero; bedeinkitute, soluen ipinteko.* <Hemen

gurutzeak eramaten ditugu. **Ereinotza** eta erramua. Biak nahastatuta, txorta eramaten da; gero, bedeinkatuta, soroan ipintzeko>.

- Kortezubin (B): *Ereiñotza eroaten da eleixara. Kristo astoan ibili saneko, arexen signifikantzixe. A gorde eta igeskue erre.* <Ereinotza eramaten da elizara. Kristo astoan ibili zeneko, harexen signifikantzia ['ezaugarri']. Hura gorde eta iazkoa erre>.

- Behorlegin (NB): *Erramia beneikatzen, ta ua sartzen da sakolan. Ta etxetan'ee ezartzen da, pieza guzitan; bordetan berdin. Erraiten'tzuten aire gaxtotik-eta beiratzzen ziela.* <Erramua bedeinkatzen [da], eta hura sartzen da sakelan. Eta etxetan ere ezartzen da, pieza ['gela'] guztietan; bordetan berdin. Erraten zuten, **aire gaiztotik**-eta ['tximistatik', 'harritik'] begiratzzen zuela>.

- Bolibarren (B), hango lekukoak luze eta xehe jardun du Erramu egunez egiten zen erritoaren gainean. Halaxe dio: *Leen erinotza..., senba'solo seunkesan, arenbeste kurutze; kurutzak endde. Asentxio eunien partitze'sien, lengo sarrak solo daneta; letainak i'tte..., ermitteta. Ori Asentxioneko iru egunetan. Da an artze'san ermitte bakoitxien ur bedeinketue, ta gero arekin danakin solo danetan partiuko, solo danetan, ta ur bedeiketue bota... On es. Sorginen kontra ta, trumoyan kontra ta, pestien kontra edo gaixuen, soloko gaixuen kontra.* <Lehen ereinotza..., zenbat soro zenituen, hainbeste gurutze; gurutzeak eginda. Asentsio ['Igokunde'] egunean partitzen ziren, lehengo zaharrak soro denetara, letaniak egin-eta..., ermitetara. Hori Asentsioko hiru egunetan. Eta han hartzen zen ermita bakoitzean ur bedeinkatua, eta gero harekin denarekin soro denetan partituko ['banatuko'] zen; soro denetan, eta ur bedeinkatua bota... Orain ez. Sorginen kontra eta, trumoiaren kontra eta, pesteen ['izurrien'] kontra edo soroko gaixoen kontra>.

- Deban (G) ere zehaztasun handiz garatu ditu berriemaileak erramuak bedeinkatzea eta soroetan banatzea nola egiten zen: *Leno erramua. Erramu eunian bereinkau ta gero an sera itxe'seben: autza, intzentzua; ta gero apaiza etortze'san. Ni juxtu-juxtu akordatze nais. Ni txikixa nitzala, orduan asi san galtzen. Akordatze nais nola etortze'sian don Bitorio ta monagilluekin ero akolituekin, ba, akolitxua-ta etortze'sian, da souetara jun da bereinkasiua itxe'san, euren orasiuak ein da autz ori.* <Lehenago erramua. Erramu egunean bedeinkatu eta gero han, zera egiten zuten: hautsa, **intsentsua**; eta gero apaiza etortzen zen. Ni justu-justu akordatzen naiz. Ni txikia nintzela,



orduan hasi zen galtzen. Akordatzen naiz nola etortzen ziren don Bitorio eta monagilloekin edo akolitoekin, ba, akolitoa-eta etortzen ziren, eta soroetara joan eta bedeinkazioa egiten zen, euren orazioak egin eta hauts hori>.

- Altzürükün (Z), Erramu egunez prozesioa egiteko ohitura bildu da, eta ondoren erramua etxean nola eta zertarako gordetzen zen ere azaldu digute: *Erramüz prosesionia erramieki, uai eilherrien üngüian, eta etxen ezarten, eta beiatzen, urthian hil bat agitzen balin bada. Tenpesta delarik ezkoa phizten eta Erramü hosto bat ezarten ezko benedikatiekin.* <Erramuz prozesioa erramuekin, orain hilerriaren inguruan, eta etxean ezartzen [zen erramua], eta begiratzten ['zaintzen'], urtean hil bat agitzen ['izaten', 'gertatzen'] baldin bada. **Tenpesta** ['ekaitza'] delarik **ezkoa** ['argizaria'] pizten eta Erramu hosto bat ezartzen [da] ezko ['argizari'] bedeinkatuarekin>.

Joxe Migel Barandiaranek bildua da honako hau ere: «Erramu egunez bedeinkatutako abarrak atarian erretzen dituzte» (ELG).

\*\*\*

- Oiartzunen (G) jaso da Erramu eguneko ohitura bat, berariaz Iparraldean gehiago hedaturik dagoena, eta hauxe da: mezatan ebanjelio esaten zen bitartean, norbait elizatik irten eta zer haize-modu zegoen begiratztea zen ohitura. Sineskizuna da, egun horretan egiten zuen haize berak joko zuela hurrengo berrogei egunetan. *Erramu euneko ebanjeliyua esaten ai dienin, egualdi aizia nundi don, berrogei eguneko aizia: "Erramu aizia, berrogei euneko aizia".* <Erramu eguneko ebanjelioa esaten ari direnean, eguraldi-haizea nondik dagoen, berrogei eguneko haizea: "**Erramu haizea**, berrogei eguneko haizea">.

- Lekarozen (N): *Erramu egunien saran [kontsagrazionian] zer aize dagon, ze aize gelditzen den, ure Garizme guzien... Ude guzien ur'è.* <Erramu egunean **sagaran** ['kontsakrazioan'] zer haize dagoen, zer haize gelditzen den, hura Garizuma guztian... Uda guztian hura ere>.

- Hendaian (L): *Erramu egunian, ebanjeliyo denboran, leen gizonak ateatzen omen'tzien kanporat... Eta ben mokanesa ematen omen'tzuten ola, eta aizia*

*nundik jotzen'tzuen eta berrogoi egunian aize arek joko zuela.* <Erramu egunean, ebanjelio denboran, lehen gizonak ateratzen omen ziren kanpora... Eta beren **mokanesa** ['musuzapia'] eramaten omen zuten hola, eta haizea nondik jotzen zuen, berrogei egunean haize hark joko zuela>.

- Mugerren (L): *Behar ziren laborariak kanporat joan, ikusteko haizia nundik zen; iphar haizia ala nortekoa, nundik heldu zen. Leku txarretik balin bazen, urte guzian denbora txarra erten zuten, tristia.* <Laborariak kanpora joan behar ziren, ikusteko haizea nondik zen; ipar-haizea ala nortekoa, nondik heldu zen. Leku txarretik baldin bazen, urte guztian denbora txarra erraten zuten, tristea>.

- Jutsin (NB): *Gizonak yoaiten ziren ebanyelio denboran kloxxerreat behatzera, t'haizia nuntik zen gisala berroi egunez irauten ziela. Sinesten zuten errotik.* <Gizonak joaten ziren ebanjelio denboran **kloxerrera** ['klaustrora'] begiratzera, eta haizea nondik zen gisara berrogei egunez iraungo zuela. Sinesten zuten errotik>.

- Sohütan (Z): *Lehen elkhitzen zelaik pasione denboan kanpoat so egitea ze denboa zen, eta gio huak atxikiko ziela berrogoi egünez gio.* <Lehen ilkitzen ['irteten'] zirelarik pasio denboran kanpora so egitera zer denbora zen, eta gero hark atxikiko zuela berrogei egunez gehiago>.

- Montorin (Z) ere, **haizeak nondik buhatzen** zuen ikustera ateratzen ziren: *Hamar oenetan meza handian, behar dela jentia kxanpo jelkhi, zaharrak elkhitzen zütütüzün eliza aitzinilat. Nuntik eta buhatzen beitzin aizik, urt'ootako bazela, eta biarnesez ere: "er aide de ramo que buho tout l'an".* <Hamar orenetan meza handian, behar dela jendea kanpo[ra] jalgi ['atera']. Zaharrak ilkitzen ['irteten'] ziren eliza aitzinera. Nondik eta buhatzen ['jotzen'] zuen haizeak, urte orotarako bazela, eta bearnesez ere [gauza bera esaten da]: "Er aide de ramo que buho tout l'an">.

- Eskiulan (Z): *Zunbait baziren, nik ez, zunbait, oh bai! Ezagütütüt zunbait... Hortxeko gizona, junik dia denak... Erramü egünaeki, meza denboan, eta uste düüt Jesükristoen pasionia iakurten zen denboan, eta ordin memento hartan segür so egiten zien zuñ aldetaat, ezarten zien oihal bat eta zer baten gañin, jakiteko nunt'i'horra zen aidia. Hor bazen sinbeste süerte bat, eta azkarra. Hoi, hua egin zina ezagütü düüt.* <Zenbait baziren, nik ez, zunbait, o bai! Ezagutu ditut zunbait... Hortxeko gizona, joanik dira denak... Erramu

egunarekin, meza denboran, eta uste dut Jesukristoren pasioa irakurtzen zen denboran, orduan momentu hartan segurki so egiten zuen zein aldetara, ezartzen zuen oihal bat zer baten gainean, jakiteko nondik nora zen airea [‘haizea’]. Hor bazen sineste suerte [‘mota’] bat eta azkarra. Hori, hura egin zuena ezagutu dut>.

- Isturitzen (NB), aldiz, egun horretan zegoen haizea urte guztirako haizea zela esaten omen zuten: *Erramuz, urtheko meteo hartatik jalitzen zuten. Ebanjelio denborako haizia, urthe guzian hala-hala*. <Erramuz, urteko metereoa hartatik jalgitzen [‘ateratzen’] zuten. **Ebanjelio denborako haizea**, urte guztian hala-hala>.

Errefrau gisa ere gorde da sineskizun hau berau, **sagarako haizeak** berrogei egunetz joko duena, Gipuzkoako goi-nafarreraz: «Erramu eguneko sagarako aizeak berrogei egunetz jotzen du» (EZBB I 98).

\*\*\*

Bestelako sineskizun eta ohituren artean aipagarri ditugu hurrengo hauek:

**Erramu larunbatez** edo **Erramu ostiralez** barau egitearena. Azkuek bildua da Nafarroako Larraunen, hauxe: «Erramu larunbata eta Lazaro ostiralez barutzen dana salbatuko da» (EY I 119).

Erramu egunaren inguruan diren esaera eta errefrauen artean bi nabarmenduko ditugu.

— Lehenengoa, emakumeen gainekoa. Emakume bat ezkondu baino lehen haurdun geldituz gero, Iparraldeko hainbat lekutan, «**Pazko egin, Erramu baino lehen**» esaera erabiltzen dela jakin dugu, halaxe agerira eman baitute anitz lekukok. Esaterako:

- Azkainen (L): *Hunek “Bazko in du, Erramu baino lehen”*. <Honek “Pazko egin du, Erramu baino lehenago”>.
- Armendaritzen (NB): *Noait espaantxatzen bazen’ erten’tzuten: “Pazko, Erramu baino lehen”*. <Norbait **esperantzatzen** bazen ere, erraten zuten: “Pazko, Erramu baino lehen”>.

- Behorlegin (NB): “*Bazko, Erramu bano leen*”, gazte batzuindako; *eztakit, esposatu bano leen ukaita baute, aurra balin baute*. <“Pazko, Erramu baino lehen”, gazte batzuendako; ez dakit, esposatu baino lehen ukaiten [‘edukitzen’] badute, haurra balin badute>.

- Altzürükün (Z): *Nurbait espantxetan balinbada ezkontü gabe: “Egin dia Bazko, Erramü beno lehen?”*. <Norbait esperantzetan baldin bada ezkondu gabe: “Egin dua [‘egin al du’] Bazko, Erramu baino lehen?”>.

— Eta bigarrena, abeltzaintzari lotua; Baigorri (NB) bildua: «Andredena Martxoko, behia larrean aseko; Erramu egunerako, zezena da beldurxko» (NEZ 2420).



Kristau erlijioan Kristoren biztuera ospatzen den egunaren izena bat eta bera da euskararen eremu osoan: **Pazko**. Baina Nafarroaren erditik ekialderantz, Zuberoan eta Iparraldeko beste zenbait eremutan *Bazko* forma da, ordea, erabiltzen dena, EHHAren emaitzen arabera. Era berean, bai bataren zein bestearen aldaerak ere badira, betiere guztiz elkarrengandik hurbilak.

Bestetik, «Pazko» erabiltzen da euskara mintzatuaren sartaldean, erdialdean eta Nafarroa sartaldean. Halaber Lapurdi eta Nafarroa Behereko lurraldeen zati handi batean. Aldaera nagusitzat, *Pazkoa* (eta *Paskoa*) eta *Pazkua* (eta *Paskua*) ageri dira herri batzuetan, azken «-a» bokala erantsia dela gehienetan:

- Jaurrietan (N): *Paskua egune*.
- Bergara (G): *Pazkua egun(a)*.

«Pazko», edo *Bazko*, soilik erabiltzen direnean, mugagabez gramatikatzen da: «Noiz da Pazko?». Errefrau barruan argi ikus liteke erabilera hori ere: «Ihaute itxilor, Bazko urikor, moltsa betekor» (EZBB II 11).

Mugagabez erabilia denean, hau da, «Pazko» edo *Bazko*, eguna bera seinalatzeko du zehazki. Eta berdin, «egun» izenaz elkaturik ageri denean: **Pazko egun**, edo *Bazko egun*. Bizkai, Gipuzkoa eta Nafarroako herri askotan maiztasun handiz erabilirik ageri da «egun» izenaz elkaturik. Hala:

- Getxon (B): *Pasko egun(e)*.
- Andoainen (G): *Pazko euna*.
- Arbizun (N): *Pazko eguna*.
- Alkotzen (N): *Bazko egune*.
- Etxalarren (N): *Bazko eguna*.

Pluralez ere maiz erabili ohi da (denbora-ziklotzat hartuta), berariaz Hegoaldean: **pazkoak** edo **pazkoetan**. Hala esan ohi da: «Pazkoak dira laster»; «Pazkoetan datoz gurera». Lekukotasun gardenak bildu dira idatziz: *Barrakak etortzen die paskuetan* (J.M. Elexpuru). <Barrakak etortzen dira pazkoetan>; «Pazkoetan Bergaran» (*JanEd* II); «Kutxillotxua ekarriko'iat / pazkoetan Bergarati» (*BertsoB*); «Bein pazkoak pasa ezker, asten ziran artzaiak mendira joaten» (*Aierbe*).

Sartaldean, hitz-elkarketa «domeka» izenaz ere egiten da: **Pazko domeka**. Berbarako, Arrietan (B) eta Arrazolan (B): *Pasko domeka*.

Egun honi loturik hainbat ohitura eta sineskera dira, eta era askotakoak, inkesta bidez herriz herri jaso direnak.

Pazko eguna, urteko egun guztiz seinalatua denez kristau-gizartean, zelebratze-moduetan ere ageri da egun horren berezitasuna.

— Janari kontuan, zer jaten den egun horretan, honako testigantzak bildu dira EHHAn:

- Bardozen (L) **bildoskia** eta **moleta** edo tortilla jateko ohitura: *Bildotsa eta omoleta're, hua lehen plata eta gio bildotsa. Hola zen ordian*. <Bildotsa eta moleta ere, hura lehen platera eta gero bildotsa. Horrela zen orduan>.

- Arboti-Zohotan (NB), Pazko eguna **arrautza-egun** (ahoz, *arrotze-egün*) bezala aipatu du lekukoak, arrautzak, urdaiazpikoa-eta jaten zutela esanez: *Lehen arrotze geiho yaten, arrotze-egüna, eta xarküteria eta yanbun zaharra're ez gaixto, balin bazen. Zonbeitak beiratzan eta atentziones Pazkoz jateko... Heen'e ikbusi diat.* <Lehen arrautza gehiago jaten [zen], arrautza-eguna; eta txarkuteria eta **janbun** ['urdaiazpiko'] zaharra ere ez gaizki, baldin bazen. Zenbaitek begiratzan [zuten] eta atentzioz Pazkoz jateko... Hemen ere ikusi diat>.

- Arbotin (NB), jatun handi zirenen, «papogorrien» jokaera bildua da: *Paphogorriak etzitian Bazko astelehenaekilan bezik juiten mezala.* <**Papogorriak** ez zituan **Pazko astelehenarekin** baizik mezara joaten>.

- Urdiñarben (Z) ere izan da, arrautzak habietatik bildu eta **Pazko goizean** moleta egiteko ohitura: *Arrautzik biltzen habietaik elk'eta, etxenkuek gordatzen eta Bazko goizan ekhartan hok, eta muleta bat jaten'hin.* <Arrautzak biltzen, habietatik jalgi ['atera'] eta, etxeokoe gordetzen eta **Pazko goizean** ekartzan [zituzten] horiek, eta meleta bat jaten zuten>.

- Sohütan (Z) ere usadio bera bildu da: *Arrotz-moleta buxeuekila jaten; tradizionia züzün arrotz-moleta.* <Arrautza-moleta buxeuekin ['perretxikoeekin'] jaten [zen]; tradizioa zen arrautza-moleta>.

- Montorin (Z), moleta prestatzearen ohiturarekin batera, zenbat arrautzatak tortilla egiten zen ere jaso da: *Gizun hun batek behar zien hamabi arrautzekin eginik jan muleta. Hoi ikusi dit nik. Ene aitañin osaba batek, gizon zahar bat, eta haek hamabi arrautze jaten, eta ardu burrat bat hunik gibeletik.* <Gizon on batek behar zuen hamabi arrautzarekin eginik moleta jan. Hori ikusia dut nik. Ene aitañiren osaba batek, gizon zahar bat, eta hark **hamabi arrautza jaten**, eta **ardo burrat** ['zurru'] bat honik gibeletik>.


Sartalderengo hizkeretan Pazko egunez **mokots** deritzan opil mota eskaintzearen ohitura bildu da. Orokorrean amabitxik besoetakoari, opari gisa.

- Bolibarren (B), saritzat mokotsa ematearena honela kontatu da: *Ama besotakok "mokotza". Opille, apropos eindekue, biribille, meye.* <**Amabesoetakok** "mokotsa". Opila, apropos egingakoa, biribila, mehea>.

- Etxebarrian (B) ere *mokotza* oparitzat ematearen usadioa aipatu da, baina galduz doala ohar eginez: *Bai, diru sarixe-ero... Lena opil bet isete'sen, "mokotza", biribil-biribille isate'san, bigun-bigun-bigune [...] axe. Ta geo, pesta bat-edo, erriel aundiko txiki bi-edo... Aintzinako oitturak, e? Ta on, e, erregalutxo bat.* <Bai, **diru saria**-edo... Lehenago **opil** bat izaten zen, "mokotsa". Biribil-biribila izaten zen, bigun-biguna [...], huraxe. Eta gero, **pezeta bat**-edo, **erreal handiko txiki bi**-edo... Antzinako ohiturak, e? Eta orain, erregalutxo bat>.

- Armendaritzen (NB), **amabitxiak** besoetakoari lau adarreko ogi bedeinkatua oparitzeko ohitura bildu da: *Bildotxa ta ogi beneikatia, eta amatxiek'e ofreitzen'tzutun ogia beren alaaxier, ogi bat zen lau adarrekilan.* <Bildotsa eta **ogi bedeinkatua** [jaten zen], eta amatxiek ['amabitxiek'] ofrezitzen zuten ogia beren **alababitxiei**, ogi bat zen lau adarrekin>.

Iparraldean **marrakuku** (ahoz, *marrukuku*) deritzon opil mota ere aipatu dute, arto-irinaz eta gatzaz egina; hura oparitzat eman izan zaio besoetakoari Pazkoz. Errefrau bihurturik heldu zaigu nekandua: «Amatxik Bazkoz semetxiari marrukukua» (EZBB I 32).



Bildotsa, **pazko-bildotsa** —edo **bildots pazkoetakoa**— jateko ohituraz, hara zer dioen Añibarro bizkaitar idazle klasikoak: «Atxinako bildots pazkoetakoa [...] jan oi zan letxuga edo urraza garratz-minakaz nasturik» (LS).

— Su berriaren ohitura ere izan da Pazkoz. **Su berria** eta **ur bedeinkatua** Pazko egunez etxera ekartzeko usadioa ohikoa izan da hainbat lekutan. Hara horren inguruan bildu diren zenbait testigantza:

- Beasainen (G) larunbatez sua eta ura elizan bedeinkatzen omen ziren, gero etxera ekartzeko. Halaxe kontatu du hango berriemaileak: *Aste Santun, zapatun, ia santuk-eta libratzen dienen, Jesukristo kartzelati etaatzen danen, ordun eitten da ardagaie, su berrie beinkatzen da zapatun... Denboa'ten, ardagai koskorra eaman, da an apaizek beinkatzen'tzon sue, ta bota itten'tzon eliz atain. Da ardagaie eamaten'tzendun, eta arekin sue artu ta etxea ekartzen'tzendun, eta etxea ekarri ta botatzen'tzan: "Otxi zarra ta ekatzu berrie!". Ortik, palekiñ artu ta txingar bat kanpoa; da geo, koskor ori, zea, ardagai koskor ori botatzen'tzaion suri ta... Ue're zean, zapatun, udu'e botilla baten, denboa'ten. <Aste Santuan, zapatuan, ja santuak-eta libratzen direnean, Jesukristo kartzelatik ateratzen denean, orduan egiten da **ardagaia**, su berria bedeinkatzen da zapatuan... Denbora batean, **ardagai-koskorra** eraman, eta han apaizak bedeinkatzen zuen sua, eta bota egiten zuen eliz atarian. Eta ardagaia eramaten zenuen, eta harekin sua hartu eta etxera ekartzen zenuen, eta etxera ekarri eta botatzen zen: "**Eutsi zaharra eta ekarzu berria!**". Hortik, palekin hartu eta txingar bat kanpora; eta gero, koskor hori, zera, botatzen zitzaion suari. Ura ere, zerean, zapatuan, ura ere botila batean [gordetzen zen], denbora batean>.*

Nafarroan ere halatsu bildu dira ohiturok:

- Dorraon (N), **egur sudunaz** mintzo zaigu: *Suba ta ura bereiketzen dia elizen [...]. Suba apezak. Eta geo egur bat ematen dezuz, ta bestea, suduna, etxea. Zuk emate'zu egurra, eta apezak, an suba inik eoten do, bereiketui. Ta an auzten dezuz makil bet ta beste'at artu, ta itxea [...]. Ta geo ur beiketuba're bei. <Sua eta ura bedeinkatzen dira elizan. Sua apaizak [egiten du]. Eta gero egur bat eramaten duzu, eta bestea, suduna, etxera. Zuk eramaten duzu egurra, eta apaiza, han sua eginik egoten da, bedeinkaturik. Eta han uzten duzu makila bat, eta beste bat hartu, eta etxera. Eta gero ur bedeinkatua ere bai>.*

- Gaintzan (N), su zaharraz eta su berriaz jardun du: **su zaharra kendu** eta **su berria egin**, dio. Hona hemen haren hitzak: *Sue beikatzen da pazkotan, launbetean; sue ta ure. Ur beiketue eoten da elizen, da guk artzen du bakotzek guk nai duna [...]. Ta Erramu osto oe artu ta, etxean aitzen naiz ni, etxea beiketzen neoni; igual balio'men do. Etxea beiketzen dot [...]. Ta sue, lengoko zarra, su zarra kendu ta angoakin berrie en.* <Sua bedeinkatzen da pazkoetan, larunbatean; sua eta ura. Ur bedeinkatua egoten da elizan, eta guk hartzen dugu, bakoitzak guk nahi duguna. Eta **Erramu hosto** hori hartu eta, etxean aritzen naiz ni, etxea bedeinkatzen neroni. Berdin balio omen du. Etxea bedeinkatzen dut. Eta sua, lehengo zaharra, su zaharra kendu, eta hangoekin [su] berria egin>.

- Arboti-Zohotan (NB), apaizak bedeinkaturiko sua zuen ardagaia etxez etxe eramaten zen su berria pizteko. Herri horretako berriemaileak **su berria barnera ekarri** eta **su zaharra kanpora aurtiki**, dio. Hauxe haren testigantza: *Hau phizten gindikan, aphezak benedikatu süain hua. Oai eztik geihau iten, nihuk'e. Ardai hua phizten eta etxez etxe emaiten, izan nuk frangotan haurrian. Sü berria barneat, sü zaharra —süphazterreko süia— kxanpoat aurditzen eta sü berria barneat.* <Hau pizten genian, apaizak bedeinkatu suaren hura. Orain ez dik gehiago egiten, inork ere. Ardagai hura pizten eta etxez etxe eramaten, frankotan izan nauk haurrean ['umetan']. Su berria barnera, su zaharra —**supazterreko sua**— kanpora aurtikitzen eta su berria barnera>.

- Arbotin (NB): *Pazko bezperan, sü berria ardaiaekilan, hua ekharten ephiztüik, ardaia. Süia, hentik kxanpoat aurditzen sü zaharra, eta berria sartzen. Oai eztau iten, "partout". Au Bearn ez hala, expitziren debotak biziki Biarnon. Eta ur benedikatia're ekharten etxeat ordian süiaekilan.* <**Pazko bezperan**, su berria ardagaiaekin, hura ekartzen [zen etxera] pizturik, ardagaia. Sua, hemendik kanpora aurtikitzen [zen] su zaharra, eta berria sartzen. Orain ez diagu egiten, inon ere. Bearnon ez [zuten egiten] hala, ez baitziren biziki debotoak Bearnon. Eta ur bedeinkatua ere etxera ekartzen [zen] orduan suarekin [batera]>.

- Ezterenzubin (NB) ere ezaguna da ohitura hori; **sua kanbiatu** egiten zela dio: *Suia kanbiatzen zen Bazko bezperan, suia eta hur benedikatia.* <Sua aldatzen zen Pazko bezperan; sua eta ur bedeinkatua>.

- Oiartzunen (G), ohitura zen **Pazko bigarreanean** mendi-tontorretan sua egitea, Kristoren piztuera gogorarazteko. Horrez gain, herriko neska-mutilak

ardagaiarekin (ahoz, *kardakaya*) etxez etxe sua, su berria, eramaten ibiltzen ziren sos batzuen truke: *Pazku bigarrenin'è itten da mendi muturretan emen, sua. Bai, emen Urkabe mendia bada ta, sua, Pazku bigarrenen. Esan nai du piztuera. Geo ur bereinkatua ta geo su bereinkatua're itxe guzita partitu itten da kardakayakin... Ta ura iartzen iuki urte guziyan itxian. Ta geo joten dia Pazko launbatian, ura, ur bereinkatun billa. Ta kardakaya oi iar-iarra eoten da. Ta suu'man, ta itxeta jote'ia, ta sukaldea makill batekin "ta!" Ta! ta! [jo], ta txinparta botata, su bereinkatua... Eta sosak emate'izkate umiai, ta jo! <Pazko bigarrenen ere egiten da **mendi-muturretan** hemen, sua. Bai, hemen Urkabe mendia bada eta, sua Pazko bigarrenen [egiten da]. Piztuera esan nahi du. Gero ur bedeinkatua eta su bedeinkatua ere etxe guztietara partitu egiten da ardagaiarekin... Eta hura ihartzen eduki urte guztian etxean. Eta gero joaten dira **Pazko larunbatean**, ura, ur bedeinkatuaren bila. Eta ardagai hori ihar-iharra egoten da. Eta sua eman eta etxeetara joaten dira, eta sukaldera, makila batekin "ta!" Ta!, ta! [jo], eta txinparta botata, su bedeinkatua... Eta **sosak ematen** dizkiete umeei>.*

— Bazen, bestetik, diru pixka baten truke etxerik etxe ibiltzeko ohitura ere.

- Eibarren (G): *"Su barrixa" esate'akon Pazkuan... Gaur da Pazkoa, ta atzo etortia moruen, aurreko eunian etorte'zan. "Ixua" esate'ako arboliai eukitzen dauana, estana emetatzen. Garrik estau eitten, txingarra bakarrik. Aetxek etorte'sian etxetaa, ta mutxikin bat emon da sutaa bota. A! ta gero pagia emon bihar! "Su barrixa" esate'akon, sean moruan, ba, Jesukristo piste zan, aren moruan, ba. <"Su berria" esaten zitzaion Pazkoan... Gaur da Pazkoa, eta atzo etortzea moduan, aurreko egunean etortzen zen. "**Ixioa**" esaten zaio [sua] edukitzen duen arbolari, amatatzen ez dena. Garrik ez du egiten, txingarra bakarrik. Haietxek etortzen ziren etxeetara, eta **mutxikin bat eman eta sutara bota**. Eta gero paga ['saria'] eman behar! "Su berria" esaten zitzaion, zeraren moduan, Jesukristo pizten zen, haren moduan, ba>.*

\*\*\*

Pazko eguna aipu duten errefrauen artean, eguraldiaz diharduen ezagun bat da, bertsio diferenteekin.

- Errigoitin (B): *“Pasko euritzu, urte ogitzu” da esakerie.* <“Pazko euritsu, urte ogitsu” da esaera>.
- Urdiñarben (Z): *“Bazko ebite, urthe ogite”.* <“Pazko eurite, urte ogite”>.
- Armendaritzen (NB), Pazko urtean goiz izatearen gorabehera bildu da: *“Pazko goiz balitz, martxo ez balitz”.* <“Pazko goiz balitz, martxo ez balitz”>. Aditzera emateko nahikoa denbora izanez gero, lan guztiak burutu daitezkeela.
- Landibarren (NB), beste leku batzuetan bezala bildu da, haurdun den emakume ezkongabeei buruzko esaera ezaguna: *Espeantxetan zelaik ezkondu gabe, ori erten zuzun: “Pazko, Erramu baino lehen”.* <**Esperantzetan zelarik** ezkondu gabe, hori erraten zen: “Pazko, Erramu baino lehen”>.
- Ultzaman (N), D. Intzak jaso da hurrengo hau: «Bazko guziek il-zar: ireute (iñaute) guziek il-berri: errege Salomonek (Absalonek) ez du gose, ez egarri» (NEZ 1881). Eta esaera-biltzaileak berak erantsitako oharra: «Illa zelako berria emateko esana».

J. Etxeparek bere idatzietan dakarren bat jar dezagun, arloari amaiera emateko: «Aro txarraren ondotik iguzkia, Garizumatik lekora Pazko».

\*\*\*

Lokuzio bereziak ere badira pazkoei buruz.

Bat, Gipuzkoa aldean ageri dena: **arbiak loretan** egotearen irudia, hots, Pazko garaia dela aditzera emateko. Hala: «Anbat oraindik, irakurlea, Pazkoaz egiñ ez dezu! Arbiak loretan daude!» (*Euskal-Erria* aldizkaria, sinatu gabea, 1885). Eta bi, **Pazkotik Pazkora**, ‘noizik behin’ adieraz: «Bazkotik bazkora» (*Pouvreau*).



Eukaristiaren sakramentua ospatzen den egunari, kristau-gizartean egun handia den horri, zer izen ematen zaion eta horren inguruan zer ohitura den ere galdetu zitzairen EHHako berriemaileei.

Nomenklaturari dagokionez, **Bestaberri** ageri zaigu inkestetan, edo *Pestaberri*, ekialdekoa. Iparralde osoan eta Nafarroa goialdean ematen zaion izena da hori. Lehenagoko mendeetan Baionako elizbarrutiaren eta Oloroekoaren agindupean zeuden lurraldeetan eman izan zaio izen hori, oro har.

Euskarazko tradizio idatzi zaharrear ere hala deritzo. Lapurdin: «Egun berezia ohi da / Besta Berri eguna» (*Noelak*). Zuberoan: «Barkoxen Bestaberri / zen lehen besta handi, / bena ideki derezū zük muda eder hori» (*Etxahun*).

Bigarren saileko izenek latinez aspaldi zaharretik finkatua den Corpus Christi izenean dute sustraia. Izendapenotan barietate handiagoa ageri da, EHHaren arabera.

**Gorpuzti**, edo *Korpuzti*, sartalde zabalean (ahoz, *Korpuzti*). Aspaldi Calahorra edo Kalagurriko elizbarrutiaren barruan egon zen lurraldeko herri euskaldunetan. Euskal herri horietan mugagabez erabiltzen da, soilik erabiltzen denean: «Noiz da Gorpuzti?» Halaxe:

- Arrasaten (G): *Gorpuzti*.
- Ibarurin (B): *Gorpuzti*.
- Gizaburuagan (B): *Korpuzti*.

**Corpus** soilik, edo **Corpus Christi** osorik, edo horien aldaerak, erdialdeko lurraldean erabili izan dira: Gipuzkoarik gehienez eta Nafarroan, goialdeko alderdia kenduta.

*Korputz* aldaerak erabilera zabala du Gipuzkoako hainbat lekutan. Esate baterako:

- Ataunen (G): *Korputz* eta *Korputz eun*.
- Aian (G): *Korputz euna* eta *Korputzak* (pluralez).

«Corpus» izena soil eta mugagabez erabiltzen da batzuetan, baina baita «egun» izenaz lagundurik ere, sarritan: **Corpus egun**, alegia. Hala: «Iñauteri, Pazko jaiaz, Korpus egunez eta sanjuanetan zagi-ardoa ipintzen dute arkupetan, bezpera ondoan» (*Munita*). Berdin jazotzen da «Corpus Christi» izenarekin ere, elkarkuntzan: **Corpus Christi egun** ezaguna da. Esate baterako Aian (G): *Korpuskrixti euna*.

«Gorpuzti» eta «Corpus Christi» izenen ingurumarian, sartaldeko hizkeretan aldaera bitxiak erabili izan dira han-hor-hemen. Dakartzagun batzuk:

- Arrietan (B): *Korpuskisti*.
- Zeanurin (B): *Gorpuskisti* eta *Gorpuskisti egunean*.
- Aian (G): *Korpuskrixti*.
- Otxandion (B): *Gorpurusti*. Halaxe: *Esta(k)it senbatgarren egune ixiten dan Gorpurusti, baño lenau Asensixo ixiten da*. <Ez dakit zenbatgarren eguna izaten den Gorpuzti, baina lehenago Asentzio izaten da>.
- Aramaion (A): *Gorpugusti*.
- Lekeition (B): *Gorpurkristi*.

Erromantze zaharren bertsio batean *Kopokristoak* aldaera ere azaltzen da, pluralez: «Trinidadeak eta / Kopokristoak, / eldu dirade Paskua / maiatzekoak» (*Balad* 205).

Noiz izaten den jaiegun hau era diferenteetara adierazi dute lekukoek:

- Lemoizen (B) hala esan dute: *Ori ixeten da Garisumeas; segun selan urteten deun*. “*Generalmente*” *junion ixeten da*. <Hori izaten da Garizumaz; segun zelan irteten den. Jeneralean junio(a)n [‘ekainean’] izaten da>.
- Arrazolan (B), aldiz, beste era honetara: *Asentzixotik berrogei egun. Maietz ingurue, Asentzixo; gero berrogei egunera, Gorpusti*. <Asentsiotik berrogei egun. Maiatz inguruan Asentsio; gero berrogei egunera, Gorpuzti>.
- Gizaburuagan (B): *Paskotik Pasko Pentekostera dire berrogei egun. Korpusti, Pentekostetik iru astera-edo da Korpusti*. <Pazkotik Pazko Mendekostera dira berrogei egun. Gorpuzti, Mendekostetik hiru astera-edo da Gorpuzti>.

- Aramaion (A): *Asentzixo, paskuetatik berrogei egunera. Jesukristo serure igo sana. Andi amar egunera, Gorpugusti.* <Asentsio, pazkoetatik berrogei egunera. Jesukristo zerura igo zena. Handik hamar egunera, Gorpuzti>.

\*\*\*

Nola zelebratzen izan da egun hau? Ikus dezagun.

Egun honetako ospakizun nagusiak prozesioa eta elizkizunak izan dira. Zenbait lekutan aldareak jartzen ziren herriko kaleetan, maindireak eskegitzen ziren etxeetako balkoi zein leihoetan eta kaleak lorez betetzen ziren.

- Bolibarren (B), plazan jartzen zen aldarea, eta prozesioak igaro behar zuen lekuetan **ihiak** (ahoz, *ixek*) botatzen ziren: *Bedarrak batu, ixek-eta, bedar espesialak... Ta bidien dana botatze'san, prosesi(oa) pasatze'san lekutan. Altarie be igul ipintze'san plasan da... On es.* <Belarrak batu, ihia-eta, belar ezpezialak ['bereziak']... Eta bidean dena botatzen zen, prozesioa pasatzen zen lekuetan. Aldarea ere igual ['beharbada'] ipintzen zen plazan eta... Orain ez>.

- Etxebarrian (B) ere meza ostean egiten zen prozesioa. Ohitura zen, ihia eta **arrosa-orriak** botatzea. Hala kontatu du lekukoak: *Mesie kantau ta geo prosesinoa kaletik, elis bueltan... Bai, ixek, erreka onduen-da, da larrosa orriek. Lenengo Jaunartzia umiek, larrosa-orriek, sestuan [...], ta geo arek, ixek, batu itte'sian; bakotxek eskueta banan. Ta geo isate'sien, urrengo San Juan eunien sube bisteko [...]. Moltzua artze'san, eskun, esta?, ta gorde. Da San Juan eunien, San Juan su [...]. Illunkeran, San Juan besperan da San Juan eunien, su emoteko... iixei, ta geo sasixek-eta... <Meza kantatu eta gero prozesioa kaletik, eliza bueltan... Bai, ihia [biltzen ziren], erreka ondoan-eta, eta arrosa-orriak. Lehenengo jaunartzea [egiten zuten] umiek [eramaten zituzten] arrosa-orriak, zestoan ['otzaran'] [...], eta gero haiek ihiaiek batu egiten ziren; bakoitzak eskuetan bana. Eta gero izaten ziren, hurrengo San Juan egunean sua pizteko [...]. Multzoa hartzen zen eskuan, eta gorde [egiten zen]. Eta **San Juan egunean, San Juan sua** [...]. Ilunkeran, **San Juan bezperan** eta San Juan egunean, su emateko ihiei, eta gero sasiak-eta...>.*

- Elgoibarren (G), **mihilua** jaurtitzen omen zen zoruan, prozesioak igaro behar zuen bidean barrena: *Mieluak botatze'sian. Mieluakin, kale gustian*

*mielua bota, ta gero kaletikanè, altara bitxartian alfonbra aundi bat, abaria(k) ixo daixen alfonbran gañian... Gero, ba, prosexixua amaitutakuan mieluak kentze'sitxuen.* <Mihiluak botatzen ziren. Kale guztian mihilua bota, eta gero kaletik ere aldare bitartean alfonbra handi bat, abadea igo dadin alfonbraren gainean... Gero, ba, prozesioa amaitutakoan, mihiluak kentzen zituzten>.

- Orexan (G) ere aldarea jartzen zen plazan eta **ezpata-belarrak** zabaltzen ziren kaleetan zehar: *Len prozesioa, plazan gañea, plazati bueltan, an Jaune patentea jartzen zuten plazan, eitten'tzuten ola, aldarea bezela, da, an Jaune patenteakin, apaizak altxa ta jetxi, ta geo zea botatzen'tzioten, su ze ori, intsentsua.* <Lehen prozesioa, plazan gainera, plazatik bueltan. Han **Jauna patentea** jartzen zuten plazan, egiten zuten hola, aldarea bezala, eta han Jauna patentearekin, apaizak altxa eta jatsi, eta gero zera botatzen zioten, su zer hori, **intsentsua**>.

Eta aurrerago:

Inkestagilea: *Zer landare botatzen'tzan lurrea? <Zer landare botatzen zen lurrera?>.*

Lekukoa: *Ezpata-belarrak, ezpatabelarrak izate'ia. Ola moxtu ta "fiii!" [keinuz], jotze'ue umeak. Umeak sekuleko txixtuek ateatze'ittue oiekin. Ta geo ie-belarra; bi belar botatzen'tzien prosezioa pasa bea'tzun tokian. Asto batekin joan da ekartze'giñuzen. Baserritarrak joan asto batekin, da moztu itaiakin, da ekartzen giñuzen, ta bota elizen bueltan, da geo plaza birean... Jesusen Biotzeko Euna, urdun ateatzen'tzian balkoieta Jesusen Biotzeko zea, irudia, maindere batei eantsita etxe guztian. Urduntxe ateatzen'tzan, bai.* <Ezpata-belarrak, ezpata-belarrak izaten dira. Honela moztu ta "fiii!", jotzen dute umeek. Umeek sekulako txistuak ateratzen dituzte horiekin. Eta gero ihi-belarra; bi belar botatzen ziren prozesioak igaro behar zuen tokian. Asto batekin joan eta ekartzen genituen. Baserritarrak joan asto batekin, eta moztu igitaiarekin, eta ekartzen genituen, eta bota elizaren bueltan, eta gero plazara bidean... Jesusen Bihotzeko Eguna, orduan ateratzen ziren balkoieta Jesusen Bihotzeko zera, irudia, maindire bati erantsita etxe guztietan. Orduantxe ateratzen zen, bai>.

- Oderitzen (N), eliz ospakizuna beste lekuetan bezalatsu ospatzen bazen ere, Corpus eguneko gizarte-ospakizunak bazituen berezitasunak. Mezaren

ondoren herri guztiak parte hartzen zuen prozesioa egiten zen. Gizonek zein emakumeek parte hartzen zuten horretan: aurretik gizonak joaten omen ziren, tartean estandartea, eta ondoren emakumeak. Prozesioa eta meza bukatu eta gero, herriko ostatuko ostalariak prestaturiko hamarretakoa egiten zen herriko plazan. Gazta eta ogia franko jan ondoren, enkante moduko bat egiten zen. Botilero-arduran zegoenak **pinta ardoak** ateratzen zituen, eta apaizak ekartzen zuen argizari bat erabiliz, hurrengo urteko botileroak zenbat pinta ardo atera beharko zituen jokatzeko zen. Horrela, bada, hamarretako hartan edaten zen ardoa herriak ordaintzen zuen, baina arratsaldekoa, aldiz, **botileroak!**

Lekukoaren esanak hauexek: *Bezperan eitten'tzen kalea garbitu, bideak, bideak garbitu biramoneako. Biramonin ekartzen'tzen ya belarra, oso berexia, ta botatzen'tzen bidean, prosesioa pasatu bea'zen lekua.* <Bezperan egiten zen kalea garbitu, bideak, bideak garbitu biharamunerako. Biharamunean ekartzen zen ihi-belarra, oso berezia, eta botatzen zen bidean, prosesioa pasatu behar zen lekura>.

Eta aurrerago:

Inkestagilea: *Ze belar botatzen zen? <Zer belar botatzen zen?>.*

Lekukoa: *Belar berdea, belarra ekartzen'tzen berexia bezela, (g)oxo bat. Ordun botatzen zen oi bidian denen. Ordun atea'tzen zen prosesioa; "bueno", joaten'tzen biramonien ya elizea belarra botata ta ya meza eman ondoren ateatzen'tzen denak, ba, alkatea-ta... Ta alkateak artzen'tzun gurutzea, palioa artzen'tzin lau gizonek, eta "estandarte" esaten'tzitziona artzen'tzun emakume batek. Ta arrek eamaten'tzittun bi soka, estandarte arrek, bana joaten'tzen bi neskato, ta berexia jun bear zin gurutzea aurretik. Meza-launtzalek beren argizariakin, paren, gurutzean paren. Apeza(k) jun bear zun gurutzean atzetik, lau launen azpian eta gero atzetik joaten'tzen estandartea, ya emakumek bexten'tzittun lekua. Aurretik joaten'tzen gizonak, gero estandartea; eta, ba, estandartek bexten'tzittun emakumeak eta gizonak. <**Belar berdea**, belarra ekartzen zen berezia bezala, gozo bat. Orduan batatzen zen hori bidean denean. Orduan ateratzen zen prosesioa; "bueno", joaten zen biharamunean ja elizara belarra botata eta ja meza eman ondoren ateratzen ziren denak, ba, alkatea-eta... Eta alkateak hartzen zuen gurutzea, **palioa** hartzen zuten lau gizonek, eta "estandarte" esaten zitzaiona hartzen zuen emakume batek. Eta*

hark eramaten zituen bi soka, estandarte hark; bana [hartuta] joaten ziren bi neskato, eta berezia joan behar zuen gurutzea aurretik. Meza-laguntzaileak bere argizariarekin, parean, gurutzearen parean. Apaizak joan behar zuen gurutzearen atzetik, lau lagunuen azpian, eta gero atzetik joaten zen **estandartea**, ja emakumeak bereizten zituen lekua. Aurretik joaten ziren gizonak, gero estandartea; eta, ba, estandarreak bereizten zituen emakumeak eta gizonak.

Berbetan jarraitu zuen, zehaztapen gehiago erantsiz:

*Gero buelta oi dena ein ondoren eiten'tzen errian erdian, eiten'tzen, ba, zea bat, aitagure bat errezatu-o..., sakramentu bat bezela eiten'tzen. Aldare bat jartzen zin, an eitten zen denak belaunikatu, eta ue dena egin ondoren, bez zutitu andik eta jarraitu ya elizea.* <Gero buelta hori dena egin ondoren egiten zen herriaren erdian, egiten zen, ba, zera bat, aitagure bat errezatu-edo..., sakramentu bat bezela egiten zen. Aldare bat jartzen zuten, han egiten zen denak belaunikatu, eta hura dena egin ondoren, berriz zutitu handik eta jarraitu ja elizara.>

*Elizen bukatzen'tzenin, ya, prosedio, akatzen'tzen ya meza. Meza akatzen'tzenin, ateratzen'tzenin ya amarretakoa ostalarik belaxe prestatzen'tzun. Ostalari zen ortako, enkargatu izaten zen, erriko ostalua zen; ordun eamaten zun gazta eta ogie, eta apezak eamaten'tzun argizari bat. Gazta ta ogia naikoa jaten... ya jendeak, eiten'tzen subasta bat. Subasta oi zen, ba, "botillero" esaten'tzintzionak emen; urdun botillero orrek, botillero oi ateatzen'tzen iru pinttekin eta zenbat tanto jotzen'tzen, amixte'at pintte jotzen'tzen. Bano orrek bazun bere istoria.* <Elizan bukatzen zenean, ja, prosedioa, akabatzen zen ja meza. Meza akabatzen zenean, ateratzen zenean, ja hamarretakoa ostalariak berehalaxe prestatzen zuen. Ostalari zen horretako, enkargatu izaten zen, herriko ostalua zen; orduan eramaten zuen gazta eta ogia, eta apaizak eramaten zuen argizari bat. Gazta eta ogia nahikoa jaten [zuenean] ja jendeak, egiten zen **subasta** bat. Subasta hori zen, ba, "botilero" esaten zitzaiona hemen; orduan botilero horrek, botilero hori ateratzen zen hiru pintarekin, eta zenbat tanto jotzen zen, hainbeste bat pinta igotzen zen. Baina, horrek bazuen bere istoria.

*Urdun istori oi eiteko, izaten'tzen argizari ue piztu eta tanto bakoitxetan itzali eta piztu; itzaltzen'tzen eta tanto bat, pintte bat jotzen tzen, bees piztu eta bes pres jartzen'tzen beste tanto bat jotzeko: "Bat! Tanto bat, pinta bat!". Ta, taka!, itzaltzen argizaria ta arrentzat pinta. Ta bat eoten'tzen begira zenek jotzen'tzun, ta arrek*

*eitten'tzun ordun, atsalden, aurreoko urtin artu zunak ateatzen'tzittun, ba, amar pintte balen bazen, amar pinttek, atsalden, bano plaza, plazara. Ta or aitzen'tzen, ba, jendea pillotan, umeak mandozarretan, o alakainin, o kuriketan, eta neskak antxe, jostaketan o begira pillotan nola ai zen; eta mutillak pillotan eta gizonak begira, eta denak. Eta eramaten'tzen ardoa, bano ue zen ya botilleroana, ardo ue, atsaldeko ardoa. Subasta ue itten'tzen urte guziko, eta urte guziko ardo ue, ba, balemazen amar pintte, ateatzen'tzen urbillengo urtin, Korpus eunin, bano atsalden. Egorde arte patzen'tzun erriak, eta arrek zittun libre, beindu. Beindu bat eitten bazen ostatun musin einda, arrek'e parte bat zun, ta ardoan denetatik, urte guzian... Urrengo Korpus eunin, atsalden, atea bea'zittun, ba, balemazen amar pintte, amar pintte, balemazen amika, amika; bano atsalden atea bea'zittun plaza, ta ue kontrola, beiratzen'tzun alkateak, atea zittun pintta aik o ez. Urbillengo urtia, bazakin zemba pinttetan artu zun.*

<Orduan istorio hori egiteko, izaten zen argizari hura piztu eta tanto bakoitzean itzali eta piztu; itzaltzen zen eta tanto bat, pinta bat igotzen zen, berriz piztu eta berriz prest jartzen zen beste **tanto bat jotzeko**: "Bat! Tanto bat, pinta bat!". Ta, taka!, itzaltzen [zen] argizaria eta harentzat pinta. Eta bat egoten zen begira, zeinek jotzen zuen, ta harek egiten zuen orduan, arratsaldean, aurreragoko urtean hartu zuenak ateratzen zituen, ba, hamar pinta baldin bazen, hamar pintak, arratsaldean, baina plazara. Eta hor aritzen zen, ba, jendea pilotan, umeak **mandozarretan**, o **alakainean**, o **kuriketan**, eta neskak hantxe, **jostaketan** edo begira pilotan nola ari zen; eta mutillak pilotan, eta gizonak begira, eta denak. Eta eramaten zen ardoa, baina hura zen ja botileroarena, ardo hura, arratsaldeko ardoa. Subasta hura egiten zen urte guztiko; eta urte guztiko ardo hura, ba, baldin bazen hamar pinta, ateratzen zen **hurbilengo urtean**, Corpus egunean, baina arratsaldean. Eguerdi arte pagatzen zuen herriak, eta hark zituen [botileroak] libre... **Berendu bat egiten** bazen ostatuan musean eginda, harek ere parte bat zuen, eta ardoan denetatik, urte guztian... Hurrengo Corpus egunean, arratsaldean, atera behar zituen plazara, ta hura begiratzen zuen alkateak, atera zituen pinta haiek edo ez. Hurbilengo urtean bazekien zenbat pintatan hartu zuen.





## TENPORAK / KARTATENPORAK

Tenporak, Eliza Katolikoan, urtaro bakoitzaren hasieran barau egiten ziren hiru egunak dira.

Nomenklaturari dagokionez, **kartatenporak** —ahoz *kuartatenporak*—, pluralez, da hedatuen dagoen izendapena; bai sartaldean eta bai erdialdean, Bizkairik eta Gipuzkoarik gehienez.

«Kartatenporak» forma bera ere hainbat lekutan ageri da, bai Bizkaian barrena, baita Zuberoako beste bazterretan ere.

**Tenporak**, soilik eta pluralez, Gipuzkoa ekialdetik Nafarroarik gehienera hedatzen da.

Izen soila ere erabilia da, hots, **kartak**; eta horren aldaerak diren *gartak* eta *garthak* ere bai, jakina. Iparraldean eta Nafarroa goialdean da izendapen hori sarrien entzuten dena.

Kartatenporak noiz izaten diren, urtearen zein alditan izaten diren, galdetu zitzaizenean EHHako berriemaileei, hauxe erantzun zuten:

- Bakion (B): *Urtean lau tandatan: udebarrien, udegoyenean eta... “o sea que”, lau estasiño. Ori axean seretati... <Urtean lau tandatan: udaberrian, udagoienean eta..., hau da, lau estazio [‘urtaro]. Hori haizearen zeretatik...>.*
- Arrankudiagako Zollon (B): *Kartatenporak isiten dies, serien, Andra Mari Martikotan, gero Korpusetan, gero serien, Sa’mateon, gero Santo Tomas. <Kartatenporak izaten dira, zerean: **Andra Mari(a) Martikotan**, gero **Corpusetan**, gero zerean, San Mateon, gero Santo Tomas [egunean]>.*
- Otxandion (B): *Urtien, e, orrek, e, lau. Ixiten die orrek San Jose aurreko astien edo ixiten die. Gero biarrenak ixiten die trinidadietan, da irugarrena, ixiten die sanmigeletan, da gero laugarrena, ixiten die gabonetan. Astebete aurrera, lenau. <Urtean, horiek lau [dira]. Izaten dira horiek [lehenengoak], San Jose aurreko astean-edo izaten dira. Gero bigarrenak, **trinidadietan** izaten dira, eta hirugarrena[k] sanmigeletan izaten dira, eta gero laugarrena[k], gabonetan izaten dira. Astebete aurrera, lehenago>.*
- Errezilen (G): *Kuartatenporak urtian lau aldiz izate’ia: Garizuman*

*bigarren astia, Korputz aurreko astia, Samiel aurreko astia, gabon aurreko astia. Batzuk fede asko izaten de [...]. Urtian lau aldiz nola izate'ian, "kuarta".* <Kartatenporak urtean lau aldiz izaten dira: Garizumaren bigarren astea, Corpus aurreko astea, San Migel aurreko astea, Gabon aurreko astea. Batzuek fede handia ematen dute. Urtean lau aldiz nola izaten diren, "kuarta">.

Barau egitea izan da kartatenporetan ohituraz bete izan den eginbeharretariko bat.

Elizak zorrotz ohartarazi du, eta denbora luzez tenpora-egunetan barau egin beharra egon izan da. Halaxe diosku Tartas idazleak: «Kuarta-denborak, bijiliak, barur egin itzak eta garazuma osoki» (*Onsa*). Edo J.A. Moglek: «Garizumako baraur bat ausitzen zuanak, zedukan ogei egunean ur ta ogiko baraur gogorra; ta berrogei egunekoa lau denpora edo kuarta-denporetako baraurren bat ausitzen bazuan» (KK).

Denboraren ibilian, urtez urte galduz joan da usadio hori, hainbat herritako datuek agerian utzi dutenez. Hala ere, ohitura zahar hori oraindik gogoan duten lekukoak ere badira, Iparraldean bereziki.

- Bidarrain (NB), mehe eta barau egiteko egunak izaten omen ziren: *Mehe ta barur egunak'tia oik*. <Mehe eta barau egiteko egunak dira horiek>.
- Jutsin (NB), asteazken eta ostegunez, **mehe egin** ez ezik, **barau egin** behar zela gogorarazi da: *Primaderako "garthak", udakoak... Lauak. Asteazken eta ortzegunez barur in behar, ez bakarrik mehe*. <Primaderako "kartak", udakoak... Laurak. Asteazken eta ostegunez barau egin behar, ez bakarrik mehe>.
- Ezterenzubin (NB) ere, zein egun ziren barau eta mehe egin beharrekoak azaldu digu lekukoak, eta zeintzuk ziren horretatik salbuetsiak: *Garthak, "les quatre saisons"; barur eta mehe egunak baziren. Astezkena, ortzalian, iiakotza, behar zen xuxenez barur eta mehe egin. Eta holako adinez goitikoek eztakit; haurrek eta xaharrek etzuten obligazioneik*. <"Garthak", **mehe eta barau egunak** baziren. Asteazkenean, ostiralean, egubakoitzean ['larunbatean'], behar zen zuzen barau eta mehe egin. Eta holako adinez goitikoek ez dakit; Haurrek eta zaharrek ez zuten obligaziorik>.

Eguraldia igartzeko egun bereziak diren sinestea hainbat lekutan bildu da. Hara hemen testigantza batzuk:

- Arrankudiagako Zollon (B), lekukoak gizon zaharrago baten berri eman digu, eguraldi-iragarle ei zen baten berri, kartatenporan zer haize den, hurrengo hiru hilabetean haize hura izango zela nagusi iragartzen zuena. Lekukoak aitari ere entzuna omen zion: *Astuntzen egon sala gixon bat, bera baino sarrago... A kartatenporak pasau, da sortzi egun garrenien gaueko amabietan beti egoten ei sen bentanan, aber se axe paretan dan, da axie paretan danak, urrengo iru illebetiek ak bentziten dauela beti.* <Aspiuntzan egon zela gizon bat, bera baino zaharragoa... Kartatenporak pasatu, eta zortzi egun garrean gaueko hamabietan beti egoten ei zen bentanan ['leihoan'], ea zer haize paratzen ['jartzen'] den [ikusten]. Eta haizea paratzen denak, hurrengo hiru hilabeteak hark bentzutzen duela beti.>

- Gamiz-Fikan (B) ere antzeko ohitura azaldu da: *Orrixek dire, ba, kuartatenporak. Orrik iru illebeterik iru illebeta egoten dire; lau satiten.*



*Axeak ebaten badau orretan egunetan, axea nondi dagoen, iru illebetian axerik geixen andi al darditi iten dau. "O sea", euri-denporia iten badau, orritan iru illebetietan euri-denpora geixau ingo dau, ba, ostantzekoa baino. <Horiexek dira kartatenporak. Horiak hiru hilabeterik hiru hilabetera egoten dira; lau zatitan. **Haizeak oratzen** badu horietan egunetan, haizea nondik dagoen, hiru hilabeteen haizerik gehien handik alderditik egiten du. Euri-denbora egiten badu, horietan hiru hilabeteetan euri-denbora gehiago egingo du, osterantzekoa baino>.*

- Urretxun (G) larunbat gaueko haizea izaten dute kontuan eguraldia iragartzerakoan: *Lau parte dia. Orreatio jartzen da "kuarta". Garizumen lelengo asten, geo Trinidadetan, samieletan, gabonetan. Aste ontan dia "tenporak", asteizkena, ostial eta zapatua ustet izate'iala kontatzen dianak. Kontatzeko aizia, zapatu gauekua; amabitan, ordun gelditzen dan aizia, andik zortzi eunea berdin jotzen bau, "esato!", egualdi ura. <Lau parte dira. Horregatio jartzen da "kuarta". Garizumaren lehenengo astean, gero trinidadetan, **sanmigeletan**, gabonetan. Aste horretan "tenporak" dira, asteazkena, ostiral eta zapatua direla uste dut, kontatzen direnak. Eta kontatzeko haizea, zapatu gauekoa; hamabietan, orduan gelditzen den haizea, handik zortzi egunera berdin jotzen badu, eguraldi hura!>.*

- Santa Grazi edo Urdatzen (Z) hurrengo astelehena hartzen da erreferentzia gisa eguraldia iragartzeko: *Garthak, lau aldiz urthian. Denboaentako sinbeste handia zen. Arramaiatzian, setemez, abentian eta martxoan; hiru hilabetea ik astizkena, ez osteguna. Eta gio hantik landanko astelehena duk kartagiltza; astelehena hartanko haiziak daigün aldik, karthetartino emaiten diena da. <Garthak, lau aldiz urtean. Denborarendako ['eguraldiarendako'] siniste handia zen. Arramaiatzean ['ekainean'], setienbrez ['irailean'], abenduan eta martxoan; hiru hilabeteetarik asteazkena, ez osteguna. Eta gero handik landako astelehena duk **kartagiltza**; astelehen hartako haizeak egiten duen aldia, kartetara artino emango duena da>.*

- Andoainen (G): *Tenporak Gaizemak ibiltze'ittu. Eta astezkena, osteuna ta laanbata, aize klase batek jotzen balin bau gabeko amabitan, "en geneal", aize klasi'ua iya iru illabetetan mayoriya ibilliko'ala... Urtian lau aldiz. <Tenporak, Garizumak erabiltzen ditu. Eta asteazken, osteguna eta larunbata, haize klase batek jotzen baldin badu **gaueko hamabietan**, jeneralean, haize klase hura ia hiru hilabeteetan, gehienbat, ibiliko dela [uste da]... Urtean lau aldiz>.*

- Bergaran (G) ere, kartatenporei eguraldiaren berri jakiteko ematen zaien garrantzia dela eta, hauxe bildu da: *Batzuk kuarta-tenporei fede aundixa emuten dotse* (J.M. Elexpuru). <Batzuek kartatenporei fede haundia ematen diete>.

Aurreko aipamenetan ikusten den legez, haizearen norabideari begiratzen zaio, hurrengo hiletan zer eguraldi izango den iragarpena egiteko. Horrela, bada, haizearen norabidea zein den jakiteko era desberdinak jaso dira lekukoek hitzetan.

- Larrabetzun (B), izan zela gizon bat, piparen kearen norabideaz igartzen ziona zein eguraldi izango zen: *Lenauko entzutia... Larrabetzun batek bariku gaubeko amabietan teilleture igote'auela, da pipea fumeu te bota kia gora, ta norantza aixea(k) iten dauen, orduen ebatzie emoten dauena*. <Lehenagoko entzutea... Larrabetzun bat bariku ['ostiraleko'] gaueko hamabietan **teilatura igotzen** zela, eta **pipa fumatu** ['erre'] **eta bota kea gora**, eta norantz haizeak egiten duen, orduan ebatzia ematen zuela>.

- Leintz Gatzagan (G) ere antzera egiten dute, kasu honetan zigarroaren keaz: *Bera eguna baño, beatzigarren eguna dala asertaua, esaten daue. Orrek iru egun isaten die. Da irugarren egunien askotan isan gara kanpora urtenda, sigarroa errias, se aixe datorren da...* <Bera eguna baino, bederatzigarren eguna dela azertatu[ago]a, esaten dute. [Kartatenporak] horiek hiru egun izaten dira. Eta hirugarren egunean askotan izan gara kanpora irtenda, **zigarroa erreaz, zer haize datorren eta...**>.

- Ezkio-Itsason (G), emakumeen lehenagoko kamisa berezia, *kamixa* zeritzan soineko zabal eta luzanga omen zen horretarako egokiena, lekukoaren esanean: *Bai, Olazar, Gabiriko Olazarreneko mutillak esant'zon... Ta: "Ze egualdi geldittu'e, pa?"*. *Ortako emakuma izat'ek aproposa, garai bateko eunezko "kamixa" jantzitta daonen. Tellatun puntan jarri, ta aizek zen aldetara eraitten dion ari... Oaingo kamixak eztu asko moittuko... Lengok, len eunezko kamixak zien-da; gizonak alkondarak'e bai. Bat badaukagu. Eta emakumak zittuen, ola, eskotetxo batekin, besok... eunezko, e? Ta an juxtu-juxtu. Ta bera buelo pixkatekin zabalen, luze samarra*. <Bai, Olazar, Gabiriko Olazarreneko mutillak esaten zuen: "Ze eguraldi gelditu duk, ba?">. Horretarako emakumea izaten duk aproposa, garai bateko ehunezko kamisa jantzita dagoenean. **Teilatuaren puntan** jarri, eta haizeak zein aldetara eragiten dion hari... Oraingo kamisak

ez du asko mugituko... Lehengoak, lehen **ehunezko kamisak** ziren-eta; gizonak alkandorak ere bai. [“Kamisa”] bat badaukagu. Eta emakumeek zituzten, hola, eskotetxo batekin, besoak... ehunezkoak, e? Eta han [goian] justu-justu. Eta behera buelo pixka batekin zabalean, luze samarra>.



## JONDONE JOANE / DONIANE / SAN JUAN

**San Juan** eta horren bezpera herri-jakintza arloko sineste, erritu, errezitatu edo kantu, ohitura eta oro har herri-tradiziozko gaietan aberatsak dira. Eguzkiaren udako bira da **Jondone Joanez** ospatzen dena. Bildu diren tradizio-edukiok etxearen eta uztaren babesa eta oparotasuna eskuratzea dute helburu nagusi.

**San Juan egunez** soroak babesteko errituak egiteko eta esateko ohitura handia izan da. Bizkaiko hainbat lekutan bildu da, galtzu-txolak eskuan harturik eta kantatuz, sororik soro ibiltzeko ohituraren berri. Errezitatu egiten zen, kantatu baino gehiago.

Hara hemen testigantza batzuk:

- Gamiz-Fikan (B): Sororik soro lastargi edo esku-zuziak eskuetan zituztela: *Lenao galtzu-txolakas soloak danak buelta emoten geuntzian kantetan: “San Juan, San Juan Bagillekoa. / Gaur dala, bixer dala Doniene, / etzi San Juan bixaramone. / Sapoak eta subiak erre, / artoak eta garixek gorde. / Nire solotxuen estao sorgiñik. / Badagos bere erre beites”*. <“San Juan, **San Juan Bagilekoa** [‘Ekainekoa’]. / Gaur dela, bihar dela Doniane, / etzi San Juan biharamuna. / **Zapoak eta sugeak** erre, / artoak eta gariak gorde. / Nire solotxoan ez dago sorginik. / Badaude ere erre bitez”>.

- Arrankudiagako Zollon (B): *“San Juan gabillie(n), denpora ederrie(n), / artoa ta garixe ondo-ondo gorde, sapoak ta subiek ondo-ondo erre”*. <“San Juan bagilean, denbora ederrean, / artoa eta garia ondo-ondo gorde, zapoak eta sugeak ondo-ondo erre”>. Ekainari zaion «bagil» izena *gabil* erara desitxuraturik.

Beste hainbat lekutan jaso da, asmo berberak eraginda, erramuekin gurutzeak egiten zirela eta belar-landa eta soroetan bana ipintzen zutela. Hala:

- Mendatan (B) hala dio lekukoak: *Urtien-urtien kurtziek ipinte’sien soloan. Jabon daixen soloa-ta...* <Urtean-urtean **gurutzeak ipintzen** ziren soroan. Jagon dezan soroa-eta...>.

- Azpeitian (G) ere usadioa berdintsu jaso da: erramuekin gurutzeak egin eta taketetan sarturik soroetan jartzen zirela soroak babesteko: *Beste bat, kurutzeak eiñ, beinkatutako erramuekin de sore’è zaintzen ipintze’zien, estaka baten sartute*. <Beste bat, gurutzeak egin, bedeinkatutako erramuekin eta soroa ere zaintzen ipintzen ziren, estaka baten sartuta>.

- Ataunen (G), elorrizko gurutzeak egiten zirela bildu da: *Lizar-ostoa-ta, ezpata-ta... Atarie jantzi ta [...], elorri-gurutzek [...] ta ezpatea sartzen zitzaien [...]. Geo sorotan partitzen’tzien*. <**Lizar-hostoa**-eta, **ezpata**-eta... Ataria jantzi eta [...], **elorri-gurutzeak** [...] eta ezpata sartzen zitzaien [...]. Gero soroetan partitzen [‘banatzen’] ziren>.

- Leitzan (N) ere belar-soro eta lursail guztietan jartzen ziren gurutzeak: *San Juan bezperan izaten’tzen. Ur beeinkatue bedeinkatzen due elizen da ur beeinkatu ure artu eta... Oain galdu de kostunbre ori, biño elorrie beinkatu eta lengo elorri zarran, erditik ola iriki pixkot, zea, makille, zortona, ta lengo elorri zarran puxke sartu an, gurutzea itteko. Ta gero Erramu eunen beeinkatu(ta) ko Erramu ostoa ta andik ekarritako ur beinkatu arekiñ aitaren bat errezatute, ur beeinkatue bota, eta alakoak. Zenbat finka zen, zenbat belatsoro o zenbat alor zien, ainbeste gurutze in da...* <**San Juan bezperan** izaten zen. Ur bedeinkatua bedeinkatzen dute elizan eta ur bedeinkatu hura hartu eta... Orain galdu da kostunbre [‘ohitura’] hori, baina **elorria** bedeinkatu eta lehengo elorri zaharrean, erditi hola ireki pixka bat, zera, makila, **zurtoina**, eta lehengo elorri zaharrean puska sartu han, gurutzea egiteko. Eta gero Erramu egunean bedeinkatutako **Erramu hostoa** eta handik ekarritako ur

bedeinkatu harekin aitaren bat errezatuta, ur bedeinkatua bota, eta halakoak. Zenbat finka [‘alor’] zen, zenbat **belartsoro** edo zenbat alor ziren, hainbeste gurutze egin eta...>.

- Domintxainen (Z) ere berdin, elorri zurizko gurutzeak ezartzen ziren alorretan: *Alhorretat ezartzen elhorri xuria, khüützian ta iten zuten hua.* <Alorretara ezartzen **elorri zuria**, gurutzean eta egiten zuten hura>.

Aipagarri dira Leitzan (N), Arnegin (NB) eta Pagolan (Z) jaso diren testigantzak: soro eta lursailetan jartzen ziren erramu eta gurutze horiek, goizeko lehen orduan jarri behar izaten zirela, eguzkia atera baino lehen:

- Leitzan (N): *Baño etxeko leioan paatzen den, berrie, elorri berrie, ta zarrakiñ in gurutzek alorretarako... Ori San Juan goizen, euzkik leioa arrapatu beño lenoo bear emen do.* <Baina etxeko leihoan paratzen dun, berria, **elorri berria**, ta zaharrarekin gurutzeak egin alorretarako... Hori San Juan goizean, **eguzkiak leihoa harrapatu** baino lehenago egin behar omen da>.

- Arnegin (NB): *Yan-donaanez elorri xuria zartzen zuten etxe sartze..., bortagainian; goizik-goizik, yendia yeiki gabe, argi gabe bear zen zarri. Ta gero alorretan ere ba, e!* <Jandone Joanez elorri zuria ezartzen zuten etxe-sartze..., borta [‘ate’] gainean. Goizik-goizik, jendea jaiki gabe [‘zegoela’], argi gabe behar zen ezarri. Eta gero alorretan ere bai>.

- Pagolan (Z): *Buketa ezarten zün, elhorri xuia eta urtheko ürrütxaen adar bat, alhorretan. Üthürrietan’e bai. Aita zena guriak, gü jeiki gabe, ekhia jeiki gabe behar zin egin. Gü jeiki ordüko denetan ezariak zititzün.* <**Buketa ezartzen** zuen: **elorri zuria eta urteko hurritzaren adar bat** alorretan. Iturrietan ere bai. Aita zena gureak, gu jaiki gabe [‘geundela’], **ekia jaiki gabe** [‘eguzkia atera gabe’] behar zen egin. Gu jaiki orduko denetan ezarriak zituen>.

Dirudenez, soro eta landak babesteko ohitura hau ez zuten guztiek begi onez ikusten.

- Altzürüküko (Z) apaizak erramu horiek soroetan jartzeko ohitura hori paganotzat zuen, eta horrelakorik ez zela egin behar esaten omen zuen:

—A lekukoa: *Ondane Johane, bazüzün moda ilhorri xui eta hürüttx emaiteko... Eta aphezak erran zizün hoik paganuen sinbeste eli bat zirela, etzela behar ezai alhorretan.* <Jondone Joane, bazen moda [‘ohitura’] **elorri zuri eta hurritza** emateko... Eta apaizak erran zuen horiek paganoen **sineste eli bat** [‘mota bat’] zirela, ez zela alorretan ezarri behar>.

—B lekukoa: *Bai, bena axuia emaiten ziena, hua etzüzün pagano, e!* <Bai, baina **axuria** ematen zuena, hura ez zen paganoa, e!>.

Hedaturik dagoen beste ohitura bat, etxea babesteko erramu bat edota lore sorta bat egin eta etxearen aurre partean ipintzekoa da, gaur ere baserrietan sarri ikusten dena. Era askotako zuhaixkak, belarrak eta loreak zuzentzen dira horretarako. Lore-erramu horiek bedeinkatu egiten dira, eta ohiz etxeetako ateetan, balkoietan, gortan... ipintzen dira. Leku batzuetan erre ere egiten dira, eta eurekin San Juan sua isiotu.

- Elgoibarren (G), txorta hori arrosekin, belar finekin, gari buruekin... egiten zutela jaso da, eta, elizan bedeinkatu ondoren, etxean gordetzen zutela, trumoia jotzen zuenean etxea babesturik gorde zedin: *San Juan txortia izaten da, ba, gauza ear bat. Ba, se esango'isu'pa, nik? Larrosak, benda fiñak, lirixuak, orrek; da arto bat sorotik, beste iru bat gari-buru, da basarriko gausiak. Danakiñ txorta bat eiñ, txortia baño eleantia, keixa bat eo bi bueltan elduta... Da geo sustarra, estaisu? Arixakin jo ta gogor-goor batu, ta tzazt! [keinuz]. Lapiko baten, ontzi baten sartu ori, ta aura elizea ekarri urrengo eunian da beinkatu. Geo aura, ba, trumoia sanian-da, estaisu?, aura ipintze suen; botatze'siuen aura bearrua, ta antxe eote'zan etxian.* <**San Juan txorta** izaten da, ba, gauza eder bat. Ba, zer esango dizut, ba, nik? Larrosak, **banda finak**, liriok, horiek; eta arto bat sorotik, beste hiru bat **gari-buru**, eta baserriko gauzeekin. Denekin txorta bat egin; txorta, baina elegantea [‘dotorea’]; **gerezi bat edo bi** bueltan helduta. Eta gero zuztarra, ez dakizu? Hariarekin jo eta gogor-gogor batu, eta zazt! Lapiko batean, ontzi batean sartu hori, eta hura elizara ekarri hurrengo egunean eta bedeinkatu. Gero hura, ba, trumoia zenean-eta, ez dakizu?, hura ipintzen zuten; botatzen zioten hura belarrura, eta hantxe egoten zen>.

- Amezketan (G), honelaxe bildu da testigantza: *Lizar-aarrak sanjuanetan jartze'zien, ta besteti elorrie, etxen bi kanttoitan. Oaiñ ez tie jartzen...*

*Bedeinkazioko. Etxez etxe ibiltze'zan apaiza bedeinkatzen. <Lizar-adarrak sanjuanetan jartzen ziren, eta bestetik elorria, etxearen bi kantoietan. Orain ez dira jartzen... Bedeinkaziorako. Etxez etxe ibiltzen zen apaiza bedeinkatzen>.*

- Oderitzen (N) erramu zaharraren erretzea eta berriaren ezartzea azaldu digute, honetaraxe: *San Juan belarra da: iaxtorra, iaxtorra ta ua'e pixko bat alaitzeko, jartzen [...] loreak, eta gero, ba, arrosak. Bano da iastorra, San Juan belarra da: iaxtorra. Iaxtorra beiketzen'tzen. Ta iaxtorra beiketzeako, etxe guzitan, atari guzitan, bi aldetan jarri bea'zin. Elorri, elorri txuri... Gurutzi bat elorri, eta ostatxuri pixka bat sartzen'tzizion grutze arren txuloan, eta jartzen zen atarin bi aldetan, atari guzitan. Bi atari baldin bazittin, bi ataritan. Lau, atari bakoitxetan: bi... Elorri bear do zuri, e?, ez elorri gorri. "Sinifikadoa": inazture ez sartzeko... San Juan bezperan jartzen'tzen [eta] biramonin elizetik bedeinkatzen tzen aik. Ta San Juan belarrak, zarra erretzen'tzen eta biramonin berria bedeikatzen'tzen. <San Juan belarra da: iraztorra ['ira', 'garoa'], eta hura pixka bat alaitzeko, jartzen [...] loreak, eta gero, ba, arrosak. Baina San Juan belarra iraztorra da. Iraztorra bedeinkatzen zen. Eta iraztorra bedeinkatzeko, etxe guztietan, atari guztietan, bi aldeetan jarri behar zen. Elorria, elorri zuria... Gurutze bat elorriari [egin], eta **hostazuri** pixka bat sartzen zitzaion gurutze haren txuloan, eta jartzen zen atarian bi aldeetan; atari guztietan. Bi atari baldin bazituen, bi atarietan; lau (bazituen), atari bakoitzean. Elorria[k] behar du zuria, e?, ez **elorri gorria**. Esanahia: **inusturia** ez sartzeko... San Juan bezperan jartzen zen [eta] biharamunean elizatik bedeinkatzen ziren haiek. Eta San Juan belarrak, zaharra erretzen zen eta biharamunian berria bedeinkatzen zen>.*

Beste ohitura nagusietariko bat **San Juan suak** egitearena izan da. Zergatik eta zertarako egiten ziren, honela azaldu dute lekukoek:

- Lemoan (B), adu txarrak uxatzeko eta onak erakartzeko beste ohitura ezagunetariko bat bildu da. Horko lekukoak dio, sua isiotu eta soroari bueltak ematen zizkietela babesa eskatuz: *Sañoan, ba, sue... Lenao kantetan san, sue isitu eta soloari bueltea emon, eta selan kantetan san, ba: "Artoak eta gariak gorde, / sapoak eta subeak erre..." <San Juan, ba, sua... Lehenago kantatzen zen, sua isiotu eta soroari buelta aman, eta zelan kantatzen zen, ba: "Artoak eta gariak gorde, / zapoak eta sugeak erre...">.*



- Zornotzan (B) ere ohitura bera: *Etxe bakotxien, soluetan eiten da sue: "San Juantxu, / gaur ala bixer da Donianes, / etzi San Juan bixamones. / Gure soluen lapurri(k) pes, / sugeri(k) pes, sorgini(k) pes. / Badago be, dago, erre beites".* <Etxe bakoitzean, soroetan egiten da sua: "**San Juantxu**, / gaur ala bihar da **Donianez**, / etzi **San Juan biharamunez**. / Gure soroan lapurrik ere ez, / sugerik ere ez, sorginik ere ez. / Badago be, erre bitez">.

- Berrizen (B) ere sua egin eta haren ondoan kopla batzuk abesten ziren: *Leku askotan eitten gendun, e! Solo-egaletan-da, eitten gendun. Nausixe etxe aurrien-edo, etxeai itte'akona. Baie gero itten gendun solo-puntatxo baten, beste solo baten, beste puntatxo baten... Kantau bertan bai, e!:* "San Juen, San Juen, / arrutze bi kolkuen, / beste bi altzuen. / Lapurrek eta sorginek erre, erre; / garixek eta artuek gorde, gorde. / Biba San Juan! / Etxe onetan lapurrik es, / sorginik pes. / Balegos danak erre, / bertan erre bittes". <Leku askotan egiten genuen (sua), e! **Soro hegaletan**-eta, egiten genuen. Nagusia (sua) etxe aurrean-edo; etxeari egiten zitzaiona. Baina gero egiten genuen soro-puntatxo batean, beste soro batean, beste puntatxo batean... Eta kantatu bertan, bai: "San Juan, San Juan, / arrautza bi kolkuan, / beste bi altzoan. / Lapurrak eta sorginak erre, erre; / gariak eta artoak gorde, gorde. / Biba San Juan! / Etxe honetan lapurrik ez, sorginik ere ez. / Baleude denak erre, / bertan erre bitez">.

San Juan suaren inguruan erritu asko daude, egon ere. Sua etxe aurrean, herriko plazan, soro-hegaletan... pizten zen, esan bezala, kasu batzuetan aurreko urteko erramuak erabiliz.

Eta hainbat lekutan suaren gainetik salto egiteko ohitura ere bazen:

- Gizaburuagan (B): *Gure amoma sar-sar eindde gero be, eiñ bere sutxue, da batu umiek beren bueltan da salto ereitte'oskun. Da "Donine, Donine, Donine...", sorgiñek usiketako.* <Gure amama zahar-zahar eginda gero ere, egin bere sutxoa, eta batu umeak bere bueltan, eta salto eragiten zigen. Eta "Doniene, Doniene, Doniene..." (kantatu), sorginak uxatzeko>.

- Orexan (G): *Emendiken ikusten dira erri asko. Or Urkizu, Albistur, da Ernialde, ta or Astiasuko zea're ikusten da emendiken, Andrezarreta. Ta oitan denetan sue illuntzean. Oain ere ustet... Oaindio iten da, oaindi seitzen zaio. Umeak gañetik saltoka bai, "Biba San Juan Bautista!".* <Hemendik herri asko ikusten dira. Hor Urkizu, Albistur eta Ernialde, eta hor Asteasuko zera ere

ikusten da hemendik, Andazarreta. Eta horietan denetan sua iluntzean. Orain ere uste dut... Oraindio egiten da, oraindik segitzen zaio. Umeak gainetik saltoka bai, “Biba San Juan Bautista!>.

- Oderitzen (N): *Lendabixiko sua apezak* [egiten zuen]. *Gero ya urbillengo etxeak, ta ya apezan ondoren joaten zen etxeak piztuz-piztuz, etxe guzia(k); bakutxe be'atari(n). Eta motikoak eta neskatoak joaten'tzen etxis etxi saltokan, eta saltatzen'tzenin, gana etxeke guzik saltatzen'tzen, etxe artakoak. Eta esaten'tzen: “San Juan Bautista, sarrena “fuera”!”. Sarrenak, pikorrak o sarrenak.* <Lehendabiziko sua apezak [egiten zuen]. Gero ja hurbillengo etxeak, eta ja apezaren ondoren joaten ziren etxeak piztuz-piztuz, etxe guztiak; bakoitza bere atarian. Eta mutikoak eta neskatoak joaten ziren etxez etxe saltoka, eta saltatzen zutenean, gainera etxeke guztiek saltatzen zuten, etxe hartakoek. Eta esaten zen: “San Juan Bautista, **sarrena** “fuera”!”. Sarrenak, **pikorrak edo sarrenak**>. *Sarrena* aldaera darabil, «sarnari» esateko.

Beste leku batzuetan sorginak izutzeko asmoz, airera tiro egiten zen sua piztearekin batera.

- Luzaiden (N) tradizio hori, honetara kontatzen du lekukoak: *Gero tiratzen zien tiroak... Bat asten zen etxe batetik eta ordian beste guztiek errepost ematen zuten... Erreitzen zen zerbaitu artan jauzi'tean: “Xarna “fera”, hunak barnera, gaixtoak kanpora! Su, erre, su, erre! Yinkoak eman dezala bakea ta osaarria, ogi ta arno Espanara”. Ta gero han gelditzen zien itxindu horiek botatzen'tzien lau alderditarat, “a los cuatro puntos cardinales”, eta eraunsi gaiztoen urruntzeko erraten zuten.* <Gero tiroak botatzen ziren. Bat hasten zen etxe batetik, eta orduan beste guztiek arrapostu ematen zuten... Erraten zen zerbaitxo hartan jauzi egitean: “Sarna “fuera”, onak barnera, gaiztoak kanpora! Su, erre, su, erre! Jainkoak eman dezala bakea eta osagarria [‘osasuna’], **ogi eta ardo** Espainiara”. Eta gero, han gelditzen ziren **itxindiak** lau alderditara botatzen ziren, “a los cuatro puntos cardinales”, eta **eraunsi** gaiztoen urruntzeko erraten zuten>.

- Bastidan (NB) ere tiro egiten zuten etsaiak eta deabrua kanpora bidaltzeko: *Lehen tiroa iten giniin. Etxe guztietan sua iten giniin etxe aintzinian eta gio tiroa behar zen tiratu etsaien partiarazteko, debruien partiarazteko. Hola zen. Ezautu'ut, ba, hori, airian tiratzen.* <Lehenago **tiroa egiten** genuen. Etxe guztietan sua egiten genuen etxe aitzinean, eta gero tiroa behar zen tiratu

[‘bota’], etsaien partiarazteko, deabruen partiarazteko. Hola zen. Ezagutu dut, ba, hori, airean tiratzen>.

Bada beste erritu eta sineskera bat San Juan suaren inguruan ere. Iparraldeko hainbat lekutan suaren gainean harri zabal bat ezartzen zen, eta sua itzaltzerakoan harri horren azpian santuaren ileak agertzen omen direla zioten.

- Bardozen (L): *Erre ta su hua, ezartzen zen harri xabal bat han eta harri xabalaan azpian atxemaiten zuten seindu baten bilhoak. Etzen atxemaiten sekhula. Errana, harri xabal ezarri behar zela hor; bihamunian atxemaan zutela seindu baten bilhoa, Jondone Joanen bilhuak.* <Erre eta su hura, ezartzen zen harri zabal bat han eta harri zabalaren azpian atzematen zituzten saildu baten biloak. Ez zen atzematen sekula. [Baina] errana [da], harri zabala ezarri behar zela hor; biharamunean atzemango zutela saildu baten biloa, **Jondone Joanen biloak**>.

- Ezterenzubin (NB) ere berdintsu kontatu du lekukoak: *Iten zen sua, xarmendezko sua iten zen. Xarmendiak beiratzen ziren, ta behar zen jauzi in. Eta ezartzen zen sutokian harri bat, sua piztu bano lehen. Eta gio erraiten zuten, bihamunian harri hau itzulita, Jaundonen bilhoa bezala zela. Harriain pian xarnafera zen uste dut. Xarnaferain egitia zen Jaundone Johaneko suia in egitia.* <Sua egiten zen, **xirmenduzko sua** egiten zen. Xirmenduak begiratzen [‘zaintzen’] ziren, eta jauzi egin behar zen. Eta ezartzen zen **sutokian** harri bat, sua piztu baino lehen. Eta gero erraten zuten, biharamunean harri hau itzulita, Jondonen biloa bezala zela. Harriaren azpian xarnafera zela uste dut. **Xarnaferaren egitea** zen Jondone Joaneko suaren egitea>.

- Urketan (L) ere antzeko sineskera bildu da, baina kasu honetan «aingeru-ileak» omen dira harriaren azpian agertzen zirenak: *Su egiten, erramu aurtikitzen, lau puntutarat aurtikitzen. Harri bat gio suaren gainean eta gurutze bat bortan, liliz egina. Harri azpian “les cheveux d’ange” ba omen ziren, amatxik errana: aingeru-biloak.* <Su egiten, erramua aurtikitzen, lau puntutara aurtikitzen. Harri bat gero suaren gainean eta gurutze bat bortan [‘atean’], liliz egina. Harri azpian “les cheveux d’ange” ba omen ziren, amatxik errana: **aingeru-biloak**>.

- Uharte Garazin (NB) sua piztu, gainetik salto egin eta hurrengo egunean San Juanen ileak agertu ote ziren ikustera joan beharra egoten zen. Ikusten

zutenak emakumezkoak baldin baziren, urte horretan ezkondu egiten omen ziren: *Geo yauzi in bear zen, ta geo biamun goizian bear zen yoan kustea, ea Yondoni Yoanesen bizarra-eta bazenez harria(n). Baizu, izarriitzak iten baitzuen eta hautsa pixka'at xuritzen. Ta ua'kusten omen zienak leenbizikoik neskek omen, esosatzen zien urte artan.* <Gero jauzi egin behar zen, eta gero biharamun goizean joan behar zen ikustera, ea **Jondone Joanesen bizarra-**eta bazenez harrian. Badakizu, **izar-ihintzak** egiten baitzuen eta hautsa pixka bat zuritzen. Eta hura ikusten omen zutenak lehenbizikorik neskak [baziren], urte hartan esosatzen omen ziren>.

Bada beste ohitura bat ere Donibane egunari errotik lotua: goizeko ihintzetan oinutsik ibiltzekoa.

- Berrizen (B), San Juan goizean goiz, iruntza zegoela, emakume edadekoek zuten hurrengo ohitura honen berri eman du lekukoak: *San Juan goxien leena, gure aittek-eta esate'basan, ba, lenako andra sarrak San Juan goxien orraxia artute jute'siela landara, garuekin ulie, jusi etxakixen, ulie orrastera.* <San Juan goizean lehenago, gure aitak-eta esaten zituen, ba, lehenagoko andre zaharrak **San Juan goizean** orrazia hartuta landara joaten zirela, **garoarekin ilea, jauzi ez dakien, ilea orraztera**>.

Bergaran (G) eta Oñatin (G) antzera kontatu dute San Juan goizean goizik ihintzetan ortozik ibiltzearen mesedea norbere oinentzat. Halaxe diote:

- Bergaran (G): *San Juan goizian da, lenao esaten zan, goizeko iintza orduan artzia oiñutzik, zala, ba, urte guztirako bentajia-o.* <San Juan goizean eta, lehenago esaten zen, **goizeko ihintza orduan oinutsik hartzea** zela, ba, urte guztirako bentaja-edo ['mesedea-edo']>.

- Oñatin (G): *San Juan goixian eitte'eban, ortotzik selaixan ibilte'zan bueltaka, beeinkatua dala orduko intza-ta. A bai fedia!* <San Juan goizean egiten zuen, **ortozik zelaian ibiltzen zen bueltaka**, bedeinkatua dela orduko ihintza eta. Hura bai fedea!>.

- Jutsin (NB) ere antzeko ohitura bildu da, baina berezitasun batekin: goizean goiz, oinutsik eta baraurik ibili behar zen: *Kalitzak kentzeko, barurik lasterka ibili behar zela untutsik Yondonane goizian.* <**Kalitzak kentzeko, baraurik lasterka ibili behar zela oinutsik** Jondone Joane goizean>.

EHHako inkesten bidez bildu diren beste zenbait errexitatu, kantu, errefrau eta esaera ere aipatuko ditugu, amaiera gisa (hauetariko batzuk arestian aipatuak baditugu ere):

- Arrankudiagako Zollon (B): *“San Juan gabillie(n), denpora ederrie(n), / artoa ta garixe ondo-ondo gorde, / sapoak ta subiek ondo-ondo erre”*. <San Juan bagilean, denbora ederrean, / artoa eta garia ondo-ondo gorde!, / zapoak eta sugeak ondo-ondo erre!”>.
- Gamiz-Fikan (B): *San Juan, San Juan Bagillekoa! / Gaur dala, bixer dala Doniene, / etzi San Juan bixaramone. / Sapoak eta subiak erre!, / artoak eta garixek gorde! / Nire solotxuen estao sorgiñik. / Badagos bere erre beites!* <San Juan, San Juan Bagilekoa! / Gaur dela, bihar dela Doniane, / etzi San Juan biharamuna. / Zapoak eta sugeak erre, / artoak eta griak gorde. / Nire sorotxoan ez dago sorginik. / Badaude ere, erre bitez!>.
- Zornotzan (B): *San Juantxu, aur ala bixer da Donianes, / etzi San Juan bixamones. / Gure soluen lapurri(k) pes, sugeri(k) pes, sorgiñi(k) pes. / Badago be, dago, erre beites.* <San Juantxu, gaur ala bihar da Donianez, / etzi San Juan biharamunez. / Gure soroan lapurrik ere ez, sugerik ere ez, sorginik ere ez. / Badago[z] ere, erre bitez!>.
- Etxebarrian (B): *San Juan euneko kantue: “San Juan ‘Ante Porta Letana’, larunbat arratzaldian / amalau atzo tronpeta jotzen, / mutrollu’aten ganian. / Urra, urra, urra! Sanjuanetan / dantzán eingo degu ifer-aizetan. / Ujuju! San Juanera guas gu. / San Juanes gustiak dira erreten, / soluetako landara onak garbi geratu daitezén. / Urra, urra, urra! Sanjuanetan / dantzán eingo degu ifer-aizetan. / Ujuju! San Juanera guas gu”*. <San Juan eguneko kantua: “San Juan ‘Ante Porta Latina’, larunbat arratsaldean / hamalau atso tronpeta jotzen, / motroilo baten gainean. / Urra, urra, urra! Sanjuanetan / dantza egingo dugu ipar-haizetan. / Ujuju! San Juanera goaz gu. / **San Juan** guztiak dira erretzen, / soroetako landare onak garbi geratu daitezén. / Urra, urra, urra! Sanjuanetan / dantza egingo dugu ipar-haizetan. / Ujuju! San Juanera goaz gu”>.

- Aramaion (A): “*San Juan, San Juan, biba San Juan! Su(ge)ek eta sapuek erre, erre!, / Artuek eta garixek gora, gora! / Biba San Juan!*” <“San Juan, San Juan, biba San Juan! Sugeak eta zapoak erre, erre! / Artoak eta gariak gora, gora! / Biba San Juan!”>.
- Leintz Gatzagan (G): “*San Juan ‘de la Portaletaña’ / sapatu arratzaldian / amalabatzan (?) tronpeta jotzen / or sola baten gañian*”. <“San Juan ‘de la Portaletaña’ / zapatu [‘larunbata’] arratsaldean / ama-alabak tronpeta jotzen / hor soro baten gainean”>.
- Oñatin (G): “*San Juan, San Juan berde! / Danbolitterua kuartillo erdi edanda, / da jotzen du soiñua / edo jo deigun soiñua!*”. // “*San Juan, San Juan berde! / Bagatos berris ere, / baita San Pedrok ere, / gusiok ala erre!*”. <“San Juan, San Juan berde! / Danbolinteroak kuartillo erdi edanda, / eta jotzen du soinu / edo jo dezagun soinu!” // “San Juan, San Juan berde! / Bagatoz berriz ere, / baita San Pedrok ere, / guztiok ala erre!”>.
- Beasainen (G): “*Aurten-en, aurten-en, San Juan dala, / iaz eren, iaz eren, San Juan dala. / Biba, biba San Juan Bautixta!*”. <“Aurten-en, aurten-en, San Juan dela, / iaz heren, iaz heren, San Juan dela. / Biba, biba San Juan Bautista!”>.
- Anizen (N): “*San Juan Bautixta, ona barnera, sarna kanpora!*”. <“San Juan Bautista, ona barnera, sarna kanpora!”>.
- Lekarozen (N): “*Sarna fuera, ona barnera, gaixtoa kanpora! San Juan Bautista loriosoa, bakia ta osasune amen, komeni bada*”. <“Sarna fuera, ona barnera, gaixtoa kanpora! San Juan Bautista loriosoa, bakea eta osasuna hemen, komeni bada”>.





## DOMU SANTU / OMIASAINDU / SANTU GUZTIEN EGUNA

Azaroaren lehen eguna da Santu Guztien Eguna, «Omiasaindu» edo «Domu Santu» izenaz ezagutzen dena.

Lau izen nagusi eman izan zaizkio egun honi euskara mintzatuaren eremuan. **Domu Santu** eta honen aldaerak sartalde zabalean, Gipuzkoa ekialdea barne. **Santu Guztien Eguna**, Gipuzkoaren erdialdetik ekialdera, Nafarroarik gehienez, hartan ere. **Omiasaindu** eta honen aldaerak Iparraldean, Lapurdin eta Nafarroa Beherean oro har. Nafarroa ekialdean hurreko formak, **Domine Saindu**, batez ere. Eta Zuberoan, *Domesanthoe*, *Domesantoro*, *Domisainthore* aldaerak dira ezagunenak.

Latinez egun honi eman izan zaizkion izenak daude euskal izenen oinean, bazterreko bienen atzean: Domine Sanctorum eta Omnium Sanctorum.

«Domu Santu» izenak jatorrizko forma ezkututzen duten aldaerak ere bizirik ditu zenbait lekutan. Bizkaian ez ezik, baita Gipuzkoan eta Nafarroan ere. Hala:

- Arrietan (B): *Domu Santuru*.
- Gernikan eta Ispasterren (B): *Domurusanturu* (ikus DVEF).
- Eibarren (G): *Domurusantu*.
- Zestoako Arroan (G): *Domiesantu*.
- Berueten (N): *Domine Santure*.
- Erratzun (N): *Domine Saindure*.

Horietatik guztietatik, **Domu Santuru** eta **Domuru Santuru** dira idatzirako hautu diren formak.

«Omiasaindu» izenaren aldaeren artean, bi dira ezagunenak:

- Azkainen (L): *Umiasaindu*.
- Bardozen (L) eta Armendaritzen (NB): *Omiasendore*.

«Domu Santu» mugagabez gramatikatzen da sartaldean: «Zemendiaren lean da Domu Santu». Baina «egun» izenaz lagundurik ere erabiltzen da, hiztun berberen ahotik. Errigoitin (B), esaterako: *Domu Santuru egune*. <**Domu Santuru eguna**>.

\*\*\*

Santu Guztien Egunaren inguruan diren ohituren artean, honakoak bildu dira EHHako inkestetan:

— Ohiturarik hedatuena, etxeke eta senitarteko hurbilak ehortzirik dauden hilerrietara bisita egitea.

- Armendaritzen (NB), eguna hilerriz hilerri ibiltzeko eguna zela kontatu dute. Heldu eta adinekoak ez ezik, haurrak ere bai. Lekukoaren esanean: *Omiaseñdore eunaikin ilerriz ilherri iiltzen ginen otoitz iten... Emaiten'tzen sosa gero. Haurrak, tonbaz tonba iiltzen'tzinden, ta gio tonba hartako yabia han bazen, emaiten'tzautzun sosa, amar soseko'at edo bost soseko'at-edo... Eta bakizu, hala. Eta elizan berriz, azarako hilaite guzian mezati landa eoitzen ginden. Eztakit bate arrosoria edo ze iten gindien, "reküen" andana'atekilan, ta gio hilaitian undarrian ukeiten gindin sosa. <**Omiaseñdu egunarekin** hilerriz hilerri ibiltzen ginen otoitz egiten... Gero sosa ematen zen. Haurrak, **tonbaz tonba ibiltzen** ginen, eta gero tonba hartako jabea han bazen, sosa ematen zizun: **hamar soseko bat**, edo **bost soseko bat**-edo... Eta badakizu, hala. Eta elizan berriz, azaroko hilabete guztian mezik landa egoten ginen. Ez dakit batere arrosariorik edo zer egiten genuen, "requiem" andana batekin, eta gero hilabetearen hondarrean sosa edukitzen genuen>.*

— Santu Guztien Egunean elizara opilak eramateko ohitura ere izan da. Herri batzuetan horren testigantzaak jaso dira:

- Aramaion (A), herriko apaizari «olata» zeritzon opiltzoa erodateko ohitura bildu da: *Orduen lenau dirue gitxi eguen. Da abadien bisi bier euen da, orduen, baserrietan eite'sien olatak, opiltxuek... Da txakur andixe emon biarrien, lau-edo, bost-edo, xei-edo olata erodate'tzien abarieri. <Orduan lehenago dirua gutxi zegoen. Eta abadeak bisi behar zuen eta, orduan, baserrietan*

egiten ziren olatak, opiltxoak... Eta txakur handia eman beharrean, lau-edo, bost-edo, sei-edo **olata eramaten** zioten abadeari>.

• Urretxun (G), tradizio bera jaso da: *Gue amona zanak opillak eamate'zittun eliza jayero.* <Gure amona zenak **opilak eramaten** zituen elizara jayero>.

— Artzaintzari dagokionez, negu gorria laster zetorkeela jakinik, azaroaren lehena izaten zuten artzainek mendi eta goietatik beheetara jaisteko eguna. Hala bildu da leku batzuetan:

• Azpeitian (G): *Len esan oi zen, Dominen Santu eune artzayek menditik bajatzeko eune bezela ori. Garai orta ezkeo alde'i in ber dala. Negube dator ta artzayek-eta bera.* <Lehen esan ohi zen, **Domu Santu eguna** artzainak menditik bajatzeko ['jaisteko'] eguna bezala [zela] hori. Garai horretara ezker, alde egin behar dela. Negua dator, eta artzainak-eta behera>.

\*\*\*



Errefrau, errexitatu eta esaera batzuetan ere gorde da egun honen aipamena.

Laborantzari dagokion berariaz uzta-biltze garaia dela gogorarazten duen errefraua: «Santu Guzien Egunetik Eguerrietara haize ta euri gutxi, lekak ganbarara» (EY III 113).

Txerri-hiltzea ere orduantxe egiten dela gogora ekartzen digun errexitatu bat bada, Azkuek bildua, hauxe dioena: «Domuru Santuru, Santuru, txarri andi bat il dogu, buztana ez bestea yan dogu, bera lapikoan daukagu» (EY IV 305).

Emakumeen plazara edo jendartera agerrera nola izaten den urteko egun seinalatuetan aditzera ematen digute zenbait errefrauk. Horietariko bat, Asentsio eguna eta «Domu Santu» aipatzen dituen bat, Azkuek Gernikan edo Gernika inguruan bildu zuena: «Asentsio letaiñetan andrak andra andi, **Domusanturuetan** guztiak agiri» (EY III 153). Itzulitara ere esaten dena: «Domusanturuetan andrak andra handi, Asentsioko letainetan guztiak agiri» (EY III 1676).

Beste errefrau honek elizako erritu bat erakusten digu, argizariak bizturik edukitzea. Markinan (B) jaso izan zen: «Domuru Santurutan, arima pielak [‘fielak’] kandela argitan» (EZBB II 81).



## EGUBERRI / NATIBITATE

Kristautasunean, Jesus Umearen jaiotza abenduaren 25ean ospatzen bada ere, bezperatik, hogeita lauan, gauean, hasten da jaiotzaren ospakuntza, hots, Gabon gauean.

«Gabonak» edo «eguberriak» izenen bidez deitu izan zaio gabon-aldiari bere iraupen osoan. Bezpera gaua eta egun printzipala direnez, bi egunok zeinek bere

izen propioa hartu du: **Gabon**, edo «Gabon eguna» bezpera-egunak, eta **Eguberri** edo **Natibitate** egun nagusiak, Jesus Umearen jaiotza zelebratzen duten egunak.

Bai «Gabon» eta bai «Eguberri», eguna bera izendatzeko denean, mugagabez gramatikatzen dira: «Gaur Gabon eta biar Eguerri!» (*EuskAntz*); «Eguberri jin zen, bertze egunak oro jiten diren bezala» (*Murtuts*); eta hirugarren adibide bat: «Dringilin dron, gaur Gabon. / Gaur dala Gauon gaua, gaur dala Gauon, / gaur egiten xaku Xangoikoa gizon» (*Acto*).

Baina hiztunek aukeran erabiltzen dituzte izenok, «egun» izenaz lagundurik: **Gabon egun**, **Eguberri egun** edo **Natibitate egun**. Adibidea: «Abenduaren 25ean ezkondu ziran, Eguberri egunez» (*ArbZar*). Eta berdin «gau» izenaz ere: **Gabon gau** eta **Eguberri gau**.

Ekialdean abenduaren 24a izendatzeko «Eguberri gau» erabili izan da oro har: «O Eguberri gaua, / bozkariozko gaua» (*Noelak*). Baina Hegoaldean, «Gabon» izena nagusitu da, batez ere erdialdean eta sartaldean: «Iritxi zen Eguberri bezpera, Gabon eguna» (*DirG*).



Egun biak hartzen dituen ziklo osoa pluralez izendatzen da, lehentxoago adierazi bezala. Hala, **gabonak** eta **gabonetan** esaten da sartaldeko euskaran: «Gabonak dira urrian / da etxeratu bearrian, / gurasuakin apaldutzeko / oitura zarrian» (*Sasoia*). Eta **eguberriak** eta **eguberrietan**, erdialdetik ekialdera. Adibidez, Agirre Asteasukoren pasarte bat: «Kristau guziak iru pazkoetan bederik konfesatu ta komulgatu zitezela, au da eguerrietan, Pazkoa Loratuan, eta Espiritu Santuaren etorreran» (*Eracusaldiac* III).

«Gabon» eta «Natibitate» izenak direla eta, testigantza bi:

- Arrankudiagako Zollon (B): *Gabon, besperie da*. <Gabon, bezpera da>.
- Bolibarren (B): *Gabon egun(a)* ere esaten zaiola. Eta beste era honetara ere bai: *Natubittate'gunaren bezpera*. <**Natibitate egunaren bezpera**>.

\*\*\*

Zer jaten den Gabon gauean eta Eguberri egunean, honelaxe aditzera eman digute lekuko batzuek.

Gabon eguna, baina berariaz Gabon gaueko jatekoa izan da zelebratze-ardatz nagusia:

- Ibarrurin (B), gabon-afaria eta Natibitate eguneko bazkaria nola izaten zen, honela azaldu du lekukoak: *Neure familixegas ementxe. Gabon egunien ixete'san afarixe: leleko asie; orixo-asak. Makallaua, karakolak, turroie edo tostadak*. <Neure familiarekin hementxe. Gabon egunean izaten zen afaria: lehenengo, aza; **olio-azak. Bakailaoa, karakolak** ['barraskiloak'], **turroia** eta **tostadak**>.

Inkestagilea: *Intxaur-saltza?* <Intxaur-saltsa?>.

A lekukoa: *Bai. Eñ gendun intxaur-saltzie*. <Bai. Egin genuen **intxaur-saltsa**>.

Inkestagilea: *Ollarrik?* <Oillarrik?>.

A lekukoa: *Bai, Natibittate egunerako. Ollarra, garbantzue, fideo-sopie*. <Bai, Natibitate egunerako. **Ollarra, garbantzua, fideo-zopa**>.

- Berrizen (B), Gabon egunez egiten zen otorduaren berri eman digu lekukoak: *Gabon-jaixe besperan, intxaur-saltzie ta itten dienak-eta... Da sagarrakin indde, konpota. Da asa, orixo-ajak ero... Gero usaten san lena, makillaue saltzan. Da gero arroskoletxie be askok. <Gabon-jai bezperan, intxaur-saltsa eta egiten direnak-eta... Sagarrekin eginda, konpota. Eta aza, olio-ajak-edo... Gero usatzen zen lehenago, bakailaoa saltsan. Eta gero arroskoletxea [‘arroz-esnea’] ere askok>.*

Beste ohitura asko ere badira egun honi lotuak. Hala:

- Urretxun (G) berriemaileak kontatu du Natibitate egunean ama ohetik jaikitzen zela eta kandela baten argitan ohean zeuden etxeko guztiei pattarra, anisa, ematen ziela: *Gue etxen, Natibittat(e) eunen ama jeikitze’zan bakarrik goizen. Usarioa zan ori. Ta kandelia argiya, petrolio(rik) ez... Da pattarra emate’zien, oian danai; anixa. “Usario orri segi ber tzako”, esate’zon ark. <Gure etxean, Natibitate egunean ama jaikitzen zen bakarrik goizean. Usadioa zen hori. Eta kandela-argia [eskuetan zuela], pattarra ematen zien ohean denei; anisa. “Usadio horri segitu behar zaio”, esaten zuen hark>.*

- Eugin (N) ere, Eguberri bezperan sutara tronko nagusi bat ezartzeko ohitura azaldu da. Hona hemen eman den azalpena: *Eguarri bezperan paratzen zen sutan animaleko trunkue. “Zetako dakarrazie au?” Ia Urteberri euneraño irauten zuen. Urte zarrak ematen zion urte berriai bide ona. Sineste aundia zuten gure lenagokoak. <Eguberri bezperan paratzen zen sutan animaleko tronkoa. “Zertarako dakarzue hau?”. Ia Urteberri eguneraino irauten zuen. Urte zaharrak ematen zion urte berriari bide ona. Sineste handia zuten gure lehenagokoek>.*

\*\*\*

Errefrau, esamolde eta herri-jakintza gaietan oparoak dira berez eguberriak, nahiz EHHAKo inkesten emaitzak urri gertatu diren.

Eguberri egunez, etxean, supazterrean su iraunkorra egiteko ekandua gogoratzen digun errefrau bat bada, Oihenartek jasorik dakarrena: «Sua, Eguberriz sunpurreki; Pazkoz, aldiz, adarreki» (*ProvBasq* 4119). «Sunpurra»,

S. Pouvreaux bere hiztegian honela argiraten du: «**Eguerri gaueko sunpurra**», ‘enborra’, alegia.

Sartaldean, gabonetan sutondoan ipintzen den enborrari beste izen batzuk eman izan zaizkio. Izenik hedatuena, **gabon-subila**. Baina **Natibitate subila** ere ezaguna da: «Egin eginik aren gorputza Natibitate subila» (*Acto*).

Eguraldiaz loturiko errefrauak ere badira. Batek, neguko eguzki-biraren aldia eta argia luzatzen hastea iragartzen du, «Egubarri» eta «igarri» puntuaz josten dituela. Gipuzkoako Goierriin bildua da: «Eguarri, itxuk igarri» (AEF). J. Arakistainek, Itziarko (G) semeak, beste era honetara bildu zuen askoz lehenago: «Eguberri, zoroak ere igerri» (*SuplementosDL*).

Eguberrietako tenporak gogorarazten dituzte beste batzuek: «Eguberri bezperako gauerdin zer aize, urrengo tenporetaño aize ure» (*Garate* 3476); «Eguberri ondorengo lehenbiziko sei egunak nolako, urrengo urteko lehenbiziko sei illabeteak alako» (*Garate* 3482).

Janarien gorabeheran bada gabon- edo eguberri-aldi osoa hartzen duen errefrau edo errezitatu moduko bat. Halaxe diosku: «Gabon bon-bon, Natibitate ase ta bete, San Estebantxe bestetan lantxe». EHHAko inkestetan, Zegaman (G), hauxe bildu da: *Natibitate, ase ta bete*. <Natibitate, ase eta bete>.

Gabon egunez etxez etxe sari eskean ibiltzeko usadioari loturik dagoen errefraua dirudi aspaldiko batek ere: «Daukanak gabon, eztaukanari emon» (*PAb*). Sari eskean ibili ohi zirenei, gehienetan mutil gazteak, **gabonzaleak** zeritzen. Hala: «Gaur berandu datoz gabonzaleak» (*Euskal-Erria* aldizkaria, A.M. Zabala, 1889).

Esamolde bat, sartaldeko hizkeretan guztiz hedatua dena, gabonetako garaiari atxikia; mesede truke, mesedea egin duenari sari gisa esaten zaiona: «Auxe egistazu, ta gero..., gabonetan kerixak!» (AEF). Hau da, **gabonetan gereziak!**, euskara batuan.







# Eranskinak

## A. GLOSARIOA

### A

- abendu 1.2
  - abendu beltz 1.3
  - abendu handi 1.3
  - abendu txiker 1.3
  - abenduko hil 1.3
  - bigarren abendu 1.3
  - lehen abendu 1.3
  - lehenbiziko abendu 1.3
- abuztu 1.3
  - bigarren abuztu 1.3
- abuztuki 1.3
- agilando 3. (Urteberri)
- agor 1.3
- agorril 1.3
- agorrilki 1.3
- aingeru
  - aingeru-bilo 3. (Jondone Joane)
- aire
  - aire gaizto 3. (Erramu eguna)
- Aizaro 1.1
  - Aizaro Gau 1.1
- alababixi 3. (Pazko)
- alakainean 3. (Bestaberri)
- alba 2.1
  - alba gorri 2.1
- ama
  - ama besoetako 3. (Pazko)
  - Ama Birjina Abuztuko 1.3
  - Ama Birjina Martxoko 1.3
  - Ama Birjina Urriko 1.3
  - Ama Birjinaren egun 1.1
- amabixi 3. (Pazko)
- anarru 3. (Inauteria)
  - anarru jantzita egon 3. (Inauteria)
- andre
  - Andra Mari(a) Abuztuko 1.3
  - Andra Mari(a) Irailgo 1.3
  - Andra Mari(a) Martiko 1.2
  - Andra Mari(a) Martikotan 3. (Tenporak)
  - Andra Mari(a) Martikoz 1.3
  - Andre Mari(a) Martxoko 1.2
  - Andre Mari(a) Martxokoz 1.3
- Andredena
  - Andredena Maria Buruileko 1.3
  - Andredena Maria Martxoko 1.3
- anis 3. (Eguberri)
- Apalazio 3. (Errege eguna)
  - Apalazio egun 3. (Errege eguna)
  - Apalazioak 3. (Errege eguna)
- Aparizio 3. (Errege eguna)
- apiril 1.3
  - apiril biribil 1.3
- aratuste 3. (Inauteria)
  - aratuste-egun 3. (Inauteria)
  - aratuste-martitzen 1.1

arbi

**arbiak loretan** 3. (Pazko)

**ardagai** 3. (Pazko)

**ardagai-koskor** 3. (Pazko)

ardo

**ardo burrat** 3. (Pazko)

argi

**argi aitzin** 2.1

**argi gabe** 2.1

**argi handi** 2.1

**argia (hasi) gabe** 2.1

**argi-azkorri** 2.1

**argi-ezkila** 2.1

**argi-haste** 2.1

**argi-leinuru** 2.1

**argi-oskorri** 2.1

**argi-tirrinta** 2.1

**argi-urratze** 2.1

**argi-zirrinta** 2.1

**argialde** 2.1

**argisenti** 2.1

**argisentikoak jo** 2.1

argitu

**argitu baino lehen** 2.1

**argitu gabe** 2.1

**argitze** 2.1

**arramaiaz** 1.3

**arrastegi** 2.1

**arrasti** 2.1

**arrati on!** 2.2

**arrastiri** 2.1

**arrastiri apal** 2.1

**arrastiri berandu** 2.1

**arrastiri goiz** 2.1

**arrats** 2.1

**arratsalde** 2.1

**arratsalde apal** 2.1

**arratsalde berandu** 2.1

**arratsalde on!** 2.2

**arratsero** 2.1

arrautza

**arrautza biltzeko(a)** 3. (Inauteria)

**arrautza-egun** 3. (Pazko)

**arrautza-moleta** 3. (Hausterre)

arrosa

**arrosa-orri** 3. (Bestaberri)

**arrozkoletxe** 3. (Eguberri)

**artz** 3. (Inauteria)

aste

**Aste Santu** 1.1

**aste txiki** 3. (Hausterre)

**aste-akabu** 1.1

**astearen akabera** 1.1

**astearen akabu** 1.1

**astearen atzen** 1.1

**astearen azken** 1.1

**aste-atzen** 1.1

**aste-azken** 1.1

**aste-bukaera** 1.1

**aste-hondar** 1.1

**astearte** 1.1

**astearte inaute** 1.1

**astearte inauteri** 1.1

**astearte inauteriarekin** 3. (Inauteria)

**Astearte Saindu** 1.1

**asteazken** 1.1

**Asteazken Santu** 1.1

**Asteazken Saindu** 1.1

**asteburu** 1.1

**astegoien** 1.1

**astelehen** 1.1

**astelehen gorri** 1.1

**Astelehen Guren** 1.1

**astelehen inaute** 1.1

**Astelehen Saindu** 1.1

**Astelehen Santu** 1.1

asto

**astoen hilabete** 1.3

**astoil** 1.3

**axuri** 3. (Jondone Joane)

**azaro** 1.3

## B

**bagil** 1.3

bai

**bai eta zuri ere!** 2.2

baita

**baita zeuri ere!** 2.2

**baita zuri ere!** 3. (Urteberri)

**bakailao** 3. (Eguberri)

banda

**banda fin** 3. (Jondone Joane)

bankete

**banketea egin** 3. (Santa Ageda)

barau

**barau egin** 3. (Tenporak)

**barau-egun** 3. (Hausterre)

**baraurik eta oinutsik lasterka ibili** 3.  
(Jondone Joane)

**bariku** 1.1

**Bariku Guren** 1.1

**Bariku Kurutzeko** 1.1

**Bariku Santu** 1.1

**Basaratuste** 3. (Ostegun Gizen)

**Basatoste** 3. (Ostegun Gizen)

**Basokoipetsu** 3. (Ostegun Gizen)

**bazkalarate** 2.1

**bazkalaurre** 2.1

**bazkalondo** 2.1

**bazkalondore** 2.1

**bedatse** 1.2

belar

**belar berde** 3. (Bestaberri)

**belartsoro** 3. (Jondone Joane)

**belhaste** 1.2

**beltzil** 1.3

berendu

**berendu bat egin** 3. (Bestaberri)

**Berrogei** 3. (Garizuma)

**Berrogeikaro** 3. (Garizuma)

**Berrogeizaro** 3. (Garizuma)

**Bestaberri** 3. (Bestaberri)

**bildoski** 3. (Pazko)

bildots

**bildots pazkoetako(a)** 3. (Pazko)

bilo

**bilo poxiño bat** 3. (Kandelario)

**bilo puxka bat erre** 3. (Kandelario)

bost

**bost soseko bat** 3. (Domu Santu)

**botilero** 3. (Bestaberri)

buket

**buketa ezarri** 3. (Jondone Joane)

**buruil** 1.3

## C

**Corpus** 3. (Bestaberri)

**Corpus Christi** 3. (Bestaberri)

**Corpus Christi egun** 3. (Bestaberri)

**Corpus egun** 3. (Bestaberri)

**Corpusetan** 3. (Tenporak)

## D

**dagonil** 1.3

**daguenil** 1.3

**desgisatze** 3. (Inauteria)

diru

**diru-sari** 3. (Pazko)

**dizienbre** 1.3

**domeka** 1.1

Domine

**Domine Saindu** 3. (Domu Santu)

Domu

**Domu Santu** 3. (Domu Santu)

**Domu Santu egun** 3. (Domu Santu)

**Domu Santuru** 3. (Domu Santu)

**Domu Santuru egun** 3. (Domu Santu)

**Domu Santuruetan** 3. (Domu Santu)

**Domuru Santuru** 3. (Domu Santu)

Doniane

**Donianez** 3. (Jondone Joane)

## E

ebanjelio

**ebanjelio denborako haize** 3.  
(Erramu)

**ebiakoitx** 1.1

**Ebiakoitx Saindu** 1.1

**eguarde** 2.1

**eguazten** 1.1

**Eguazten Guren** 1.1

**Eguazten Santu** 1.1

**Eguazten Zuri** 1.1

**egubakoitz** 1.1

**Eguberri** 3. (Eguberri)

**Eguberri bezpera** 3. (Eguberri)

**Eguberri egun** 3. (Eguberri)

**Eguberri gau** 3. (Eguberri)

**Eguberri gaueko sunpur** 3. (Eguberri)

**eguberri(ak)** 3. (Eguberri)

**eguberrietan** 3. (Eguberri)

**Eguberriz** 3. (Eguberri)

**eguen** 1.1

**Eguen Gizen** 3. (Ostegun Gizen)

**Eguen Guren** 1.1

**Eguen Lardero** 3. (Ostegun Gizen)

**Eguen Santu** 1.1

**Eguen Zuri** 3. (Ostegun Gizen)

**Eguen Zuri egun** 3. (Ostegun Gizen)

**eguerdarte** 2.1

**eguerdate** 2.1

**eguerdi** 2.1

**eguerdi alde** 2.1

**eguerdi belu** 2.1

**eguerdi berandu** 2.1

**eguerdi iri** 2.1

**eguerdi-aurre** 2.1

**eguerdi-bitarte** 2.1

**eguerdi-eguerdi** 2.1

**eguerdi-ekzila** 2.1

**eguerdikoa jan** 2.1

**eguerdi-parte** 2.1

**eguerditan** 2.1

**eguerdiz** 2.1

**eguerdi-zeinu** 2.1

**eguerdiarte** 2.1

**eguerdiondo** 2.1

**eguerdioste** 2.1

egun

**egun on!** 2.2

**egun on daukala!** 2.2

**egun on Jangoikoak eman diezazula!** 2.2

**eguna argitu** 2.1

**eguna gabe** 2.1

**eguna zabaldu** 2.1

**egun-argi** 2.1

**egun-ikara** 2.1

**egun-punta** 2.1

**egun-txinta** 2.1

**egun-txirrinta** 2.1  
**egun-zabalera** 2.1  
**egundu** 2.1  
**egunabar** 2.1  
**egunabartu** 2.1  
**egunsenti** 2.1  
 egur  
     **egur sudun** 3. (Pazko)  
 eguzki  
     **eguzki zuri** 2.1  
     **eguzkiak leihoa harrapatu** 3.  
     (Jondone Joane)  
     **eguzki-sartze** 2.1  
 ehun  
     **ehunezko kamisa** 3. (Tenporak)  
**ekain** 1.3  
 eki  
     **ekia jaiki gabe** 3. (Jondone Joane)  
     **eki-jalgi(a)** 2.1  
     **eki-jalgitze** 2.1  
     **eki-sargia** 2.1  
     **eki-sartze** 2.1  
**elorri**  
     **elorri berri** 3. (Jondone Joane)  
     **elorri gorri** 3. (Jondone Joane)  
     **elorri zuri** 3. (Jondone Joane)  
     **elorri zuria eta urteko hurrizaren**  
     **adar bat ezarri** 3. (Jondone Joane)  
     **elorri-gurutze** 3. (Jondone Joane)  
**Emakunde** 3. (Ostegun Gizen)  
     **Emakunde egunez** 3. (Ostegun Gizen)  
**enero** 1.3  
**epail** 1.3  
**erauntsi** 3. (Jondone Joane)  
**ereiaro** 1.3  
**ereinotz** 3. (Erramu eguna)  
**Erramu** 3. (Erramu eguna)  
     **Erramu domeka** 3. (Erramu eguna)

**Erramu egun** 3. (Erramu eguna)  
**Erramu haize** 3. (Erramu eguna)  
**Erramu hosto** 3. (Jondone Joane)  
**Erramu igande** 3. (Erramu eguna)  
**Erramu larunbatez** 3. (Erramu eguna)  
**Erramu ostiralez** 3. (Erramu eguna)  
**Erramuko Domeka** 3. (Erramu eguna)  
**Erramuko Igande** 3. (Erramu eguna)  
 erreal  
     **erreal handiko txiki bi** 3. (Pazko)  
**Errege** 3. (Errege eguna)  
     **Errege bezpera** 3. (Errege eguna)  
     **Errege egun** 3. (Errege eguna)  
     **Errege Mago(ak)** 3. (Errege eguna)  
**Erregen** 3. (Errege eguna)  
     **Erregen adorazio** 3. (Errege eguna)  
     **Errege besta** 3. (Errege eguna)  
     **Erregen egun** 3. (Errege eguna)  
     **Erregen(ak)** 3. (Errege eguna)  
**eskale** 3. (Santa Ageda)  
**esperantzatu** 3. (Erramu eguna)  
 esperantza  
     **esperantzetan izan** 3. (Pazko)  
**estaka** 3. (Jondone Joane)  
**estandarte** 3. (Bestaberri)  
 etxekoandre  
     **etxekoandre mondongo** 3.  
     (Santa Ageda)  
 eutsi  
     **eutsi zaharra eta ekarzu berria!** 3.  
     (Pazko)  
**ezko** 3. (Erramu eguna)  
**ezpata** 3. (Jondone Joane)  
     **ezpata-belar** 3. (Bestaberri)

## F

**febrero** 1.3

fideo

**fideo-zopa** 3. (Eguberri)

**fot** 3. (Inauteria)

## G

**Gabon** 3. (Eguberri)

**gabon(ak)** 3. (Eguberri)

**Gabon egun** 3. (Eguberri)

**Gabon gau** 3. (Eguberri)

**Gabon subil** 3. (Eguberri)

**gabonetako hil** 1.3

**gabonetan** 3. (Eguberri)

**gabonetan gereziak!** 3. (Eguberri)

**Gabon-jai bezpera** 3. (Eguberri)

**gabonil** 1.3

**gabonzale** 3. (Eguberri)

**Gandelairu** 3. (Kandelario)

**garagaril** 1.3

garagar

**garagarraren aro** 1.3

**garagarraren hil** 1.3

**garagarril** 1.3

**garagarzaro** 1.3

gari

**gari-buru** 3. (Jondone Joane)

**garil** 1.3

**Garizuma** 3. (Garizuma)

garo

**garoarekin ilea orraztu** 3.  
(Jondone Joane)

gau

**gabon!** 2.2

**gau** 2.1

**gau min** 2.1

**gauaren erdian** 2.1

**gaueko hamabietan** 3. (Tenporak)

**gauerdi** 2.1

**gauerditan** 2.1

**gauerditik goiti** 2.1

gauertoste

**gauertostean** 2.1

**gaulehen** 2.1

**gaulehenetan** 2.1

**gaur** 2.1

**gausenti** 2.1

gaztaina

**gaztaina erreak eta intxaur batzuk bildu** 3. (Santa Ageda)

**gaztainazitu** 1.3

gerezi

**gerezi bat edo bi bueltan heldu** 3.  
(Jondone Joane)

**Gizakunde** 3. (Ostegun Gizen)

**Gizakunde egun** 3. (Ostegun Gizen)

**goiz** 2.1

**goiz berandu** 2.1

**goiz gaizto** 2.1

**goiz gorri** 2.1

**goizean goiz** 2.1

**goizean goizik** 2.1

**goizeko ihintza oinutsik hartu** 3.  
(Jondone Joane)

**goizera** 2.1

**goizetan goizik** 2.1

**goizetik hara** 2.1

**goiz-goizik** 2.1

**goiz-haste** 2.1

**goizik** 2.1

**goiz-ikara** 2.1

**goiz-parte** 2.1

**goiz-punta** 2.1

**goizabar** 2.1

**goizalde** 2.1

**goizaldi** 2.1

**goiznabar** 2.1  
**goizondo** 2.1  
**goiztiri** 2.1  
**goiztu** 2.1  
**Gorpuzti** 3. (Bestaberri)  
gorri  
    **gorri-gorri** 2.1  
gurutze  
    **gurutzeak ipini** 3. (Jondone Joane)

## H

haize  
    **haizeak nondik buhatu** 3.  
    (Erramu eguna)  
    **haizeak oratu** 3. (Tenporak)  
hala  
    **hala ekarri!** 2.2  
    **hala Jangoikoak emon!** 2.2 («Gabon!»  
    agurrari erantzunez)  
halaber  
    **halaber zuri ere!** 3. (Urteberri)  
hamabi  
    **hamabi arrautza jan** 3. (Pazko)  
hamar  
    **hamar soseko bat** 3. (Domu Santu)  
**Hauste** 3. (Hausterre)  
    **Hauste egun** 3. (Hausterre)  
**Hausterre** 3. (Hausterre)  
    **Hausterre egun** 3. (Hausterre)  
    **Hausterrez** 3. (Hausterre)  
hauts  
    **Hautsen Egun** 3. (Hausterre)  
    **Hautsen Egunean** 3. (Inauteria)  
**Hautsegun** 3. (Inauteria)  
**hazil** 1.3  
**hil** 1.3

**hil beltz** 1.3  
**hil zuri** 1.3  
**hila hilari erantsi ezinik** 1.3  
**hilaren akabera** 1.3  
**hilaren akabu** 1.3  
**hilaren atzen** 1.3  
**hilaren azken** 1.3  
**hilaren erdi** 1.3  
**hilaren goien** 1.3  
**hilaren lehen** 1.3  
**hilean-hilean** 1.3  
**hil-haste** 1.3  
**hilabete** 1.3  
**hilegun** 3. (Zotalegunak)  
**hilhatse** 1.3  
**hostazuri** 3. (Jondone Joane)  
**hotzaro** 1.3  
hurbil  
    **hurbilengo urte** 3. (Bestaberri)

## I

**igarande** 1.1  
**igarregun** 3. (Zotalegunak)  
**ihi** 3. (Bestaberri)  
    **ihiak batu** 3. (Bestaberri)  
**ilbeltz** 1.3  
**ilen** 1.1  
**iltxiki** 1.3  
**ilun** 2.1  
    **ilun iri** 2.1  
    **ilun-ertz** 2.1  
    **ilun-ezkila** 2.1  
    **ilun-ostantz** 2.1  
**ilunabar** 2.1  
    **ilunabar on!** 2.1  
**ilunabartu** 2.1

**ilunbista** 2.1  
**ilunde** 2.1  
**ilunkara** 2.1  
    **ilunkara on!** 2.1  
**ilunto** 2.1  
**iluntze** 2.1  
    **iluntze on!** 2.1  
**inaute** 3. (Inauteria)  
    **inaute bezpera** 3. (Inauteria)  
    **inaute-astelenez** 3. (Inauteria)  
    **inaute-igande** 3. (Ostegun Gizen)  
**inauteri** 3. (Inauteria)  
**intsentsu** 3. (Bestaberri)  
intxaur  
    **intxaurreta eta ardoa atera** 3.  
    (Errege eguna)  
    **intxaurretsa** 3. (Eguberri)  
**inusturi** 3. (Jondone Joane)  
**irail** 1.3  
    **irail-urri(ak)** 1.2  
**iraztor** 3. (Jondone Joane)  
**istantza** 2.1  
**itxindi** 3. (Jondone Joane)  
**Ixi(a)** 3. (Pazko)  
izar  
    **izar-ihintz** 3. (Jondone Joane)  
**izotzil** 1.3

## J

**jai** 1.1  
Jainko  
    **Jainko onak dagizula egun on!** 2.2  
    **Jainkoak gabon dizula!** 2.2  
**janbun** 3. (Pazko)  
Jangoiko  
    **Jangoikoak deigula emon!** 2.2

(«Gabon!» agurrari erantzunez)

Jaun

**Jauna patente** 3. (Bestaberri)

joare

**joare-jotze** 3. (Errege eguna)

Jondone Joane

**Jondone Joanen bilo** 3. (Jondone Joane)

**Jondone Joanesen bizar** 3. (Jondone Joane)

**Jondone Joanez** 3. (Jondone Joane)

**jorrail** 1.3

jostaketa

**jostaketan** 3. (Bestaberri)

**julio** 1.3

**junio** 1.3

## K

**kalitxa** 3. (Jondone Joane)

**kandela** 3. (Kandelario)

**Kandelario** 3. (Kandelario)

**Kandelario egun** 3. (Kandelario)

**kandelarioetan** 3. (Kandelario)

**karnabal** 3. (Inauteria)

**kartagiltz** 3. (Tenporak)

**karta** 3. (Tenporak)

**kartatenpora(k)** 3. (Tenporak)

**katuil** 1.3

**kloerre** 3. (Erramu eguna)

**koko** 3. (Inauteria)

**koko jantzi** 3. (Inauteria)

**kokomarro** 3. (Inauteria)

**kokomarroak jantzita egun** 3.  
(Inauteria)

kuriketa

**kuriketan** 3. (Bestaberri)

## L

**labaka** 3. (Santa Ageda)  
**Lardero** 3. (Ostegun Gizen)  
    **Lardero egun** 3. (Ostegun Gizen)  
**larrazken** 1.2  
**larri** 3. (Santa Ageda)  
**larunbat** 1.1  
    **Larunbat Guren** 1.1  
    **Larunbat Handi** 1.1  
    **Larunbat Saindu** 1.1  
    **Larunbat Santu** 1.1  
**lastail** 1.3  
**latsatze** 3. (Santa Ageda)  
**Lerdo** 3. (Ostegun Gizen)  
    **Lerdo egun** 3. (Ostegun Gizen)  
lizar  
    **lizar-adar** 3. (Jondone Joane)  
    **lizar-hosto** 3. (Jondone Joane)  
**loil** 1.3  
**lorail** 1.3  
**lotazil** 1.3  
**lukainka** 3. (Inauteria)  
    **lukainka pare** 3. (Inauteria)  
    **lukainka puska** 3. (Inauteria)

## M

mahats  
    **mahats-biltze** 1.2  
    **mahats-xirmendu** 3. (Hausterre)  
maiatz  
    **maiatz luze** 1.3  
    **maiatzeko loreen hil** 1.3  
mandozar  
    **mandozarretan** 3. (Bestaberri)

**marrakuku** 3. (Pazko)  
**marti** 1.3  
    **marti-oilar** 1.3  
**martitzen** 1.1  
    **atzeko martitzen** 1.1  
    **Martitzen Guren** 1.1  
**martxo** 1.3  
**mehe** 3. (Ostegun Gizen)  
    **mehe egin** 3. (Tenporak)  
    **mehe eta barau egun** 3. (Tenporak)  
    **mehe-egun** 3. (Garizuma)

mendi  
    **mendi-mutur** 3. (Pazko)  
**menudo** 3. (Inauteria)  
**mihilu** 3. (Bestaberri)  
**mokanes** 3. (Erramu eguna)  
**mokots** 3. (Pazko)  
**moleta** 3. (Pazko)  
**morrodo** 3. (Errege eguna)  
mutxikin  
    **mutxikin bat eman eta sutara bota** 3.  
    (Pazko)  
**muxaranga** 3. (Inauteria)  
    **muxaranga jantzi** 3. (Inauteria)

## N

**Natibitate** 3. (Eguberri)  
    **Natibitate egun** 3. (Eguberri)  
    **Natibitate egunaren bezpera** 3.  
    (Eguberri)  
    **Natibitate subil** 3. (Eguberri)  
negu  
    **negu beltz** 1.2  
    **negu gogor** 1.2  
    **negu latz** 1.2  
    **negu min** 1.2

**negu tzar** 1.2  
**negu-aitzin** 1.2  
**negu-akabantza** 1.2  
**neguaren bihotz** 1.2  
**negu-aurren** 1.2  
**negu-azken** 1.2  
**negu-haste** 1.2  
**negu-hondar** 1.2  
**negu-lehen** 1.2  
**negu-neguan** 1.2  
**negu-parte** 1.2  
**neguantz** 1.2  
**neguil** 1.3  
**neguri** 1.2  
**negute** 1.2  
     **negute luze** 1.2  
**negutu** 1.2  
**neskegun** 1.1  
**neskenegun** 1.1  
**nobienbre** 1.3

## O

**ogi**  
     **ogi bedeinkatu** 3. (Pazko)  
     **ogi eta ardo** 3. (Jondone Joane)  
     **ogi-epaite** 1.3  
**oilarite** 2.1  
**oilar** 3. (Eguberri)  
**oilo** 3. (Inauteria)  
**okela**  
     **okela-bulda** 3. (Hausterre)  
**olata** 3. (Domu Santu)  
**olio**  
**olio-aza(k)** 3. (Eguberri)  
**omeleta** 3. (Inauteria)  
**Omiainsandu** 3. (Domu Santu)

**Omiainsandu egunarekin** 3.  
 (Domu Santu)  
**ope** 1.3  
**opeil** 1.3  
**opil** 3. (Pazko)  
     **opila eta baba** 3. (Errege eguna)  
**Orokunde** 3. (Ostegun Gizen)  
**orriaro** 1.3  
**orril** 1.3  
**ortozik**  
     **ortozik zelaian bueltaka ibili** 3.  
 (Jondone Joane)  
**ortzegun** 1.1  
     **Ortzegun Gizen** 3. (Ostegun Gizen)  
     **Ortzegun Gizen egun** 3. (Ostegun Gizen)  
     **Ortzegun Saindu** 1.1  
**ortzirale** 1.1  
     **Ortzirale Saindu** 1.1  
**ortziri**  
     **ortziri eta hodeietan piztu** 3.  
 (Kandelario)  
**osagarri**  
     **osagarri on batekin!** 3. (Urteberri)  
**oskorri** 2.1  
**ostantz** 2.1  
**ostaro** 1.3  
**ostegun** 1.1  
     **Ostegun Gizen** 3. (Ostegun Gizen)  
     **Ostegun Gizen egun** 3. (Ostegun Gizen)  
     **ostegun inaute** 1.1  
     **Ostegun Santu** 1.1  
**ostiral** 1.1  
     **bi ostiral igaro** 1.1  
     **Ostiral Flako** 3. (Ostegun Gizen)  
     **Ostiral Santu** 1.1  
**ostrantz** 2.1  
**otoño** 1.2

otsail 1.3  
otubre 1.3

## P

**palio** 3. (Bestaberi)  
**papogorri** 3. (Pazko)  
**pattar** 3. (Eguberri)  
**Pazko** 3. (Pazko)  
    **Pazko astelehenarekin** 3. (Pazko)  
    **Pazko bezpera** 3. (Pazko)  
    **Pazko bigarren** 3. (Pazko)  
    **Pazko domeka** 3. (Pazko)  
    **Pazko egin, Erramu baino lehen** 3.  
    (Erramu eguna)  
    **Pazko egun** 3. (Pazko)  
    **Pazko goiz** 3. (Pazko)  
    **Pazko larunbat** 1.1  
    **Pazko zahar** 3. (Errege eguna)  
    **pazko(ak)** 3. (Pazko)  
    **pazko-bildots** 3. (Pazko)  
    **pazkoetan** 3. (Pazko)  
    **Pazkotik Pazkora** 3. (Pazko)  
**pella** 3. (Inauteri)  
**pinta**  
    **pinta ardo** 3. (Bestaberi)  
**pipa**  
    **pipa fumatu eta kea gora bota** 3.  
    (Tenporak)  
**piper**  
    **piper-opil** 3. (Inauteria)  
**primadera** 1.2  
**puska** 3. (Inauteria)  
    **puska-biltze** 3. (Inauteria)  
    **puskak bildu** 3. (Inauteria)

## S

**sagar**  
    **bi sagar handi** 3. (Errege eguna)  
**sagara** 3. (Erramu eguna)  
    **sagarako haize** 3. (Erramu eguna)  
**San Juan**  
    **San Juan Bagileko** 3. (Jondone Joane)  
    **San Juan belar** 3. (Jondone Joane)  
    **San Juan bezpera** 3. (Jondone Joane)  
    **San Juan biharamunez** 3. (Jondone  
    Joane)  
    **San Juan egun** 3. (Bestaberi)  
    **San Juan egunez** 3. (Jondone Joane)  
    **San Juan goiz** 3. (Jondone Joane)  
    **San Juan hil** 1.3  
    **San Juan su** 3. (Bestaberi)  
    **San Juan txorta** 3. (Jondone Joane)  
    **San Juanez** 3. (Jondone Joane)  
    **San Juantxu** 3. (Jondone Joane)  
    **sanjuanetako hil** 1.3  
**San Miguel**  
    **sanmigeletan** 3. (Tenporak)  
**San Pedro**  
    **San Pedro Bagileko** 1.3  
**San Simon**  
    **San Simon eta San Juda egun** 1.3  
**Santa Agata** 3. (Santa Ageda)  
    **Santa Agataz** 3. (Inauteria)  
**Santa Ageda** 3. (Santa Ageda)  
    **Santa Ageda bezpera** 3. (Santa Ageda)  
**Santa Ana**  
    **Santa Ana hil** 1.3  
    **santanetako hil** 1.3  
**santaeskale** 3. (Santa Ageda)  
**santaeske**  
    **santaeskean** 3. (Santa Ageda)

Santiago

**Santiago hil** 1.3

**Santiago egun** 1.3

**santiago(ak)** 1.3

**santiagoetako hil** 1.3

**santibate** 3. (Inauteri)

**santibate egin** 3. (Inauteri)

santu

**Santu Guztien Egun** 3. (Domu Santu)

**sarrena** 3. (Jondone Joane)

**Sasikoipetsu** 3. (Ostegun Gizen)

**Sasikoipetsu egun** 3. (Ostegun Gizen)

senti

**senti-sentian** 2.1

**setienbre** 1.3

sineste

**sineste eli bat** 3. (Jondone Joane)

soro

**soro-hegal** 3. (Jondone Joane)

**sortelegun** 3. (Kandelario)

sos

**sosak eman** 3. (Pazko)

su

**su berri** 3. (Pazko)

**su berria barnera ekarri** 3. (Pazko)

**su berria egin** 3. (Pazko)

**su zaharra kanpora aurtiki** 3. (Pazko)

**su zaharra kendu** 3. (Pazko)

**sua kanbiatu** 3. (Pazko)

**subasta** 3. (Bestaberri)

supazter

**supazterreko sua** 3. (Pazko)

**sutoki** 3. (Jondone Joane)

## T

tanto

**tanto bat jo** 3. (Bestaberri)

teilatu

**teilatuaren punta** 3. (Tenporak)

**teilatura igo** 3. (Tenporak)

**tenpesta** 3. (Erramu eguna)

**tenpesta izan** 3. (Erramu eguna)

**tenpora(k)** 3. (Tenporak)

**tilistaro** 1.3

tiro

**tiroa egin** 3. (Jondone Joane)

tonba

**tonbaz tonba ibili** 3. (Domu Santu)

**torrada** 3. (Inauteria)

**tortxa** 3. (Kandelario)

**tortxari pota eman** 3. (Kandelario)

**tostada** 3. (Eguberri)

**tostada-egun** 3. (Inauteria)

Trinidad

**trinidadeetan** 3. (Tenporak)

**tripaki** 3. (Inauteri)

**tripakiak gosald** 3. (Inauteria)

**tripot** 3. (Inauteria)

**tripotak eta lukainkak bildu** 3. (Inauteria)

tronko

**alimaleko tronko** 3. (Eguberri)

**Trufania** 3. (Errege eguna)

**Trufania egun** 3. (Errege eguna)

**Turuturu** 3. (Inauteria)

**Turuturu egun** 3. (Inauteria)

**txantxo** 3. (Inauteria)

**Txantxo egun** 3. (Inauteria)

**txantxo jantzi** 3. (Inauteria)

**txantxo-jantziekin joan** 3. (Inauteria)

txistor

**txistor-mistor** 3. (Ostegun Gizen)

## U

**uda** 1.2

**uda ala negu** 1.2

**uda bete** 1.2

**uda eta negu** 1.2

**uda labur** 1.2

**uda luze** 1.2

**uda min** 1.2

**uda-haste** 1.2

**uda-bihotz** 1.2

**uda-denbora** 1.2

**uda-erdi** 1.2

**uda-garai** 1.2

**uda-hasiera** 1.2

**uda-negu(ak)** 1.2

**uda-parte** 1.2

**udaberri** 1.2

**udaberriko ziza** 1.3

**udagoien** 1.2

**udaitzin** 1.2

**udakail** 1.2

**udalehen** 1.2

**udara** 1.2

**udate** 1.2

**udatse** 1.2

**udatzen** 1.2

**udaurre** 1.2

**udaurren** 1.2

**udazken** 1.2

**udondo** 1.2

ur

**ur bedeinkatu** 3. (Pazko)

**urri** 1.3

**bigarren urri** 1.3

**urri bigarren** 1.3

**urri bigarren** 1.3

**urri lehenengo** 1.3

**urri lehenengo** 1.3

**urria aurreko** 1.3

**urria osteko** 1.3

**urriaro** 1.3

**urrieta** 1.2

**urrietan** 1.2

**urri** 1.3

**urtarril** 1.3

**urtarril beltz** 1.3

**Urtats** 3. (Urteberri)

**Urtats egun** 3. (Urteberri)

**Urtats on!** 3. (Urteberri)

**Urteberri** 3. (Urteberri)

**Urteberri egun** 3. (Urteberri)

**Urteberri on!** 3. (Urteberri)

urtzain

**Urtzain Gizen** 3. (Ostegun Gizen)

**uzta** 1.3

**uztail** 1.3

**uztaro** 1.3

## X

xarnafera

**xarnaferaren egin** 3. (Jondone Joane)

xingar

**xingar eta arrautza ibili** 3. (Inauteria)

xirmendu

**xirmenduzko su** 3. (Jondone Joane)

## Z

zaldun

**zaldun aratuste** 3. (Inauteria)

**zapatu** 1.1

zapo

**zapoak eta sugeak erre** 3. (Jondone Joane)

**zemendi** 1.3

**zezeil** 1.3

zezin

**zezin-zati** 3. (Santa Ageda)

zigarro

**zigarroa erreaz zer haize datorren**

**ikusi** 3. (Tenporak)

**zimitorio** 3. (Errege eguna)

zomorro

**Zomorro Txiki** 3. (Ostegun Gizen)

**zotalegun** 3. (Zotalegunak)

**zurtoin** 3. (Jondone Joane)

## B. MAPA-ZENBAKIEN ZERRENDA

### 270. mapa

astelehena, ilena → LUNES / LUNDI / MONDAY

### 271. mapa

asteartea, martitzena → MARTES / MARDI / TUESDAY

### 272. mapa

asteazkena, eguaztena → MIÉRCOLES / MERCREDI / WEDNESDAY

### 273. mapa

osteguna, ortzeguna, eguena → JUEVES / JEUDI / THURSDAY

### 274. mapa

ostirala, ortziralea, barikua → VIERNES / VENDREDI / FRIDAY

### 275. mapa

larunbata, zapatua, ebiakoitza → SÁBADO / SAMEDI / SATURDAY

### 276. mapa

igandea, domeka, jaia → DOMINGO / DIMANCHE / SUNDAY

### 278. mapa

uda, udara → VERANO / ÉTÉ / SUMMER

### 279. mapa

udazkena, larrazkena, udagoiena → OTOÑO / AUTOMNE / AUTUMN

### 280. mapa

negua → INVIERNO / HIVER / WINTER

### 281. mapa

udaberria, primadera, bedatsea → PRIMAVERA / PRINTEMPS / SPRING

### 282. mapa

hila, hilabetea → MES / MOIS / MONTH

### 283. mapa

urtarrila, ilbeltza, izotzila, loila → ENERO / JANVIER / JANUARY

### 284. mapa

otsaila, zezeila, barantaila, katuila → FEBRERO / FÉVRIER / FEBRUARY

### 285. mapa

martxoa, martia, epaila → MARZO / MARS / MARCH

### 286. mapa

apirila, jorrraila → ABRIL / AVRIL / APRIL

**287. mapa**

maiatza → MAYO / MAI / MAY

**288. mapa**

ekaina, bagila → JUNIO / JUIN / JUNE

**289. mapa**

uztaila, garagarrila, garila → JULIO / JUILLET / JULY

**290. mapa**

abuztua, agorrrila → AGOSTO / AOÛT / AUGUST

**291. mapa**

iraila, buruila, agorra → SEPTIEMBRE / SEPTEMBRE / SEPTEMBER

**292. mapa**

urria, urrieta, lastaila → OCTUBRE / OCTOBRE / OCTOBER

**293. mapa**

azaroa, zemendia, hazila → NOVIEMBRE / NOVEMBRE / NOVEMBER

**294. mapa**

abendua, gabonila → DICIEMBRE / DÉCEMBRE / DECEMBER

**299. mapa**

asteburua, astegoiena, aste-bukaera, aste-akabua → FIN DE SEMANA / FIN DE SEMAINE / WEEKEND

**309. mapa**

egunsentia, argi-hastea, goiznabarra → ALBA / AUBE / DAWN

**310. mapa**

goizaldea, goizean goiz → MADRUGADA / GRAND MATIN / EARLY MORNING, WEE HOURS OF THE MORNING

**311. mapa**

goiza → LA MAÑANA / MATINÉE / MORNING

**312. mapa**

eguerdia → MEDIODÍA / MIDI / NOON

**313. mapa**

arratsaldea, arrastia → LA TARDE / APRÉS-MIDI / AFTERNOON

**314. mapa**

iluntzea, ilunabarra → ATARDECER / SOIR / EVENING

**315. mapa**

gaua → NOCHE / NUIT / NIGHT

**316. mapa**

gauerdia → MEDIANOCHE / MINUIT / MIDNIGHT

**317. mapa**

egun on! → FÓRMULA DE SALUDO (8 H) / FORMULE DE SALUT (8 H) / FORM OF GREETING (8 H)

**318. mapa**

arratsalde on!, arrasti on! → FÓRMULA DE SALUDO (12 H) / FORMULE DE SALUT (12 H) / FORM OF GREETING (12 H)

**321. mapa**

gabon! → FÓRMULA DE SALUDO (20 H) / FORMULE DE SALUT (20 H) / FORM OF GREETING (20 H)

**342. mapa**

Urteberri → AÑO NUEVO / LE JOUR DE L'AN / NEW YEAR

**343. mapa**

Errege eguna, Erregen eguna → EPIFANÍA / EPIHANIE, FÊTE DES ROIS / EPIPHANY, TWELFHT NIGHT

**344. mapa**

zotalegunak, hilegunak → CABAÑUELAS / 12 PREMIERS JOURS DE L'ANÉE / FISRT 12 DAYS OF THE YEAR

**345. mapa**

Kandelario, Gandelairu → CANDELARIA / CHANDELEUR / CANDLEMAS

**346. mapa**

Santa Ageda, Santa Agata → SANTA ÁGUEDA / STE. AGATHE / ST. AGATHA'S

**347. mapa**

inauteria, karnabala, aratustea → CARNAVAL / CARNAVAL / CARNIVAL

**348. mapa**

Ostegun Gizen, Eguen Zuri → JUEVES GORDO / JEUDI GRAS / SHROVE THURSDAY

**349. mapa**

Hausterre, Hauste, Hautsegun → MIÉRCOLES DE CENIZA / MERCREDI DES CENDRES / ASH WEDNESDAY

**350. mapa**

Garizuma → CUARESMA / CARÊRE / LENT

**351. mapa**

Erramu (eguna) → DOMINGO DE RAMOS / DIMANCHE DES RAMEAUX / PALM SUNDAY

**352. mapa**

Pazko → PASCUA DE RESURRECCIÓN / PÂQUES / EASTER

**353. mapa**

Bestaberri, Gorpuzti, Corpus → CORPUS CHRISTI / FÊTE DIEU / CORPUS CHRISTI

**354. mapa**

tenporak, kartatenporak → TÉMPORAS / QUATRE-TEMPS / EMBER DAYS

**355. mapa**

Jondone Joane, Doniane, San Juan → SAN JUAN / FÊTE DE LA ST. JEAN / MIDSUMMER DAY

**357. mapa**

Domu Santu, Omiasaindu, Santu Guztien Eguna → TODOS LOS SANTOS / TOUSSAINT / ALL SAINTS' DAY

**358. mapa**

Eguberri, Natibitate → NAVIDAD / NOËL / CHRISTMAS

# Bibliografia

## A. OINARRIA

EUSKALTZAINDIA (2008-2020). *Euskararen herri-hizkeren atlasa* (EHHA). I-XI liburukiak. Bilbo.

- Lexikoa: I, II, III, IV, VIII, IX, X eta XI. liburukiak.
- Izen-morfologia: V. liburukia.
- Aditz-morfologia: VI. liburukia.
- Izen-morfologia eta sintaxia: VII. liburukia.

## B. ITURRI OSAGARRIAK

AGIRRE, Domingo «Txomin Agirre» (1898). *Auñemendiko lorea*. Bilbo.

— (1906). *Kresala*. Durango.

— (1912). *Garoa*. Durango.

AGIRRE, Juan Bautista «Agirre Asteasuko» (1803). *Confesioco eta Comunioco sacramentuen gañean eracusaldia*. Tolosa.

— (1850). *Eracusaldia*. I, II eta III liburukiak. Tolosa.

AGIRREBEÑA, Aintzane eta ELEXPURU, Juan Martin (2014). *Elorrixoko berbetia*. Elorrio.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egileen izenak jarriz aipatu dira.

AIERBE, Felipe (1916). «Erasa tajutubak», *Euskal-Esnalea* 1916: 143-146.

AIRE, Fernando «Xalbador» (1976). *Odolaren mintzoa*. Tolosa.

ALTZOLA GEREDIAGA, Nikolas «Bitaño» (1967). *Atalak*. Zarautz.

- AMPUERO, J.M. (1909). *Necazariyen cartillachua*. Bilbo.
- ANDUAGA, Graziano (1961). *Aitonaren uzta. Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin*. Zarautz. (Fr. L. Villasanteren edizioa).
- (1965). *Bertso-bilduma*. Tolosa. (Fr. L. Villasanteren edizioa).
- ANUARIO DE EUSKO FOLKLORE (1921-...). Gasteiz eta Donostia.
- AÑIBARRO, Pedro Antonio (1803). *Lora sorta espirituala, ta propositu santuac vicitza barri bat eguiteco*. Tolosa.
- (1821). *Esku-liburua*. Tolosa.
- ARAKISTAIN, Jose (1881). *Suplementos al «Diccionario trilingüe» del P. Larramendi*. Bartzelona.
- ARANA, Aitor (2001). *Zaraitzuko hiztegia*. Iruñea.
- ARANTZAZUKO ANDRE MARIAREN EGUTEGIA (1947-...). Oñati.
- AREJITA, Adolfo (1983). «Domigo Egikori gorazarre kantua», *Litterae Vasconicae: Euskeraren Iker Atalak 2*, 1983: 137-181.
- ARIN, Jose Otxoa de (1713). *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itcegutendan moduan*. Donostia.
- ARRESE, Emeterio (1952). *Olerki berrizte*. Zarautz.
- ARRESE BEITIA, Felipe (1900). *Ama Euskeriaren liburu kantaria*. Bilbo.
- ARRIZABALO, Jose Manuel eta ZABALA, Antonio (1979). *Baso-mutillak*. Tolosa.
- ARRUE, Gregorio (itzle.) (1882). *Santa Genovevaren vicitza. Antziñaco denboretaco condaireren ederrenetaco bat*. Tolosa.
- (1888). *Mayetzeco ill edo Birgina chit santari consagratutaco mayetzeco illa*. Tolosa.
- (1897). *Bearguillearen argia*. Tolosa.
- ARXU, Jean B. (1852). *Uskara eta franzes gramatika, uskalherrietaco haurrentzat egina*. Baiona.
- ASTARLOA, Pedro (1816-1818). *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac*. I (1816) eta II (1818). Bilbo.
- AXULAR, Pedro (1643). *Guero*. Bordele.
- AZKUE, Eusebio M.<sup>a</sup> (1896). *Parnasorako bidea*. Bilbo.

- AZKUE, Resurrección M.<sup>a</sup> (1898). *Txirristadak*. Bilbo.  
 — (1905-1906). *Diccionario vasco-español-francés*. Bilbo.  
 — (1916). *Diccionario español y vasco*. Bilbo.  
 — (1918). *Ardi galdua*. Bilbo.  
 — (1919?). *Cancionero popular vasco*. Bartzelona.  
 — (1925). *Morfología vasca*. Bilbo.  
 — (1931). «Particularidades del dialecto roncalés», *Euskera* 1931.  
 — (1935-1947). *Euskalerriaren yakintza*. I, II, III eta IV. Madril.

AZPEITIA, Agurtzane (2003). *Zestoarren erretolika*. Zestoa.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egilearen izenak jarritz aipatu dira.

AZPIROZ, Jose (1988). *Arbol zarraren kimuak*. Donostia.

BARANDIARAN, Bizente (1995). *Lanik gabe ezin bizi*. Oiartzun.

BARANDIARAN, Joxe Migel (1934). *Euskalerriko Leen-Gizona*. Donostia.

BARRIOLA, Abelino (1935). *Goi-argi*. Donostia.

BARRUTIA, Pedro Ignazio (c. 1715). *Acto para la Nochebuena*. (Edizio facsimilea: Tolosa, 1983).

BAYONACO DIOCESACO BI-GARREN CATICHIMA. [...] P. GUILLAUME DE LAVIEUXVILLE  
 BAYONACO JAUN APHEZPICUAREN MANUZ IMPRIMATUA (1733). Baiona.

BELAPEIRE, Athanase (1696). *Catechima laburra*. Paue.

BELOKI, Juan Jose, ELOSEGI, Jesus, SANSINENEA DE ELOSEGI, Pilar eta MITXELENA, Luis (1953). «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés», BAP 1953.

BEOBIDE, Krispin (1885). *Asisco Loria*. Tolosa.

BERBATEGIA-EUSKALKIEN ALTXORTEGIA ataria.  
 [www.berbategia.eus].

BERIAIN, Juan (1621). *Tratado de cómo se ha de oyr missa*. Iruñea.

BERRIATUA, Imanol (1963-64). «Bermeoko arraintzaleen leksikua», *Euskera* 1963-64.

BERTSOLARI TXAPELKETA (1965-1-1). Auspoa Liburutegia bilduma, XLIII. Tolosa, 1965.

BERTSOLARIEN TXAPELKETA (30-XII-1962). Auspoa Liburutegia bilduma, XXII. Tolosa, 1963.

BILBAO, Felix (1959). *Ipuin-barreka*. Bilbo.

BIZKARRONDO, Indalezio «Bilintx» (1962). *Bertso ta lan guziak*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa).

BUSTINTZA, Ebatisto «Kirikiño» (1918). *Abarrak*. I. Abando.

— (1930). *Abarrak*. II. Zornotza.

CATICHIMA [...] CHARLES AUGUSTE LE QUIEN DE LANEUFVILLE, AQUICECO JAUN APEZPICU OSSOQUI ILLUSTRE ETA OHOREGARRIAREN MANUZ ARAIMPRIMATIA (c. 1780). Akize.

CUADERNOS DE ETNOLOGÍA Y ETNOGRAFÍA DE NAVARRA (1969-...). Iruñea.

DE LA FUENTE, Juan Kruz eta Antonio «Durangoko Zidarginak» (1984). *Durangoko Plateroak*. Durango. (A.M.<sup>a</sup> Aldekoaotoloraren edizioa).

DUHALDE, Martin (1809). *Meditacioneac gei premiatsuenen gainean*. Baiona.

DUVOISIN, Jean (1858). *Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren gainean*. Baiona.

— (1858). Bibliaren itzulpena. (Bilbo, 1972).

— (c. XIX. mendearen amaieran). «Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia.

EGIATEGI, Jusef (1785). *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekbeia*. (Tx. Peillenen edizioa: Bilbo, 1983).

EIBARKO UDAL ORDENANTZAK (1755) (*Ordenanzas Municipales de la villa de Eibar*).

ELEXPURU, Juan Martin (1985). *Bergara aldeko lexikoa*. (Argitaragabea).

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egilearen izena jarriz aipatu dira.

ELIZALDE, Jean «Zerbitzari» (1925 eta 1927). «Metsikorat», *Gure Herria* (1925 eta 1927)). (Atalka argitaratua).

— (1995). *LVII.a Gerlan*. (P. Urkizuren edizioa: Donostia, 1995).

ELIZANBURU, Michel (1890). *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako Hirur Errepubliken ichtorioa laburzki*. Baiona.

ENBEITA RENTERIA, Kepa «Urretxindorra» (1971). *Gure Urretxindorra. Enbeitatar Keparen bertso-lanak osorik. Aita Onaindiak bilduma eta itzaurrea*. Buenos Aires.

ERIZKIZUNDE IRUKOITZA galdetegia. *Euskera* 1925-1926.

ESTORNES LASA, Jose (1968). *Erronkariko uskara*. Donostia.

ETXAGARAI, Jose Bizente (1964). *Festara. Bere bertso guzrien bilduma*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa).

ETXAIDE, Ana Maria (1989). *El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas (1965-1967)*. Donostia.

ETXANIZ, Nemesio (1958). *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari*. Zarautz.  
— (1967). *Lur berri bila*. Donostia.

ETXEBARNE, Erramun (1989). *Erramun harginaren oroitzapenak*. Auspoa Liburutegia bilduma, CXCVIII. Donostia.

ETXEARRIA, Toribio (1966). *Lexicón del euskera dialectal de Eibar*. Bilbo.  
— (1967). *Ibiltarixanak*. Zarautz.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egilearen izena jarriz aipatu dira.

ETXEBERRI, Joanes «Etxeberri Ziburuko» (1665). *Eliçara erabiltceco liburua*. Bordele.  
— (1697). *Noelac eta berce canta espiritual berriac*. Baiona.

ETXEITA, Jose Manuel (1909). *Josetxo*. Durango.

ETXEMENDI, Paul eta LAFITTE, Pierre (1980). *Kantuz. Recueil de 120 chansons populaires basques*. (Paroles et musique par Paul Etchemendy et Pierre Lafitte). Donostia.

ETXEPARE, Jean (1910). *Buruchkak*. Lekorne-Aldude.  
— (1931). *Beribilez*. Baiona.

ETXEPARE, Jean Baptiste (1963). *Mendekoste gereziak eta beste*. Baiona.

EUSKALTZAINDIA (1987-2005). *Orotariko euskal hiztegia*.  
[<https://www.euskaltzaindia.eus/>].

EUSKO FOLKLORE. MATERIALES Y CUESTIONARIOS (1921-...). Gasteiz eta Donostia.

FORMULAIRE DE PRÔNE EN LANGUE BASQUE (1866). Baiona eta Londres. (1651ko *Pregariac Bayonaco Diocezacotzen* L.L. Bonaparteren berrinprimatzea).

GAMINDE, Iñaki eta SALTERAIN, Mila (1992). *Abadiño lexikoaz*. Abadiño.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egileen izenak jarriz aipatu dira.

— (2000). *Zamudio berbarik berba*. Bilbo.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egilearen izena jarriz aipatu dira.

— (2001). *Arrieta berbarik berba*. Bilbo.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egilearen izena jarriz aipatu dira.

GANDIAGA, Bitoriano (1956). «Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz», *Euskera* 1956.

GARATE, Gotzon (1988). *Erdarakadak*. Bilbo.

— (1998). *Atsotizak. Refranes. Proverbs. Proverbia*. Bilbo.

GARMENDIA, Txomin (1983). *Bordaberriko gozo-mikatzak*. Auspoa Liburutegia bilduma, CLXX. Tolosa.

GARRO, Bernardo «Otxolua» (1932). *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak*. Bilbo.

GERRIKAGOITIA, Tomas (2000). *Arantza eta larrosa*. Oiartzun.

GERRIKO, Jose Ignazio (c. 1805). *Cristau doctriña guztiaren esplicacioaren sayaquera*. I eta II. Tolosa.

HARANEDER, Joannes (c. 1740). *Iesu-Christo gure Iaunaren Testament Berria*. Baiona.

HARRIET, Maurice (c. xix. mendearen amaieran). «Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia.

HUALDE MAYO, Prudentzio (c. xix. mendearen erdialdean). *Jesu Cristo gore Jainaren Evangelio Saindua segun San Mateoc*. (J. Urkijoren edizioa: RIEV 1934).

ILLARRAMENDI, Ramon (1918). *Testimonio falsoa. Jostirudi negargarri eta pozgarria. Egintza bat eta iru kuadroetan moldatua*. Donostia.

INTZA, Damaso (edo Migel Olasagarre) (1928). «Esaera zarrak», *Euskera* IV, 1928: 259-280.

— (1963-1964). «Esaera zarrak», *Euskera* VIII-IX, 1963-1964: 143-178.

— (1974). *Naparroako euskal esaera zarrak*. Iruñea.

IRAIZOZ, Polikarpo (edo Agustin Zarranz) (1934). *Yesukristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itz atera ta*. Iruñea.

ITURZAETA, Andres (1899). *Aita Gaspar Asteteren icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac*. Durango.

IZAGIRRE, Kandido (1959). «Erronkariko euskal ondakin batzuk», BAP 1959.

— «Ultzamako euskeraren gai batzuk», BAP 1966.

— (1970). «El vocabulario vasco de Aránzazu-Oñate», ASJU 1970.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egilearen izena jarriz aipatu dira.

IZETA, Mariano (1962). *Dirua-galgarri*. Donostia.

— (1985). «Baztango hiztegi ttipia», *Euskera* 1985.

— (1997). *Baztango hiztegia*. Iruñea.

IZTUETA, Juan Ignazio (1824). *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren soñu zar, eta itz neurtu edo versoquin*. Donostia.

— (1847). *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia*. Donostia.

— (1978). *Iztuetaren olerkiak*. Tolosa. (J. Garmendiaren edizioa).

JESUSEN BIHOTZ SAKRATUAREN ALDERAKO DEBOÇONEAREN EXERÇIÇIO IZPIRITUALAC, ARRIMATUAC BAYONACO DIOÇESAN ALTCHATUA DEN KONFARDIOAREN USAÏAKO (1831). Baiona.

JOANNATEGI, Basile (1890). *Sainduen bizitzea. Lehen zatia*. Baiona.

— (1900). *Sainduen bizitzea. Bigarren zatia*. Paue.

KAPANAGA, Martin Otxoa de (1656). *Exposición breve de la doctrina christiana*. Bilbo.

KARDABERAZ, Agustin (1761). *Eusqueraren berri onac*. Iruñea.

KARMENGO AMAREN EGUTEGIA (1951-1956). Zornotza.

LAFITTE, Pierre (1945). *Murtuts eta bertze... Artho churitzetako zonbait ichtorio chabar*. Baiona.

LAKARRA, J.A. (1983). *Euskal baladak. Azterketa eta antologia*. Donostia.

— (1985). «Zarauzko bulda», in *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Gasteiz.

LANDUCCIO, Nicolao (1562). *Dictionarium Linguae Cantabrigae*.

LARDIZABAL, Francisco Ignazio (1855). *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira*. Tolosa.

LARRAMENDI, Manuel (1729). *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada*. Salamanca.

— (1745). *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia.

LARRASKET, Jean (1939). *Le Basque de la Basse-Soule Orientale*. Paris.

LARRE, Émile (2001). *Ene Artzain-etxolak*. Oiartzun.

LARREGI, Bernard (1775-1777). *Testamen Zaharreco eta Berrico historia*. I (1775) eta II (1777). Baiona.

LARZABAL, Pierre (1962). *Iru ziren*. Tolosa.

LAZARRAGA (Pérez de), Juan (c. 1564). *Eskuizkribua*. (G. Bilbao Telletxea, R. Gómez López, J.A. Lakarra Andrinua, J. Manterola Agirre, C. Mounole eta B. Urgell Lázaren edizioa: *Lazarragaren eskuizkribua. Edizioa eta azterketa*. Filologia eta Hizkuntzalaritza Saila bilduma, XXIII. UPV/EHU).

LEIZARRAGA, Joanes (1571). *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*. Arroxela.

LES PRIÈRES DU PRÔNE EN BASQUE (DIALECTE SULETIN), PUBLIÉES PAR MGR. ARNAULD-FRANÇOIS DE MAYTIE (1676). (A. d'Abbadieren edizioa: Baiona, 1874).

LIZARRAGA, Joakin «Lizarraga Elkanoko» (1802). *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac*. (A.P. Iturriagaren edizioa: Donostia, 1846).

— (1803). *Doctrina Christioarén cathechima. I. Fede Christioarén gáin*.

MAISTER, Martin (1757). *Jesu-Kristen imitacionia. Çuberouaco uscarala, herri beraurtaco apheç bateç [...] utçulia*. Paue.

MARTÍNEZ DE LA CUADRA, Alberto (2006). *Nabarniztarren berbakera. Lexikoa eta erabilera-adibideak*. Bilbo.

\*Liburu honetatik ateratako ahozko testigantzak euskara batura ere ekarrita daude. Egilearen izena jarritz aipatu dira.

MATERRE, Esteban (1617). *Doctrina Christiana Aita Esteve Materre San Franciscoren Ordenaco fraideak eguina*. Bordele.

MELENA, Jose Luis (arg.) (1985). *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*. Gasteiz.

MENDIGATXA, Mariano (1903-1915). «Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue», *Euskera* 1957. (A. Irigoienen edizioa).

MITXELENA, Koldo (1964). «Refranes de Isasti» (§ 3.3.3), *Textos arcaicos vascos*. Colección Biblioteca Vasca, VIII. Madril.

— (1964). «Escrituras de Andramendi» (§ 3.2.9), *Textos arcaicos vascos*. Colección Biblioteca Vasca, VIII. Madril.

— (1972). *Mitxelenaren idazlan hautatuak*. Bilbo.

- (1985). *Lengua e historia*. Madril.
- MITXELENA, Salvatore (1949). *Arantzazu. Euskal sinismenaren poema*. Oñati.
- MOGEL, Bizenta (1804). *Ipui onac*. Donostia.
- MOGEL, Juan Antonio (1800). *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac*. Iruñea.
- (1803). *Confesino ona*. Gasteiz.
- (1881). *Peru Abarka*. Durango.
- (c. 1791). *Christinaubaren eracuspena edo doctrina christiania*. (Derioko eskuizkribua). Oharra: *Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristiania* izenburuaz ere ezagutua. (Arantzazuko eskuizkribua, Fr. L. Villasanteren edizioa: Bilbo, 1987).
- MOGEL, Juan Jose (1816). *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidia, guraso justu, ta jaquitun familia ondo azi ebeeneen exemplu ta eracutsijetan*. Bilbo.
- MOKOROA, Baleriano (1897). *Damuba garaiz, edo bertuteric gabeco aberastasuna iñoiz ez da eguizco zoriontasuna*. Tolosa.
- MOKOROA, Justo Maria (1990). *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones vascas*. Bilbo.
- MOULIER, Jules «Oxobi» (1966). *Oxobiren lan orhoitgarri zonbait*. Baiona.
- MUJICA, Gregorio (1927). *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi eta gertaerak*. Donostia.
- MUNITA, Inozenzio (1952). *Zuaizti berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*. Tolosa.
- NARBAITZ, Pierre «Arradoi» (1966). *San Frantses Jatsukoa*. Donostia.
- OIHENART, Arnauld (1657). *Les proverbes basques, recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur*. Paris. (Edizio facsimilea: RIEV 1935: 201-264 eta 665-728).
- (1657). «(O.-ten) gastarua neurthizetan». (*Les proverbes basques obrak barne hartua*). (P. Lafonen edizioa: «Traduction française des poésies d'Oihenart [...]», BAP 1955).
- OLAIZOLA, Manuel «Uztapide» (1976). *Sasoia joan da gero*. Tolosa.
- OLEA, Inozenzio (1970). *Goierriko lorak*. Auspoa Liburutegia bilduma, XCVIII eta XCIX. Tolosa.
- ONDARRA, Frantzisko (1965). «Voces vascas de Bacaicoa», BAP 1965.

- ORMAETXEA, Nikolas «Orixe» (1950). *Euskaldunak*. Donostia.
- ORTUZAR, Errobusten (1925). *Oroigarriak. Bermeoko arrantzaleen bizikeraz eraturiko antzerkiak*. Bermeo.
- OSTOLAIZ, Mariano (2000). *Senda-belarrak*. Oiartzun.
- PETRIARENA, Juan Francisco «Xenpelar» (1969). *Xenpelar bertsolaria*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa).
- POUVREAU, Silvain (XVII. mendearen erdialdean). «Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia.  
— (c. 1660). *Iesusen Imitacionea*. (Donostia, 1979).
- ROS, Migel (c. 1616). Migel Ros Erronkaribarreko alkatearen gutunak, Gabriel d'Etchart Zuberoako prokuradoreari bidaliak.
- SAINT-PIERRE, Jean (1984). «Ikusiak», *Egan* 1984.
- SALLABERRI, Jean Dominique (1870). *Chants populaires du Pays Basque. Paroles et musique originales, recueillies et publiées, avec traduction française*.
- SAN MARTIN, Juan (1960). *Zirikadak. Ipuin barregarridun liburua*. Zarautz.
- SATRUSTEGI, Jose Maria (1987). *Euskal testu zaharrak*. (I). Iruñea.  
— (1991). «Miscelánea de textos antiguos vascos», FLV 1991. (Horren barruan: “Canción de Azcoitia de 1566”).
- SOROA, Martzelino (1880). *Gabon. Jostirudia euscara nastuban eta eguintza bacarran*. Donostia.  
— (1886). *Baratzan*. (A. Zabalaren edizioa: Tolosa, 1962).
- TARTAS, Jean (1666). *Oña hilceco bidia*. Ortheze.  
— (1672). *Arima penitentaren occupatione devotaq*. Ortheze.
- TOPET, Pierre «Etxahun» (1969-1970). «L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun», *Euskera* 1969-1970. (J. Haritschelharren edizioa).
- URIARTE, Jose Antonio (1850). *Marijaren illa edo maijatzeco illa*. Bilbo.
- URKIJO, Julio (1911-1933). «Los refranes y sentencias de 1596: estudio comparativo», RIEV 1911-1933. (*Refranes y sentencias comunes en bascuence, declarados en romance*). (J.A. Lakarraren edizioa: Bilbo, 1996).
- URTE, Pierre d' (c. 1715). «Frantsesa-euskara» eskuizkribu-hiztegia.

USCARA LIBRU BERRIA (c. 1837). Oloroe.

ZABALA ETXEBERRIA, Antonio «Aita Zabala» (1964). *Amar urteko bertso-pauperak* (1954-1963). Auspoa Liburutegia bilduma, XXXIX. Tolosa.

— (1982 eta 1985). *Jan-edanaren bertsoak*. I (1982) eta II (1985). Auspoa Liburutegia bilduma, CLIV eta CLV. Tolosa.

— (1985). *Esaera zaarren bilduma berria*. I eta II liburukiak. Auspoa Liburutegia bilduma, CLXXXIV eta CLXXXV. Tolosa.

ZAMARRIPA, Paulo (1913). *Manual del vascófilo*. Bilbo.

ZAPIRAIN, Salvador «Ataño» (1979). *Txantxangorri kantaria*. Tolosa.

ZENDOIA, Nikolas (1998). *Beranduko birigarroa*. Auspoa Liburutegia bilduma, CCLIV. Oiartzun.

ZUBIAUR, Jose Ramon eta ARZAMENDI, Jesus (1976). «Él léxico vasco de los refranes de Garibay», ASJU 10, 1976: 47-144.

ZUBIRI, Enrike «Manezaundi» (1958). *xx. mendeko Nafarroako euskal idazlariak. Selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri*. Iruñea. (A. Irigaraireren edizioa).

ZUBIZARRETA, Juan Maria (1969). *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905)*. Tolosa. (A. Zabalaren edizioa).

## C. LABURDURAK

- [Abarrak I] → *Abarrak*. (1918).  
[Abarrak II] → *Abarrak*. (1930).  
[Acto] → *Acto para la Nochebuena*.  
[AEF] → *Anuario de Eusko Folklore*.  
[AGald] → *Ardi galdua*.  
[Aierbe] → *Erasa tajutubak*.  
[AitUzta] → *Aitonaren uzta. Gezaltzako aitonaren kontakizun eta bertsoekin*.  
[Aizkolariak] → *Aizkolariak eta beste ipui asko*.  
[AL] → *Auñemendiko lorea*.  
[AmaE] → *Ama Euskeriaren liburu kantaria*.  
[AmarUrt] → *Amar urteko bertso-paperak (1954-1963)*.  
[Amezketarra] → *Pernando Amezketarra. Bere ateraldi eta gertaerak*.  
[Andramendi] → *Escrituras de Andramendi*.  
[Arantzazu] → *Arantzazu. Euskal sinismenaren poema*.  
[ArantzFolk] → *Arantzazuko folklore-gaien biltzeaz*.  
[ArantzLar] → *Arantza eta larrosa*.  
[ArbZar] → *Arbol zarraren kimuak*.  
[Arima] → *Arima penitentaren occupatione devotaq*.  
[ArtzainE] → *Ene Artzain-etxolak*.  
[ArxGram] → *Uskara eta franzes gramatika, uskalherrietaco haurrentzat egina*.  
[AsL] → *Asisco Loria*.  
[Atalak] → *Atalak*.  
[AzkRonc] → *Particularidades del dialecto roncalés*.  
[Bakaiku] → *Voces vascas de Bacaicoa*.  
[Balad] → *Euskal baladak. Azterketa eta antologia*.  
[Baratzan] → *Baratzan*.  
[BArgia] → *Bearguillearen argia*.  
[BasoM] → *Baso-mutillak*.  
[BBirigarroa] → *Beranduko birigarroa*.  
[Belapeire] → *Catechima laburra*.  
[Ber] → *Beribilez*.  
[Berbategia.eus] → *Berbategia-Euskalkien altxortegia*.  
[Berg] → *Bergara aldeko lexikoa*.  
[Bermeo] → *Bermeoko arraintzaleen leksikua*.  
[Bertolda] → *Bertoldaren maltzurkeri zurrak eta Bertoldinen txaldankeri barregarriak*.

- [BertsoB] → *Bertso-bilduma*.
- [BertsTxapel62] → *Bertsolarien txapelketa (30-XII-1962)*.
- [BertsTxapel65] → *Bertsolari txapelketa (1965-1-1)*.
- [BHizt1] → *Baztango hiztegi ttipia*.
- [BHizt2] → *Baztango hiztegia*.
- [BordaB] → *Bordaberriko gozo-mikatzak*.
- [Buruxkak] → *Buruchkak*.
- [CancAzc] → *Canción de Azcoitia de 1566*.
- [CatLan] → *Catichima [...] Charles Auguste Le Quien de Laneufville, Aquiceco Jaun Apezpicu ossoqui Illustre eta Oboregarriaren manuz araimprimatia*.
- [CEEN] → *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra*.
- [CG] → *Corografía o descripción general de la M. N. y M. L. Provincia de Guipúzcoa*.
- [ChantP] → *Chants populaires du Pays Basque. Paroles et musique originales, recueillies et publiées, avec traduction française*.
- [ContR] → *Contribución al conocimiento del dialecto roncalés*.
- [CPV] → *Cancionero popular vasco*.
- [Damuba] → *Damuba garaiz, edo bertuteric gabeco aberastasuna iñoiz ez da eguizco zoriontasuna*.
- [DEgiko] → *Domingo Egikori gorazarre kantua*.
- [DirG] → *Dirua-galgarri*.
- [DT] → *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*.
- [DurPl] → *Durangoko Plateroak*.
- [DuvBibItzulp] → (Duvoisinen) Bibliaren itzulpena.
- [DuvHizt] → (Duvoisinen) «Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia.
- [DVE] → *Diccionario español y vasco*.
- [DVEF] → *Diccionario vasco-español-francés*.
- [EBO] → *Eusqueraren berri onac*.
- [EE] → *Cristau eracastle euscalduna*.
- [EF] → *Eusko Folklore. Materiales y Cuestionarios*.
- [EgutAr] → *Arantzazuko Andre Mariaren egutegia*.
- [EHHA] → *Euskararen herri-hizkeren atlasa*.
- [EI] → *Erizkizunde irukoitza*.
- [EibOrd] → *Eibarko Udal Ordenantzak*.
- [EL] → *Esku-liburua*.
- [ELG] → *Euskalerriko Leen-Gizona*.
- [ElizLib] → *Eliçara erabiltceco liburua*.
- [Erakusaldiak] → *Eracusaldiac*. (Ostean datorren zenbakia, liburukiari dagokio).
- [Erakuspena] → *Christinaubaren eracuspena edo doctrina christiania*.

- [Erdarakadak] → *Erdarakadak.*
- [ErronkOndak] → *Erronkariko euskal ondakin batzuk.*
- [ErronkUsk] → *Erronkariko uskara.*
- [Eskolia] → *Baseerritaar nequezaleentzaco escolia edo icasbidiac, guraso justu, ta jaquitun familija ondo azi ebeneen exemplu ta eracutsijetan.*
- [EsZah I] → *Esaera zarrak.* (1928).
- [EsZah II] → *Esaera zarrak.* (1963-1964).
- [Etxahun] → *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun.*
- [Etxebarne] → *Erramun harginaren oroitzapenak.*
- [ETZ] → *Euskal testu zaharrak.*
- [Euskaldunak] → *Euskaldunak.*
- [EuskAntz] → *Euskal antzerkiak. Kontu-kontari.*
- [EY] → *Euskalerrriaren yakintza.* (Liburukia aipatzen ez denean, III. liburukiari dagokio, eta zenbakia, erreferuari).
- [EZBB] → *Esaera zaarren bilduma berria.*
- [FedeChrist] → *Doctrina Christioarén cathechima. I. Fede Christioarén gáin.*
- [Festara] → *Festara. Bere bertso guzien bilduma.*
- [FPrBN] → *Formulaire de prône en langue basque (1866).*
- [FPrZub] → *Les prières du prône en basque (dialecte suletin), publiées par Mgr. Arnauld-François de Maytie (1676).*
- [Framazonak] → *Framazonak (bigarren edizioa) eta Frantziako Hirur Errepubliken ichtorioa laburzki.*
- [Garate] → *Atsotitzak. Refranes. Proverbs. Proverbia.*
- [Garibai] → *E. Garibaien erreferuari-bilduma.* (Ostean datozen A eta B letrek, kodexei erreferentzia egiten diete, eta horien alboan datorren zenbakiak, erreferuari).
- [Garoa] → *Garoa.*
- [GD] → *Guipuzcoaco dantza gogoangarrien condaira edo historia beren soñu zar, eta itz neurtu edo versoquin.*
- [Genoveva] → *Santa Genovevaren vicitza. Antziñaco demboretaco condaireren ederrenetaco bat.*
- [Gero] → *Guero.*
- [GK] → *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia.*
- [Goi] → *Goi-argi.*
- [GoierLor] → *Goierriko lorak.*
- [Haraneder] → *Iesu-Christo gure Iaunaren Testament Berria.*
- [Harriet] → *«Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia.*
- [Hual] → *Jesu Cristo gore Jainaren Evangelio*
- [Ikusiak] → *Ikusiak.*
- [ImposVenc] → *El imposible vencido. Arte de la lengua bascongada.*

- [IO] → *Ipui onac.*
- [IpuinB] → *Ipuin-barreka.*
- [Iru] → *Iru ziren.*
- [Isasti] → *Isastiren errefrau-bilduma.*
- [Iturzaeta] → *Aita Gaspar Asteteren icasbide cristinaucorraren azalduera laburrac.*
- [IztOlerk] → *Iztuetaren olerkiak.*
- [JanEd] → *Jan-edanaren bertsoak.*
- [JesBih] → *Jesusen Bihotz Sakratuaren alderako deboçionearen exerçiço izpiritualac, arrimatuac Bayonaco dioçesan altchatua den konfardioaren usaïako (1831).*
- [Josetxo] → *Josetxo.*
- [Jostirudia] → *Gabon. Jostirudia euscara nastuban eta eguintza bacarran.*
- [Kantuz] → *Kantuz. Recueil de 120 chansons populaires basques.*
- [Kapanaga] → *Exposición breve de la doctrina christiana.*
- [KatLav] → *Bayonaco Diocesaco Bi-garren Catichima. [...] P. Guillaume de Lavieuxville Bayonaco Jaun Aphezpicuaren manuz imprimatua.*
- [KK] → *Confesio ta comunioco sacramentuen gañean eracasteac.*
- [KKE] → *Confesioco eta Comunioco sacramentuen gañean eracusaldiaç.*
- [KO] → *Confesino ona.*
- [Kresala] → *Kresala.*
- [Lab] → *Laborantzako liburua edo bi aita semeen solasak laborantzaren gainean.*
- [Landuccio] → *Dictionarium Linguae Cantabricae.*
- [LanikGabe] → *Lanik gabe ezin bizi.*
- [Lardizabal] → *Testamentu Zarreco eta Berrico condaira.*
- [Larrasket] → *Le Basque de la Basse-Soule Orientale.*
- [Larregi] → *Testamen Zaharreco eta Berrico historia.*
- [Lazarraga] → *Lazarragaren eskuizkribua.*
- [LBB] → *Lur berri bila.*
- [LengHist] → *Lengua e historia.*
- [LexicEibar] → *Lexicón del euskera dialectal de Eibar.*
- [LS] → *Lora sorta espirituala, ta propositu santuac vicitza barri bat eguiteco.*
- [Mai] → *Mayetzeco ill edo Birgina chit santari consagratutaco mayetzeco illa.*
- [Maister] → *Jesu-Kristen imitacionia. Çuberouaco uscarala, herri beraurtaco apheç bateç [...] utçulia.*
- [ManVascf] → *Manual del vascófilo.*
- [MarII] → *Marijaren illa edo maijatzeco illa.*
- [Materre] → *Doctrina Christiana Aita Esteve Materre San Franciscoren Ordenaco fraideak eguina.*
- [Mendekoste] → *Mendekoste gereziak eta beste.*
- [Mendigatxa] → *Cartas de Mariano Mendigacha a D. Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue.*

- [MendTx] → «Mendaro Txirristaka» bertsolaria.
- [Metsikorat] → *Metsikorat*.
- [MIH] → *Mitxelenaren idazlan hautatuak*.
- [MRos] → Migel Ros Erronkaribarreko alkatearen gutunak, Gabriel d'Etxart Zuberoako prokuradoreari bidaliak.
- [Munita] → *Zuai izti berriak antolatu, ta lengoak zaintzeko zuzenbide batzuek*.
- [Murtuts] → *Murtuts eta bertze... Artho churitzetako zombait ichtorio chabar*.
- [NavEncLing] → *El euskera en Navarra. Encuestas lingüísticas (1965-1967)*.
- [NekazKart] → *Necazariyen cartillachua*.
- [NEZ] → *Naparroako euskal esaera zarrak*.
- [Noelak] → *Noelac eta berce canta espiritual berriac*.
- [OA] → *Doctrina Christianaren explicacioa Villa Franca Guipuzcoaco onetan euscaraz itzeguitendan moduan*.
- [OdolMintz] → *Odolaren mintzoa*.
- [OE] → *Ortik eta emendik. Repertorio de locuciones vascas*.
- [OEH] → *Orotariko euskal hiztegia*.
- [OihPo] → *Gastaroa neurthizetan*.
- [OlBe] → *Olerki berrizte*.
- [Onsa] → *Onsa hilceco bidia*.
- [Oroigarriak] → *Oroigarriak. Bermeoko arrantzaleen bizikeraz eraturiko antzerkiaz*.
- [Ox] → *Oxobiren lan orhoitgarri zombait*.
- [PAb] → *Peru Abarka*.
- [PB] → *Parnasorako bidea*.
- [Pouvreau] → «Euskara-frantsesa» eskuizkribu-hiztegia.
- [ProvBasq] → *Proverbes basques, recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur*.
- [RS] → *Refranes y sentencias comunes en bascuence, declarados en romance*.
- [SBi I] → *Sainduen bizitzea. Lehen zatia*.
- [SBi II] → *Sainduen bizitzea. Bigarren zatia*.
- [Senda-belarrak] → *Senda-belarrak*.
- [SFran] → *San Frantses Jatsukoa*.
- [SLMSO] → *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*.
- [SP-Imit] → *Iesusen Imitacionea*.
- [SuplementosDL] → *Suplementos al «Diccionario trilingüe» del P. Larramendi*.
- [TB] → *Iesus Christ gure Iaunaren Testamentu Berria*.
- [Testimonio] → *Testimonio falsoa. Jostirudi negargarri eta pozgarria. Egintza bat eta iru kuadroetan moldatua*.
- [TxanKan] → *Txantxangorri kantaria*.
- [Txirristadak] → *Txirristadak*.

- [UDB] → *Urteco domeca gustijetaraco verbaldi icasbidecuac.*
- [UltzGai] → *Ultzamako euskeraren gai batzuk.*
- [Urretxindorra] → *Gure Urretxindorra. Enbeitatar Keparen bertso-lanak osorik.*
- [Urte] → *«Frantsesa-euskara» eskuizkribu-hiztegia.*
- [UrtIgande] → *Urteco igande guztietaraco platicac edo itzaldiac.*
- [UskLiB] → *Uscara libru berria.*
- [VocBasc] → *Voces bascongadas diferenciales de Bizcaya, Guipúzcoa y Navarra.*
- [XenpBerts] → *Xenpelar bertsolaria.*
- [YKBiz] → *Yesukristo gure Yaunaren bizia lau Ebangelioetatik itzez-itz atera ta.*
- [ZarHizt] → *Zaraitzuko hiztegia.*
- [Zirikadak] → *Zirikadak. Ipuin barregarri-dun liburua.*
- [Zubiri] → *xx. mendeko Nafarroako euskal idazlariak. Selección de narraciones, crónicas y artículos de Enrique Zubiri.*
- [ZubizBerts] → *Juan Maria Zubizarreta bertsolaria (1855-1905).*





